Estatu Batuetan, antibiotikoak hartzeaz gainera, behiei eta ardiei hormonak ematen aritu dira 1950eko hamarkadatik<sup>199</sup>; zehazki, hazkuntzaren ratioa eta eraginkortasuna areagotzeko produktuak, zeinek estradiola, progesterona, testosterona, zeranola, melengestrol azetatoa eta trenbolona azetatoa baitaukate. Lehen hirurak animalia-gorputzek ekoizten dituzten hormona endogenoen bertsio sintetikoak dira. Zeranola mikoestrogeniko sintetiko mota bat da, zearalenona mikoestrogeno “natural”aren antzekoa, *Fusarium* familiako onddoek sortua.

---

<sup>199</sup> 1960an, etxeko edo eskortako hegaztien hazkuntzan hormonak erabiltzea debekatu zuen FDAk (Watkins, Clark eta Thaxton, 2012).



Melengestrol azetatoa hazkuntzarako estimulatzaile esteroide sintetiko bat da, eta behien araldia sinkronizatzeko ere erabiltzen da. Trenblona azetatoa esteroide anabolizatzaile bat da, merkatu beltzean erraz aurkitu daitekeena; kulturistek erabiltzen dute, eta behien hazkuntza areagotzeko ere baliatzen da (FDA, 2017b). Halako droga hormonalak belarrien atzeko larruazalean inplante dermikoak jarrita ematen dira.

Estatu Batuetako Electronic Code of Federal Regulation (2019) araudian, 21. tituluko 1. kapituluko 522. atalean bakarrik animalia ez-gizatiarren tratamendurako 190 droga edo farmako injektagarri<sup>200</sup> aipatzen dira; adibide batzuk ematearren, amoxizilina, sulfachlorpyridazina, sulfamethazina, oxitetraziklina, penizilinak, ceftiofur klorhidratoa –antibiotikoak–, artsenamida –txakurren infekzio parasitarioak tratatzeko artsenikoa–, ketamina eta propofola –anestesikoak–, tripeleminamina –antihistaminikoa–, tiopentatoa eta pentobarbitala –barbiturikoak–, fenilbutazona eta meloxicama –antiinflamatorio ez-esteroideak–, methocarbamola –giharretarako lasaigarria–, intsulina, oxitozina, hormona luteinizatzailea, kortikotropina, kortikosteroidea eta desoxikortona –hormonalak–. Horietaz gainera, “Food additives” atalean, disruptore endokrinoak daude; adibidez, polietilenglicol 400 (PEG-400) delakoa. Bestalde, farmakook ekoizten dituzten enpresen artean ditugu Pfizer, Inc., Bayer AG, American Pharmaceuticals and Cosmetics, Inc., AquaBounty Technologies, Inc. edo Lloyd, Inc. (Electronic Code of Federal Regulations, 2019).

Baina segi dezagun hormonekin. Behien hazkuntzarako hormona birkonbinatzailea (rBGH, behi-somatotropina birkonbinatzailea edo rBST izenez ere ezaguna) lortzeko, behiek endogenoki ekoizten duten hormona bat kopiatzen da ingeniariaritzaren bidez: behi-somatropina (BST) edo behien hazkuntzarako hormona (BGH). Monsanto fabrikatu eta merkaturatu zuen, 1993tik aurrera, Posilac® izenarekin, eta, 2008an, Ely Lilly & Co.-ri saldu zion (Monsanto, 2008). rBGH hormona behien esne-ekoizpena handitzeko erabiltzen da (Bauman, 1999, 102. or.; Kingsworth, 1998, 19. or.). Horretarako, rBGH-ak behiaren ugatz-guruineko, giharreko eta gantzeko glukosa-garraiatzaileen genearen adierazpena aldatzen du (Kingsworth, 1998, 19. or.). Zenbait ikerketak frogatu dute lotura duela gizakien prostatak, koloneko eta bularreko minbiziarekin (Chan et al., 1998; Hankinson et al., 1998; Ma et al., 1999)<sup>201</sup>; rBGH hormona injektatutako behien antzutasunarekin, umetokiko eta digestio-aparatuko

---

<sup>200</sup> Beste hainbeste aipa genitzake mota hauen artean: aho bidezkoak, 520; oftalmatikoak eta topikoak, 524; intramamarioak, 526; ingeniariaritzaren genetikoko animalia-droga berriak, 528.

<sup>201</sup> Odolean rBGH-a izateak IGF-1 edo Insuline-like Growth Factor 1 (IGF-1) delakoa ekoiztea estimulatu du; behiek eta gizakiek endogenoki ekoizten duten hormona proteiko bat da, zelulak bereizi eta ugaltzen dituena. Epstein-ek (1996, 173., 181. or.; 2001, 283. or.) adierazi du rBGH-arekin trataturiko behien esneko IGF-1 kontzentrazioek bularreko eta urdail-hesteetako minbizia izateko arriskua areagotzen duela esnea hartzen duten gizakien artean (1996, 173., 181. or.; 2001, 283. or.). Chan-ek eta beste egile batzuek zera ondorioztatu dute: “A

asaldurekin, ultzerekin, obulutegi kistikoekin eta akidurarekin, baita mastitisarekin ere; horren aurrean, antibiotikoekin bonbardatzen dituzte; antibiotiko horiek esnera igarotzen dira, eta horrek arriskua dakar gizakientzat (Kingsworth, 1998, 19.-21. or.). Hala eta guztiz ere, asko erabiltzen da, esate baterako, Estatu Batuetan, Argentinan, Mexikon edo Brasilen (Lamas et al., 2019, 1. or.). Haren kontsumoa debekatuta dago Kanadan, Europar Batasunean, Japonian, Australian eta Zeelanda Berrian (Andrews eta Boden, 2017)<sup>202</sup>. Europar Batasunean, baina, baimenduta dago ekoiztea eta beste herrialde batzuei saltzea (Europar Batasuneko Kontseilua, 2016).

Hogeita bost urte geroago, hazkuntza-hormonak animalia ez-gizatiarrei injektatu bakarrik ez, haien hazkuntza-hormonak genetikoki eraldatzen dira. Estatu Batuetako AquaBounty Technologies, Inc. konpainiak giza kontsumorako lehen GM animalia merkaturatu du: AquaAdvantage® salmon, Atlantikoko izokinaren (*Salmo salar*) tamaina halako bi. FDAk 2015ean onartu zuen, eta, Kanadan, 2016an onartu zen; 1995etik, legez kanpo egon da, baina 2017az geroztik salgai dago Kanadan (Waltz, 2016, 7. or.; 2017, 148. or.), eta baliteke laster Estatu Batuetan ere merkaturatzea (AquaBounty Technologies, Inc., 2020)<sup>203</sup>. Gainera, bi herrialdeotan ez dute eskatzen ingeniari-tza genetikoko izokin gisa etiketatze.

Lievens, Petrillo, Querci eta Patak-ek (2015), izokin transgenikoaz gainera (hau da, oraingoz giza kontsumorako onarturiko bakarra), animaliak genetikoki eraldatzeko 74 saiakera dokumentatu dituzte<sup>204</sup>; besteak beste, osasuna hobetzeko (jaioberrien bizi-iraupena areagotzea), hazkuntza-ratioa hobetzeko, haragia eta esnea hobetzeko, eta artile gehiago ekoizteko (2015, 159. or.). Ingeniari-tza genetikoko halako esperimenduak behi, ardi, karpa, untxi, igel, oilasko, arrain, katu, ahuntz, zebra arrain (*Danio rerio*), tilapia, amuarrain, zeta-har eta txerrietan egin dira (2015, 160.-161. or.).

Europar Batasunak debekatua du substantzia hauek erabiltzea behi, zezen, idi, txerri, ahuntz, ardi, solipedo, eskorta-hegazti, untxi, akuikultura-animalia eta abarren hazkuntza

---

strong positive association was observed between IGF-I levels and prostate cancer risk” (1998, 563. or.). Holly-k, lotura hori berretsi, eta egiaztatu du badagoela kausazko lotura bat IGF-Iaren eta minbiziaren artean (1998, 1388. or.). Smith, Gunnell eta Holly-k honako hau zehaztu dute: “The risk of cancer is higher among people with raised concentrations of insulin-like growth factor-I, and it is lower among those with high concentrations of insulin-like growth factor binding protein-3 (the main binding protein)” (2000, 847. or.). Horretaz gainera, eta minbizi-arriskuaren frogez landara, ohartarazi dute oso erraza dela IGF-1a eskuratzea adinaren aurkako tratamendu gisa eta atletek eta kulturistek usu erabiltzen dutela exogenoki (2000, 848. or.).

<sup>202</sup> Debekuaz landara, Lamas eta beste egile batzuen arabera, Espainiako estatuko agintariak 2013an hauteman zuten abeltzain askok rBST-a ematen zieten behiei, Mexikotik ilegalki ekarritako Lactotropin® eta Boostin® injekzioen bitartez (2019, 1.-2. or.).

<sup>203</sup> AquaBounty Technologies, Inc.-ren arabera, AEBn 2018ko ekainean hazten hasi eta genetikoki eraldaturiko arrautzetako izokinak biltzeko moduan egongo dira 2020ko hirugarren laurdenean (2020).

<sup>204</sup> Ez dago definizio komun bat agentzia arautzaileen aldetik “animaliak genetikoki eraldatze”ari buruz, ezta araudirik ere; horretaz, ikus van Eenennaam (2017).

areagotzeko: substantzia hormonal gestageno, estrogeniko eta androgenikoak<sup>205</sup>, eta tireostatikoak –hormona tiroideoen ekoizpena gutxitzen edo egonkortzen dutenak–; estilbenoak, estilbenoetatik eratorriak, haien gatzak eta esterrak; 17 $\beta$ -estradiol hormona esteroidea eta ester motako haren eratorriak; eta substantzia  $\beta$ -agonistak<sup>206</sup> –adrenalinaren (epinefrina) antzeko efektuak edo efektu berak dituztenak–, salbuespenak salbuespen (Europar Batasuneko Kontseilua, 1996, 4. or.). Estilbenoa hidrokarburo aromatiko bat da, eta bi forma isomero dauzka: trans-1,2-difeniletilenoa (E-estilbenoa) eta cis-1,2-difeniletilenoa (Z-estilbenoa). Familia horren barnean daude landare-familia askotan (mahatsa, adibidez) dauden polifenol “naturalak”. Tinduen industrian eta laser koloratzaile gisa erabiltzen dira. Estilbenoa disruptore endokrinoa da (National Center for Biotechnology Information. U.S. National Library of Medicine, 2019).

Substantzia horiek debekatuta daude hazkuntza areagotzeko, baina onartzen dira helburu terapeutikoetarako, hala nola ernaldia eteteko, “ziklo estrala sinkronizatzeko eta enbrioi-ezarpenerako emaile eta hartzaileak prestatzeko”, eta, substantzia  $\alpha$ -agonisten – $\alpha$  agonisten– kasuan, tokolisia sortzeko –hau da, haragitarako ez diren behi eta ekidoen erditze goiztiarrei aurrea hartzeko– eta arnasa-asalduren tratamendurako (Europar Batasuneko Kontseilua, 1996, 4. or.). Botika horiek albaitari batek bakarrik eman ditzake, salbu ziklo estralaren sinkronizazioaren eta enbrioi-ezarpenerako emaile eta hartzaileak prestatzearen kasuan. Akuikulturari dagokionez, efektu androgenikoko botikak erabil daitezke hiru hilabetera arteko arrainen sexua alderantzizatzeko. Merkaturatu daitezke efektu estrogeniko, androgeniko edo gestagenoko substantziekin edo substantzia  $\beta$ -agonistekin trataturiko animaliak, baina ezin da Europar Batasunera inportatu aipaturiko baldintzak betetzen ez dituen animaliarik<sup>207</sup>.

---

<sup>205</sup> Aurrerago, xeheki aztertuko ditugu hormona horien nomenklatura, efektuak, funtzionamendua eta gorputz-kokapena. Oraingoz, Europako legedian ematen den azalpena emango dugu: “Estrogenikoak: sexu femeninoaren bigarren mailako ezaugarrien garapena estimulatzen duten hormonak (adibidez, behiek gihar eta pisu arinagoak izatea zezenek baino); efektu sistemikoak dituzte, hala nola hezur luzeak haztea eta heltzea, eta araldia (hau da, sexu-harmenaren aldi erregularra) sustatzen dute ugaztun emeean. Androgenikoak: ezaugarri maskulinoen garapena eta mantentzea kontrolatzen duten hormonak. Gestagenoak: umetokian ernaldiaren aldeko efektuak eragiten dituzten hormonak” (Europar Batasuneko Kontseilua, 2017).

<sup>206</sup> Badira funtsezko bi agonista adrenergiko mota: alfa hartzaileen agonistak eta beta hartzaileenak. Bost kategoriatan sailkatzen dira:  $\alpha_1$ ,  $\alpha_2$ ,  $\beta_1$ ,  $\beta_2$ , eta  $\beta_3$ .  $\alpha$  agonistek hodi-uzkurdura, umetokiaren uzkurdura, hesteak lasaitzea, ureterra lasaitzea, begi-niniaren uzkurdura eta dilatazioa, eta insulina-jariaketaren inhibizioa eragiten dituzte.  $\beta_1$  agonistek estimulazio kardiakoarekin dute zerikusia, uzkurkortasun eta maiztasun kardiakoa areagotzen baitute; eta  $\beta_2$  agonistak bronkioen eta umetokiaren estimulazioarekin eta giharrak lasaitzearekin daude lotuta.  $\beta_2$  agonistak asma-tratamendurako farmako bronkodilatadore eraginkor eta erabilienak dira, baita biriketako gaixotasun buxatzaile kronikorako (BGBK) ere. Erditzean giharrak lasaitzeko ere erabiltzen dira.  $\beta_2$  agonisten eratorrietako batzuk dira klenbuterola, erritodrina, salbutamol, terbutalina edo efedrina (Vives, Fernández eta Daroca, 2007).  $\beta_3$  farmako agonisten helburua kolon narritakorraren sindromerako, depresiorako eta maskuri hiperaktiborako tratamendua da.  $\beta_3$  agonisten artean, aipagarriak dira solabegrona, mirabegrona eta amibegrona (Moreno, 2018). Giza animalien teknogorputzasunek  $\alpha$  agonistak zein  $\beta$  agonistak erabiltzen dituzte (García eta Aguilera, 2001), ez-gizatiarrek ez bezala.

<sup>207</sup> Hala ere, EBren debekua ez da aplikatzen halako esportazioetarako berme baliokide bat (adibidez, hazkuntza-sistema berezia) ematen duten herrialdeetan.

2003an, aurreko direktiba moldatu, eta hormonon debekua berretsi zen; zehazki, “17 $\beta$ -estradiola, testosterona, progesterona, trenbolona azetatoa, zeranola eta melengestrol azetatoa” erabiltzea ustiatagietako animalien hazkuntzarako (Europako Parlamentua eta Europar Batasuneko Kontseilua, 2003, 17. or.). Orrialde berean, esplizituki jasotzen da honako hau: “Sei hormona horiek efektu endokrinoak izan ditzakete hazkuntzan, immunologiko, neurobiologiko, immunotoxiko, genotoxiko eta kartzinogenoak, eta, arrisku-taldeen artean, pubertarora bitarteko haurrek dute arrisku handiena” (Europako Parlamentua eta Europar Batasuneko Kontseilua, 2003, 17. or.). Alegia: besteak beste, disruptore endokrinoak dira. 17 $\beta$ -estradiolaren kasuan, “kartzinogeno osotzat hartzen da, tumoreak eragin eta haien garapena bultzatzen baitu... horregatik, giza osasuna babeste aldera, ez da erabili behar” (2003, 17.-18. or.). Gainera, araudi horretan argi eta garbi zehazten da lotura zuzena dagoela animaliek hormonak hartzearen eta ingurunea hormonatzearen edo xenoestrogenizatzearen artean: “[A]ipaturiko substantzia horiek ohituraz erabiliz gero animaliak gizentzeko, gerta liteke halako substantzien kontzentrazioa areagotzea ingurumenean” (2013, 18. or.).

Azienda-hazkuntzan hormonak erabiltzea debekatu arren, legekotzat jotzen dira helburu terapeutiko edo zooteknikoetarako, nahiz eta 17 $\beta$ -estradiola emateko baldintzak murriztu diren<sup>208</sup>. 2008/07/EB Direktibaren bidez, elikagaitarako animalietara mugatu zen 96/22/EB Direktiban onarturikoa, lagun egiteko animaliekin erabiltzeko debekua kenduta. Horretaz gainera, guztiz debekatu zen 17 $\beta$ -estradiolaren erabilera (Europako Parlamentua eta Europar Batasuneko Kontseilua, 2008).

Orotariko farmako, antibiotiko, botika hormonal eta substantzia kimiko disruptore endokrinoen katalogo zehatz eta nekagarri horrek hiru helburu dauzka aldi berean. Lehenik, erakustea zer puntutaraino eta zer intimitate- eta sakontasun-mailatan esan dezakegun ez dagoela desberdintasun ontologiko konstitutiborik giza animalien eta beste animalia-teknogorpuztasun batzuen artean, eta haien eta ingurunearen artean; nolana ere, hori ez da batere kontu berria, nahiz oraingoan haien koeraketa teknologiko, farmakologiko, hormonal eta xenoestrogenikoaren bidez ere agerrarazten den. Elementu teknokimiko, farmakologiko, hormonal, toxiko berberak partekatzen ditugu, eta elementuok eratzen gaituzte; ez bakarrik mota berekoek, baizik eta berberak.

Bigarrenik, garbi utzi nahi da elementu teknologiko, farmakologiko, hormonal horiek etengabe, erabat eta nonahi daudela eta jarduten dutela. Agerian utzi nahi da nolako garrantzia

---

<sup>208</sup> Idi-, zaldi-, ardi- edo ahuntz-aziendei araldia eragiteko edo idi-aziendaren fetu- eta piometra-mazerazioaren eta -momifikazioaren tratamendurako erabiltzea baimentzen da (Europako Parlamentua eta Europar Batasuneko Kontseilua, 2003, 18.-19. or.).

duten objektuok Kapitalozeno post World War IIko edo neoliberalerako paisaia eratzean, hain baita handia haien tentakularitatea, multiplizitatea, kopurua, iraunkortasuna, ikusezintasuna, aldakortasuna, egunerokotasuna, intimitatea, funtzionaltasuna eta ezinbestekotasuna –azken hori problematizitate handiari loturik–. Garrantzi hori, halaber, teknogorputzen bilakaera anizkoitz eta erlazionalak konfiguratzeko dituzten agente, gorputz, praktika eta industria zeharo ugarien bidez islatzen da, zeinak elkarrekin lotzen baitira elementu teknologiko horien diseinuan, ekoizpenean, salmentan eta kontsumoan. Haien jarduna ez da mugatzen *giza esparrura*, ezta *sexua-generoa-sexualitatearen* eraketara ere, beste gorputzaren batzuen eta orobat ingurunearen materialtasunaren koeraketan ere parte hartzen baitute. *Fusio tekno-kimikoa*, teknologiko-hormonala, maila *molekularra* iristerainoko osaketaren banaezintasuna eta bereizezintasuna, ingurumen osoan gertatzen da, *bere materialtasun osoan*.

Hirugarrenik, erakutsi nahi da zer lotura dagoen hormonon, produktu hormonalen, hormona sintetikoen, efektu hormonalak dituzten substantzien, eta xenoestrogenoen edo, orokorrigo, disruptore endokrinoen artean, modu bereizezin batean lotzen baitira, askotan bat eta bera izateraino. Alegia, hormonak produktu eta substantzia xenoestrogenikoen artean ere badaude.

Zerrenda amaigabe horren garrantziak, astuntasunaren sentipenak eta hainbeste elementu, substantzia eta produktu irakurtzean ikusmenean eragiten duen nekeak xenoestrogenoak eta entitate hormonalak bistaratzea dakar, eta, aldi berean, haien existentziari buruzko kontzientzia sortzen du. Efektu bilatu horri esker, kontu ematen da zenbat eta zenbat substantzia hormonal eta xenoestrogenikok –ez batere kaltegabeak– inguratzen eta eratzten gaituzten endogenoki eta exogenoki, ingurunea bera eratzten duten bitartean. Horrek guztiak, argi eta intuitiboki ulertzeko moduan, toxikotasuna dakar ondorio gisa, zeinak eragin material sakon eta erabakigarriak baitauzka, zurrumbilo toxiko planetario ikaragarri, nonahiko eta anizkun batean murgilduta gauden seinale.

Hala iragarri zuen Rachel Carson-ek, dotore eta ausart, duela berrogeita hamar urte baino gehiago, *Silent Spring* liburu famatuan:

For the first time in the history of the world, every human being is now subjected to contact with dangerous chemicals, from the moment of conception until death. In the less than two decades of their use, the synthetic pesticides have been so thoroughly distributed throughout the animate and inanimate world that they occur virtually everywhere. They have been recovered from most of the major river systems and even from streams of groundwater flowing unseen through the earth. Residues of these chemicals linger in soil to which they may have been applied a dozen years before. They have entered and lodged in the bodies of fish, birds, reptiles, and domestic and wild animals so universally that scientists

carrying on animal experiments find it almost impossible to locate subjects free from such contamination. (2003 [1962], 33.-34. or.)

Gizakia 1930eko hamarkadan hasi zen halako konposatu kimiko toxikoak ekoizten, are inguruneak eta baita geure buruek ere asimilatu ezin dituzten kopuruak ekoizten ere: horra “disruptore endokrinoak” edo “xenoestrogenoak”, zeinak ezagunak baitira “ingurumen-estrogeno”, “modulatzailer endokrino”, “ekoestrogeno”, “xeno hormona”, “ingurumen-hormona” edo “substantzia hormonalki aktibo” gisa ere. “Disruptore endokrino” terminoa “xenoestrogeno” baino zabalagoa da. *Dictionary of Toxicology* hiztegian, honela definitzen dira disruptore endokrinoak: “Chemicals that have the potential to cause effects within the endocrine system and thereby alter physiology, including development and reproduction” (Hodgson, Roe, Mailman eta Chambers, 2015, 134. or.). Disruptore endokrinoen artean, hiztegian xenoestrogenoak, antiandrogenoak eta disruptore tiroideoak aipatzen dira.

“Endocrine disruptor” esamoldea diziplina anitzeko konferentzia batean erabili zen lehenbizikoz, 1991ko uztailaren 28an eta 29an, Wingspread-en, Racine-n, Wisconsin. Han zeuden, besteak beste, Theodora Emily (Theo) Colborn eta John Peterson (Pete) Myers (Colborn, Dumanoski eta Myers, 1997, 259.-260. or.). Haien egitekoa gizakiak ingurunean txertaturiko substantzia kimiko jakin batzuen efektu kaltegarriez eztabaidatzea zen; substantziok gai ziren giza animalien eta animalia ez-gizatiarren sistema endokrinoa aldatzeko, ingurunea kutsatzen zuten heinean, eta horrek kezka handia eragiten zuen. Horretarako, askotariko adituen talde bat bildu zen: antropologia, ekologia, endokrinologia, immunologia, zuzenbidea, medikuntza, psikiatria, toxikologia, biologia eta zoologia, besteak beste. Taldeak hormonetan ipini zuen ardatza: “The consequences of such disruption can be profound, because the role *hormones* play in controlling development” (Colborn et al., 1997, 260. or.; geuk nabarmendua).

Helburua diziplina bakoitzeko ikerketa zientifikoen emaitzak txertatzea eta ebaluatzea zen, disruptore endokrinoen arazoaren zenbatekoa ikusteko, eta politika publikoak sortzeko ondorio eta abiapuntuak lortzeko. Bilera hartatik, Consensus Statement delakoa sortu zen, ekintza zientifiko eta politiko posibleei begirako datu, aurkikuntza, zenbatespen, iragarpen eta iritziak jasotzeko<sup>209</sup>.

*Dictionary of Toxicology* hiztegiara itzuliz, “xenoestrogeno” ez du sarrera gisa jasotzen; bai, ordea, “estrogen, environmental” (2015, 144. or.). Kontuan hartu behar da lehen-lehenik animalien garapen edo funtzio sexuala aipatzen duela: “A variety of chemicals in several chemical and use classes which exert estrogenic action, either directly or indirectly, and thereby

---

<sup>209</sup> Ikus, halaber, Colborn, vom Saal eta Soto (1993).

can impact the sexual development and/or function of animals” (Hodgson et. al, 2015, 144. or.). Disruptore endokrinoen barruan, talde nagusia osatzen dute. Bestalde, hiztegian aipatzen da ingurumen-estrogenoak osasun-arazoan eragileztat hartu direla; besteak beste, gizakien minbizia eta animalia ez-gizatiarren ugalkortasun-arazoak.

*Encyclopedia of Food Safety* bilduman<sup>210</sup> agertzen den lehen ingurumen-kutsatzaile mota ingurumen-estrogenoak dira. Badira estrogeno endogenoak (adibidez, animalia-gorputzek sortuak, edo fitoestrogenoak eta mikoestrogenoak, hau da, konposatu organiko ez-esteroideak, lehenak landareek sortuak eta bigarrenak onddoek). Baina badira beste konposatu mota batzuk estrogenoen jardura antzeratzen dutenak; sintetikoak dira, gizakiak sortuak, eta, gainera, fitoestrogenoak eta mikoestrogenoak ez bezala, ehun adiposoan metatzen dira, besteak beste – fitoestrogenoek eta mikoestrogenoek, aldiz, metabolizatu, eta denbora gutxi ematen dute gorputzean—: xenoestrogenoak ari gara. Xenoestrogenoak –*xeno*, greziera zaharrean, “ξένος: arrotza, kanpotarra” (Cortés Gabaudan eta Ureña Bracero, 2019)—. Darbre-k honela definitzen ditu: “[E]xogenous substances that cause adverse health effects in an intact organism or its progeny consequent to changes in endocrine function” (2014, 323. or.)<sup>211</sup>.

Literatura zientifikoa, ez dago “xenoestrogeno”aren definizio homogeneo bateraturik. Kethan-en arabera, xenoestrogenoak konposatu disruptore endokrinoak dira (KDEak), estrogenoen ekintza imitatzen edo blokeatzen dutenak, hau da, estrogenoen agonista edo antagonista gisa jardun dezakete, batik bat estrogeno-hartzaileekiko (EHak) interakzioaren bitartez (2014, 52. or.). Xenoestrogenoak gainera, Kethan-en aburuz, KDEen barnean leudeke antiandrogenoak ere, zeinak izan baitaitezke agonistak, androgeno-hartzaileak (AHak) aktibatuz, edo antagonistak, androgenoen ekintza eta efektuak ahulduz: “at the steroid receptor level and/or via suppression of testosterone synthesis in fetal [testicular] cells” (Kethan, 2014, 91. or.). Kethan-ek dio xenoestrogenoak eta antiandrogenoak KDE mota desberdinak direla, baina, hala ere, zehazten du efektu antiandrogeniko asko efektu estrogenikoen antzekoak direla. Kimiko disruptore tiroideoek hormona tiroideoen seinale edo efektuekin interferitzen dute, hormona tiroideoaren hartzaileen (HTH) bitartez (Kethan, 2014, 111. or.).

*Journal of Perinatology* aldizkarian xenoestrogenoak eta ama-esneaz idatzitako artikulu batean, xenoestrogenotzat hartzen dira jardura estrogenikoa sortzen duten KDEak, zeinak horretarako EHekin lotzen baitira, edo progesterona ugaritzen eta haren sintesia areagotzen baitute, edo jardura antiandrogenikoa garatzen baitute (Massart, Harrell, Federico eta Saggese,

---

<sup>210</sup> Ikus, halaber, *National Agricultural Library Agricultural Thesaurus* (U. S. Department of Agriculture, 2018).

<sup>211</sup> Definizio bat baino gehiago eman dugu “disruptore endokrino”az eta “xenoestrogeno”az, batetik bestera bai baitaude xehetasunak. Darbre-rena, adibidez, interesgarria da, ez baitu sexua (generoa?) erdigunean jartzen eta lehentasuna ematen baitie gorputzen osasunean gertatzen diren efektuei.

2005, 283. or.). Dey, Soliman eta Merajver-ek minbiziaz eta xenoestrogenoez argitaraturiko artikulu batean, zera diote: “These chemicals act like estrogen in the body or disrupt the normal metabolism of natural estrogen and thus act as carcinogens” (2009, 653. or.). Ildo berean, *International Journal of Molecular Sciences* aldizkariko artikulu batean, xenoestrogenotzat hartzen dira agonista edo antagonista estrogeniko gisa jarduten duten KDEak, zeinak horretarako hartzaile esteroideekin edo arilo hidrokarburoekin lotzen baitira (Ndebele, Tchounwou eta McMurray, 2003, 46. or.)<sup>212</sup>.

Doktorego-tesi honetan, “xenoestrogeno” izendatuko ditugu KDE agonista estrogenikoak, antagonista estrogenikoak, antiandrogenikoak eta orobat jarduera estrogenizatzailearen bat dutenak. Dirudenez, xenoestrogenoak dira gaur egunera bitartean gehien aztertu diren KDEak (Kethan, 2014, 20. or.). Xenoestrogenoek gaitasuna dute era honetan jarduteko: “Such receptor-mediated mechanisms has challenged the concepts of classical toxicology because effects can occur at much lower concentrations and actions can be targeted within the cell through the receptor” (Darbre, 2014, 325. or.).

Erabat ezinezkoa litzateke sorturiko produktu eta substantzia xenoestrogeniko guztien eta 1930eko hamarkadatik gaur egunera bitartean eman zaizkien erabileren<sup>213</sup> zerrenda bat egitea. Toxic Substances Control Act-ek (TSCA) erabilera komertzialerako 85.000 kutsatzaile kimiko inguru bildu ditu (U.S. Environmental Protection Agency, 2019)<sup>214</sup>. U.S. Environmental

---

<sup>212</sup> EHez, AHek eta HThez gainera, badira beste hartzaile mota batzuk, hala nola arilo hidrokarburoenak (AhHak), zeinak teknoorganismoek toxiko exogenoen aurrean ematen duten erantzunaren kargu egiten diren. “Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (PAHak, ingelesezko siglak erabiliz) konposatu kimikoak dira... batik bat erregai fosilen, zuraren, ikatzaren eta tabakoaren errekuntza bukatugabeen emaitzak” (Vázquez-Gómez, Rubio-Lightbourn eta Espinosa-Aguirre, 2016, 55. or.). Beste askoren artean, AhHek erantzunak ematen dituzte poliklorodibenzo-p-dioxinen (PKDDak) eta poliklorodibenzofuranoen (PKDFak) aurrean. Uste da AhHak, EHak eta AHak elkarren artean komunikatzen direla (Kethan, 2014, 133. or.). Badira beste hormona-hartzaile batzuk ere, hala nola X retinoide hartzaileak (XRHak) eta peroxisoma-ugaltzaileek aktibaturiko hartzaileak (PUAHak). Peroxisoma nukleo definituko zelula eukariotoetan dagoen organulu bat da, zitosolean edo matrize zitoplasmatikoa zelula barneko likido gehienaren osagaia- flotatzen duena eta zenbait funtzio metaboliko betetzen dituena, hala nola, oxidazioa eta hidrogeno peroxidoaren deuseztapena (Megías, Molist eta Pombal, 2017, 6. or.). XRHak A bitaminaren eratorriekin batzen dira (azido retinoikoa, adibidez), zeinak teknoorganismoen hazkuntzan, garapenean eta sistema immunologikoan esku hartzen baitute (Bioteknologiako Zentro Nazionala, 2019). PUAHek gantz-azidoak ehunetan gordetzean eta intulina hormonarekiko sentiberatasunean parte hartzen dute (Abranches, Esteves de Oliveira eta Bressan, 2011, 272. or.; Kethan, 2014, 126. or.). Hartzaileekin batzen diren KDEek zerikusia dute obesitatearekin eta glukosarekiko tolerantziaren nahasmenarekin, eta horrek diabetesa eta gaixotasun kardiobaskularrak garatzea ekar dezake. Sufonato eta monofalato esterrek aktibatzen dituzte hartzaile mota horiek.

<sup>213</sup> Zerrenda luzeago bat nahi izanez gero, ikus: Hass et al., “List of Endocrine Disrupting Chemicals” (2017). Ikus, halaber, Endocrine Society-ren txosten osoa (Gore et al., 2015), zeinean hainbat disruptore endokrino mota, hormona-sisteman jarduteko dituzten moduak eta giza osasunean dituzten efektuak biltzen baitira.

<sup>214</sup> 149 milioi substantzia kimiko organiko eta inorganiko dokumentatzen dira Chemical Abstract Service-ren erregistroan (CAS), 2019ko apirilaren 15eko datarekin (American Chemical Society, 2019). Interesgarria litzateke jakitea haietatik zenbat diren xenoestrogenikoak. Webgunean bilatu dugu, baina ez dugu halako informaziorik aurkitu. Dena den, webgunean eskaintzen den fitxa bete dugu, informazioa eskatzeko, eta honako erantzun hau eman digute: “Our services are pay services. What you are asking would require research. Your school does not have any of our services. You could ask your library administrator to see if they would be



Protection Agency-k (2019) 1.800 substantzia kimiko disruptore endokrino zerrendatu ditu, baina horrek ez du esan nahi besterik ez dagoenik. Ia egunero sortzen da kutsatzaile kimiko berriren bat (Schnoor, 2014, 11019. or.). Haietariko asko, gainera, ezezagunak dira, fabrikatzaileek ez baitute haien berri ematen (Schnoor, 2014, 11019. or.; Blum et al., 2015, 107. or.<sup>215</sup>; Lim, 2019, 27. or.); aurreko kapituluan mikroprozesadoreak fabrikatzeko erabiltzen diren produktu kimikoekin lotuta esan dugunez, fabrikatzaile batzuek ez dute gardentasunez jokutzen, eta horrek halako produktuen existentziari eta konposizioari buruzko ezagutza eza dakar. Horri dagokionez, Howe-k eta beste egile batzuek zera diote: “Information regarding the surfactant components of herbicide formulations is often protected as proprietary information of the manufacturer, which makes examination of individual herbicide products difficult” (2004, 1928. or.).

Nolanahi ere, substantzia garrantzitsuen, zabalduen eta erabilienetako batzuk bildu ditugu, baita halakoak dituzten produktuak eta halakoak erabiltzen dituzten praktikak ere. Era horretan, halako kimiko sintetikoen nonahikotasuna eta multiplizitatea islatzen duen mapa xenoestrogeniko bat marraztuko dugu, eta, era berean, haien izaera koeratzailiaz dakargun argudioa sendotuko. Kimiko xenoestrogenikoen artean daude intsektizida organokloratuak, poliklorobifeniloak edo bifenilo polikloratuak (PCBak), akuifenolak, ftalatoak, parabenoak edo azido parahidroxibenzoikoaren (edo azido 4-hidroxibenzoikoa) esterrak, UVA eguzki-iragazki kimikoak, metaloestrogenoak, dioxinak (PCDDak) eta dibenzofuranoak (PCDFak) edo substantzia per- eta polifluoratuak (PFCak).

Intsektizida organokloratu nagusiak dira: dikloro difenil trikloroetanoa edo 1,1,1-trikloro-2,2-bis(4-klorofenil)-etanoa (DDTa) eta haren analogoak; hexakloroziklohexanoa (HCHA); ziklodienak eta antzeko konposatuak; toxafenoa eta harekin erlazionaturiko konposatuak; eta klordekona (Kepone®). DDTaren analogoen artean, pestizida komertzial hauek daude: dikofola (Kelthane®), Perthane®, Bulan®, DDDa (diklorodifenildikloroetanoa), klorfenetola (DMCA), klorobenzilatoa, kloropropilatoa, difluorodifeniltrikloroetanoa (DFDTa), metoxikloroa –DDTaren ordezkoa eta Estatu Batuetan debekatua 2003an, efektu xenoestrogenikoengatik (U.S. Environmental Protection Agency, 2016)– eta Prolan® (Blum, 2003, 314. or.). Ziklodienen eta harekin erlazionaturiko konposatuei dagokienez, aldrina, isodrina, dieldrina, endrina, telodrina, heptakloroa, isobentzanoa, klordanoa eta endosulfana dauzkagu.

---

willing to purchase one of our services such as SciFinder to help with the research” (2019). Interesgarria litzateke etorkizunean ildo horretan sakontzea.

<sup>215</sup> Gainera, substantzia per- eta polifluoroalkilatuei (PFASak) buruzko informazioa ematera presatu dituzte enpresa kimikoak, haien egitura kimikoa, propietateak eta toxikologia barne (Blum et al., 2015, 107. or.).

Konposatu organokloratu horiek oso iraunkorrak dira; poliki degradatzen dira, eta beren igortze-iturritik oso urrutiko eremuak kaltetzen dituzte, distantzia luzeko garraio atmosferikoaren bitartez (TALD) (Roscales et al., 2016)<sup>216</sup>. DDTa eta haren analogoak asko erabili ziren nekazaritzan 1940eko hamarkadaz geroztik, eta, 1970eko hamarkadan debekatu zituzten arren<sup>217</sup>, haien erabileraren ondoriozko hondakinak Ipar Amerikan, Afrikan eta Europan daude (Bettinetti et al., 2011; Ortiz-Santaliestra et al., 2015).

PCBak<sup>218</sup> usu erabili dira 1930eko hamarkadaz geroztik, ekipo elektrikoetan, lubrifikatzaileetan, itsasgarrietan eta pinturetan. Kartzinogenoak ia mundu osoan debekatu zituzten arren XX. mendearen bukaeran, PCBen kutsadurak bere horretan dirau Afrikako herrialdeetan, batez ere hara inportatzen delako beste herrialde batzuetako zabor elektronikoa, hondakin elektronikoak ez direlako behar bezala birziklatzen edo biomasa erretzen delako (Gioia et al., 2014). Hegoafrikan, PCBak transformadore elektrikoetan erabiltzen ziren, hozgarri eta isolatzaile gisa, gutxienik ere 2010era bitartean (Ministry of Water and Environmental Affairs, 2011).

Akuifenolak detergenteak, pinturak, bernizak, estalgarriak, herbizidak eta plastikoak fabrikatzeko erabiltzen dira. 4-nonifenola, akuifenol mota bat, zenbait plastiko mota manufacturatzeko erabiltzen da, hala nola poliestirenoa eta polibinil kloruroak (PVCak). Bisfenol A edo 4,4'-(propano-2,2-diil)difenola (BPA)<sup>219</sup> eta haren eratorriak ere beste akuifenol mota bat dira, munduan gehien ekoiztiko kimikoenetarikoak (Kethan, 2014, 67. or.). Estatu Batuetan, akuifenol mota hori ekoizten zuten bost konpainiek sei bilioi dolar inguru biltzen zuten urtean 2010. urtea baino lehen (Borrell, 2010, 1122. or.)<sup>220</sup>. 1950etik merkaturatzen da, eta plastiko polikarbonatoak eta erretxinak ekoizteko baliatzen, zeinak geruza babesgarri gisa erabiltzen baitira janari- eta edari-latetan, eguzki-betaurrekoetan, hortz-zigilatzaileetan, CDetan, kutxa erregistratzaileetan, Estatu Batuetako dolar-billeteetan, boligrafoetan edo ordenagailuko tinta-kartutxoetan (Vandenberg, 2011, 1265-1268). Egonkortzaile edo antioxidatzaile gisa ere

---

<sup>216</sup> Halako pestiziden efektuen eta kalteturiko teknogorpuztasun eta ekosistemen azterketa zabal eta sakonagoa nahi izanez gero, ikus Blus (2003, 313.-339. or.).

<sup>217</sup> Estatu Batuetako Environmental Protection Agency erakundea 1970ean sortu zen, eta, 1972an, DDTaren ia erabilera guztiak debekatu zituen (Mallén Rivera, 2012, 8). Askok diote Rachel Carlsonen eragin handia izan zuela horretan (Mallén, 2012, 3., 4., 8. or.). Toxafenoaren kasuan, haren erabilera guztiak debekatu ziren 1990ean (Agency for Toxic Substances and Disease Registry, 2016).

<sup>218</sup> Badira hormona tiroideoen disruptoreak diren PCBak, baita agonista estrogeniko eta/edo antiandrogenikoak direnak ere, eta AhRen agonista gisa jokatzen dutenak ere (Kethan, 2014, p. 65, p. 115, 135; Rose, 2014, 315. or.).

<sup>219</sup> BPA-ek AHak, EHak (Wetherill, Petre, Monk, Puga eta Knudsen, 2002), eta HTHak eragiten ditu (Moriyama et al., 2002). BPAk eta haren eratorriek animalia-teknogorpuztasunen osasunean (batez ere gizatiarretan) zer efektu duten jakiteko, ikus Kethan (2014, 67.-73. or.).

<sup>220</sup> Saiatu gara datuok eguneratzen estatistika-atarietan bilaketak eginda (Statista-n, adibidez), baina ez dugu informaziorik aurkitu BPAREN irabaziei buruz.

erabiltzen da plastiko mota askotan, hala nola polibinil kloruroetan (PVCak), eta sugaratzeratzaile gisa, ordenagailuen eta beste ekipo elektriko batzuen plaka nagusiak babesteko (Kethan, 2014, 67. or.). Txosten askotan adierazi da BPA-ak lotuta daudela sistema endokrinoko disrupzioekin (Kethan, 2014, 70. or.); kartzinogenoa izan liteke giza teknogorputzetan –eta beste animalia-teknogorputz batzuetan–; erlazioa izan lezake gaixotasun kardiobaskularrekin, obesitatearekin eta diabetesarekin (Vandenberg, 2011, 1265., 1268. or.), eta immunotoxikoa da (Europako Batzordea, 2018, 7. or.), baina, hala eta guztiz ere, Europar Batasunean ez dago debekatuta halako materialik erabiltzea; besterik gabe, neurri zehatz batzuk eta badaezpadako ardura batzuk ezarri dira. Salbuespen bakarra biberioien fabrikazioan eta merkaturatzean aurkitzen dugu, 2011n sartu baitzen indarrean debekua (Europako Batzordea, 2018, 6. or.). Kanadan, haur jaioberrien jostailuen eta biberioien fabrikazioan BPA erabiltzea debekatu zuten 2010ean (Government of Canada, 2019), eta FDAk 2012an debekatu zuen biberioetan eta haur jaioberrientzako beste esne-ontzi batzuetan (FDA, 2018b).

Ftalatoak<sup>221</sup> plastikoetan erabiltzen dira nagusiki. 1920ko hamarkadan hasi ziren ekoizten; kantitate handitan, berriz, 1950eko hamarkadatik aurrera, PVCa sortzearekin batera. Ftalato erabilienak (bis(2-etilhexilo) ftalatoa (DEHPa), diisodezilo ftalatoa (DIDPa), diisononilo ftalatoa (DINPa) eta dibutilftalatoa (DBPa) dira (Hodgson et al., 2015, 277. or.). Plastikoen artean<sup>222</sup>, polietileno tereftalatoa (PET), nonahiko plastiko mota bat, ur-, zuku eta freskagarri-botiletan, elikagai-, farmako- eta krema-ontzietan, eta poliester-zuntzetan erabiltzen da. Dentsitate altuko polietilenoa (HDPE), supermerkatuko poltsetan, izozte-poltsetan, eta esne-, zuku-, xanpu-, detergente-ontzietan eta abarretan. Polibinil kloruroa (PVC) hoditerietan, orotariko ontzietan, mahuketan, zapata-zoletan, kabletan, erloju-uhaletan, jaketan eta abarretan aurkitu daiteke. Dentsitate baxuko polietilenoa (LDPE) paketatze-geruzetan, zabor-poltsetan, laborategiko ontzietan, esne-ontzietan, eramateko kafe-kikaretan, egunkarietan eta abarretan erabiltzen da. Polipropilenoa (PP) frijitu-poltsetan, lorezaintza-ekipoetan, eramateko elikagai-kutxa edo -ontzietan, paketatze-zintetan, albaitaritza- eta farmazia-ontzietan, jogurt- eta ziropa-ontzietan, automobil-osagarrietan, berokietan, diru-billeteetan edo alfonbra-ehunetan aurkitu daiteke. Poliestirenoa (PST) kristal-imitazioetan, jostailuetan, CDetan, kosmetika-ontzietan, estalkietan, janari eramateko elikagaien ontzietan eta arrain-industrian erabiltzen da. Poliestireno hedatua (PS-E), janari-erretiluetan, salgai hauskorrak babesteko ontzietan, eramateko kafearen

---

<sup>221</sup> Ftalatoek AHeekin –testosterona-sintesia inhibituz– eta HThekin –hormona tiroideoen antagonista selektiboak dira– interferitzen dute, eta PUAHak ere aktibatzen dituzte (Kethan, 2014, 92., 120., 132. or.).

<sup>222</sup> Halako plastikoek giza teknogorputzasunen osasunean dituzten efektuez gehiago jakiteko, ikus Tyree eta Morrison (2019).

tapetan, zuku-botiletan, mahai-tresnetan eta beste ontzi mota batzuetan. Azkenik, beste plastiko mota batzuek ere badute BPA (Tyree eta Morrison, 2019).

Parabenoak edo azido parahidroxibenzoikoaren (edo azido 4-hidroxibenzoikoa) esterrak –metilo, etilo, propilo, butilo, isobutilo, isopropilo eta benzilo taldeak barne– xenoestrogenikoak dira. Asko erabili izan dira antimikrobiano gisa produktu farmazeutiko, kosmetiko eta gorputz-higienekoetan, baita gehigarri gisa ere janaria kontserbatzeko –haragia zein arraina, olioia zein fruta–, eta, Europar Batasunean, E214-219 gisa etiketatzen dira (Kethan, 2014, 73. or.). Produktu askotatik ari dira kentzen parabenoak.

UVA iragazkiak, hala nola etilhexilo metoxizinamato deritzona (oktinoxato edo oktilmetoxizinamato edo oktilo metoxizinamato –OMC– ere deitua), alkanfor 4-metilbenzilidenoa (4MBC), oxibenzona eta homosalatoa eguzki-kremetan erabiltzen dira, larruazala irradiaziotik babesteko, eta haiek ere badituzte efektu estrogenikoak (Kethan, 2014, 74. or.)<sup>223</sup>.

Beste xenoestrogeno mota bat metaloestrogenoak dira (Darbre, 2014, 323. or.; Kethan, 2014, 75. or.). EHetara eransteko gaitasuna duten metal-ioien artean, aluminioa, antimonioa, merkurioa, nikela, kobaltoa, artsenikoa, kobrea, beruna, barioa, kadmioa, kromoa, selenioa, eztainua eta banadioa<sup>224</sup> ditugu. Nahiz eta beruna produktu batzuetatik baztertu duten –gasolina, pinturak, latak, etab.–, Kethan-ek ohartarazi du ingurumeneko berun-maila industriaurreko mailatik aski gora dagoela (2014, 77. or.). Merkurioa asko erabiltzen da meatzaritzan, galdaketa-industrian, eta ehun-, ore- eta paper-zuriketan eta -desegitean. Bestalde, osagai gisa erabiltzen da aparatu elektriko eta produktu mediko askotan: termometroak, termostatoak, hortz-amalgamak, bateriak, etengailuak, etab. Arsenikoa, esan dugunez, albaitaritzako hainbat farmakotan ageri da –haietariko batzuk debekatuak–.

Azkenaldian, zenbait metalen –zilarra, urrea, zinka, titanoa, kobrea, etab.– nanopartikulek ingurunean eta zenbait teknogorputzasunetan dituzten efektu toxikoak ikertzen ari dira. Halako nanopartikulak gero eta gehiago erabiltzen dira, XXI. mendearen hasieratik, ezin konta ahal produktu eta praktikatan, hala nola katalizatzaileak, biltegitratze-gailuak, farmakoak, gailu nanoelektronikoak, sentsoreak, etab.<sup>225</sup> Thomson-ek eta beste egile batzuek azaldu dute, beren ikerketan erabilitako zapaburuekin loturik, nola jokatzen duten metal-nanopartikula horiek

---

<sup>223</sup> Disruptore tiroideo edo kantzerigeno gisa dituzten beste efektu batzuek gehiago jakiteko, ikus Kethan (2014, 74.-75. or.).

<sup>224</sup> Metaloestrogenoek giza animalien eta animalia ez-gizatiarren teknogorputzasunen osasunean dituzten efektuez gehiago jakiteko, ikus Kethan (2014, 75.-78. or.). Ikus, halaber, Hoffman, Rattner, Burton eta Cairns (Ed.) (2003, 373.-500. or.).

<sup>225</sup> Zilar-nanopartikulek *Daphnia Magnan* dituzten efektuez gehiago jakiteko, ikus Pakrashi, Tan eta Wang (2017).

disruptore endokrino gisa: “Although it is difficult to draw any firm conclusions across such a broad array of organisms and nanoparticles, it is clear that these materials can inhibit growth, cause abnormalities, disrupt endocrine signaling, and both accelerate and retard metamorphosis” (2017, 2. or.).

Dioxinak (PCDDak) eta dibenzofuranoak (PCDFak) kloroa erabiltzen duten errauste-eta errektantza-prozesuetan jariatzen diren konposatu xenoestrogenikoak dira, hala nola errausketan eta hondakinen kudeaketan (besteak beste, botikak, hondakin organikoak, elementu arriskutsuak edo hondakin-urak araztearen ondoriozko lohiak), metalak ekoizteko eta berreskuratzeko prozesu metalurgikoetan, edo ikatza, egurra, petrolio-produktuak eta pneumatiko erabiliak erretzean (Institute of Medicine, 2003, 54.-55. or.; Dopico eta Gómez, 2015, 3., 8., 11.-12., 17., 21. or; Europako Batzordea, 2019b). Kloroa darabiltzen prozesu industrial kimikoetan ere isurtzen dira; esate baterako, paperaren eta paper-orearen fabrikazioan; intsektiziden, herbiziden, katalizatzaileen eta beste produktu kloratu batzuen fabrikazioan eta erabileran; PVCaren industrian; eta grafito-elektrododun kloro-instalazioetan (Institute of Medicine, 2003, 56. or.; Rice, O’Keefe eta Kubiak, 2003, 503.-504. or.; Europako Batzordea, 2019). Zura pentaklorofenolarekin tratatzean ere, dioxinak sortzen dira (Europako Batzordea, 2019). Dioxinak eta dibenzofuranoak gizakiak sorturiko kimiko toxikoenentzat hartzen dira (Kethan, 2014, 134. or.)<sup>226</sup>.

Dioxinak badaude orotariko giza animalia-elikagaietan –haragia, arraina, fruta, barazkiak, arrautzak, esnea, zerealak, lekariak, etab.– (Lan, Ingurumen eta Osasun Institutu Sindikala, 2013, 33. or.; Rose, 2014, 318.-321. or.), baita ez-gizatiarretan ere, hala nola pentsuetan (Rivera, 2002, 88.-92. or.). Rose-k honako hau dio dioxinei eta dibenzofuranoei buruz: “[A]re ubiquitously present in the environment and in human tissues even when there is no history of occupational or accidental exposure” (2014, 315. or.). Esposizio hori, berak dioenez, aire-inhalazioaren, absortzio dermalaren edo ur-kontsumoaren bidez gerta daiteke, baina “[m]ore than 90% of human exposure to dioxins typically occurs through the food supply, mainly fish, meat, and dairy products” (2014, 315. or.). TCDDaren kasuan (2,3,7,8-tetraklorodibenzo-p-dioxina), % 98ra igotzen da portzentajea.

Substantzia per- eta polifluoratuak (PFCak) ere, zeinak iragazgaizteko eta mantxa-kontrako gisa erabiltzen baitira mendiko eta eskaladako arropa, bota eta ekipoetan –motxilak, dendak, lo-zakuak, etab.–, xenoestrogenikoak dira. Greenpeacek, zenbait markatako produktuak analizatu –besteak beste, The North Face, Columbia, Patagonia eta Mammut–, eta 40tik 36tan

---

<sup>226</sup> Ikus orrialde berean halako konposatuek giza osasunean dituzten efektuak.

aurkituko ditu halako substantziak (2016, 19.-42. or.). 2015ean, komunitate zientifikoko 200 kidek baino gehiagok sinatu zuten “The Madrid Statement on Poly- and Perfluoroalkyl Substances (PFASs)”, nonahiko konposatu kimikoen degradagarritasun motelarekin edo degradagarritasun ezarekin<sup>227</sup> eta horrek animalia-teknogorpuztasun askotan eta ingurunean eragiten dituen efektuekin kezkatu, gobernu eta enpresei eskatzeko haien ekoizpena alaitz gehien mugatzeko eta alternatiba ez-fluorinatuak sortzeko.

PFCak 1930eko urteetan hasi ziren fabrikatzen<sup>228</sup>. Konposatu zaharretako batzuk debekatu egin dira, baina etengabe agertzen dira berriak. Perfluoroalkiloak (PFASak) – substantzia per- eta polifluoratuak dira, eta ezagunenak azido perfluorooktanoikoa (PFOA) eta azido sulfoniko perfluorooktanoikoa (PFOS) dira–, toki guztietan daude: zartaginak, arropa, janari-bilgarriak, apar ignifugoak, hortzetako haria, paper-fabrikazioa, kosmetikoak, eliteko eskiatzaileen eskiak, eguzki-panelak, osagai elektronikoen estalgarriak, eta abar.

2018ko maiatzerako, zientzialariek kalkulu hau egin zuten: “4,730 PFAS-related structures from patent filings and chemical registries, any of which might be in commercial use” (Organisation for Economic Cooperation and Development, 2018). 2017an, Europar Batasunak PFOA, haren gatzak eta kideko substantziak debekatu zituen (Europako Batzordea, 2017). Hala eta guztiz ere, 2020ra arte eta, zenbait kasutan<sup>229</sup>, 2032ra arte jarraitu ahal izango da substantzia horiek fabrikatzen eta merkaturatzen, eta, besteak beste, eperik gabe erabil daitezke inplanteetarako produktu sanitarioak –filmen estalgarri fotografikoak, inprimatzeko papera edo plantxak– eta erdieroaleetarako eta prozesu fotolitografikoetarako substantzia edo nahasketetan. Debekutik salbuetsita daude PFOSak<sup>230</sup> eta haien eratorriak (Europako Batzordea, 2017, 17.-18. or.). PFASekin gertatzen dena da, etengabe substantzia berriak agertzeaz gainera, etengabe aldatzen direla.

---

<sup>227</sup> Aslam-ek eta beste egile batzuek diote fluorokarbonoen bizitza atmosferikoa 10.000 eta 50.000 urte artekoa dela (2003, 4358. or.). Fluor-karbono elkarketak “natura”ko erresistenteenatarikoak dira, horregatik ez dira degradatzen molekulak (Lim, 2019).

<sup>228</sup> Gogoratu dezagun fluorra Manhattan Proiektuaren harira ekoitzi eta merkaturatu zela eskala handian lehen aldiz, bomba atomikoa fabrikatzeko (Bryson eta Griffiths, 1997; Dinou, 2006, 1142. or.). Fluorra uranio-isotopoak banatzeko eta ondotik aberasteko erabili zen; horretarako, haren forma gaseosoa –uranio hexafluoruroa, oso-oso toxikoa, uranioa eta fluoruroa konbinatuz osatua– zentrifugatu zen. Prozesu hori bera erabiltzen da energia nuklearreko aplikazioetan.

<sup>229</sup> 2022an, erdieroaleak eta inprimatzeko tintak fabrikatzeko latexezko ekipoetara hedatu zuten debekua. 2023an, ehungintzako produktueta, langileak osasun- eta segurtasun-arriskuen aurrean babesteko; erabilera medikoko ehungintzako produktueta mintzetara; efluenteen ekoizpen- eta tratamendu-prozesuetan, ur-tratamenduetako iragazketarako mintzetara; eta plasmaren nanoestalkietara. 2032an, produktu sanitarioetara (Europako Batzordea, 2017, 17.-18. or.).

<sup>230</sup> PFOSak ez daude guztiz debekatuta Europar Batasunean; haien erabilera kantitate jakin batzuetara murriztuta eta mugatuta dago zenbait artikulutan, hala nola prestakinetan eta ehunkietan. Guztiz debekatuta daude fotolitografia-prozesuetako estalki erreflektiboetan eta estalki fotografikoetan (Europako Batzordea, 2010).

Polibromodifenil eterrak<sup>231</sup> (PBDEak) –ingurumen aldetik oso substantzia kimiko iraunkorrak, nabarmen biometagarriak eta ingurumenetik banatuak– konposatu bromatu mota bat dira, eta asko erabiltzen diraugar-atzeratzaile gisa, eraikuntza-materialetan, elektronikan, altzarietan, motor-ibilgailuetan, hegazkinetan, plastikoetan, poliuretano-aparretan eta ehunkietan. 2006tik, 2002/95/EB Direktibari jarraituz, Europar Batasuneko ekipo elektriko eta elektronikoetan ezin da PBDErik erabili; 2008an, dekaBDEa ere debekatu zen (European Food and Safety Authority, 2019).

Atal oso bat eskaini diegu munduan gehien erabiltzen diren herbizidei: Roundup® herbizidak. Monsanto sortu zituen, 1974an, 2016an Bayer AGk Monsanto erosi, eta gaur egun haiek ekoizten dute (Ribeiro, 2016). Halako produktuek glifosatoa daukate, zeinak efektu antiestrogenikoak eta antiandrogenikoak baitauzka (Gasnier et al., 2009, 188. or.). 2015ean, Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak, zeina Osasunaren Mundu Erakundearen mende baitago, “gizakientzat kantzerigeno izan daitezkeen” produktuen zerrendan sartu zuen glifosatoa (International Agency for Research on Cancer, 2015). Motta, Raymann eta Moran-ek adierazi dute (2018) glifosatoak erleen digestio-sistemako mikrobio-komunitatea asaldatzen duela eta ondorioz erleak zaugarriagoak direla infekzioen aurrean. Hala eta guztiz ere, 2017an, Europako Batzardeak bost urterako berri zuen herbizida hori erabiltzeko baimena (Villareal, 2017)<sup>232</sup>.

Substantzia eta produktu kimikoekin gertatzen den bezala, ezinezkoa litzateke esatea zenbat teknogorputz eta lekutan agertzen diren xenoestrogenoak. Gure asmoa, gainera, ez da horren berri ematea eta xenoestrogenoz koeraturiko teknogorputzasunen taxonomia oso, itxi eta behin betiko bat eskaintzea. Areago, zenbait geltoki ezarri nahi ditugu fluxu estrogeniko planetario horretan, kartografia toxiko estrogeniko zabal, aniztun, ugari eta, neurri batean, zehatz bat osatzeko, eta ikusteko xenoestrogenoz koeraturiko zenbat eta zenbat teknogorputz eta lurralde dauzkagun mundu-bira osoan zehar, gure argudioa indartze aldera<sup>233</sup>. Ingurumen-estrogeno sintetikoak agertu dira eremu hauetan:

Anfibioak: metoxikloroa *Xenopus laevis* igeletan (Pickford eta Morris, 1999); polibromodifenil eterrak (PBDEak) *Rana limnocharis* igeletan, Txinako hegoaldean (Wu et al., 2009). Narrastiak: organokloratuak Niloko krokodiloen arrautzetan (*Crocodylus niloticus*),

---

<sup>231</sup> PBDEak antiandrogenikoak dira. Hormona tiroideoen mailak ere asaldatzen dituzte (Kethan, 2014, 92., 118. or.).

<sup>232</sup> Glifosatodun herbiziden erabilera mundu osoan areagotu da; batetik, genetikoki eraldaturiko kultiboek halako produktuei eragindako erresistentziarengatik, eta, bestetik, 2000. urtean amaitu zelako glifosatoaren patentearen babesaren eta horrenbestez glifosatodun produktuak asko ugartu zirelako merkatuan (Howe et al., 2004, 1.928. or.). Besteak beste, Touchdown®; Syngenta AG-rena; Glyfos AU® eta Glyfos BIO®, biok Cheminova, Inc.-renak.

<sup>233</sup> Kontuan hartu espezie eta ekosistema guztiok bost kontinenteetan daudela, bai lurrian, bai itsasoan, bai airean.

Kenian (Skaare, Ingebrigtsen, Aulie eta Kanui, 1991); dikofola, DDTa eta haren metabolitoak aligatorretan (*Alligator mississippiensis*), Floridako Apopka aintziran (Estatu Batuak) (Guillette et al., 1994); p,p9-DDE, p,p9-DDD, trans-nonakloroa, mirexa eta endrina, laku berean eta espezie berean (Guillette et al., 2000); dikofola eta DDTa muskerretan, Texasen (*Cnemidophorus gularis*), Kalifornian (*Uta stansburiana* eta *Sceloporus occidentalis*) eta Floridan (*C. sexlineatus* eta *Anolis carolinensis*) (Estatu Batuak) (Clark, Flickinger, White, Hothem eta Belisle, 1995).

Moluskuak: hamasei farmako (levonorgestrol hormonal eta triklosana, besteak beste), eta parabenoak, sugar-atzeratzaileak eta bisfenol A muskuiluetan (*Mytilus* spp.), txirletan (*Chamelea gallina*) eta ostretan (*Crassostrea gigas*), Tajoren estuarioan (Portugal), Po ibaiaren deltan (Italia) eta Ebroren deltan (Espainiako estatua) (Álvarez-Muñoz et al., 2015); monobutilina (MBT) eta dibutilina (DBT) *Nucella lapillus*etan, Portugalgo kostaldean (Laranjeiro, Sánchez-Marín, Benta Oliveira, Galante-Oliveira eta Barroso, 2018).

Ugaztunak: organokloratuak itsas txakur arruntetan (*Phoca vitulina*) eta itsas txakur grisetan (*Halichoerus grypus*), Norvegian (Ruus, Ugland, Espeland eta Skaare, 1999), eta Mexikoko *Tadarida brasiliensis* saguzarretan (Clark eta Shore, 2001); ftalatoak Mediterraneoko zere arruntetan (*Balaenoptera physalus*) (Fossi et al., 2016).

Arrainak: kadmioa, kobrea, nikela eta zinka perka horietan (*Perca flavescens*) (Giguère, Campbell, Hare eta Couture, 2006); merkurioa korrokoi urrekaretan (*Liza aurata*) (Araújo, Pereira, Cesário, Pacheco eta Raimundo, 2015); PFOSak eta ftalatoak Mediterraneoko atungorrietan (*Thunnus thynnus*), Sardinian (Italia) (Guerranti et al., 2016), eta Mediterraneoko marrazo erraldoietan (*Cetorhinus maximus*) (Fossi et al., 2016).

Hegaztiak: metilmerkurioa *Falco sparverius* belatzetan (Bennett, French, Rossmann eta Haebler, 2009), aliota handietan (*Gavia immer*) (Evers et al., 2008) eta *Phalacrocorax auritus* ubarroietan (Hall et al., 2014); merkurioa arrano buruzurietan (*Haliaeetus leucocephalus*) (Rutkiewicz et al., 2011) eta *Euphagus carolinus*etan (Edmonds et al., 2010); konposatu organokloratuak Hegoafrikako *Circus maurusetan* (García-Heras et al., 2018) eta *Plegadis chihi*aren arrautzetan, Arizonako Colorado ibaian (Estatu Batuak) (King, Zaun, Schotborgh eta Hurt, 2003).

Lurzorua eta artropodoak: deltametrina, dimetoato eta klorpirifos intsektizidak kolenboloetan (*Collembola Folsomia candida*) eta akaroetan (*Hypoaspis aculeifer*), Nigeria eta Tunisiako lurzoruetan (Jaabiri-Kamoun et al., 2017); akuifenolak Ingalaterra Berriko otarrainetan (*Homarus americanus*) (Estatu Batuak) (Laufer, Chen, Johnson, Demir eta Bobbitt, 2012).



Atmosfera: ikusi dugunez, disruptore endokrinoak atmosferan zehar garraiatzen dira, eta, horretaz gainera, Australiako *Chortoicetes terminifera* otien izurriak, adibidez, fenitrotioi pestizida organofosforatua airetik botaz kontrolatzen ditu Australian Plague Locust Commission erakundeak (Australian Government. Department of Agriculture and Water Resources, 2018). Bestalde, badira hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (PAHak) eta hidrokarburo aromatiko polizikliko kloratuak (ClPAHak) Tokioko Badiako airean (Japonia) (Ohura, Horii eta Yamashita, 2018).

Landareak: merkurioa, Estatu Batuetako ipar-ekialdeko basoetan (Rimmer et al., 2005); azitromizina, metroprolol, propanolol eta diazepam farmakoak algetan (*S. latissima* eta *L. digitata*), Fureholmen-en, Solund-en (Norvegia) (Álvarez-Muñoz et al., 2015).

Ibai, laku, itsaso eta ozeanoak: merkurioa, Maineko golkoan (Goodale et al., 2010) eta San Frantziskoko Badian (Estatu Batuak) (Eagles-Smith et al., 2008); DDTa lakuen sedimentuetan, Natronen (Tanzania) eta Bogorian (Kenia) (Bettinetti et al. 2011); glifosato herbizida, Frantziako Tech eta Têt ibaietan, eta Agouille de la Mar, Baullaury eta Fosseille ibai txikietan (Conseil Général des Pyrénées-Orientales, 2013; Reoyo-Prats et al., 2017); glifosato, 2,4-D, atrazina, tebukonazole eta imidakloprid pestizidak El Crespo errekan, Buenos Aires probintzian (Argentina) (Pérez et al., 2017). Ozeanoko plastiko eta mikroplastiko kopuru ikaragarriak ere xenoestrogenoen presentziaren berri ere ematen du.

Garbi geratu denez, nahiz eta “disruptore endokrino” zein “xenoestrogeno” terminoak erabili ditugun lan honetan, askoz gehiagotan erabili dugu “xenoestrogeno”. Beste disruptore endokrino motekin alderatuta xenoestrogeno gehiago dagoela ematen duela kontutan hartzeaz gain, nozio honen erabilera lehenesteko arrazoiak utopiko-distopikoak eta analitiko-ärkeologikoak dira. Ingurunearen eta materiaren estrogenizazioa halako ironia historiko bat iruditzen zaigu, kondentsazio metaforiko utopiko eder bat, bere izaera distopikotik banaezina – xenoestrogenizitatea hertsiki lotuta dago toxikotasunarekin eta haren efektuekin–. Planetaren feminizazio gisako horrek kontakizun politiko-zientifiko aurkari eta iraultzaile baten modura jokatzen du testosteronaren hegemoniaren eta gobernuaren errelato heteropatriarkalaren aurrean, zeinean testosterona, hormona erreginatzat, arrakastaren, garaipenaren, indarraren eta boterearen sinonimo gisa hartzen baita. Aldi berean, agerian uzten ditu gure esparru diskurtsibo eta zientifikoen eraketaren erraiak.

Nahaspila planetario ikaragarri toxiko batean murgilduta gaude, armiarma-sare xenoestrogeniko erraldoi batean. Xenoestrogenizitateak eratzten gaitu, bai gu geu, bai ingurunea. Ingurumen-xenoestrogenizitate toxiko partekatu eta koeratzzaileak ezin du atsedetik hartu Antropozenoaren kontakizunean: xenoestrogenoak agente material nabarmen aktiboak dira,

eragiteko ahalmen eta botere handikoak, modu ezagunekoak eta ezagutzeko dauden moduetakoak.

“Antropocene” hitza, antza, Eugene F. Stoermer biologoak erabili zuen lehenbizikoz, 1980ko hamarkadan, diatomeak ikertzean (Haraway, 2016a, 44. or.). Dena den, termino horrek ez zuen ospe handirik izan harik eta Nobel saria irabazi zuen Paul J. Crutzen kimikari atmosferikoa erabiltzen hasi zen arte, Stoermer-ekin bat eginez. Artikulu bat argitaratu zuten elkarrekin: “The ‘Anthropocene’” (2000)<sup>234</sup>. Kontzeptu berri hori asmatzea ekarri zuen ideari dagokionez, giza jardueren –bereziki Gizonarenak– nolakotasunak eta bere efektuen tamainak termino geologiko berri bat eskatzen omen zuten, aro geologiko berri bat izendatzeko (Haraway, 2016a, 44. or.).

Crutzen eta Stoermer-en artikuluan, “gizona” eta “mankind’s activities” aipatzen dira etengabe (2000, 17. or.), lurraren eraldaketaren indar handi gisa, gizakiaren –gizonaren– hedapena, bere kopurua eta Lurraren burutako eraldaketa motak direla eta<sup>235</sup>. Haien artean daude artefaktu teknologikoak sortzea, urbanizatzea, deforestazioa, nekazaritzaren bidez ekosistemak antzaldatzea, azientza kopuru ikaragarri handiak haztea, petrolioa eta ikatza erretzea, toxiko asko eta asko igortzea –SO<sub>2</sub>-a, CO<sub>2</sub>-a eta CH<sub>4</sub>-a, besteak beste– eta berauen ondoriozko efektuak diren berotze globala, ozeanoen azidotzea, orotariko suntsipenak eta ozono-geruzaren zuloa.

Hamar urte geroago, Steffen, Grinevald, Crutzen eta McNeill-ek, Lurraren historiako aro berria “Anthropocene” izendatzearen formalizazioaren defentsan egindako artikuluan, honela azaldu zuten zer biltzen duen zehazki termino honek:

- (i) that the Earth is now moving out of its current geological epoch, called the Holocene and
- (ii) that human activity is largely responsible for this exit from the Holocene, that is, that humankind has become a global geological force in its own right. (2011, 843. or.)

Lurreko bizitzarako funtsezkoak diren karbonoaren, nitrogenoaren, fosforoaren, sulfuroaren eta uraren zikloen aldaketa gizakien partetik “[is] likely driving the sixth major extinction event in Earth history” (Steffen et al., 2011, 843. or.). Hortik, zera ondorioztatu zuten: “Taken together, these trends are strong evidence that *humankind, our own species*, has become

---

<sup>234</sup> Stoermer-ek berak esana da: “I began using the term “anthropocene” in the 1980s, but never formalized it until Paul contacted me” (Grinevald, 2007, 243. or.).

<sup>235</sup> Esanguratsua da Anthropocene Working Group-ek (AWG), zeinak Crutzen eta Stoermer-en proposamena garatzen baitu gaur egun, kontzeptualizazio eta terminologia geologiko berriaren alde argudiatzeko erabiltzea “man-made minerals” edo “man-mediated minerals” adierazpideak (AWG, 2017). Adierazpideok biltzen dituen jatorrizko albistea Hall-ek argitaratu zuen (2017), *Scientific American* aldizkarian.

so large and active that it now *rivals* some of the *great forces of Nature* in its impact on the functioning of the Earth system” (Steffen et al., 2011, 843. or.; geuk nabarmendua).

Crutzen eta Stoermer-en artikulu hartan agertu zenetik, neologismoak ospe eta onarpen zabala izan du klima-aldaketaren ikertzaileen komunitatean (Steffen eta al., 2011, 843. or.). 2008rako, munduko zientzialari askok bereganatua zuten termino hori, ofiziala ez izan arren geroz eta ezinbestekoagoa bihurtzen ari zena, eta, era berean, arteari, humanitateei eta gizarte-zientziei buruzko artikulu, konferentzia, performance eta instalazioetan erabiltzen hasi ziren (Haraway, 2016a, 45. or.). Nozioak agerian jartzen zuen geroz eta garrantzitsuagoa eta beharrezkoagoa zela ikustaritze, salaketa eta kontzientziazio lana.

Baina Antropozenoaren kontakizunak, ofizialtasun zientifikoaren dema galtzeaz gainera<sup>236</sup>, kritika zuhur eta sakonak jaso ditu. Andreas Malm eta Alf Hornborg (2014), Haraway (2016a, 2016b) eta Jason W. Moore (2013, 2017, 2018) bat datoz azpimarratzean gure aroko berotze globala, hondamena eta suntsipena ez direla soilik *Homo sapiens*aren ondorioak, baizik eta botere- eta erreprodukzio-sistema kapitalistarenak.

Malm eta Hornborg-en arabera, gaur egungo krisi ekologikoa, zeinean espezieen barneko desberdintasunak gakoak baitira, ez da *antroposen* ondorioa, baizik eta Britainia Handiko industria-iraultzan sorturiko ekonomia fosilarena (2014, 64. or.)<sup>237</sup>. Moore eta Haraway-k, baina, “Capitalocene” terminoa<sup>238</sup> aldarrikatzen dute esanez klima-aldaketa azkarra ez dela ez *Homo sapiens*aren ondorioa, ez energia fosilaren erabilerarena, eta erantzuten diela erlazio-modu kapitalista batzuei, boterea-kapitala-natura patroia batzuei, eta horren jatorria XIV.-

---

<sup>236</sup> International Union of Geological Sciences (IUGS) erakundeak 2018ko uztailean jakinarazi zuen onartzen zuela International Commission on Stratigraphy-k (ICS) aro hori “Meghalayarra” izendatzeko egindako eskaera. Holozenoa –hau da, gure aro geologikoa–, beraz, hiru adin edo mailatan bananduta geratu da: Groenlandiarra (duela 11.700 b2k hasia), Northgriptarra (duela 8.326 b2k urte hasia) eta Meghalayarra (duela 4.270 urtetik gaur egunera) (International Commission on Stratigraphy, 2019). Nomenklatura “Antropozeno” ez dela izango jakitean eta zer kontakizun aukeratu zuten ikustean, zientzialari asko haserretu ziren; besteak beste, AWGkoak, 2008tik ari baitziren definizio bateratu bat adostu nahian IUGSek onar zezan (Maslin, 2018). AWGren proposamenean, zeina bat baitzetorren Crutzen eta Stoermer-en ideiarekin, Antropozenoa aro geologiko berritatz hartzen zen, Holozenoaren eta Meghalayarraren ondotikoa, eta haren hasieraren une optimotzat jotzen zen honako hau: “[T]he artificial radionuclides spread worldwide by the thermonuclear bomb tests from the early 1950s” (AWG, 2019). Hala eta guztiz ere, International Commission on Stratigraphy-ren arabera (2019), Mawmluh haitzuloan (Indiaren ipar-ekialdean) espeleotema –estalagmita– batean aurkituriko zuloa lehorte handi baten ebidentzia kimikoa zatekeen, Holozeno berantiarren hasieraren adierazgarri, eta horixe baliatu da aro hori izendatzeko, haitzuloa Meghalayako estatuan baitago. Durhameko Unibertsitateak jaso duenez, lehorteak 200 urte iraun zuen eta Izotz Aroaren ondotik garaturiko nekazari-zibilizazioak kolapsatzea ekarri zuen, baita giza migrazioak ere, Egipton, Grezian, Sirian, Palestinan, Mesopotamian, eta Indus eta Yangzi ibaien haranetan (2018). Hala eta guztiz ere, klima-fenomeno horren frogak zazpi kontinenteetan aurkitu direla baieztatu arren, badirudi Amerikako, Afrikako eta Ozeaniako gizarteak Meghalayarraren azalpenetik kanpo geratu direla.

<sup>237</sup> Steffen-ek eta beste egile batzuek ere zera adierazi dute: “The advent of the Industrial Revolution around 1800 provides a logical start date for the new epoch” (2001, 843. or.).

<sup>238</sup> Haraway-ren arabera, “Capitalocene” terminoa Malm-ek asmatu zuen, Lundeko (Suedia) mintegi batean, 2009an, artean ere Graduko ikaslea zela (2016a, 206. or.). Malm eta Hornborg-ek berek oin-ohar batean diote hautagai gisa kontuan hartzekoa dela kontzeptu hori (2014, 67. or.).

XVI. mendeetako gertaera jakin batzuetan koka genezakeela, hau da, Ingalaterrako eta Herbehereetako nekazaritza-iraultzan eta Abya Yalaren konkistan (Moore, 2017, 596. or.) eta Indiako Ozeanoko XVI. mendeko merkataritza-trukeetan (Haraway, 2016a, 239.-40. or.).

Moore-ren arabera, berotze globala ez da antropogenikoa, baizik eta kapitalogenikoa<sup>239</sup> (2018, 237. or.). *Ekologia mundu kapitalista* baten ondorioa da, eta ekologia horrek ez du “natura”ren gainean jarduten, baizik eta “natura”tik azaleratzen da batik bat. Logika honen ondorioz, energia fosilaren eta kapitalismoaren arteko harremana Malm eta Hornborg-ek planteatzen dutenaren alderantzizkoa da, hau da, gizakiak ingurunearekin daukan harreman berrietatik sortzen da energia fosilaren erabilera, eta ez alderantziz (2017, 595. or.; 2018, 254.-255. or.). Hala, Moore-ren arabera, botere-harremanek, harreman kapitalistek eta beste harreman estrategiko askok eta askok ez dute “natura”ren gainean jarduten, baizik eta bizitzaren sarearen bitartez garatzen dira. Moore-k galdera hauek planteatzen ditu:

Are we really living in the Anthropocene, with its return to a curiously Eurocentric vista of humanity and its reliance on well-worn notions of resource and technological-determinism? Or are we living in the Capitalocene, the historical era shaped by relations privileging the endless accumulation of capital? How one answers the historical question shapes one’s response to the crises of the 21st century. (2013)

Haraway-k, ildo horretan, aldaketa globalaren erlazionaltasuna azpimarratzen du: “And that’s also what’s wrong with the figure of the Anthropos. It’s not a ‘species act’; we’re not doing this as a ‘species’. What is happening that gets called the *Anthropocene* is a situated complex historical web of actions” (2016b, 237. or.). Haraway-k “Kapitalozeno” deritzon aldaketa globala osatzen duten elkarlotutako istorio askotarikoetako bat da, adibidez, plantazio-sistema. Izan ere, ekosistemak eraldatzea ekarri zuen, eta oraindik ere hala da, batik bat Amerikan, Asian eta Afrikan, deforestazioaren, animalien eta bestelako gorputzen suntsipen eta migrazioaren, eta esklabotzaren ondorioz.

“Kapitalozeno”ak, hain zuzen, kapital-fluxu eta -metaketa globalez harago, planetaren eraldaketa horren espezie-aniztasuna azpimarratzen du, hau da, eraldaketan parte hartu zuten eta oraindik ere parte hartzen duten animalia espezie, mikrobio, landare, bakterio, harri, mineral, humus, buztin, harea, onddo, fosil eta gainerako elementu materialen zirkulazioa eta kontzentrazioa, halakorik gabe ezinezkoa izango bailitzateke gaur egun bizi garen mundua ulertzea (2016b, 240. or.). “Kapitalozeno”ak honetaz hitz egiten du: “[S]ystemic stories of the

---

<sup>239</sup> Termino honi buruz, ikus Street (2016).

linked metabolisms, articulations, or coproductions... of economies and ecologies, of histories and human and nonhuman critters relentlessly opportunistic and contingent. They must also be relentlessly relational, sympoietic, and consequential. They are terran, not cosmic or blisped” (2016b, 49. or.).

Kapitalozenoak, beraz, sistema erlazional kapitalista batez dihardu, egiteaz eta desegiteaz, espezie eta material anitzeko mundu bat eraldatzeaz, zeinean gizakiak ez baitira protagonista nagusiak. Aldaketa planetarioa, egiaz, Kapitalozeno neoliberalaren emaitza koral bat da, non askotariko agenteek parte hartzen baitute –adibidez, bakterioek, lurra eratzen eta planetan bizirik irauten iaioak benetan–; besteak beste, agente kimikoen, zeinek garrantzi, nonahikotasun eta ekintzarako eta transmutaziorako ahalmen handia baitaukate: xenoestrogenoak eta/edo hormonak. Hormonak eta xenoestrogenoak ezin dira ez ulertu, ez kontzeptualizatu, botere-harremanen logika eta antolamendu sozial eta planetario arrazista, heteropatriarkal, kapitalista eta antropozentriko baten arabera ez bada. Agente toxiko hormonalak harreman-sare batetik azaleratzen dira; harreman horiek bereziki –baina ez eskusiboki– molekula-mailan politika egiteko modu bat dakarte; (tekn)gorputzak –gizatiarrak eta bestelakoak– eta bizitza bera kudeatzeko eta ekoizteko modu bat, diseinu nagusiki arrazista, heteropatriarkal eta kapitalista bat daukaten bioteknologiaren, teknologia kimikoen eta farmakologikoen bitartez –hainbat teknologia multzoren artean–.

Kapitalismoaren fase honetan, planeta osoa toxifikatzera igaro gara. Kontua ez da lehen halakorik ez zegoenik –toxikotasuna ez da berria–, baina drastikoki areagotu dugu haren intentsitatea, ezin konta ahal eta askotariko teknogorputzasunetara hedatzeraino, gizakiak barne. Historiaren une honetan, ekologia mundu osoa toxiko bilakatu da: ekologia mundu kapitalista toxiko bat. Kapitalozenoa imajina genezake gero eta toxikotasun handiagoko aldi edo prozesu gisa, ez bakarrik kapitalaren, haitzen, landare-, onddo-, animalia-teknogorputzasunen, plastiglomeratu eta abarren fluxu eta kontzentrazioari dagokienez, baizik eta baita toxikotasun, hormona eta xenoestrogenizitate zirkulazio eta metaketa globalari dagokionez ere.

Agente toxiko, hormonal eta xenoestrogenikoak mutatu eta ugaltu egiten dira. Modu anitzetan eragiten dute, oraindik ere ezezagunak zaizkigunak asko<sup>240</sup>. Fusionatu, koeratu eta askotariko teknogorputzasunetan barneratzen dira, xuxurla isil batean, usainik gabeko aroma

---

<sup>240</sup> Gauza jakina den arren kimiko horiek efektu ugari sortzen dituztela ingurunearen eta landare- eta animalia-teknogorputzasun ugariaren materialtasunean, eta haien osasunean, Endocrine Society-k onartzen du oraindik ere ezezagunak zaizkiola efektu horietako asko: “While some chemicals have been shown to have endocrine-disrupting activity, there are no data on the vast majority of the thousands of compounds in use and in the environment today. Thus, appropriate testing strategies must be developed to consistently and comprehensively examine all chemicals for potential EDC activity. Widely applicable, science-based criteria for identification of EDCs are required” (Gore et al., 2015, 3. or.).

baten bitartez, hautemanekin eta ikusezin, bumeran ekologiko bat balira bezala<sup>241</sup>. Irmo erakusten digute haien izaera suntsiezin, iraunkor eta etengabeki zatigarria. Jostailua ederra bezain arriskutsua zen.

Haraway-k zera dio bere *Ezagutza kokatuetan*:

A corollary of the insistence that ethics and politics covertly or overtly provide the bases for objectivity in the sciences as a heterogeneous whole, and not just in the social sciences, is granting the status of agent/actor to the 'objects' of the world. Actors come in many and *wonderful* forms. (1991, 198. or.; geuk nabarmendua)

Haien bidai, elkarlotze eta mutazioetan, “back to the future” (Schnoor, 2014, 11019. or.) entonatzan duen melodia toxiko bat sortuz, aktoreek Kapitalozeno neoliberalen hartzen dituzten forma “liluragarri” horiek xenoestrogeniko-hormonalak dira. Mel Y. Chen-en arabera, “toxins— toxic figures—populate increasing ranges of environmental, social, and political discourses” (2011, 266. or.). (Xeno)estrogenizitatea toki guztietan dago. Teknogorputzasun xenoestrogeniko bilakatzen gara, modu desberdin eta anizkoitzetan, mamu-dantza teknohexagonal honen erdian, Kapitalozeno neoliberalen.

### 3.3. Teknogorputzen koeraketa xenoestrogeniko sexu-generikoa

Bada xenoestrogeno multzo bat ia oharkabean igaro dena aurreko atalean: farmakoak, bereziki hormonalak. Halako produktu farmazeutikoetan, xenoestrogenoak eta hormonak modu korapilatsu batean elkartzen eta lotzen dira, harik eta bat eta bera bihurtu arte.

Medikamentu xenoestrogeniko horien artean, honako hauek ditugu: pilula antikonzeptiboa, zeinak estrogenoak –sintetikoak edo “natural”ak– eta progestina –progestageno sintetiko bat– baitauzka; antisorgailu hormonal transdermikoak eta bagina barneko eraztunak –norelgestromina progestageno sintetikoa eta etinilestradiol estrogeno sintetikoa askatzen dituzte–; inplante antikonzeptibo azpidermikoak –etonogestrel progestageno sintetikoa askatzen dute–; progestageno-injekzio antikonzeptiboak –medroxiprogesterona azetato progestageno sintetikoa injektatzen da–; umetoki barneko gailuak (UBG) –levonorgestrel progestina askatzen dute–;

---

<sup>241</sup> Lehenago azaldu dugunez, fluorokarbonoek eta halako konposatuek iraunkortasun handia dute; horretaz gainera, Blum-ek eta beste egile batzuek azpimarratu dute ez dugula gaitasunik zenbait konposatu xenoestrogeniko suntsitzeko, hala nola PFASak: “The technical capacity to destroy PFASs is currently insufficient in many parts of the world” (2015, 107. or.).

Cenestin®, Enjuvia®, Estratab®, Menest® eta Premarin®<sup>242</sup> farmakoak, besteak beste hormonak ordezkatzeko terapian (HOT) erabiliak menopausiaren “sintomak” tratatzeko, estrogeno-iturri gisa estrogeno “nahikoa” ekoizten ez duten emakume\* gazteentzat, bularreko eta prostatako minbizi mota batzuen sintomak tratatzeko, edo trans\* emakumeentzat\*<sup>243</sup>; hidrokortisona –zeinak kortisol hormona baitauka–, zeinak antiinflamatorio eta ezabatzaile immunologiko gisa funtzionatzen baitu, eta besteak beste minbizia, asma, tiroiditisa, artritis erreumatoidea, dermatitisa, BGBK eta gutxiegitasun adrenokortikala tratatzeko erabiltzen baita; androgenoak (Ah-King eta Hayward, 2014, 2. or.; Álvarez-Muñoz et al., 2015, 5. or.; U.S. National Library of Medicine, 2019); DESa (dietilestilbestrol estrogeno sintetikoa) (Hodgson et al., 2015, 117. or.); flutamida, finasterida, ziproterona edo enzalutamida farmako antiandrogenikoak, zeinak erabiltzen baitira prostatako minbizia, alopezia eta prostatako hiperplasia onbera tratatzeko eta baita baten bat HOTean ere (Kethan, 2014, 98., 154. or.); eta beste medikamentu ez-hormonal batzuk, hala nola paracetamola (Ah-King eta Hayward, 2014, 2. or.).

Substantzia horiek, aurreko atalean adierazitakoekin batera, ugalketaz gain, hormona endogenoak ekoizten dituzten teknogorpuztasunen *morfologia sexualari* (sexo-generikoari?) ere eragiten diote, eta hala berretsi dute erakunde eta organismo askok; besteak beste, Scientific Committee on Problems of the Environment-ek (SCOPE) eta International Union of Pure and Applied Chemistry-k (IUPAC) (Miyamoto eta Burger, 2003) baterako txosten batean edo Endocrine Society-k (Gore et al., 2015).

Arlo sexu-generikoaz eta ugalketa-arloaz harago, disruptore endokrinoek efektu ugari eta askotarikoak dituzte –nahiz eta haietako asko ezezagunak izan– hainbat teknogorpuztasunen eta ingurunearen osasunaren gainean. Doktorego-tesi honetan, efektu horietako batzuk jaso ditugu, hala nola glifosatoaren kasuan, zeina Osasunaren Mundu Erakundeko Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak “gizakiarentzako kantzerigeno posible”tzat hartu baitzuen 2015ean (International Agency for Research on Cancer, 2015); edo behien hazkuntzarako hormona birkonbinatzailearen kasuan, zeina lotuta baitago gizakien prostatako, koloneko eta bularreko

---

<sup>242</sup> Premarin® estrona estrogenoaren eta 17 $\alpha$ -estradiolaren sodio sulfatoz, eta zaldi-estrogeno konjugatuz –hau da, behor ernarien gernukoak, hala nola ekilinarene sodio sulfatoa, 17 $\alpha$ -dihidroekilinarene sodio sulfatoa eta 17 $\beta$ -dihidroekilinarene sodio sulfatoa– osatuta dago.

<sup>243</sup> Badira beste farmako konbinatu batzuk erabilera horietarako, hala nola Essian®, Estratest®, Menogen® eta Femtest®, zeinek estrogenoak eta metiltestosterona baitauzkate; PMB®, zeinak estrogeno konjugatuak eta meprobamatoa baitauzka; Premarin®, zeinak metiltestosterona baitauka; edo Covaryx® eta Syntest®, estrogeno esterifikatuz osatuak, hau da, landare-jatorriko estrogenoen konjugatuak –zaldi-azienden osagai biologiko estrogeniko berak dauzkate, salbu 7 $\alpha$ -A8,9-dehidroestronea– eta metiltestosterona. HOTerako, beste erabilera batzuen artean, estropipatoa ere erabiltzen da, estrona sulfatoz eta piperazinaz osatua, zenbait markatakoa, Harmogen®, Improvera®, Ogen®, Ortho-Est® eta Sulestrex®; eta Estragyn 5®, Estrone®, Kestrona 5® estronen injekzioak.

minbiziarekin, eta behien obulutegi kistikoekin, mastitisarekin, akidurarekin, umetokiko asaldurekin eta ultzerekin (Chan et al., 1998; Hankinson et al., 1998; Ma et al., 1999; Kingsworth, 1998, 19). Etilenglikol eterrak, fluoruroa eta beste neurotoxina eta substantzia kimiko kantzerigeno asko dauzkaten erdieroaleen industria mikroelektronikoan lan egiten dutenen artean, tiroideko eta bularreko minbizia, leuzemia, Ez-Hodgkin linfoma eta garuneko tumorea, eta berezko abortuak (Lee et al., 2011, 139., 145. or.; Kim et al., 2014, 99., 101. or.). Munduko toki askotako langileek epaiketak izan dituzte eta salatu izan dituzte multinazional farmazeutiko eta bioteknologikoak, edo elektronikoak. Dewayne Johnson lorazainak Monsantoen Roundup® eta Ranger Pro® produktuekin lan egiten zuen, eta, 2014an minbizia diagnostikatu zioten; zehazki, Ez-Hodgkin linfoma bat. Konpainia salatu –AEBn bakarrik, 9.000 salaketa jarri omen dira Bayer AG-ren aurka<sup>244</sup>, glifosatodun herbizidengatik (Martín, 2019; Peirón, 2019)–, eta epaiketa irabazi zuen, 2018an (Ximénez de Sandoval, 2018). Motta et al.-ek diote, bestalde, glifosatoak erleen digestio-sistemako mikrobio-komunitatea asaldatzen duela eta ondorioz erleak zaugarriagoak direla infekzioen aurrean (2018). Mikrotxipen industriako langileek ere IBM eta Samsung Electronics salatu zituzten, minbiziengatik eta jaioberrien malformazioengatik (Kim et al., 2014, 96.-97. or.). Toxiko xenoestrogenikoek efektu kaltegarriak dituzte ingurumenaren “osasun”ean ere, hala nola klorofluorokarbonoek eta perfluoroalkiloek, zeinek eragina baitute ozono-geruza txikitzean eta berotze globalean (Blum et al., 2015, 107. or.).

Halako substantzia disruptoreen eta haien efektuen irismenetik abiatuta, Ah-King eta Hayward-ek salatu dute, ez toxikotasuna komunikabide eta ikerketa zientifikoetan aipatzen dela, baizik eta modu sentsazionalista batean tratatzen dela komunikazio zientifiko eta periodistiko batzuetan<sup>245</sup>, azpimarratuz toxikotasuna mehatxu bat dela planetako teknogorpuztasun batzuen sexu-genero eta sexualitate (normatibo)entzat eta aipatu gabe utziz haien osasunean eta ingurumenean dituen beste efektu garrantzitsu batzuk (2014, 3.-4. or.). Horren aurrean, egileek zera galdetzen dute: “Why is sex more central than cancer, auto-immune disease, and even death? What cultural nerves... are triggered? And, for those of us with feminist concerns, how do we reorient the debate away from essentialism, sexism, and heteronormativity?” (Ah-King eta Hayward, 2014, 3.-4. or.).

---

<sup>244</sup> Reuters agentziaren arabera, 11.200 salaketa izan ziren (Christie, 2019).

<sup>245</sup> Hona hemen egileek aipaturiko izenburu sentsazionalista batzuk, denak ere *National Geographic* aldizkarian argitaratuak (Ah-King eta Hayward, 2014, 4. or.): “Female Fish Develop ‘Testes’ in Gulf Dead Zone (Than 2011)”, “Sex-Changing Chemicals Found in Potomac River (Avasthi 2007)”, “Animals’ Sexual Changes Linked to Waste, Chemicals (Owen 2004)”.



Sexu-desberdintasunaren eta/edo intersexuazioaren desagerpenaren gaineko kezka gutxienez 1985etik sumatzen da eremu zientifikoan. “Estrogenic Effects of Effluents from Sewage Treatments Works” artikuluan, Purdom-ek eta beste egile batzuek zera adierazi zuten:

Following the widespread adoption of hormonal contraception procedures, general concern has been expressed in the popular media about the potential effects of constituents of contraceptive pills entering waste waters and rivers. Scientific concern has also been expressed, particularly on the possible consequences of contamination by estrogens (Richardson and Bowron, 1985; Aherne *et al.*, 1985). (1994, 276. or.)

Wingspread-eko Konferentziako 1991ko Deklarazioaren izenburuak ere, “Chemically-Induced Alterations of Sexual Development: The Wildlife/Human connections”, agerian uzten du zer garrantzia eman zaion sexuaren auziari (Colborn *et al.*, 1997, 259. or.). Horren beste adibide bat *Dictionary of Toxicology*ko “estrogen, environmental”en definizioan aurki daiteke, gorago aipatua. Definizio horretan, xenoestrogenoen eta haien efektuez aipatzen den lehen gauza animalien sexu-garapena eta haren funtzioak dira: “A variety of chemicals in several chemical and use classes with exert estrogenic action, either directly or indirectly, and thereby can impact the sexual development and/or function of animals” (Hodgson *et al.*, 2015, 144. or.)<sup>246</sup>. Bost lerro behera egin behar dugu animalia-teknogorpuztasunen (kasu honetan gizatiarren) gaineko beste efektuen bati buruz ezer irakurtzeko: “Environmental estrogens have been suggested for being responsible for some human health concerns, such as breast cancer, and reproductive problems noted in wildlife populations” (Hodgson *et al.*, 2015, 144. or.). *Endocrine Disruptors in the Environment* liburuan, Kethan-ek disruptore xenoestrogenikoek “organismoetan dituzten efektu sakonak” zerrendatzen ditu –erreparatu haien ordenari eta haietariko zenbatak duten zerikusia sexu-generizazioarekin–: “[A]bnormal development of male and female reproductive tracts, feminization of males, lowered sperm counts, disrupted reproductive cycling and reduced fertility, carcinogenesis, and behavioral change” (2014, 52. or.).

Xenoestrogenoen hainbat animalien sexu-garapen, morfologia eta funtzioetan dituzten efektuei buruzko azterketa ugarien artean, batzuek “imposex” fenomenoak deskribatzen dute eta moluskuei egozten diete, hau da, ezaugarri maskulinoen superinposizioa molusku emeetan. Caciatore-k eta beste egile batzuek (2018, 688. or.), 2002 eta 2013-2015 bitarteko urteetan

---

<sup>246</sup> Interesgarria da definizio hori Ah-King eta Hayward-enarekin alderatzea: “Endocrine disruption, as attended to in this essay, is a toxic, expressive, and politically problematic form of corporal-environmental interaction that unravels sex determination” (2014, 1. or.).

Adriatikoko *Hexaplex trunculosa* ikertu, eta kondizio horren beherakada nabarmenaren berri eman zuten, baita emeen antzutasunaren beherakada ere nabarmenagoarena ere; baliteke 2008an konposatu organoestanikoak debekatu izanarekin lotuta egotea, produktu askotan erabiltzen baitziren, hala nola zur eta margoetan, eta ehunkietan, desinfektatzaile eta biozida gisa, eta baita moluskizida gisa ere (National Pollutant Inventory, 2019). Haien arabera, “imposex” delakoa tributilinaren –konposatu organoestaniko bat– efektu azertuena da, eta 260 gastropodo espezieetan baino gehiago aurkitu da. Egileek diotenez, antzutasuna eragin dezake, eta, horrenbestez, populazio baten desagerpena (2017, 268. or.).

Hamza-Chaffai eta Ismail-ek hermafroditismo-kasuak aurkitu dituzte –“hermafroditismo” hitza darabilgu hala erabiltzen dutelako haiek ere beren artikuluan– Gabesko golkoko *Ruditapes decussatus* txirla handian, Tunisiako kostaldean (2010, 23. or.). Ji, Wei, Zaho eta Wu-k, A bisfenolaren eta muskuilu emeen gaineko artikuluan, “genero-desberdintasunak” aipatzen dituzte zuzenean<sup>247</sup>: “These metabolic differences indicated that there exist ed intrinsic (gender-specific) biological differences between male and female mussel gonads. These gender differences at the metabolite level could result in gender-specific responses to toxicant exposures” (2014, 848. or.). Generoaren arauak inposaturiko koherentzia bete-betean islatzen da aipu horretan; areago, egileek diote muskuilu eme eta arren arteko desberdintasunak ez direla generotik edo generoaren ikusmoldeetik sortuak, baizik eta generokoak, hau da, sexua bakarrik ez, generoa ere jotzen da biologikotzat.

Azterketa askotan azpimarratu da zer efektu dituzten xenoestrogenoek anfibio, narrasti eta arrainen morfologia eta gorputz-elementu sexu-generizatueta. Guillette-k eta beste egile batzuek diote Floridako Apopka aintzirako enbrioi femeninoek morfologia obariko “anormala” dutela, folikulu poliobular eta oozito polinuklear ugari dituzten heinean, eta aligator arren enbrioiak Woodruff aintzirako arrek baino hiru aldiz testosterona gutxiago daukatela (1994, 680. or.). Gainera, Apopka aintzirako aligator arren enbrioiak ohi baino zakil txikiagoa eta testikulu ahul eta gaizki antolatuak daukate; egileen ondorioa zera da: “[N]ormal sexual maturation is unlikely” (1994, 680. or.). Apopka aintzirako eta Floridako beste batzuetako kaiman arrek ere zakil txikiagoa eta odoleko androgeno gutxiago dituzte (Crain et al., 1998; Guillette et al., 1999).

---

<sup>247</sup> “Sexu-genero” edo “sexu-generizatu” terminoak erabili ditugu Doktorego-tesiaren atal honetan, baita animalia ez-gizatiarren sexuaz edo sexu-morfologiak jarduteko ere, garbi adierazten dutelako zer neurritaraino baldintzatzen edo determinatzen duen generoaz dugun ikusmoldeak sexua esleitu diegun animalien gorputz-morfologiak, haien garapenaz eta haien aukerez dugun ikusmoldea. Ez dirudi artikuluan horretan era honetan erabiltzen denik “generoa” muskuiluez hitz egiten denean. Egia esan, gure ustez, artikulua berresten du zein sakonak diren eta zenbateko eragina duten begirada dualista eta heteronormatibo sexu-generikoak eta haren inposizioak inguratzen gaituen horretan.

Horretaz gainera, azterketa askotan aipatu da dortoken sexu-garapenean “anomaliak” daudela. Van Schmidt, L. Cary, Ortiz-Santaliestra eta Karasov-ek ohartarazi dute *Rana Pipiens* igel arren testikuluen tamaina txikitu egin dela (2012, 347. or.). Bildu izan den beste fenomeno bat belarri gorriko dortoken sexu-“alderantzikatzea” da, PCBek eragina; alegia, feminizazioa eta emeak garatzea arrak garatu ohi diren tenperaturetan<sup>248</sup> (Bergeron, Crews eta McLachlan, 1994, 780. or.). Tamschick-ek eta beste egile batzuek gonada-“urritasunak” –gonada txikiak– eta sexu-“alderantzikatzeak” –emeak maskulinizatzea edo arrak feminizatzea– aurkitu dituzte *Xenopus laevis*, *Hyla arborea* eta *Bufo viridis* anuroetan, zeinek A bispenola eduki ohi baitute inguruan; dena den, ohartarazi dute espezieen desberdintasunak ere kontuan hartu behar direla eta ez dela behar baino azkarrago eta frogarik gabe orokortu behar (2016, 289. or.).

Arrain hermafroditak aurkitu dira –“hermafroditak” hitza darabilgu hala ageri delako artikuluan; bestalde, ez da zehazten ez zenbakirik, ez kopururik– hondakin-uren instalazioetako efluenteetan, Ingalaterran (Purdom et al., 1994, 275. or.), eta intersexualitate-maila altua errutiloetan, Erresuma Batuan, Jobling, Nolan, Tyler, Brighty eta Sumpter-en “Widespread Sexual Disruption in Wild Fish” artikuluan jasotzen denez (1998, 2.498. or.).

*Huffington Post*eko artikulua baten arabera, baliteke, parte batean, elikagaien bidez hormonak irenstearen ondorioa izatea haurrak pubertaroan hain goiz sartzea –duela belaunaldi bat edo bi baino goizago–; nolana ere, artikulua berean, ahotsa ematen zaie aukera hori ukatzen duten beste zientzialari batzuei (Storrs, 2017).

Ingurunearen feminizazio ustezko edo hipotetikoak eta arren sexu-diferentziazioa gero eta lausoagoa izateak dakarten kezka dihardu “Environmental xenoestrogens, antiandrogens and disorders of male sexual differentiation” artikulua: “There is great concern that the incidence of congenital disorders of male sexual differentiation is increasing. Several reports indicate an increase in the prevalence rates of cryptorchidism, hypospadias, and micropenis” (Sultan et al., 2001, 99. or.). Artikulu horretan –ez baita ikerketa bat–, giza teknogorputzen “normal sex differentiation”, “disorders of male sex differentiation” eta “adverse trends in male sexual differentiation” aipatzen dira. Deigarriena da zer larritasun eta urduritasun eragiten duen asaldura xenoestrogeniko posible batek, zalantzan jar baitezake maskulinitate heteronormatiboaren eta haren sexu-ezaugarrien iraunkortasuna. Atal honetan aipatu ditugun ikerketa eta/edo artikuluetan, arren ustezko feminizaziotik datoz arazoak eta kezka: testosterona-ekoizpen txikiagoa, androgeno gutxiago odolean, eta zakil eta testikulu txikiagoak eta gaizki antolatua.

---

<sup>248</sup> *Trachemys scripta* belarri gorriko dortoketan, sexu-determinazioa tenperaturaren arabera da: 31 °C-ko tenperaturetan, emeak sortzen dira; 26 °C-an, berriz, arrak. Tarteko tenperaturetan, 29-30 °C artean, askotariko eme eta ar ratioak sortzen dira (Wibbels, Bull eta Crews, 1991, 371. or.). Kasu honetan ere, bigarren kapituluaren genioen bezala, hormonek eta xenoestrogenoek badute sexu-determinazioa aldatzeko ahalmena.

Ildo horretan, gizonen ugalkortasun-arazoak bildu ditu World Wide Fund For Nature-k (2004). Espainiako estatuko zenbait komunikabidetako titularretan, ikusten da zer-nolako alarma piztu den gizonen espermatozoide kopuruak behera egin duelako. ABCn, adibidez: “Espermatozoide kopuruak nabarmen behera egin du mendebaldeko herrialdeetan” (Ramírez de Castro, 2017)<sup>249</sup>. *El Mundo* are alarmistagoa da: “Espermatozoide kopuruen beherakadak desagertze-arriskuan jarri du gizakia, ikerketa baten arabera” (*El Mundo*, 2017)<sup>250</sup>. Bi artikulu horietan, Levine-k eta beste egile batzuek egindako berrikuspina eta metaanalisia aipatzen dira; zehazki, 1981etik 2013ra bitartean PubMed/MEDLINE eta EMBASE ikerketa biomedikoen datu-baseetan gizakien esperma-kontzentrazioei buruz ingelesez argitaraturiko azterketak analizatu dituzte (2017). Horretaz gainera, esperma-kontzentrazioen (SC) eta esperma-zenbaketa totalen (TSC) 244 zenbatespen egin dituzte, 1971tik 2013ra bitartean egindako 185 azterketatan oinarrituta, zeinetan 42.935 gizonen esperma-laginak aztertu baitziren. Levine-ren eta beste egile batzuen ondorioa hau da: “Sperm counts whether measured by SC or TSC declined significantly among men from North America, Europe and Australia during 1973–2011, with a 50–60% decline among men unselected by fertility, with no evidence of a ‘leveling off’” (2017, 9. or.).

Egileek, bestalde, azaldu dute espermatozoide kopurua murriztea zenbait faktoreekin lotu izan dela; adibidez, jaio aurretik kimiko disruptore endokrinoekin kontaktuan egotea, edo, umetoki barneko ugalketa-garapen maskulinoaren kasuan, haurdunaren tabakismoa. Helduaroan, pestizidekiko esposizioak eta “life-style changes” delakoek zerikusia izan dezakete (Levine et al., 2017, 9. or.). Modu honetan, “a decline in sperm count might be considered as a ‘canary in the coal mine’ for male health across the lifespan. Our report of a continuing and robust decline should, therefore, trigger research into its causes, aiming for prevention” (Levine et al., 2017, 9. or.).

Aurretik, Ah-King eta Hayward-ek oharatarazi zuten nolako beldurra erakusten duten kimikoen eraginez mutikoen feminizazioa eta neskatoen maskulinizazioa baieztatzen duten erakunde, instituzio eta egileen errelatoek (2014, 4. or.)<sup>251</sup>. Beldur hori adierazten duten izenburuen adibide gisa, egileek aipatzen dituzte Doktorego-tesi honetan behin baino gehiagotan aipaturiko *Our Stolen Future: Are We Threatening our Fertility, Intelligence, and Survival?* (Colborn et al., 1997) edo *The Feminization of Nature: Our Future at Risk* (Cadbury, 1998). Hala eta guztiz ere, Ah-King eta Hayward-ek Barbara Seaman-en adierazpenak ere gogora

---

<sup>249</sup> Jatorrizko testua: “Cae en picado el número de espermatozoides en los países occidentales”.

<sup>250</sup> Jatorrizko testua: “La bajada de la cantidad de espermatozoides pone en peligro de extinción al ser humano, según un estudio”.

<sup>251</sup> Zehaztu dezagun, dena den, Greenpeacearen kasuan –egileek aipaturiko erakunde bat– ez dela ematen urtearen eta aipuari dagokion dokumentuaren erreferentziarik.

ekartzen dituzte, *The Greatest Experiment Ever Performed on Women: Exploding the Estrogen Myth* liburuaren egilea –National Women’s Health Network<sup>252</sup> delakoa ere sortu zuen, 1975ean, Phyllis Chesler, Belita Cowan, Alice Wolfson eta Mary Howell-ekin batera, eta DESaren arriskuak azaleratu zituen–, aurreko izenburuak ñabartzeko:

Nobody can be sure whether environmental estrogens lie behind the quadrupling of infertility rates since 1965; if the sea of estrogens in which we live explains the fact that sperm counts are half of what they were in 1940; and if, like intersex fish and mutant frogs, male humans might begin to morph into women. (Seaman, 2003, 222. or.; Ah-King eta Hayward, 2014, 4. or.-an aipatua)

Aurreko kapituluan azaldu dugunez, DESa bularreko minbiziarekin, jaioberrien heriotzarekin, antzutasunarekin, abortuekin, menopausia goiztiarrarekin, neoplasia zerbikal intraepitelialarekin –zelula ezkatatsuen hazkuntza ezohikoa eta minbizi-aurrekoa umetokilepoan– eta baginako edo zerbixeko adenokartzinomarekin lotu izan da, besteak beste (Howell, 2012; DES Action, 2019; Centers for Disease Control and Prevention. U. S. Department of Health and Human Services, 2019a). Brain Organization Theory-ren arabera –laugarren kapituluan aztertuko dugu xeheki–, umetokian egon bitarteko DESarekiko eta beste “medikamentu” estrogeniko batzuekiko esposizioak eragin dezake transexualitatea (Ostertag, 2016, 113.-115. or.).

Xenoestrogenoek eta/edo disruptore endokrinok teknogorputzasunetan<sup>253</sup> eta ingurunean dituzten efektu zinez kaltegarrien errealitate zabal eta askotarikoaz harago eta harekin batera, azaldua dugunez, Ah-King eta Hayward-ek nabarmendu dute maskulinitatearekin loturiko ezaugarri jakin batzuk –espermatozoida kopurua jaitea edo genitiletako malformazioak areagotzea– ahultzeko eta/edo itxuragabetzeko aukera izateak antsietatea eta beldurra eragin dituztela, antza arriskuan jarriko bailukete maskulinitate hegemonikoaren supremazia (2014, 5. or.). Alde horretatik, zera diote: “What is unveiled here is a preoccupation with vulnerability of masculinity, maleness, and manhood, those precious commodities of any patriarchal system” (2014, 5. or.). Egileek azpimarratu dute ez dutela esan nahi arrazoirik ez dagoenik ekintzarako, baizik eta gorago erakutsi ditugun titularren gisakoek eta zenbait ikerketa zientifikok erakusten

---

<sup>252</sup> Ikus The National Women’s Health Network’s Founders (National Women’s Health Network, 2019b).

<sup>253</sup> Bigarren kapituluan, “teknogorputz” nozioa “teknogorputzasun-subjektibitate” nozioarekin konbinatu dugu. “Subjektibitate” ere hainbat aldiz agertu da. Bigarren kapituluan teorizatu dugunaren arabera, Doktorego-tesi honetan ez dugu subjektibitatea gizakiaren esparrura murrizten; hala eta guztiz ere, atal honetan, ez dugu “subjektibitate” terminoa azpimarratu nahi izan animalia-teknogorputzasunen sexu-generizazioaz ari garela, antropomorfismoa ez areagotzeagatik. Bestalde, giza teknogorputzez aritzeko “teknogorputz” terminoa, besterik gabe, erabili dugu kapitulu honetan, behin baino gehiagotan.

dutena giza sexu-generoaren, bereziki maskulinoaren deskribapen bat dela, “under siege, endangered, and threatened” dagoena (Ah-King eta Hayward, 2014, 5. or.).

Irakurketa horren aurrean, eta beste egile batzuen teorizazioekin bat eginez –adibidez, Alaimo eta transgorpuztasunaren kontzeptua, gorpuztasunek ingurunera duten irekieraren eta gorputzen eta ingurunearen arteko koeraketaren berri ematen duena; edo Haraway, bestek beste–, Ah-King eta Hayward-ek proposatzen dute xenoestrogenoak eta, zentzu zabalago batean, disruptore endokrinoak gure eta gureez haraindiko sexu-generoen koeratzaitzat hartzea, ingurunearen koeraketa-prozesu jarraitu eta aldibereko batean:

Our material culture—as expressed by what objects we encircle ourselves with, the food we eat, the water we drink, the hormones we and our food industries gush into our surroundings, the air we breathe, the perfumes, soaps, shampoos and lotions we use, how we utilize our bodies—all becomes part of the process of sexing. (2014, 7. or.)

Alegia, begirada dualista heternormatiboa eta sexu-generoari eta sexualitateari buruzko ulermen normatiboa alde batera utzi, eta sexua, sexu toxikoa, sexu-toxikotasuna –“sexu” diogu, eta ez “sexu-genero”, hala darabiltelako egileek; haien helburua sexua modu desgenerizatu batean ulertaraztea edo ikusaraztea delako, edo, hobeki esanda, sexua interpretatzea generoaren gaineko ikusmolde hegemonikoan ainguratu edo ardaztu gabe<sup>254</sup>– beste era batera ulertzera gonbidatzen gaituzte, hain zuzen ere: “[As] an ongoing process influenced by endocrine disruptive chemicals, describing our shared vulnerability to one another; our bodies are open to the planet” (Ah-King eta Hayward, 2014, 1. or.).

Egileek planteatzen dute kutsadurak eragindako sexu-aldaketak “sexu erreaktibo” (“reactive sex”) eredu dinamikoaren bitartez ulertzea. Ah-King eta Sören Nylin-ek (2010) garatutako eredu honetan, teknogorputzen eraldaketak toxikotasunarekiko erresilientzia ekologikoaren zeinutzat hartzen dira, toxikotasuna araztasunaren ikusmoldeetatik urrunduz: “Rather than reinvesting in purity politics—the hope of some environmental movements—we wonder how resilience and healing can occur in the context of transnational capitalism and its monstrously under-regulated dumping” (Ah-King eta Hayward, 2014, 5. or.).

---

<sup>254</sup> Nolanahi ere, deigarria egin zaigu egileek “genero” kontzeptua erabiltzea arrainen kasuan, nahiz behin bakarrik erabili testu guztian zehar: “In the Potomac River (USA), chemicals from industrial and residential sources have caused male bass to produce eggs that can be fertilized by their former gender mates” (Ah-King eta Hayward, 2014, 9. or.).

Sexua emergentziatzko sistema dinamiko bat da ingurunearekin batera, zeina momentu historiko honetan toxiko ere bihurtu baita, kutsaduraren ondorioz. Horrek queerizatorako aukerak ematen ditu, Chen-ek dioen bezala:

I would of course be naive to imagine that toxicity stands in for utopia, given the explosion of resentful, despairing, painful, screamingly negative affects that surround toxicity. Nevertheless, I do not want to deny the queer productivity of toxins and toxicity, quite beyond the given enumerable set of addictive or pleasure-inducing substances, or to neglect indeed to ask after the desires, the loves, the rehabilitations, the affections, the assets that toxic conditions induce. Unlike viruses, toxins are not so very containable or quarantinable; they are better thought of as conditions with effects, bringing their own affects and animacies to bear on lives and nonlives. If we move beyond the painful “antisocial” effects to consider the sociality that is present there, we end in that sociality a reflection on extant socialities among us, the queer-inanimate social lives that exist beyond the fetish, beyond the animate, beyond the pure clash of human body sex. (2011, 281.-282. or.)

Ah-King eta Nylin-ek teorizatzen duten sexu erreaktiboaren ereduaren arabera, sexu-determinazioa “plastikoa” da funtsean, baita genetiko esaten zaionean ere (2010, 234. or.). Ikuspegi eboluzionista batetik, eta sexu dikotomikoen arauaren aurka, egileek diote sexua erreakzio-arautzat har daitekeela<sup>255</sup>, sexu-atributuak fenotipikoki plastikoak izanik. Sexu-aldaketa, -determinazioa eta -desberdintasunak, gehitzen dute Ah-King eta Nylin-ek, itxurari eta portaerari dagokienez, ikaragarri aldakorrek dira teknogorpuztasunetan (2010, 236. or.). Honako hau nabarmentzen dute horren harira:

It is a paradox that all biologists are aware of variation in sex determination, sex change and alternative reproductive strategies, and still we continue to present this variation in terms of a two-sex norm and the deviations from this norm as alternatives and sex role-reversals. (2010, 236. or.)

Horrenbestez, dikotomia natural gisa baino gehiago, edo ezaugarri funtsean diskretu gisa baino gehiago, hobe da, Ah-King eta Hayward-ek dioten bezala, sexua erantzunerako potentzial gisa hartzea, zeina bizitzan zehar aldatuz baitoa eta ingurunearekiko interakzioaren araberkoa baita (2014, 6. or.). Horixe gertatzen zaie, esate baterako, itsas harrei, krustazeo

---

<sup>255</sup> Ah-King eta Nylin-ek diotenez, sexuaren kontzeptua erreakzio-arau gisa ulertzea ez da batere berria, ezaguna baita sexu-determinazioaren arloan edo sexuz aldatzen duten espezieekin diharduten zientzialarientzat, baina ez zaio behar bezalako garrantzia eman, ez portaeraren zientzietan, ez zientziaren komunikazio sozialean (2014, 236. or.). Horretaz gainera, zera gehitzen dute egileek: “In addition, recent findings on the molecular genetics of sex determination and sex-limited gene expression illustrate that the reaction norm perspective is ultimately more correct than the view of sex differences as something genetically pre-determined” (2014, 236. or.).

espezie batzuei (adibidez, *Daphnia Magna*), anfibio- eta narrasti-teknogorpuztasunei, arrainei eta moluskuei, haien sexu-determinazioa ingurumenari lotuta baitago, hau da, tenperaturak, Ph-ak edo ingurune sozialak (menderatze-hierarkiak, taldearen sex ratioa, eta abar) baldintzatzen dute teknogorpuztasunaren sexu-determinazioa. Gainera, Ah-King eta Nylin-ek diotenari jarraituz, sexu-determinaziorako mekanismoak ere malguak dira, eta eboluzioaren historian aldatu egin dira: “In fact genetic and environmental sex determination systems repeatedly evolve from each other” (2010, 240. or.). Areago, espezie batzuek –txibia eta itsas harra, beste molusku batzuen artean, ekinodermoak eta arrain batzuk– behin baino gehiagotan aldatzen dute beren sexua beren bizitzetan zehar (Ah-King eta Hayward, 2014, 6. or.)<sup>256</sup>. Espezie gehienetan, bi sexuek badituzte sexu-diferentziazioari eta hormonen aktibazio eta parte-hartzeari ekiteko geneak; beraz, egileon arabera, bi sexuen ezaugarriak teknogorputz gehienen potentzialtasunaren, “beste zerbait bihurtzeko gaitasun”aren barnean daude: “[S]ex changing, intersexuality and expressing characteristics of both sexes is, for many organisms, part of their species potential” (Ah-King eta Hayward, 2014, 6. or.).

Ah-King eta Hayward-ek honela definitzen dute sexu-potentziala: “An opening out, responsiveness that is ontologically more dynamic than static” (2014, 6. or.). Ikuspegi horretatik, teknoorganismo batzuek sexu-posibilitaterako tarte estua izan ohi dute, hau da, haien potentziala mugatuagoa da, eta beste batzuen, berriz, zabalagoa. Disruptore endokrinoek badute ahalmena edo gaitasuna sexu-aldaketak eragiteko potentzial mugatuko espezie edo teknoorganismoetan ere. Egileek diotenez, azaleratzen diren *transsex* “ezaugarri” eta “sintomak” potentzialtasun edo posibilitate gisa uler daitezke, sexu-desberdintasunaren iterazio gisa baino gehiago (Ah-King eta Hayward, 2014, 7. or.).

Begirada eta ikusmolde utopiko eta distopikoetatik urrunduz, jarrera pragmatikoago batetik eta disruptzio endokrinoak eragiten dituzten produktu xenoestrogenikoak ekoizteko eta kontsumitzeko aginduaren aurrean politikoki erresistentzia egiteko beharrarekin batera, Ah-King eta Hayward-ek proposatzen dute onartzea toxikotasuna eta xenoestrogenizitatea gaur egungo garaiaren ezaugarriak direla, hau da, Kapitalozeno neoliberalerako une garaikide honen ezaugarriak. Horrek zera dakar: xenoestrogenizitatea eta toxikotasuna ere sexuaren baldintza eta elementu koerzatzaileak direla onartzea, sexua prozesu interaktibotzat hartuta betiere. Hala, desagertzeko errealitate eta posibilitateekin batera, mutazioak eta eraldatzeak aurkitzen ditugu. Sexu toxikoak badu potentzial trans\* eta queer bat, sexu-desberdintasun estatiko eta esentziala

---

<sup>256</sup> Giza espeziearen kasuan, uler liteke ere teknogorpuztasun batzuek beren bizitzan behin baino gehiagotan aldatzen dutela genero(-sexu)a eta sexualitatea.



eta animalia-erreinua karakterizatzeko erabili izan dugun heteronormatibitatea leherrarazten eta/edo lausotzen baititu.

Halberstam-ek ere kritikatu du (2010, 325. or.) nola zabaldu den gizakiaren ikusmolde sexu-generiko heteronormatibo eta patriarkala beste animalia-teknogorpuztasun batzuetara, eta, horretarako, Jon Mooallem-en artikulua bat aipatzen du, *The New York Times Magazine* aldizkarian argitaratua izenburu honekin: “Can animals be gay?”<sup>257</sup> (2010). Artikulu horretan, egileak zenbait biologo elkarrizketatu zituen; besteak beste, Lindsay C. Young, zeina albatrosa ikertzen ari baitzen 2003tik Kaena Pointeko kolonian, Hawaiiko Oohau uhartean. Young-ek, Marlene Zuk-ekin batera, ikusi zuen albatros bikoteen heren bat emea-emea elkarketak zirela eta 4, 8 edo 19 urte egoten zirela elkarrekin, urteroko zenbaketak egiten hasi zirenetik –albatrosak 60-70 urte bizi ohi dira, eta uste da bizitza guztian egoten direla bikotean eta banaketa kopurua txikia dela–, eta, hala ere, arra-emea konfigurazioak balira bezala deskribatzen ziren. Areago, ikertzaileek bi arrautza aurkitzen zituztenean habia berean –Mooallem-ek dioenez, hala gertatu da gutxienez 1919tik–, nahiago zuten, erabakitzen zuten edo joera zuten pentsatzeko ohi baino gehiago ugaltzen ziren albatros super arrak zirela<sup>258</sup> –albatros emeak, antza, urtean arrautza bat jartzeko gai dira fisikoki, eta txandaka inkubatzen dute 65 egunean zehar (Mooallem, 2010)–. Sekula ez zitzairen burutik pasatu pentsatzea eme bikoteak zirela eta bakoitzak arrautza bat erruten zuela<sup>259</sup>. Alde horretatik, zera dio Halberstam-ek: “The narrative of male super-fertility was more comforting and appealing and so intuitive evidence that contradicts the contorted narratives that scientists put together is ignored because heterosexuality is the ‘human’ lens through which all animal behavior is studied” (2010, 325. or.).

Mooallem-en artikulua argitzen laguntzen du ea portaera lesbianotzat har daitekeen albatrosen parekatze mota hori, Joan Roughgarden biologoaren proposamenaren bitartez, hau da, animalioek “multitasking”tzat jotzea eta hori bera aplikatzea orobat animalia-teknogorpuztasunei, gu geu barne. Horrek zera dakar: guk sexualtzat hartzen ditugun ekintza edo jokabide batzuk komunikazioaren atal bat izan daitezkeela, beste batzuek egokitze-funtzioa izan dezaketela, beste

---

<sup>257</sup> Artikuluaren izenburua (maiatzaren 31koa) “Can Animals Be Gay?” da, eta ez “The love that dare not squawk its name”, Halberstam-ek dioen bezala (2010, 325. or.). Aldizkarian, “Jeff Koons: The Love That Dare Not Squawk its Name” izenburua eman zitzaion 2010eko abuztuaren 17an argitaratutako “related coverage”ari, baina beste lan bat da, nahiz hango bi argazki erabili ziren Mooallem-en artikulurako.

<sup>258</sup> Beste azalpen batzuk ere eman ziren denbora luzean zehar; adibidez, emeak txandaka ibiltzen zirela habia berean, edo emeak okertu eta nahi gabe erruten zutela arrautza okerreko habia batean (Mooallem, 2010).

<sup>259</sup> Emeen elkarketaren aurkikuntzak eta kontaketa, hala ere, baditu arazoak: ia eme guztiek arrautza bat erruten dute azaroan, ernalduta ala ez. Aurkitu dira bi arrautzako habiak, edo arrautza bakarrekoak ondoan beste arrautza abandonatu bat dutela, baina, nolana ere, krater-formako habiak txikiak dira, arrautza batentzako modukoak. Apika, albatrosek jakingo dute zein dagoen ernalduta eta zein ez? Gainera, Young-ek dioenez, “[t]hey’ll incubate anything — I have a photo of one incubating a volleyball” (Mooallem, 2010). Kontakizun heteronormatibotik irriteak pentsamendu sortzailea lantzea eta aukera berriak arakatzea dakar.

batzuk bizirik irautera edo ugaltzera bideratuta egon daitezkeela, eta beste asko inprobisatuak izatea. Halberstam-ek adierazi duen bezala, heterosexualitate kanpo geratzen diren jokabide guztiak ez dira nahitaez homosexualak, eta giza optikaren arabera jokabide heterosexualaren estandartzat hartzen denak ere ez du zertan hala izan (2010, 325. or.).

Toxikotasun xenoestrogenikora itzuliz, aldagarritasuna eta multiplizitatea hedatzen ditu, eta, begirada queer batetik, hori aukera bat izan daiteke teknogorputzen egokitzapenerako, jarraipenerako, erresilientziarako eta birsorkuntzarako, eta ez, ikuspegi fatalista eta alarmista batetik, debideratze edo anormaltasuntzat hartzeko, aldaketak eragiten dituzten xenoestrogeniko eta toxiko horiek immunoeskasia, minbiziak eta heriotza ekarrita ere.

Hayward-en aburuz, Doktorego-tesi honetan defendatzen ari garen bezala, xenoestrogenikoa korapilatu egiten da “sexu-hormona femeninoak” definitzen dituzten estrogeno esteroideen –estriola, estradiola eta estrona– errizomarekin: “It therefore twines itself with the lives of transwomen who situate themselves within the milieu of hormonal transition or ‘hormone replacement therapy’ (HRT)” (2014, 255. or.). Hayward-ek dio “xenoestrogenizitate” hitzaren aurretik “trans” aurrizkia jartzeak tentsio emankorrak ekar ditzakeela: “By enacting ‘movements-across-into-strangeness’ that foster new conjugations, allowing xeno- to suggest alternate worldings” (2014, 255. or.). Transak\* lotura egiten du arrotzarekin, bestearekin, kanpokoarekin. Toxikoa ez da besterik gabe bestea, hor kanpoan dagoen zerbait; toxikoa denok gara. Denok gaude toxikotasunak koeratuta eta batuta, mordoilo toxiko batean korapilatuta, gure sexu-generoak barne.

Hortik abiatuta, Haraway-k bezala<sup>260</sup>, estrogenoz, giza teknogorputzasun femeninoz eta behor-teknogorputzez osaturiko konstelazio bat marrazten du, baina, horretaz gainera, xenoestrogenoak eta giza teknogorputz transak\* gehitzen ditu. Premarin® xenoestrogenoa, “PREgnant MAre uRINe”ren akronimoa (‘behor ernarien gernua’), Kanadan fabrikatu zuten lehen aldiz, 1941ean<sup>261</sup>. Haraway-k dioskunez, “by 1997 Premarin became the number-one prescribed drug in the United States, reaching the sales figure of \$2 billion by 2002” (2016a,

---

<sup>260</sup> Bigarren atalean, Haraway-ren bigarren cyborg-aren kontzeptualizazioan hormonak sartzeaz jardun dugu, eta 2016an kokatu dugu, *Staying with the Trouble* lanean, baina haren bosgarren atala, “Awash in Urine. DES and Premarin in Multispecies Response-ability”, 2012an argitaratu zen lehenago, *WSQ: Women’s Studies Quarterly* aldizkarian.

<sup>261</sup> Haraway-ren aburuz, bazegoen lehenago Emmenin® izeneko bertsio bat: “[T]he first orally active, water-soluble, conjugated estrogen” (2016a, 111. or.). Kanadako konpainia farmazeutiko batek eta McGill University-ko endokrinologo batek sortu zuten. Emmenin® emakume\* haurdunen gernutik erauzten zen, baina, horretarako, emakume\* haurdun asko behar ziren, eta konpainiak eta ikertzaileek, orduan, iturri emankor eta irisgarriago bat bilatu zuten, Haraway-k azaldu duen bezala. Garai hartan, aleman zientzialariak uretan disolbatzeko moduko estrogenoak ikertzen ari ziren Berlingo zooko zebra eta zaldien gernuan, eta, 1939rako, Ayerst konpainia farmazeutikoak aurkitua zuen metodo bat behor ernarien gernutik estrogeno-kontzentrazio egonkorra lortzeko (Haraway, 2016a, 111. or.).

112. or.). Behorren gernetik isolaturiko estrogenu konjugatuok erabili izan dira “menopausiadun”entzako HOTEan, histerektomia ondoko sintomak tratatzeko, ugalketa-zikloa erregulatzeko, obulutegietako arazoak konpontzeko, prostatako minbizia tratatzeko eta zenbait intersex kondizioetarako. Hayward-ek, halaber, azaltzen du emakume\* transek\* Premarin® erabili izan dutela *transxenoestrogenikoki* (2014, 256. or.). Haraway-ri jarraituz (2016a, 114.-116. or.), egileak azpimarratzen du medikamentu horren erabilera arazo eta gatazka ugariz inguratuta dagoela, behorrek asko sufritzen baitute erauzketan: amaierarik gabeko ekoizpena behartzen dituzte, itxita eta esklabo bihurtuta, eta, horretaz gainera, milaka zaldikume hiltzen dituzte (Hayward, 2014, 256. or.). Kapitulu honen amaieran sakonduko dugu horretan.

Xenoestrogenizitateak eta estrogenizitateak batzen gaituzte, eta arazo gisa planteatzen dituzte teknogorputzen eta espezieen –ez bakarrik animaliak, baizik eta baita landare eta ondoak ere– arteko muga ontologikoak, baita haien eta gainerako materiaren artekoak ere; ez soilik molekula hormonal mota berberetz osatuta gaudelako, baizik eta era berean besteren –kasu honetan, behorren– molekulez osatuta gaudelako: “Conjugated estrogens are about yoking molecules and species to each other in consequential ways” (Haraway, 2016a, 110. or.). Premarin® farmakoa xenoestrogenoa, teknoestrogenoa eta behorren estrogenoa da aldi berean, giza teknogorputz estrogenikoen kontsumorako, tekno-xeno-estrogenikoki koeratuta daudenak. Haraway-rekin bat eginez, Hayward-ek azaldu du *transxenoestrogenesia* “a hothouse of filiations and accountabilities” gisa har daitekeela (2014, 256. or.). Behorrek konfinatzea eta esklabo bihurtzea produktu farmazeutiko estrogenikoak ekoizteko emakume\* transek\* teknobiopolitikaren<sup>262</sup> barnean sorturiko praktikak dira, eta Hayward-ek ondorioztatzen du hormonalki MTF (*male to female*) ibili diren giza gorputzak *trans-espezieak* izan direla beti:

This is a more general state of affairs than commonly recognized, given that estrogens – produced by most vertebrates, some insects, and a number of plants– trans (an active verb, like queer) the boundaries of species, phyla, and kingdoms... There is nothing particularly novel about Premarin’s trans-conjugating sex transition for transwomen as a kind of becoming-with-horse. (2014, 256. or.)

Hasi bezala amaituko dugu atal hau, Hayward-en gisara azpimarratuz Premarin®-ek eta haren familia xenoestrogeniko handiak ez dituztela bakarrik elkartzen emakume\*, emakume\* trans\*, trans\* eta behorren bilakaera koeratzailak, baizik eta haienak eta ingurune guztiarenak, armiarma-sare xenoestrogeniko toxiko erraldoi bat bihurtu dena. Toxikotasun xenoestrogenikoak

---

<sup>262</sup> Hayward-ek “biopolitika” erabiltzen du, baina guk “teknobiopolitika” jarri dugu, Haraway-en eta Preciado-ren teorizazioei eta erabilerei jarraituz.

mugak lausotzen, aldatzen eta eraldatzen ditu, ez bakarrik sexu-generoen, teknogorputzen, espezieen, geografien, ekosistemen eta kontinenteen artekoak, baizik eta baita uraren, lurraren eta airearen artekoak ere:

*Transxenoestrogenesis...* can be characterized as a toxic, expressive, resilient, and ethico-politically problematic form of species symbiosis that undoes sex and embodiment as we know it... Things can get worse, and probably will; but life for earthlings is already precarious. *Transxenoestrogenesis...* names but one form of our shared vulnerability to one another, our bodies open to the planet. (Hayward, 2014, 258. or.)

Molekulartasun toxiko, xenoestrogeniko, estrogenikoa planeta-izaerako politika-modu bat ere bada, gure Kapitalozeno neoliberal honetan. Hayward-ek aipatzen dituen prekaritate- eta zaurgarritasun-moduok, halaber, maila molekularrean jarduten duen teknobiopolitikaren efektuak dira, eta, aldi berean, teknogorputzen erlazonaltasun koeratzaitetik eratorriak dira, ingurunearekiko haien irekieran.

### **3.4. Tekno-bio-politika: politikaren bilakaera molekularra Kapitalozeno neoliberallea**

Aurreko kapituluan adierazi dugun bezala, Haraway-k siliziozko txiparen adibidearen bitartez azaltzen du, besteak beste, teknologiaren bilakaera mikroa. Esaten duen arren teknologia mota berri hori eskala molekularrean gauzatzen dela, ez dirudi aldarrikatzen duenik –ez behintzat 2016ko “Awash in Urine”ra arte, edo artikulu-formatuko 2012ko bertsiora arte– teknologia hori eta gorputzak gobernatzeko, kontrolatzeko eta ekoizteko moduak, eta erresistentzia egiteko, esanahi berriak emateko eta eraldatzekoak –haietan baitu jatorria, eta haiek koeratzten baititu– ez bakarrik eskala molekularrean gertatzen direla, baizik eta molekular bilakatzen direla, literalki.

Haraway-k, *Cyborg manifestuan*, azpimarratzen du zer muga dituen Foucault-en biopolitikaren kontzeptuak botere eta politika mota berri honi dagokionez, bere tentakularitate korporatiboak industria militarretik hasi eta gorputz-ekoizpen eta -kudeaketarainoko esparrua hartu baitu:

Modern production seems like a dream of cyborg colonization work, a dream that makes the nightmare of Taylorism seem idyllic. And modern war is a cyborg orgy, coded by C3I, command-control-communication-intelligence, an \$84 billion item in 1984's US defence budget. I am making an argument for the cyborg as a fiction mapping our social and bodily reality and as an imaginative resource

suggesting some very fruitful couplings. Michael Foucault's biopolitics is a flaccid premonition of cyborg politics, a very open field. (1991, 150. or.)

Botereak forma teknologiko ñimiñoa hartu du, ikaragarri nonahikoa eta askotan ikusezina; horregatik, askoz arriskutsuagoa da, eta harremanak eta joko-baldintzak aldatzen ditu, elementu, mugimendu, distortsio eta agindu berriak txertatzen dituen heinean. Mundua kode-arazo bilakatzen da, eta animalia-teknogorputz gizatiar zein ez-gizatiarrak komunikazio-sistema gisa kontzeptualizatzen dira. Orain, gorputzak ez ditu hainbeste botere zientifiko-mediko batek sortzen, kudeatzen, kontrolatzen eta zigortzen, baizik eta botere korporatibo batek; Haraway-k industria bioteknologikoarekin lotzen du botere hori, baina batik informatikarekin eta komunikazio-industriarekin: “The cyborg is not subject to Foucault's biopolitics; the cyborg simulates politics, a much more potent field of operations” (1991, 163. or.). Elementu teknologikoa multinazional handien diskurtsoaren eta produkzioaren osagai nagusietako bat bezala azaleratzen da; multinazional handiek politika kapitalista neoliberalak implementatzen dute, eta bertan txertatzen dira, Foucault-en biopolitika zaharra gaindituz edo moldatuz, zeinak Haraway-ren arabera inplosio momentuan dagoen botere mota bati egiten baitio erreferentzia<sup>263</sup>. Ildo horretatik, zera iradokitzen du Haraway-k: “It is time to write *The Death of the Clinic*” (1991, 245. or.). Preciado-k proposamen hori jaso eta garatu zuen *Testo Yonki* lanean (2008), baita “¿La muerte de la Clínica?” izenburuko konferentzia batean ere (2013).

Haraway-ren kritikari jarraituz, eta horrenbestez “teknobiopolitika” edo “bioteknopolitika” nozioak bere eginez (Haraway, 2003, 9.-11. or.)<sup>264</sup>, baita “eskala molekular” horretan sakonduz ere, Preciado-k azaltzen du botere mota berri baten aurrean gaudela, Haraway-k silizio-makina ñiminoen harira deskribaturikoa baino konplexuagoa, sarkorragoa, ikusezinagoa eta nonahikoagoa, likatsuagoa eta desiratuagoa, gorputz, hazi eta azal bihurtzen dena eta Foucault-ek kontuan hartu ez zuena. Preciado-ren arabera, badira gutxienez II. Mundu Gerraz geroztik argi ikusten diren zenbait eraldaketa garrantzitsu; horrek erregimen-aldaketa ekarri du, eta, horregatik, beharrezkoa da hirugarren botere-jakintza mota bati buruz hitz egitea, Foucault-ek kontzeptualizaturiko tanatopolitiko edo nekropolitikoaz eta disziplinarioaz gainera (2005 [1976], 143.-169. or.; 1979 [1977], 106., 120., 148.-152. or.); Preciado-k, zehazki, botere

---

<sup>263</sup> Bigarren atalean azaldu dugun moduan, ohartarazpen kritiko horretan, Haraway-k Foucault-en *The Birth of the Clinic* (2003) (1963), *The History of Sexuality* (1978) (1976) eta *Discipline and Punish. The Birth of the Prison* (1995) (1975) lanei egiten die erreferentzia, besteak beste.

<sup>264</sup> Preciado-k berak zera dio: “Donna Haraway-k nahiago du ‘teknobiobotere’ nozioa, Foucault-en ‘biobotere’ beharrean, ez baikara ari bizitzaren gaineko botereaz (...), baizik eta osotasun teknobizidun konektatu baten gaineko botereaz eta kontrolaz” (2008, 39.-40. or.). Preciado-k, aurrerago “teknobiopolitika” kontzeptua darabil homosexualitatearen eta heterosexualitatearen arteko desberdintasunez hitz egiteko (2008, 41. or.).

“farmakopornografiko” izendatzen du: “Erregimen postindustrial, global eta mediatikoa, zeina hemendik aurrera ‘farmakopornografiko’ izendatuko baitut, sexu-subjektibitatearen gobernu prozesu biomolekularrak (-farmakoak) eta semiotiko-teknikoak (-pornoak) erreferentzia gisa hartuz” (2008, 32. or.; 2013; 2015)<sup>265</sup>. “Bioteknokulturalki” ekoitziriko gorputzak “bizitzaren kondizioa dira aro farmakopornistan” (Preciado, 2008, 43. or.), eta, aro honetan, negozio-modurik onena espeziearen ekoizpena eta kudeaketa da, diosku Preciadok (2008, 44. or.), giza bizitzaz baino askozaz haratago doana.

Eraldaketa nagusi horietako bi dira, batetik, egiaztatze-aparatuen aldaketa –egia ekoizten duten sistema semiotiko-teknikoak, diskurtsoak eta errepresentazioak–: diskurtso zientifiko-medikotik<sup>266</sup> komunikabideetara eta merkatura (Preciado, 2013). Gaur egun, “egia zientifiko-mediko”arekin batera, “egia korporatiboa” –hau da, etekin ekonomikoa lortzea– da teknogorputzasunen eta subjektibitateen ekoizpena eta kudeaketa zuzentzen duen boterea-ezagutzaren instantzia, eta, horretarako, komunikabideak eta publizitatea ezinbesteko tresnak dira<sup>267</sup>. Bigarren aldaketa garrantzitsua gorputzasunak eta subjektibitateak berak ekoizteko eta kontrolatzeko teknologietan gertatu da. Gorputza ez dute boterearen kanpo-arkitekturek ekoizten eta gobernatzen –kartzela, psikiatrikoa, ospitalea...–, baizik eta boterea bera bizi eta infiltratzen da gorputzetan, eta barrutik ekoizten ditu gorputza eta subjektibitatea (Preciado, 2008, 66. or.). Boterea mikroa eta barrukoa da orain: gorputz, materialtasun eta subjektibitate bihurtu da. Horrenbestez, subjektibitate-teknogorputzasunak kontrolatzeko eta ekoizteko teknologiak

---

<sup>265</sup> Jatorrizko testua: “régimen postindustrial, global y mediático, que llamaré a partir de ahora, tomando como referencia los procesos de gobierno biomolecular (-fármaco) y semiótico-técnico (-porno) de la subjetividad sexual (...) «farmacopornográfico»”. Preciado-k “farmakopornografiko” deritzon botere-konfigurazio berri hori agertzeak ez dakar Foucault-en erregimen tanatopolitikoa eta diziplinazkoa desagertzea (Preciado, 2013). Kontrara, hirurak batera bizi dira planetan eta hirurek konplexuago egiten dute gaur egungo egoera politikoa, eta horrek erresistentziatzko, subertsiozko eta eraldaketazko estrategia politiko asko eta askotarikoak eskatzen ditu, zeinak batzuetan kontraesankorrak edo elkarren aurkakoak baitira. Gaur egungo gatazka belikoak –besteak beste, Palestinakoa, Yemengo gerra, Myanmarren gerra rohingya etniaren aurka, Sudango gerra zibila, Irakeko eta Afganistango inbasioa, “koltanaren gerrak” eta haien jarraipena Kongoko Errepublika Demokratikoan–tanatopolitikaren indarraren erakusgarri dira. Desberdintasun sexualaren gaur egungo hegemonia diziplinazko boterearen fruitua eta zeinua da, eta Preciado-k boterearen hirugarren aldaeratzat hartzen duen horrekin batera agertzen da, zeinetan identitate sexu-generikoak eta/edo desberdintasun sexuala ere artefaktu teknozientifiko hormonalek osatuak baitira, eta merkatuko produktu farmakologikoen bitartez kapital bihurtuak. Hiru botere-konfigurazioak elkargainka egotearen eta gaur egungo une historikotik eratorritako konplexutasunaren ondorioz, adibide bat jartzearen, biopolitikak erreproduktzioarako gorputz gisa taxonomizatzen ditu emakumeak\*; aldi berean, teknobiopolitikak hormona-kontsumitzailetzat hartzen ditu eta feminizidioak bezalako nekropolitika moduen objektu ere bilakatzen dira gorputzok.

<sup>266</sup> Haraway-k iragarri zuen klinika hila zela, eta ideia hori jaso eta garatu zuen Preciado-k; Foucault-entzat (2005) (1976), sexu-subjektu modernoaren ekoizpena diziplinazko erakunde mediko-juridiko multzo batean gauzatzen da diziplinazko gizartean, eta, haien artean, paradigmatikoak dira klinika, haren diziplinazko begirada eta sexualitateaz egiten duen taxonomia (2005) (1976).

<sup>267</sup> Adibide bat ematearren, Watkins-en arabera konpainia farmazeutikoak kontsumitzaileentzako publizitate zuzenean inbertituriko diru kopurua 1989ko 12 milioi dolarretatik 1999ko 1.580 milioi dolarretara igo zen AEBN (2010, 247. or.). 1998an, 37,1 milioi dolar inbertitu ziren Premarin®-en publizitatean (Watkins, 2007, 247. or.).

kirurgikoak, likidoak, bigunak, hormonalak, molekularrak dira, eta irentsi eta/edo gantzutu egiten dira, materia, ile, haragi, odol eta azal bihurtzen diren arte, haietatik banatu ezin diren arte, eta teknogorputzen egitura tekno-organiko, hormonal, molekularra da “kontrol-sistema horien azken heldulekua” (Preciado, 2008, 67. or.)<sup>268</sup>. Dagoeneko ez gaude errepresio-modu agerikoen aurrean, eta paradoxa da ez dugula boterea irentsi bakarrik egiten, eskatu ere egiten baitugu, irentsi egin nahi dugu.

Boterea-ezagutza harreman berri horiekin batera, beste elementu edo teknologia batzuk azaleratu dira, boterea-ezagutzaren egitura hori osatzen dutenak eta haren ondorio direnak (2008, 81. or.; 2015). Batetik, Doktorego-tesi honen bigarren kapituluaz azaldu dugun bezala, “genero” kontzeptua agertu da, teknogorputz intersexualen kudeaketa medikoaren arloari dagokionez, lehenik, Blair-Bell-en eskutik, eta, gero, modu hedatuago batean, Money-ren eta Hampson anai-arreben eskutik<sup>269</sup> (Dreger, 1998, 166. or.; Mak, 2012, 10.-11., 13. or.; Preciado, 2008, 81.-82. or.), eta trans\* teknogorputzetara ere hedatu da (Preciado, 2015). Preciado-ren hitzetan, honek arriskuan jartzen du sexu-desberdintasunaren errepresentazio-sistema (2013). Bestetik, hormonak sortu dira<sup>270</sup> –kapitulu honetan hitz egingo dugu horretaz–, artefaktu teknozientifiko eta merkatuko produktu gisa; besteak beste, aipagarria da pilula antikonzeptiboa, zeinak jatorri eugenetikoa eta arrazista izan arren sexualitatea eta ugalketa bereiztea ekarri baitzuen, hau da, aurreko erregimenaren eta instituzio heterosexualaren oinarrietako bat (Preciado, 2008, 129. or.; 2013; 2015).

---

<sup>268</sup> Jatorrizko testua: “el último resorte de estos sistemas de control”.

<sup>269</sup> Ezbairik gabe, Money-ren eta Hampsondarren lana mugari bat izan zen –Reis-ek honela dio: “Money’s theory enjoyed almost unprecedented acceptance and adherence for decades” (2009, xiv)–, baina haren sustraiak hamarkada batzuk lehenago bilatu behar dira. Alegia, ez zen izan zerbait guztiz berria, baizik eta aurreko ideia eta praktika teknomedikoen bilketa bat, eta, honekin batera, irizpide teoriko-praktiko argi bat ezarri zuten intersex-kasuak tratatzeko, hau da, *rationale* zientifiko bat sortu zuten, jarraitu beharreko corpus teoriko bat eta protokolo bat.

<sup>270</sup> Oso interesgarria eta historikoki adierazgarria da erreparatzea nola “genero” nozioa agertzen den –betiere, Dreger-en eta Doktorego-tesi honetan aztertu dugun bibliografiaren arabera– Blair-Bell-en “Hermaphroditism” artikuluan eta nola zalantzan jartzen duen gonaden irizpidea eta, generoaren –hau da, sexu psikologikoaren (1915, 292. or.)– garrantziarekin batera, hormonien irizpidea ezartzen duen –“barne-sekrezio” deitzen die oraindik– sexuaren konfigurazioan: “It appears probable, then, that all the organs of internal secretion may have a certain definite influence-stimulating or restraining-on the development of special sex-characteristics, both primary and secondary” (1915, 289-290. or.). Fausto-Sterling-en arabera, Blair-Bell-ek lehenbizikoz lotu zituen sexu-desberdintasun sozialak hormonekin (2000, 157. or.). *The sex-complex: A study of the relationships of the internal secretions to the female characteristics and functions in health and disease* lanean, Blair-Bell-ek zera dio: “The essential fact, then, to be borne in mind... is that femininity itself is dependent on all the *internal secretions*. It used to be thought that a woman was a woman because of her ovaries alone; but, as we shall see later, there are many individuals with ovaries who are not women in the strict sense of the word, and many with testes who are really feminine in every other respect... when we speak of the genital functions of the ductless, or *hormonopietic* glands, we refer not only to their influence on the integrity of the uterus... but also on the general metabolism... and on the *psychology* of the individual” (1920 [1916], 4.-5. or.; geuk nabarmendua). Ikus, halaber, Blair-Bell (1920 [1916], 118., 119., 129. or.).

Eraldaketa horien ondorioetako bat da mendebaldeko gorputzaz ez dela hainbeste pentsatzen –hau da, nagusiki, baina ez eskusiboki– langile gisa; Preciado-ren hitzetan (2013), ez “ekoizle/erreproduktore” gisa<sup>271</sup>, baizik eta kontsumitzaile gisa. Hori agerian geratu da 2008ko krisi ekonomikoaz geroztik, “prekariatu” deritzon gizarte-klase berria agertzearekin batera (Standing, 2011). Klase honi, iraupen laburreko eta baldintza benetan prekarioko behin-behineko lanak izan arren, gizartearen erritmo eta maila bertsuan kontsumitzea exijitzen zaio. Prekarizazioaren eta kontsumitzaile gisa gure kontzeptualizazioaren areagotzea garrantzitsua da, kontuan hartzen badugu identitate sexu-generikoak ere produktu farmakologiko-hormonalak kontsumituz eratzen direla.

Preciado-ren “erregimen edo kapitalismo farmakopornografiko” kontzeptuaren azalpen teorikoan sakondu gabe, eta, modu erraz, sinple eta azkar batean esateko, alderdi pornografikoa – eta, horrekin batera, errepresentaziorako teknologiak, agertu zaizkigun arren ez baitira gure ikerketaren xede nagusia– alde batera utziz, farmakoetan jarriko dugu arreta<sup>272</sup>. Datuak esanguratsuak dira. Aurreko ataletan ikusi dugu zenbat antibiotiko kontsumitzen dituzten animalia-teknogorputz gizatiarrek eta, batez ere, ez-gizatiarrek; horrek “antibiotikoen krisi globala” deritzona ekarri du berekin. Aipagarriak dira, halaber, antidepresiboak, intulina, barbiturikoak, anestesikoak, minbiziaren aurkako tratamenduak, analgesikoak, antiinflamatorioak, antialergikoak, immunodepresoreak, diuretikoak, dermatologikoak edo topikoak, dibertimendurako drogak edo medikamentu opioideak<sup>273</sup>, besteak beste. *Expansión*ek Bloomberg-en datuetan oinarrituz 2018ko lehen zazpi hilabetei buruz egindako erradiografia sektorialaren arabera, enpresa teknologikoak daude burtsa-balio handieneko ehun enpresen buruan; 6 bilioi euroko kapitalizazioa daukate guztira, hau da, ehun enpresa kotizatuenen balio osoaren % 33,9 (Mazo, 2018). Haien atzetik, finantza-sektorea dago; 2016an galdu zuen

---

<sup>271</sup> Preciado-k adibide gisa jartzen ditu “masturbazioa patologizatetik hura sustatzerako pausoa, teknika telemasturbatorio global bat asmatuz eta onura izugarriko masa-kultura bilakatuz: pornografia” (2015) eta produkzioaren eta erreproduktzioaren kanpora ateratzea (Asia, Latinoamerika, ekialdeko Europa...) (2013), haurdunaldi subrogatuaren gaiarekin ikusten ari garen bezala.

<sup>272</sup> AEBk medikamentutan zenbat gastatzen duen kalkulatzeko, eta gehien agintzen diren farmako eta farmako motak zein diren jakiteko, ikus IQVIA Institute for Human Data Science (2019).

<sup>273</sup> AEBn, gobernuak neurriak hartzen ari da “opioideen krisi”ari aurre egiteko. 1995ean, Purdue Pharma L.P. -k OxyContin® merkaturatu zuen, modu oldarkor batean, minaren aurkako medikamentu opioide bat. Segurutzat saldu zuten arren, konpainiak 634,5 milioi dolar ordaindu behar izan zuen 2007an, aurrekoak bezain farmako adiktiboa zelako. 2017ko urriaren 26an, gobernuak nazio-mailako emergentzia deklaratu zuen “opioideen krisia”. 2018an, Trumpek opioideen programetan 6.000 milioi dolar erabiltzeko baimena eman zuen, 3.000 milioi urte hartarako eta beste 3.000 2019rako (CNN, 2019). U.S. Department of Health and Human Services erakundearen datuak (2018) ikaragarriak dira. 2017an, egunean 130 pertsona baino gehiago hil ziren AEBn opioideekin loturiko farmakoen gaindosiagatik; 42.249 pertsona hil ziren opioide-gaindosiagatik; 2,1 milioi arazoren bat izan zuten opioideen erabilerarekin loturik; 886.000 pertsonak heroina erabili zuten; 11,4 milioi agindutakoak baino opioide gehiago hartu edo gaizki erabili zituzten; eta 17.087 pertsona hil ziren agindutako opioideen gaindosiagatik, 19.413 metadona ez beste opioide sintetikoak hartzeagatik eta 15.469 heroina-gaindosiagatik (U.S. Department of Health and Human Services, 2018).



hegemonia, 3,3 bilioi euroko kapitalizazioarekin, hau da, guztizkoaren % 18,6. Hirugarren postuan, industria farmazeutiko-kimikoa dago, 2,12 bilioi euroko burtsa-kapitalizazioarekin, guztizkoaren % 11,9. Industria farmazeutiko-kimikoa, beraz, urrezko triangeluaren hirugarren elementua litzateke (Mazo, 2018). Energiaren eta telekomunikazioen sektoreak, aldiz, haren atzetik kokatuko lirateke.

The European Chemical Industry Council (CEFIC) erakundearen arabera, 2018an, 3.347 bilioi euroko kimiko-salmentak izan ziren mundo osoan, 2017an baino % 2,5 gehiago (2020, 6. or.). Munduko kimiko-ekoizle handiena Txina da -1.198 milioi euro 2018an-, munduko kimikoen % 35,8 ekoizten baitu; haren atzetik daude Europar Batasuna (% 16,9) eta Estatu Batuak (% 14) (CEFIC, 2020, 6. or.). Brasil, Errusia, India eta Txina herrialde multzoan, munduko kimika-salmenten % 42,5 bildu ziren. Munduko kimiko-salmenten hiru laurden herrialde multzo horretan, Europar Batasunean eta Estatu Batuetan egin ziren; beste laurdena Asiako herrialdeei dagozkie ia osorik, Ekialde Ertaina barne (CEFIC, 2020, 6. or.). Sektore kimikoa -farmazeutikak<sup>274</sup> eta kautxu- eta plastiko-industriak barne- Europako manufaktura-industria indartsuena izan zen 2015ean: balio erantsiaren % 16 bildu zuen, 299,1 bilioi euroekin (CEFIC, 2020, 35. or.). Haren atzetik ditugu makineria eta ekipamendua (201,1 bilioi euro), automobilgintza (200,4 bilioi euro), elikagaigintza (189 bilioi euro), metalgintza (172 bilioi euro), ekipo elektrikoaren fabrikazioa (87 bilioi euro) eta informatika eta elektronika (80,4 bilioi euro) (CEFIC, 2020, 35. or.).

Statista-ren datuen arabera, 2018an, merkatu-balio handieneko 50 konpainien artean zeuden 7 enpresa farmazeutiko: Johnson & Johnson, Inc., 341,3 mila milioi dolarrekin; Pfizer, Inc., 207,7 mila milioi dolarrekin; Novartis AG, 203 mila milioirekin; Roche Holding AG, 189,7 mila milioi dolarrekin; AbbVie Inc., 165 mila milioirekin; Merk & Co., Inc., 160,6 mila milioi dolarrekin; eta DowDupont Inc.<sup>275</sup>, 155,3 mila milioi dolarrekin (2019c).

2018ko merkatu-balio handieneko enpresa farmazeutiko eta bioteknologiko handienak hauek izan ziren: Johnson & Johnson, Inc., AEBkoa, 354 mila milioi dolarrekin; AEBko Pfizer, Inc., 240,7 mila milioi dolarrekin; Suediako Novartis AG eta Roche Holding AG, 212,9 eta 212,2 mila milioi dolarreko balioarekin, hurrenez hurren; AEBko Merk & Co., Inc., 178,2 mila milioi dolarrekin; AbbVie Inc., 154 mila milioi dolarrekin; Amgen Inc., 127,9 mila milioi

---

<sup>274</sup> Industria kosmetikoa -higiene pertsonala, lurringintza, etab.-, zeina xenoestrogeno-iturri bat baita, lotuta dago industria farmazeutikoarekin. Horren adibide da 2017an Valeant Pharmaceuticals International, Inc.-k -gaur egun, Bausch Health Companies Inc.- CeraVe®, AcneFree® eta AMBI® aurpegi-kremen markak saldu zizkiola L'Oréal S.A.-ri 3.100 milioi dolarren truke (Bausch Health Companies Inc., 2017).

<sup>275</sup> DowDupont Inc. hiru konpainia independentetan banandu zen 2019ko ekainaren 1ean: Dow Inc., Dupont de Nemours, Inc., eta Corteva Inc. -Corteva Agriscience izenez ezagutua- (DowDupont Inc., 2019).

dolarrekin; Abbott Laboratories Inc., 114,5 mila milioi dolarrekin, eta Ely Lilly & Co., 109,6 mila milioi dolarrekin. Hamargarren postuan, Frantziako Sanofi S.A., 106,7 mila milioi dolarrekin (Statista, 2019d)<sup>276</sup>.

PwC-ren datuei jaramon eginez –munduko lau auditore handienetako bat da–, 2018ko martxoaren amaieran, 15 enpresa farmazeutiko eta/edo bioteknologiko zeuden munduko merkatu-balio handieneko ehun konpainien artean<sup>277</sup>: Johnson & Johnson, Inc. (10. postuan), Norvartis AG (27), Pfizer, Inc. (28), AEBko United Health Group Inc. (30), Roche Holding AG (35), AbbVie Inc. (52), DowDu Pont Inc. (54), Merk & Co., Inc. (55), Danimarkako Novo Nordisk A/S (66), Amgen Inc. (67), Irlandako Medtronic PLC (75), Abbott Laboratories Inc.(83), AEBko Bristol-Myers Squibb Co. (86), Sanofi S.A. (90) eta AEBko Gilead Sciences, Inc. (96) (2018)<sup>278</sup>.

Preciado-ren analisitik jaso eta azpimarratu nahi duguna da gaur egungo kapitalismo mota honek “substantzia kimiko, merkaturako molekula” bihurtzen dituela subjektibitatea, afektuak, identitatea, sexualitatea, sexu-generoa eta desira (2008, 32. or.), hau da, ondasun, kapital bihurtzen dituela. Horregatik azpimarratzen du Preciado-k nolako garrantzia duten multinazional handiek identitatearekin, ugalketarekin, sexu-generoarekin eta sexualitatearekin loturiko gaiak kudeatzeko eta ekoizteko orduan; azken batean, gure intimitate-eremu zabalenean sartzen dira, gure gorputz-etxe edo -aterpean. *Alegia, politikaren, teknobiopolitikaren, eta boterearen, teknobioboterearen, bilakaera molekularra.*

Foucault-en iritiz, panoptikoa –Samuel Bentham ontzigitza-ingeniariak XVIII. mendearen amaieran sorturiko zaintza-arkitektura industrial (Preciado, 2008, 133. or.), gero haren anaia Jeremy Bentham-ek ideia hedatu eta kartzela-egitura bilakatu<sup>279</sup>– diziplinazko gizarteko boterea-ezagutzaren eredu paradigmatikoa zen, zaintzeko, kontrolatzeko eta diziplinatzeko pentsatua zen heinean (1995 [1975], 200. or.). Kartzela-arkitektura mota hartan, ziegak erdiguneko puntu baten inguruan kokatzen ziren, zirkulu bat osatuz, zaintza eta diziplina

---

<sup>276</sup> Ohartu gaitezten Statista-ren datuak ez datozela beti bat beraien artean; izan ere, 2018ko munduko 100 konpainia handien zerrendan, balio batzuk esleitu zizkieten konpainia farmazeutiko eta bioteknologikoei, eta beste batzuk urte bereko munduko konpainia farmazeutiko eta bioteknologiko handien zerrendan, balioen arteko aldea oso txikia den arren.

<sup>277</sup> Lehen laurak hauek ziren: Apple, 851 mila milioi dolarrekin; Alphabet, 719 mila milioirekin; Microsoft, 703 mila milioirekin, eta Amazon, 701 mila milioirekin (PwC, 2018). Baliteke datuok aldatu izana, batez ere Amazonen salmentak nabarmen hazi baitira COVID-19aren krisiaren harira. Ikus Neate (2020).

<sup>278</sup> Konpainia horien merkatu-balioak hauek dira: Johnson & Johnson, Inc., 344 mila milioi dolar; Norvartis AG eta Pfizer, Inc., 211 mila milioi bakoitza; United Health Group Inc., 207 mila milioi; Roche Holding AG, 198 mila milioi; AbbVie Inc., 150 mila milioi; DowDuPont Inc., 148 mila milioi; Merk & Co., Inc., 147 mila milioi; Novo Nordisk S/A eta Amgen Inc., 123 mila milioi bakoitza; Medtronic PLC, 109 mila milioi; Abbott Laboratories Inc., 105 mila milioi; Bristol-Myers Squibb Co., 103 mila milioi; Sanofi S.A., 101 mila milioi; Gilead Sciences, Inc., 98 mila milioi (PwC, 2018).

<sup>279</sup> Panoptikoaren adibide ugarien artean ditugu Bartzelonako Modelo kartzela ohia, 2017an itxia; Kubako Isla de la Juventud-eko Presidio Modelo ohia; edo Bogotako kartzela panoptiko zaharra, gaur egun Museo Nazionala.

ziurtatzeko; erdiguneko puntu horretan zegoen dorretik, pertsona bakar batek ziega, preso eta jokabide guztiak zaindu zitzakeen, inork bera ikusi gabe (1995 [1975], 200.-201. or.). Nolanahi ere, gorpuztasun-subjektibitateak ekoizteko eta kontrolatzeko kanpo-teknika hori, panoptismoa, beste arkitektura batzuetara ere hedatu zen, hala nola psikiatrikoa, ospitalea, eskola, kuartela, eta abar (Foucault, 1995 [1975], 199. or.). Halakoetan, zaintza erabat jarraitua ez izan arren, norbera zainduta dagoela eta zainduta egon daitekeela sentitzea nahikoa da ugaritasun sozial batean normaltasuna eta jokabide jakin batzuk ziurtatzeko, multiplizitate sozial horrek hala jokatu baitu zigortua ez izateko. Eta eremu guztietan gertatzen zen hori, bereziki sexu-generikoan eta sexualitatean.

Preciado-k dio panoptikoak gure egunetaraino iraun duela pilula antikonzeptiboaren kaxa zirkularraren bitartez, eta elkarren ondoan jartzen ditu Jeremy Bentham-ek diseinatu eta Foucault-ek jasotako (1995, [1975], 171. or.) panoptikoaren planoaren irudia eta “panoptiko jangarri”arena (Preciado, 2008, 134. or.)<sup>280</sup>. Antzekotasuna harrigarria da. Panoptikoa boterearen kanpo-arkitekturaren eredu adierazgarria zen bezala diziplinazko gizartean, panoptiko jangarri hormonal subjektibitatearen eta materialtasunaren gaur egungo barne-ekoizpeneko eta ekoizpen molekularreko forma eta teknologien eredu adierazgarria da<sup>281</sup>. Dagoeneko ez da hain beharrezkoa banakoak kanpotik zaintzea; haiek barneratzen dituzte gizartearen eta/edo publizitatearen aginduak, denak ere komunikabideetan eta Interneten bitartez zabalduak eta korporazio farmazeutiko eta bioteknologiko handiek finantzatuak. Gaur egun, portaera desiratuak, hormona-kontsumoa barne –haren bitartez koeratzen, finkatzen eta sendotzen dira identitate sexu-generikoak, eta horrek berekin dakar hormonak erabiltzea identitateok eraldatzeko eta iraultzeko–, ez dira hainbeste lortzen kontrolatuz eta zigortuz, baizik eta merkaturatze eta publizitate errepikakor, temati eta are oldarkorraren bitartez, zientziaren autoritateak eta Preciado-ren hitzetan, haren erlijio estatusak, bultzatuta (2008, 33. or.)<sup>282</sup>.

---

<sup>280</sup> Monika Arandak, 2019ko maiatzaren 10ean Iruñeko Zitadelako Labean aurkezturiko *Panóptico* erakusketan, Bentham-en panoptikoak gaur egun arte nola iraun duen agertu du. Lan horrek azpimarratzen du Interneten nabigatzen eta informazioa bilatzen dugunean etengabe behatzen gaituztela, eta doan eta borondatez eskaintzen dugun informazioa teknogorpuztasun-subjektibitateen produkziarako eta kontrolerako mekanismo gisa erabiltzen dela eta errentagarritasun handia sorrarazten duela. Egileak berak, zeinarentzat “panoptiko” kontzeptuak definituko bailuke murgilduta gauden aro digitala, honela dio: “¿Miramos, o nos miran lo que miramos?”.

<sup>281</sup> Oudshoorn-ek ere ohartarazi du pilularen barne-izaeraz, barne-prozesu fisiologikoetan esku hartu zuen lehen antikonzeptibo ezaguna izan baitzen (1994, 111. or.).

<sup>282</sup> COVID-19aren krisiak berak ere, krisi biriko, kimiko, molekular, sanitarioa izan arren eta gizarte kapitalista neoliberalen krisi sistemikoa agerian utzi arren –zaintzaren krisia, adibidez–, ez du aldatu eraketa farmako-hormonalaren desesitate egoera hori. Botikak zabalik daude, eta produktu hormonal eta farmakologiko berak erosten segitzen dugu; lehen baino gehiago, gainera. Dena den, krisi honek biztanleria globala are gehiago kontrolatzea ekarri du, estatuen, polizien eta are auzokideen zaintzaren bitartez. Biztanleria kontrolatzeko metodo berrien artean konfinamendua dago, legez dekretatua eta isun ekonomikoez lagundua, edota borondatezkoagoa, herrialdearen arabera; baita eguneroko temperatura-neurketak ere, aplikazio digitalen bidez,

Faktore horiek hormonak kontsumitzeko *desesitate*a sortzen dute, batik bat emakumeengan\*, zeinak halako konpainia eta kanpainen helburu nagusia baitira. Ginekologoaren kontsultara joatean, bertatik bertara bizi izan dugu edo, bestela, lagunei entzun diegu nola, hormonak hartzea pentsatu dugun ala ez galdetu ere egin gabe, begien aurrean jartzen diguten produktu hormonal sorta bat, eta nola galdetzen diguten “beraz, zein aukeratu duzu?”: egunero gertatzen dira halakoak, ez noizean behin. Eta, halako egoeren aurka argudiatzeak eta/edo halako egoerei aurre egiteak –ekin, presio eta desegokitasun handiagoz edo txikiagoz– informazio, kontzientzia eta ausardia dosi handia eskatzen du. Kontuan hartu behar dira, halaber, merkaturatze eta preskripzio oldarkorrak, korporazio handien helburuaren eta etekinak lortzeko temaren ondoriozkoak. Piszczek-ek eta beste egile batzuek zera adierazi dute testosterona ordezkatzeko terapiari buruz: “TRT has been aggressively marketed to both clinicians and patients for non-approved indications such as ‘andropause’ and male sexual dysfunction” (2014, 5. or.).

Pharmacopeia taldeko Susie Freeman ehunki-artistak, David Critchley bideo-artistak eta Liz Lee familia-medikuak sorturiko *Cradle to Grave* erakusketan, agerian geratzen da farmakoen eta, bereziki, hormonaren ugaritasuna eta garrantzia, zeinak panoptiko jangarriaren metafora erabiliz izendatzen baititu Preciado-k. British Museum-en jarri zuten erakusketa, eta honako hau deskribatzen zen azalpenen kartelean: “*Cradle to Grave* explores our approach to health in Britain today and addresses some of the ways that people deal with sickness and try to secure well being” (2016). Zalantzarik gabe, hormonek zerikusi handia dute gure ongizate afektibo, korporal, emozional eta identitarioa kontzeptualizatzeko eta ulertzeko daukagun moduan.

---

eta kalera ateratzeko eta saltokietara sartzeko nahitaezkoak diren baimen digitalak; mugen itxiera ere kontrol metodoon artean dago. Kontrol- eta zigor-neurriok agerian uzten dute diziplina-boterea, baina, aldi berean, nekropolitika-dosiak dira, Preciado-k “farmakopornografiko” deritzon hirugarren erregimenarekin batera agertu direnak. Botore handiagoa izango du hirugarren honek COVID-19aren aurkako txertoak agertzen direnean. Diziplina-boterea indartu izana, hala ere, lotuta dago lehen aipaturiko hiru erregimenen aldiberekotasunaren irakurketarekin.



*Cradle to Grave* by Pharmacoepia, British Museum, Londres, 2016

Maite Arraiza Zabalegiren argazkia

Irudian ikusten denez, erakusketan, emakume baten eta gizon baten historia medikoak ilustratu zituzten bi oihal luzetan. Pieza bakoitzean, 14.000 pilula daude, Britainia Handiko herritar bati bizitza osoan zehar agindutako medikamentuen batezbesteko estimatua, kartelean azaltzen den bezala. Tratamendu batzuk komunak ziren bi teknogorpuztasunetan: bion bizitzaren hasieran, K bitamina eta immunizazioak injektatu zitzaizkien, eta biok hartu zituzten antibiotikoak eta analgesikoak bizitzako unereren batean. Baina badira beste farmako batzuk espezifikoak direnak. Gizonaren kasuan, zeina 2016an hila baitzen, ez dago hormona-medikamenturik. Emakumeak, aldiz, pilula antikonzeptiboa hartua zuen gaztaroan, eta HOTA helduaroan. Bularreko minbizia diagnostikatu, eta haren aurkako tratamendua hartu zuen –ez dakigu hormonarik hartu zuen, ez baita zehazten, baina baliteke hala izatea–; 2016an, bizirik zegoen, eta 82 urte zituen. Emakume\* askorentzat, sehaskatik hilobirainoko bidea, erakusketaren izenburuak dioten bezala, (xeno)estrogenikoz zolatua egon da eta hala dago oraindik ere.

Erakusketa dokumentu bisual eta material baliotsua da, eta farmakoek Kapitalozeno neoliberallean –eta ekoizpenerako, publizitaterako eta salmentarako egitura korporatibo eta

instituzionalean, bestela ez bailitzateke posible izango– duten eginkizunaren eta nonahikotasunaren kondentsazio metaforiko eta artistiko gisa funtzionatzen du, bi ideia hauek azpimarratuz: 1) zer garrantzia duten hormonek artefaktu kimiko-molekular horien baitan, eta 2) zer garrantzia izan duten eta duten oraindik ere feminitatearen osaeran eta konfigurazioan.

Grand View Research, Inc.-ren arabera (2016) –aholkularitzako eta merkatua ikertzeko enpresa handienetako bat mundu-mailan–, HOTaren merkatu globalaren balioa 15.100 milioi dolarrekoa zen 2014an (2016). 2019an, HOTaren merkatuaren tamaina 21.800 milioi dolarrekoa zela kalkulatu zen (Grand View Research, Inc., 2020). Konpainia horren datuen arabera, estrogenoak –hutsak edo konbinatuak– ordezkatzeko terapia 7.500 milioi dolarrera iritsi zen 2014an; hormona tiroidea ordezkatzeko terapia, 1.000 milioi dolarrera; testosterona ordezkatzekoa, 2.500 milioi dolarrera; eta hazkuntzarako hormona birkonbinatzailea, 4.000 milioi dolarrera<sup>283</sup>. Ikerketa horretan, bestalde, datu hau jaso da: “According to the reports published by Pfizer, Premarin independently recorded a sale of 1.076 million in 2014” (Grand View Research Inc., 2016). Market Data Forecast Inc.-k, aldiz, datu baxuagoak eman ditu, eta HOTaren merkatu globala 15.750 milioi dolarrean ipini zuen 2019an (2019).

Premarin®-en arrakasta, Doktorego-tesi honetan zenbait aldiz iradoki dugun bezala, historian zehar behin baino gehiagotan errepikatu da. Elizabeth Siegel Watkins-ek *Estrogen Elixir: A History of the Hormone Replacement Therapy in America* lanean kontatu duenez, 1980an, AEBko farmazialariek 14 milioi estrogeno-preskripzio errezetatu zituzten, 1975ekoaren erdia, nahiz eta Watkins-en arabera Premarin® izan zen urte hartan herrialde guztian gehien errezetatutako bigarren farmakoa (2007, 148. or.). 1980an, AEBko farmako salduenen zerrendako hemezortzigarren postura jaitsi zen, baina bat-bateko gorakada izan zuen gero: 1985ean, ia 20 milioi preskripzio izan ziren, eta, 1990ean, ia 30. 1988an farmako preskribatuenen zerrendan bosgarren postuan egon eta gero, hau gertatu zen: “[F]our years later, in 1992, it reached number one and remained either the first or second most popular drug in America every year for the rest of the century” (2007, 148. or.). 1992an, HOT-preskripzioen kopurua 39,6 milioikoa izan zen –Watkins-en arabera, preskripzioen % 70 Prempro® eta, batez ere, Premarin® izan ziren–; 1999an, 89,6 milioira igo zen (2007, 246. or.).

Transparency Market Research Pvt. Ltd.-en arabera, HOTerako erabilitako medikamentu estrogenikoen –hutsak edo konbinatuak– merkatu globalaren balioa 3.770 milioi dolarrekoa zen 2014an (2016). Erankunde berak kalkulatu du “menopausal hot flashes market”

---

<sup>283</sup> Gran View Research, Inc.-ek aurkezturiko datuen arabera, Ipar Amerikaren –bereziki AEBren– mende dago HOTen merkatua; 2015ean, irabazi guztien % 35 lortu zuen (2016).

delakoaren balioa 9.500 milioi dolarrekoa izan zela 2019an (Transparency Market Research Pvt. Ltd., 2020). Antikontzeptiboen merkatu globalari dagokionez, Transparency Market Research Pvt. Ltd.-ek 22.050 milioi dolarreko balioa ezarri zuen 2016an (2019). Merkatu-ikerketen konpainiaren arabera, Ipar Amerikako antikontzeptibo-merkatuak 8.074,2 milioi dolarreko etekinak utzi zituen 2017an (Transparency Market Research Pvt. Ltd., 2019). IndustryARC™ analistak antzeko datuak eman ditu antikontzeptiboen merkatuari buruz (20.000-21.000 milioi dolar 2018an), eta Ipar Amerika jo du eskualde nagusitzat, eskaeraren % 28-30 bildurik (2019).

Orain arte emandako datuek frogatzen dute estrogenoak –hutsak edo konbinatuak– direla oraindik ere gehien kontsumitzen diren eta mundu-mailan etekin gehien ematen duten hormonak; horrek bat egiten du Haraway-k (2016a, 112. or.) eta Watkins-ek (2007, 148., 246. or.) adierazitakoarekin eta baita Oudshoorn-en analisisekin ere (1994, 109., 150. or.); zehazki, gero sakonago azalduko dugunez, Oudshoorn-ek azpimarratu du historikoki “sexu-hormona femenino” deitu izan direnak –estrogenoak eta progestagenoak– gehiago ustiatu izan direla, bai zientifiko-medikoki, bai korporatiboki, “sexu-hormona maskulino” deritzenak –androgenoak– baino. Preciado-k “medikuntzaren historia osoan gehien erabilitako molekula sintetiko” izendatzen ditu (2008, 126. or.).

Ukaezina da nolako garrantzia duten hormonek emakumeen\* teknogorpuztasun-subjektibitateen ekoizpenean eta kudeaketan, baina, hala eta guztiz ere, Kapitalozeno neoliberalerako azken hamarkadetan, gizonen teknogorpuztasun eta subjektibitateekin loturiko merkatu-hobiak agertu edo errektibatu dira, aurreko kapituluan azaldu dugun bezala, testosteronaren merkaturaren, testosterona-defizitaren sindromearekin loturik<sup>284</sup>. Testosteronaren merkaturaren ere gora doa. Ostertag-ek jakinarazi du testosterona-salmentak % 500 hazi zirela 1993tik 2003ra bitartean, eta % 115 2005etik 2010era bitartean (2016, 93. or.). David J. Handelsman-ek dioenez, mundu-mailako testosterona-salmentak –41 herrialdetako datuak aztertu ziren– 150 milioi dolarretik 1.800 milioi dolarrera igo ziren 2000tik 2011ra bitartean

---

<sup>284</sup> Gizonentzako testosterona-merkatuaren auzia ez da batere berria. Oudshoorn-ek erakutsitako 1939ko iragarki batean, “Neo-Hombreol” agertzen da, Organon konpainiaren konposatu testosteroniko bat, inpotentzia tratatzeko erabilia (1994, 102. or.). Hormonak ordezkatzeko terapiaren hasiera, gaztetasuna eta indarra berreskuratzeko guruinak, jariakin hormonalak edo hormonak erabiltzea, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran koka daiteke. Zehazki, Charles Eduoard Brown-Séguard, Eugen Steinach eta Serge Voronoff-ek ezarri zituzten estrategia horren oinarriak (Sengoopta, 2003; Kahn, 2005, 142. or.; Ostertag, 2016, 31.-36. or.). 1940ko hamarkadaren amaieran eta 1950ekoaren hasieran, atletak eta kulturistak esteroide anabolizatzaileak erabiltzen hasi ziren (Hoberman eta Yesalis, 1995, 80. or.; Preciado, 2008, 128. or.), baita HIESdunen gihar-masaren galerarako tratamendu gisa ere (Hoberman eta Yesalis, 1995, 80. or.; Ostertag, 2016, 88. or.). Gaur egun, Interneten badago orotariko produktu farmazeutikoen merkatu beltz erraldoi bat; besteak beste, esteroide anabolizatzaileena (Preciado, 2008, 129. or.) eta testosteronarena, zeinak besteak beste, testosterona ordezkatzeko terapian erabiltzen baita (Ostertag, 2016, 91. or.). Ikus gizonentzako testosterona-produktuen publizitatea eta/edo merkaturatzea eskaintzen duten 49 webguneren analisia Ivanov, Vuong eta Gray-ren (2018) lanean.

(2013, 549. or.). Bhasin-ek kopuru altuagoak eman ditu: “[T]he annual prescription sales of testosterone in the United States increased from 18 million in 1988 to 70 million dollars in 2000 to over 2 billion dollars in 2013!” (2016, 830.-831. or.). AndroGel® gel erako testosteronak – AbbVie Inc. enpresa farmazeutikoak ekoitzia– 675 milioi dolarreko diru-sarrera garbiak izan zituen 2016an, eta 577 milioi dolarrekoak 2017an, Statista-ren arabera (2019e); nolana ere, iturri horrek berak jakinarazi du AndroGel®-ek 1.000 milioi dolar irabazi zituela AEBn 2013an (Statista, 2019f). Ivanov eta beste egile batzuek diotenez, AndroGel®-en preskripzio bidezko salmentak 1.000 milioi dolarretik gorakoak izan dira AEBn (ez dute urterik zehaztu) (2018, 388.-389. or.).

Oraindik ikusteko dago zer eragin izango duen FDAren ebazpenak produktu testosteronikoen merkatuan eta salmentetan, baina baliteke ebazpen horren eta AbbVie Inc.-ren aurka jarritako 6.000 epaiketen ondorioa izatea Statista-k aipaturiko beherakada –AbbVie Inc. bigarren aldiz kondenatu dute gizon bati kalte-ordaina ematera, halako farmakoen albo-ondorioengatik; kasu honetan, 3 milioi dolar (Bellon, 2018)<sup>285</sup>–. 2014ko uztailaren 31n, produktu testosteronikoen kaxen etiketan argibide bat txertatzeko errekerimendua argitaratu zuen FDAk, infartuak eta buruko isuriak eragiteko arriskuaz informatzeko, eta, 2015eko martxoaren 3an, prebentziozko ohar bat erantsi zuen, halako produktuak zahartzearen ondoriozko testosteronamailaren jaitsiera tratatzeko erabiltzearen arriskuei buruz (FDA, 2018d). Baillargeon, Kuo, Westra, Urban eta Goodwin-en arabera, 2013tik 2016ra bitartean, % 40 jaitsi ziren gizonen testosterona-preskripzioak (2018, 210. or.).

Hala eta guztiz ere, ez dirudi FDAren iragarpenek konpainia farmazeutikoak gerarazi dituztenik. Hi-Tech Pharmaceuticals Inc.-k Tribesterone® merkaturatu zuen 2019an, eta Israelgo Teva Pharmaceutical Industries Ltd.-k 2019ko apirilaren 11n iragarri zuen merkatura aterako zuela AngroGel®-en “Testosterone Gel 1.62% CIII” generikoa, testosterona ordezkatzeko terapiarako (Teva Pharmaceutical Industries Ltd., 2019). Beste farmako testosteroniko batzuk dira Axiron®, Eli Lilly & Co.-rena; Testim® eta Testopel®, Auxilium Pharmaceuticals, Inc.-enak; Androderm®, Actavis PLC-rena –Teva Pharmaceutical Industries Ltd.-ren subsidiarioa–; Depo®-Testosterone, Pfizer, Inc.-rena; Fortesta®, Endo International PLC-ena; Striant®, Auxilium Pharmaceuticals, Inc.-rena; eta Android®, Bausch Health Companies Inc.-rena.

---

<sup>285</sup> Metzger eta Burnett-ek adierazi bezala, Kanadako politika 2006an aldatu zen; hala, testosterona ordezkatzeko terapiaren preskripzioek xehetasun dokumentatuak eman behar dituzte, besteak beste, testosterona-maila baxuaz eta testikulu-gaitzaz edo GIBaz, 65 urtetik gorakoetan (2016, 942. or.). Ondorioz, testosteronaren salmenta % 28 jaitsi zen, baina, 2012an, maximo historikoak lortu ziren, % 310 igo baitzen berriz salmenta (Piszczek, Mamdani, Antoniou, Juurlink eta Gomes, 2014, e98003. or.).



Hormonak ez dira besterik gabe hormonak. Artefaktu teknozientifikoak eta merkatuko produktuak dira –hainbat gizarte-talderen interesak bateratzen dituztelarik (Oudshoorn, 1994, 108. or.)–, gorputz-molekulak, ondasun merkaturagarriak, lur, itsaso eta aire zatiak, identitate sexu-generikoak, adierazle kulturalak, gorputz-subjektibazio eta -materializaziorako teknologiak, transespezieen loturak. Preciado-ren hitzetan:

Testosterona-gelaren dosi bat hartzen dudanean edo dosi likido bat injektatzen dudanean, egiaz, adierazle politiko kate bat hartzen ari naiz, zeina materializatu egiten baita harik eta nire gorputzak bere egin dezakeen molekula baten forma hartzen duen arte. Hartzen dudana ez da besterik gabe hormona bat, molekula bat, baizik eta hormonaren kontzeptua: zeinu, testu, diskurtso multzo bat; hormona sintetizatzekeo prozesua; laborategian materializatu arteko sekuentzia teknikoa. Kate karbonatu esteroide eta kristalino bat injektatzen dut, eta, horrekin batera, baita modernitatearen historiaren zati bat; transakzio ekonomiko multzo bat eta erabaki farmazeutiko, saiakuntza kliniko, iritzi-talde sail bat injektatzen ditut; bizitza patentatzen duten truke eta fluxu ekonomikoen sare barrokoetara konektatzen naiz: elektrizitatea, ikerketa genetikoko programak, hiperurbanizazioa, biosferako basoen txikizioa, laborategiko espezie berrien asmakuntza, Dolly ardia, ebolaren hedapena Afrikan (...) pertsonen aurkako minak (...) Boterea, desira, askatasuna, sumisioa, kapitala, zaborra eta matxinada iragateko beharrezkoak diren konektore somatiko horietako bat bilakatzen naiz. (2008, 107.-108. or.)<sup>286</sup>

“Hormona” kontzeptuan bateratzen diren elementuen kartografia zabalaren deskribapen horri jarraituz, Haraway-ren eta Preciado-ren eskutik, aldarrikatzen dugu politikaren bilakaera molekularra dela “teknobiopolitika”ren forma edo agerpen nagusietako bat –baina ez bakarra–. Teknobiopolitika artefaktu teknologiko molekular, kimiko, farmakologiko horietan eta horien bidez gorpuzten da, zeinak nagusiki baina ez eskusiboki hormonalak baitira edo hormona-efektuak baitituzte, eta teknogorpuztasun-subjektibitateak eta baita ingurunea ere kudeatzeko, kontrolatzeko, ekoizteko eta koeratzeko balio baitute. Endogenoki, baina baita teknogorpuzten eta ingurunearen arteko etengabeko koeraketaren bitartez. Alaimo eta Hayward-ekin bat eginez, teknobiopolitika kimiko materiala teknogorpuzten eta ingurunearen interakzioan azaleratzen da,

---

<sup>286</sup> Jatorrizko testua: “Cuando me administro una dosis de gel de testosterona o me inyecto una dosis líquida me estoy administrando en realidad una cadena de significantes políticos que se materializa hasta adquirir la forma de una molécula asimilable por mi cuerpo. Lo que me administro no es simplemente la hormona, la molécula; es el concepto de hormona: una serie de signos, de textos, de discursos, el proceso a través del cual la hormona llegó a sintetizarse, la secuencia técnica a través de la cual llegó a materializarse en el laboratorio. Me inyecto una cadena carbonada esteroide y cristalina, y con ella un trozo de historia de la modernidad, me administro una serie de transacciones económicas y un conjunto de decisiones farmacéuticas, de ensayos clínicos, de grupos de opinión, me conecto a las redes barrocas de intercambios y de flujos económicos y políticos que patentan la vida: la electricidad, los programas de investigación genética, la hiperurbanización, la masacre de los bosques de la biosfera, la invención de nuevas especies de laboratorio, la oveja *Dolly*, el avance del ébola que devasta el continente africano (...) las minas antipersona (...) Me convierto así en uno de los conectores somáticos a través de los cuales circula el poder, el deseo, la libertad, la sumisión, el capital, la basura y la rebelión”.

elkarrekiko eraketaren prozesuan, eta, hor, artefaktu hormonal eta xenoestrogenikoek parte hartzen dute. Teknobiopolitika molekular bilakatzen da teknogorputzen eraketa tekno-xeno-hormonalean, teknogorputzok ingurumenera duten irekitasunean.

Hala, politikaren eta boterearen bilakaera molekularra endokrinologiaz, sexologiaz, medikuntzaz, farmakologiaz gaindi dago: “[B]este produkzio-forma oro iragazten du (...), nekazaritza-bioteknologiatik komunikazioaren *high-tech* industriara” (Preciado, 2008, 37. or.)<sup>287</sup>. Kapitalozeno neoliberallean, kapitalismoak molekula-mailan eragiten du. Esan dugunez, industria kimikoa funtsezkoa da ordenagailuen eta telefono mugikorren mikroprozesadoreen fabrikazioan, zuntz optikoan, herbiziden eta intsektiziden ekoizpenean edo elikagaien industriako kontserbagarri eta koloratzaileetan. Baina, era berean, xenoestrogenoak lurrinetan, kosmetikoetan eta higiene pertsonaleko produktuetan ere badaude, eta mendiko arropan, lan-segurtasunerako arropan, elikagaien ontzietan, sukaldeko tresnetan, inguruneko hainbat eta hainbat produktu plastiko eta plastifikatutan.

Industria kimiko molekularren eta haren tentakularitatearen sareak dena edo ia dena harrapatzen du, are industria militarra ere. Adibide ugarietako bat II. Mundu Gerran daukagu. Esan dugunez, bonba atomikoa fabrikatzeko ekoitzi eta merkaturatu zen fluorra lehen aldiz eskala handian industrialki (Bryson eta Griffiths, 1997; Dinoiu, 2006, 1142. or.)<sup>288</sup>, gero Hiroshimaren eta Nagasakiren aurka botatzeko 1945ean. Fluorra, “Luziferren gasa” (Dinoiu, 2006, 1141. or.), naziek ere erabili zuten, 1940an, II. Mundu Gerraren testuinguruan, kloro trifluoruroa fabrikatzeko isilpeko proiektu batean. Dinoiu-k zera dio kontuaz: “Uranium refining for nuclear energy is still one of the major uses for elemental fluorine” (2006, 1142. or.). Fluoratuak industria agrokimikoko hainbat konposatutan eta zenbait medikamentutan ere agertzen dira, hala nola Prozac antidepresiboan, Efavirenz antirretroviralean, Lariam® antimalarioan eta fluorokinolonetan oinarrituriko agente antibakterianoetan (2006, 1144. or.), anestetiko inhalatuetan, agente antiinflamatorio gisa, onkologiarako PET eskanerren<sup>289</sup> zelula kantzerigenoak behatzeko, edo minbiziaren aurkako tratamenduan erabiltzen den Fluorouracil (5-FU) (2006, 1150-1151. or.). Dinoiu-k, areago, honako datu hau eman du: “Today, about 30

---

<sup>287</sup> Jatorrizko testua: “[I]nfilitra (...) toda otra forma de producción, desde la biotecnología agraria hasta la industria *high-tech* de la comunicación”.

<sup>288</sup> Uranio hexafluoruroaren konposatua (UF<sub>6</sub>) <sup>235</sup>U eta <sup>238</sup>U uranio-isotopoak banatzeko erabili zen (Dinoiu, 2006, 1.142. or.).

<sup>289</sup> Sektore onkologikoko irabaziak eta merkatu-balioak altuak dira. Morenoren arabera, Bristol-Myers Squibb Co. enpresa farmazeutikoak 2019aren hasieran iragarri zuen AEBko Celgene enpresa eresia zuela 65.000 milioi euro inguru ordainduta (2019). Bi enpresa horiek tratamendu onkologikoetan gehien fakturatzen zuten hiru enpresa farmazeutikoen artean zeuden. Erosketaren ondoren, egitura berriak 29.000 milioi euro inguruko diru-sarrerak eduki ahalko ditu. 2017an, Roche Holding AG izan zen onkologian diru gehien fakturatu zuen enpresa farmazeutikoa, 23.802 milioi eurekin (Moreno, 2019).

percent to 50 percent of all pharmaceuticals now contain fluorine” (2006, 1148. or.). Fluorra, bestalde, hortzetako pastetan eta uraren klorazioan ere erabiltzen da<sup>290</sup>.

Preciado-k ere II. Mundu Gerrara jo du, erregimen edo kapitalismo farmakopornografikoaren abiapuntutzat hartuz. *Testo Yonki* lanean dakarren eskeman, “erregimen farmakopornografiko” errotuluaren azpian, bonba atomikoen leherketa ageri da marraztuta, “aro nuklearra – ingurumen toxikoa” hitzen ezkerrean (2008, 64. or.). Toxikotasuna Kapitalozeno neoliberalaren bereizgarria da; xenoestrogenizitate, hormona eta industria farmazeutiko eta bioteknologiko eta haren tentakularitate guztiarengandik banaezina.

Industria beliko kimikoaren bigarren adibidea “Agente Laranja” deritzona da; bi herbizida xenoestrogenikoren nahasketa bat da, 2,4-diklorofenoxiazetikoa (2,4-D) eta azido 2,4,5-triklorofenoxiazetikoa (2-4-5-T), AEBko Defentsa Departamentuarentzat fabrikatua, eta batez ere Monsanto eta Dow Chemical konpainiek ekoitzi zuten, baina baita Uniroyal, Hercules, Diamond Shamrock, Thomson Chemical eta T. H. Agriculture & Nutrition konpainiek ere<sup>291</sup>. Vietnamgo gerran erabili zen: 1961etik 1972ra bitartean, 76 milioi litro herbizida jaurti ziren, haietatik 44 milioi Agente Laranja, 2,5 milioi hektarea baso eta sororen gainean. Agente Laranja 2,3,7,8-tetraklorodibenzo-p-dioxina (TCDD) zeukan, 2-4-5-T-aren fabrikazioaren azpiproduktua, eta, horren eraginez, ikaragarri toxikoa zen, hura osatzen zuten herbizidak baino 1.000 aldiz gehiago (Warwick, 1998, 16. or.).

Industria agro-kimiko-bio-tekno-farmakologiko-militarraren tentakularitatea eta hedaduraren adibide garbia da Monsanto konpainia. 1998an, *The Ecologist* aldizkariak monografiko bat argitaratu zuen hari buruz, “The Monsanto Files” izenburupean. Hala, zenbait artikulu bildu zituzten, herbizidei, PCBei, Agente Laranja, behi-hazkuntzarako hormona birkonbinatzaileari edo genetikoki eraldaturiko haziei buruzkoak, eta Monsanto halakoen ekoizpenaren eragile nagusia edo nagusietakoa izan da kasu guztietan. Txosten horiek guztiek agerian uzten dituzte industria militarraren, elikagai-industriaren, industria agrokimikoaren, industria bioteknologikoaren eta, segidan ikusiko dugun bezala, industria farmazeutikoaren

---

<sup>290</sup> Boischio-ren arabera, fluoruroarekin kontaktuan egotearen ondoriozko efektu negatibo garrantzitsuenak hezurrei dagozkie (2019). Fluorosi eskeletikoa, fluorra uraren eta/edo janariaren bitartez irenstearen ondoriozkoa, “baliaezintasunezko desgaitasun” bat da, eta milioika teknogorpuztasuni eragiten die, Afrikan, Indian eta Txinan. Zenbait herrialdetan (Txina, Austria, Belgika, Finlandia, Alemania, Danimarka, Norvegia, Suedia, Hungaria, Israel edo Japonia), ura fluoratzea debekatu edo jarduera hori egiteari utzi diote, edo sekula ez dute halakorik egin (Romero et al., 2017). Elke Babiuk-ek sorturiko webgunean (2013) –Babiuk International Society for Fluoride Research-en *Fluoride* aldizkariaren editorea izan zen 1998tik 2002ra bitartean–, fluorak hortzetan, hezurretan, burmuinean eta ugalketan –besteak beste, minbiziak eta mutazioak–, eta ingurumenean dituen efektuei buruzko artikuluak bildu dira, zorroztasun handiz.

<sup>291</sup> Konpainia horiek 1984an epaitu zituzten, eta herbizidarekin kontaktuan egondakoei eta haien familiei 180 milioi dolar ordaintzera kondenatu. Warwick-en arabera, “1960ko urteetatik 1990eko urteetara 500.000 haur jaio ziren Vietnamen dioxinekin loturiko malformazioekin”, abortuak eta deformazioekin hildako fetu edo jaioberriak kontuan hartu gabe (1998, 17. or.).

arteko lotura estuak, baita horiek guztiek administrazio publikoarekin dituztenak ere (Ferrara, 1998, 32.-38. or.).

AEBko Monsanto konpainia Bayer AGk erosi zuen, 2016an<sup>292</sup>, eta, hala, bio-teknologia-agro-toxiko-farmako-elikagaigintzaren monopolioa areagotu zen (Ribeiro, 2016; Delgado Cabeza, 2017, 17. or.; Villa, 2018, 1. or.). Villa-ri jarraituz, gaur egun, lau enpresak kontrolatzen dituzte hazien merkatu globalaren bi heren eta pestizidenaren % 70: Bayer AGk, zeinak merkatua beraren mende baitauka; Corteva Agriscience-k –Dow enpresa kimikoaren eta DuPont farmazeutikoaren<sup>293</sup> arteko fusioaren ondorioz sortua 2017an–; fusio horren aurretik gertatutako Suitzako Syngenta AGren eta Txinako ChemChina-ren edo China National Corporation Ltd.-ren arteko fusioaren ondorioz sorturiko enpresa<sup>294</sup> –eta espero da enpresa are handiago batekin fusionatzea, Sinochem-ekin–; eta laugarrena Alemaniako BASF SE izango litzateke (2018, 1. or.). BASF SEK 7.600 milioi euroren truke eskuratu ditu Bayer AGk Monsanto bereganatu ondoren desinbertituriko aktiboak; besteak beste: amonio glufosinatoaren negozio globala, glifosatodun herbizida batzuk, baratze-hazien negozioa eta beste hazi-negozio batzuk, gari hibridoaren I+G plataforma, Xarvio<sup>TM</sup> nekazaritza-plataforma digitala eta zenbait herbizida ez-selektibo (BASF, 2018). Bestalde, 43.000 milioi dolarren truke Syngenta AG erosi ondoren, Chemchina eta Sinochem beren nekazaritza-aktiboak finkatzen ari dira, eta, aurreikuspenen arabera, “Syngenta Group” sortuko da (Shields, Nelly eta Evans, 2020).

ETCren datuen arabera (Action Group on Erosion, Technology and Concentration), 2014an, Syngenta AG-ChemChina-k, fusioa egin baino lehentxeago, 14.602 milioi dolar irabazi zituen agrokimikoen salmentatik (merkatuaren % 25,8), DuPont-Dow-k 14.503 milioi dolar (merkatuaren % 25,6) eta Monsanto 5.115 milioi (% 9) (2016). Hazien merkatuari dagokionez, fusioaren aurretik, 2014an, Syngenta AG-ChemChina-k 3.155 milioi dolar irabazi zituen salmentetik (merkatuaren % 7,9), Dow-k eta DuPont-ek 4.091 milioi (% 10,1) eta Monsanto, guztien gainera, 10.740 milioi (merkatuaren % 26,5). Hiruren artean, agrokimikoen merkatuaren % 60,4 eta hazien merkatuaren % 44,5 hartuko lukete.

---

<sup>292</sup> Bayer AGk 66.000 milioi dolarren truke eskuratu zuen Monsanto (Roumeliotis eta Burger, 2016).

<sup>293</sup> Azaldu dugunez, 2019an, Villa-ren artikulua argitaratu ondoren, DowDupont-en fusioa hiru konpainia independentetan bereizi zen: Dow Inc., Dupont de Nemours, Inc. eta Corteva Inc. –Corteva Agriscience izenez ezagutua– (DowDupont Inc., 2019). Azken horrek agrokimikoen merkatuan dihardu oraindik ere; besteak beste, askotariko hazien, pestiziden eta nekazaritza digitalaren arloetan.

<sup>294</sup> ChemChina-k 43.000 milioi dolarren truke erosi zuen Syngenta AG (Patton, 2018).

### 3.5. Giza teknogorputzen sexu-generoaren koeraketa hormonalak

Kapitalozeno neoliberalaren une honetan, hormonak –ez bakarrik merkatuko produktu gisa, baizik eta baita artefaktu teknozientifiko gisa ere– funtsezko elementuak dira jokabideen, sexu-generoen, hainbat patologia, asaldura edo urritasunen, eta gorputz-prozesu askoren gaineko azalpenetan, izan giza teknogorputzei buruzkoetan, izan animalia-teknogorputz ez-gizatiarrei buruzkoetan. Uste da sistema endokrinoak –beste sistema teknokorporal batzuekin loturik, hala nola nerbio-sistemarekin eta sistema immunologikoarekin– eta hark jariatzen dituen hormonek kontrolatzen eta erregulatzen dituztela zenbait funtzio eta/edo gorputz-prozesu, hala nola arnasketa, metabolismoa, ugalketa, zentzumenen pertzepzioa, mugimendua, garapen sexu-generikoa edo hazkuntza. Gaur egun, giza teknogorputzak komunikaziorako sistema handi eta konplexu gisa kontzeptualizatzen dira. Baina ez da beti hala izan. Politikaren eta identitate sexu-generikoen molekularizazioa historikoki ongi kokaturiko prozesu bat da. Hormonek ere badute historia bat.

Giza gorputzean funtzioak nola betetzen diren jorratzen duten teorien artean, Hipokratesen lau humoreen teoria dago, zeina teoria nagusia izan baitzen Europan Antzinarotik XIX. mendearen erdialdera bitartean. Teoria horren arabera, giza gorputza lau humore edo likidoz osatuta dago: odola, behazun horia, behazun beltza eta karkaxa. Hala, gaixotasunak, gabeziak eta oinazeak lau humore horietakoren batetik gehiegi edo gutxiegi izatearen ondorioz sortzen dira (Laqueur, 1990, 35., 44. or.; Oudshoorn, 1995, 153. or.). Luigi Galvani-k elektrizitatearekin egindako esperimentuen harira, nerbio-sistema sistema elektriko gisa kontzeptualizatu zen (Ostertag, 2016, 25. or.). Edonola ere, honetaz edo hartaz osatua izan, nerbio-sistema zen gorputz-funtzioak erregulatzeko egitura nagusia Mendebaldean, harik eta beste sistema bat agertu zen arte, nerbio-sistemarekin batera funtzionatzen duena: sistema endokrinoa edo hormonalak.

Atal honen helburua ez da gorputz-sistemen eta haien funtzioen kontzeptualizazioen historian sakontzea, ezta hormonaren historia xehe eta zorrotz bat egitea ere. Ez dugu sistema endokrinoaren funtzionamenduan ere sakondu nahi. Areago, hiru ideia utzi nahi ditugu agerian:

1. Sexu-generoaren gaineko ikusmoldea –heteronormatiboa eta bitarra–, sexu-generoaren definizioa bera, hormonaren nozioaren inguruan eraikitzen da, hau da, hormonak dira eraketa eta sailkapen sexu-generikoaren elementu biologiko nagusiak Kapitalozeno neoliberallean, nahiz ez bakarrak, geneei eta burmuineko neuronei ere aitortu baitzaie botere “sexu-generizatzaile” hori, laugarren kapituluan ikusiko dugunez.

2. Ikusmolde teknokorporal hormonalak, eta, haren barnean, batez ere ikerketa honen helburu den ikusmolde hormonal sexu-generikoa, egia absolutu, esentzial eta natural batetik urruti, eraikuntza zientifiko, politiko eta kultural bat da. Horrenbestez, kontingentziazkoa da eta historikotasunaren araberakoa. Hormonen izaera sexu-generikoa problematikoa da, eta eztabaidagarria.

3. Gorputzaren gaineko ikusmolde batez ere sexu-generiko hori ez zatekeen sendotuko konpainia farmazeutikoen –eta hedabideen– ekinbiderik gabe, laborategi zientifikoak eta sistema medikoa ahaztu gabe. Argudio hori hurrengo atalean garatuko dugu (3.6.).

### **3.5.1. Gonaden Arotik Hormonen Arora: maitasunezko triangelua**

Mendebaldeko gizarteetan, batik bat Europako mendebaldean eta Ipar Amerikan –baina planetako toki gehienetan ere esan genezake (Oudshoorn, 1995, 9. or.)–, identitate sexu-generikoak molekularizatu dira, Balsamo-k adierazitakoaren ildotik. Balsamo-k bere buruari galdetzen dio ea zer gertatzen den generoarekin eta ea non kokatzen den, gorputza zati funtzionaletan eta kode molekularretan zatitzen denean (1995, 216. or.). Identitate sexu-generikoa molekularizatzek esan nahi du molekula hormonalak edo hormonak berak identitate sexu-generiko bilakatu direla. Hau da, badirudi sexu-generoak baduela osagai hormonal bat, kimikoa, eta osagai hori esentzial gisa kontzeptualizatu da. Hainbeste azpimarratu da sexu-generoaren oinarri kimiko eta hormonalak, ezen gaur egun testosterona maskulinitasunaren sinonimotzat eta estrogenoak feminitasunaren sinonimotzat hartzen baitira (Fausto-Sterling, 2000, 170. or.; Ostertag, 2016, 9., 18. or.). Nagusitua den logika horren arabera, estrogenoak hartzeak feminizatu egiten du eta testosterona kontsumitzeak maskulinizatu. Datozen ataletan ikusiko dugunez, testosteronazko medikamentu hormonalen prospektuetan ere argi eta garbi adierazten da gizonentzako medikamentuak direla eskusiboki.

Ez hori bakarrik. Zenbait kirolariren gorputzetan, hala nola Edinanci Silva eta Caster Semenya-renetan, beharrezkoa izan da beren gorputzek berek ekoizten duten testosterona gutxitzea, gure erregimen sexu-generikoak orain arte ez baitzuen onartzen emakume gisa kontzeptualizaturiko gorputz batek testosterona-maila hain altua izatea –testosterona hormona maskulino nagusia baita–; hainbeste testosterona izatea emakume batentzako testosterona gehiegi balitz bezala interpretatzen eta deskodetzen da. García Dauder eta Gregori-k zera diote: “The testosterone molecule represents power, triumph, physical force and ability and therein lies

its threat... anyone considered to be female by birth that possesses unusually high levels of testosterone appears particularly threatening and should be expelled from the competition” (2009, 3. or.).

Silva-ri aldebiko orkiektomia bat egin zioten –abdomenaren barneko testikuluak erauzteko kirurgia–, beraren gorputzeko testosteronaren % 80 gutxitzeko, baita klitoridektomia bat ere –klitoria berregitea– (Lins França, 2009, 43. or.; García Dauder eta Gregori, 2009, 3. or.). Semenya-ren kasuan, Kirol Arbitrajearen Auzitegiak (TAS) Nazioarteko Atletismo Federazioari eman zion arrazoaia, eta zera adierazi zuen 2019ko maiatzaren 1ean argitaraturiko prentsa-oharrean: “Athletes with 46 XY DSD [Semenya-ren eta Indiako Dutee Chand atletaren kasuan bezala] have testosterone levels well into the male range (7.7 to 29.4 nmol/L; normal female range being below 2 nmol/L)” (TAS, 2019, 1. or.). TASen arabera, testosterona kantitate ustez altu horrek sortzen duen “material androgenizing effect” hori gutxiagotu egin behar da “below 5 nmol/L... in order to be eligible to compete in a Restricted Event. Such reduction can be achieved, according to the IAAF evidence, by the use of normal oral contraceptives” (2019, 1. or.)<sup>295</sup>. Nolanahi ere, bigarren kapituluan adierazi dugun bezala, Suitzako Auzitegi Federal Gorenak etenda utzi du IAAFren erregulazioa; hortaz, oraingoz, Semenya-k ez du hormonarik hartu beharko lehiatzen jarraitzeko. Chand-ek ere lehiatzen jarraitzen du.

Nolanahi ere, adibide horretan, bi gauza ikusten dira: batetik, gaur egun zer neurritan identifikatzen diren “sexual” izendatu izan diren hormonak identitate sexu-generikoekin<sup>296</sup>. Bestetik, zer zorrotzak diren paradigma sexu-generiko heteronormatibo eta bitarraren arauak; hainbeste sartzen dira teknogorputzetan, ezen maila kimiko molekularrera ere iristen baitira, are Kapitalozeno neoliberalaren une honetan, zeinetan oso negozio errentagarria bilakatu baita identitate eta gorputz ez-normatiboak edo ez guztiz normatiboak ekoiztea eta kudeatzea. Hala, paradoxa baten aurrean gaude: gorputz batek –kasu honetan, femenino gisa kontzeptualizaturiko gorputz batek– sortzen duen hormona kantitate gehiegizkoa –kasu honetan, maskulino gisa kodeturiko hormonak, testosterona– txikiagotzeko errezeta edo medikamentua hormona gehiago hartzea da; hori bai, femeninoak, hau da, estrogenoak eta/edo progesterona. Arazoa hormonak dira, eta konponbidea ere hormonal da.

Gure testuinguru kultural, politiko eta zientifikoan, adibide askok agerian uzten dute nola identitate sexu-generikoak –eta haiekin loturiko guztia– hormonon bidez azaltzeaz gainera

---

<sup>295</sup> Semenya-k aurkezturiko errekursoaz gainera, Hegoafrikako gobernuak araudia salatu du haren konnotazio arrazistak direla eta, kalteturiko atletak afrikarrak izan ohi baitira beti (Borraz, 2019).

<sup>296</sup> Hormonez gainera, badira beste elementu batzuk; esate baterako, kromosomak, baina, azken batean, hormonek eragiten dute itxura maskulinoa eta hormonak dira gutxiagotu behar direna. Kromosomak balira elementu erabakigarria, logika beraren arabera, IAAF-k zuzenean debekatu behar ziokeen Semenya-ri lehiaketan parte hartzea (izan ere, kromosomak ezin dira aldatu, oraingoz). Hormonak dira arazoa, baita sendabidea ere.

haietara mugatzen diren edo haien sinonimo gisa erabiltzen diren. Jordi Évole-k, *Salvados* programaren atal batean, Inés Arrimadas-i eta Irene Montero-ri eginiko elkarrizketa batean zera galdetu zien: “*Testosterona* asko al dago politikan?” (2019)<sup>297</sup>. 2019ko martxoaren 23an, Pedro Sánchez-ek adierazpen hauek egin zituen mitin batean –biharamunean, telebistako *Liarla Pardo* programan eman zituzten–: “Une honetan, eskuinean badira sigla gehiago ideiak baino, *testosterona* gehiago neuronak baino” (Gonzalo eta Olivas, 2019)<sup>298</sup>. Interesgarria litzateke sakontzea zer esanahi posible dituen “*testosterona*” hitzak halako adierazpenetan. Aurrerago, Miquel Missé eta Sam Fernández-en eskutik (2018), nozio horrekin loturiko imaginario sinbolikoaren gaia jorratuko dugu.

University of California-Berkeley-ko *Wellness* aldizkariak zera dio: “Testosterone is the male equivalent of estrogen—a hormone that controls many aspects of sexuality as well as secondary sexual characteristics, such as facial hair, musculature and voice quality” (2011). Hormonen sexu-generizazioa Chiara Beccalossi *Transitional States: Hormones at the Crossroads of Art and Science*<sup>299</sup> proiektuaren zuzendariak hormonei buruz egindako historia laburrean ere ikusten da. Proiektu honetan zenbait teknogorpuztasun-subjektibitatek gogoeta egiten dute hormonek gorputzetan dituzten efektuez. Hormonen historia labur horretan egileak “female hormones” esapidea erabiltzen du Harry Benjamin-ek bere pazienteetako bati eman zizkien hormonei erreferentzia egiteko (2018, 46. or.).

Adibide guztiok argi erakusten dute zer garrantzia duten hormonek sexu-generoa definitzeko, identitate sexu-generizatua konfiguratzeko eta gorputz-morfologia sexu-generizatua eratzeko, eta “Hormonen Aroa” izendatu duguna islatzen eta haren paradigma osatzen dute. Sexu-generoaren elementu definitzailea, *egia* edo identitate sexu-generikoa ez da hainbeste agertzen gonadetan, nahiz agertu agertzen den, Dreger-en aburuz “Gonaden Aro”an gertatzen zen bezala. Hormonetan, aldiz, bai, agertzen da, haien egitura kimiko molekularrean, eta baita beste elementu batzuetan ere, hala nola geneetan edo burmuinean. Dreger-en iritziz, intersexualitatearekin loturik, 1870etik –zehazki, Theodor Albrecht Edwin Klebs-en *Handbuch der Pathologischen Anatomie*ko 1876ko sailkapenaz geroztik, zeina beste egile batzuen egokitzapenei esker egonkortu baitzen 1880ko eta 1890eko hamarkadetan– 1915era bitartean, Europako testuinguruan, batez ere Frantzia eta Britainia, gorputz baten egiazko sexu bakarraren elementu definitzailea –baina ez bakarria– gonadak ziren: obulutegiak gorputz baten

---

<sup>297</sup> Jatorrizko testua: “¿Hay mucha *testosterona* en la política?”.

<sup>298</sup> Jatorrizko testua: “Ahora mismo, en la derecha hay más siglas que ideas, más *testosterona* que neuronas”.

<sup>299</sup> *Transitional States: Hormones at the Crossroads of Art and Science* proiektua material artistiko eta ikus-entzunezko ugaziz osatua dago. Londresen, Bartzelonan eta Bolognan egon da ikusgai, eta hitzaldi eta debateak ere antolatu dira hiru hiriotan.



feminitatearen froga ziren, eta testikuluak, berriz, gorputz baten maskulinitatearena (1998, 145.-150. or.)<sup>300</sup>. Reis-ek gauza bera dio AEBko testuinguruaz ere, baina berak askoz lehenago kokatzen du bi sexuen sistema esparru horretan mantentzeko tema (2009, 53.-54. or.)<sup>301</sup>. Reis-en arabera, 1930etik aurrera hasi ziren hormona-mailak gero eta gehiago kontuan hartzen (2009, 116., 189., 195. or.). Hormonekin dagoen arazoa da 1940rako –baita lehenago ere, ikusiko dugunez– medikuak ohartuak zirela hainbat sexutako gorputzetan bazirela estrogenoak zein androgenoak, alegia ez zutela balio elementu edo irizpide nabari gisa gorputz batean sexu-genero bakarra determinatzeko (Reis, 2009, 195. or.)<sup>302</sup>.

Dena den, gonadak ez ziren desagertu. Gonaden irizpidea gero eta gehiago jartzen zuten zalantzan egile eta doktoreek –aipagarria da, haien artean, Blair-Bell–; 1920-1940ko hamarkadetan, gonadak, genitalak eta hormonak batera bizi izan ziren, teknogorpuztasun-subjektibitate baten egiazko sexu-generoa berresleitzeko anputatu, berreraiki edo kontsumitu beharreko elementu gisa: “Some doctors promoted hormones as a key factor in the 1930s but did not abandon gonads as the primary indicator of true sex” (2009, 189. or.). Alderdi psikologikoak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen, eta, 1940aren amaierarako, “creating congruence between a person’s psychology, gender presentation, and external bodily conformation became more important justifications for surgery than matching gonads and genitals” (Reis, 2009, 116. or.). “Genero” nozioan kondentsatutako alderdi psikologikoaren garrantziaren gailurra *rationale* zientifiko berri bat, intersexualitatearen gaineko kudeaketa medikorako protokolo bat eta sexu/genero dikotomiaren ezarpena izan ziren, guztiak ere Money-ren eta haren lantaldearen eskutik etorriak 1950eko hamarkadan. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da azpimarratzea elementu psikologikoaz gainera genitalen teknobirreraiagarritasuna eta, beraz, morfologia genitala lehen mailako elementua zela esleipen- edo *hazkuntza*-sexua ezartzeko orduan: “[A]

---

<sup>300</sup> Dreger-en arabera, Gonaden Aroan gonaden irizpidea izan arren irizpide garrantzitsuena eta are erabakigarriena, ez zen kontuan hartzen zen elementu bakarra. Beste aldaera batzuk ere (genitalak, bularra, ilea, desira, ahotsa, etab.) hartzen ziren kontuan hermafroditei sexua esleitzeko (1998, 159. or.). Ikus, halaber, Dreger (1998, 157.-158. or.).

<sup>301</sup> Mak-i jarraituz, Reis-ek Thomas Laqueur-en bi sexuen sistema Dreger-en Gonaden Aroarekin nahasten du (2012, 111. or.; 59. oharra, 251. or.). Horren erakusgarri, Reis-en adierazpen hau baliatzen du: “In this country the tendency to proclaim hermaphroditism ‘impossible’ began long before the age of gonads, though it became even more pronounced by the late nineteenth century, when the gonads became crucially important in the United States as in Europe” (2009, 54. or.). Modu batera edo bestera, garrantzitsuena zera da: Reis-ek gonaden nagusitasun berbera aipatzen duela garai berberean AEBn.

<sup>302</sup> Huggins, Cohen eta Harden-ek “True Hermaphroditism in Man, with an Endocrinological Study” artikuluan – 1937an argitaratua *American Journal of Obstetrics and Gynecology* aldizkarian– diote beren ikerketan lehen aldiz frogatu zutela honako hau: “[M]ale and female sex hormones have been simultaneously demonstrated in hermaphroditism” (1937, 34. or.). Dena den, halako kointzidentziak egiazko hermafroditismoaren zeinu posibletzat hartzen dira oraindik ere, pseudohermafroditismoarekin kontrajarrita. Dena den, Reis-ek dio (2009, 195. or.) gorputz guztietako koexistentzia hormonalaren karietara GreenHill eta Schmitz-ek zera diotela: “[T]he normal man or woman is to a slight degree an hermaphrodite” (1940, 40. or.).

great deal of emphasis should be placed on the morphology of the external genitals and the ease with which these organs can be surgically reconstructed” (Money et al. 1957, 334. or.)<sup>303</sup>.

Generoaren kontzeptua agertzeak ekarri zituen aldaketez harago, pixkanakako molekularizazio-prozesu bat gertatu da, gonadetatik hormonetarainokoa, eta hormonak bilakatu dira paradigma sexu-generikoko elementu izarrak. Obulutegiak ginekologiako organo paradigmaticoak izan ziren. Gonadetatik “hormona” deritzen elementu kimikoetara iragate horretan, endokrinologiaren sorrera eta finkapena funtsezkoak izan ziren, beste diziplina eta/edo adar batzuekin batera, hala nola kirurgia, sexologia, ginekologia, fisiologia, anatomia edo biokimika. Trantsiziozko molekularizazio-prozesu hori logika heteropatriarkal eta arrazista zorrotz batek gidaturik etorri zen, eta tortura eta oinazea ekarri zien emakume\* askori<sup>304</sup> (Laqueur, 1990, 175.-181. or.; Oudshoorn, 1995, 8., 14. or.; Ostertag, 2016, 27.-30. or.). XIX. mendean, feminitatea definitzeko, umetokitik obulutegietara iragan zen; Hormonen Aroan, aldiz, obulutegietatik hormonetara. Blair-Bell-ek berak *The sex-complex* lanean bildu zuen aldaketa hori. Honela erantzun zion “why is a woman not a man” galderari:

van Helmont said: –

*"Propter solum uterum mulier est quod est"*

Later Chereau changed this to: –

*"Propter ovarium solum mulier est quod est."*

Virchow in modern times reiterated this statement,

and, according to Biedl, added: –

"All the peculiarities of her body and mind . . .

"everything, in fact, which in the true woman we admire

"and reverse as womanly, is dependent on the ovary."

But in the light of our present knowledge I have

ventured to think that the following aphorism most

accurately represents the cause and effect: –

---

<sup>303</sup> Ikus, halaber, Money (1955); Money et al. (1955); eta Money et al. (1956).

<sup>304</sup> 1870etik aurrera, kastrazio femeninoa edo aldebiko obariotomia –obulutegei sanoak eraztea– asko eta arrakasta handiz erabili zen zenbait “patologia” sendatzeko, hala nola, histeria, gehiegizko sexu-desira, masturbazioa, senarrek beren emazteak kontrolatzeko zailtasuna, eta beste gaixotasun batzuk (ikus Laqueur, 1990, 176.-179. or.; Hoberman, 2005, 63.-69. or.). Klitori-ablazioa eta beste teknika batzuk ere erabili dira emakumeen\* sexu-plazera handitzeko, beren senarrak ase ditzaten (kirurgia, elektrizitatea, drogak, klitoria handitzeko huts-ponpa); ikus Hoberman (2005, 60.-63. or.). Ginekologia XIX. mendean erdialdean sortu zen; garai hartan, James Marion Simons doktoreak, zeina AEBko ginekologiaren aitatzat hartzen baita, anestesiarik gabeko 30 operazio egin zizkien Anarcha, Betty, Lucy eta identifikatu gabeko beste bederatzi emakume\* esklabo beltzi; ikus, horri buruz, Cooper Owens (2017, 15.-41. or.). Ostertag-ek azpimarratu du ginekologiak garrantzi handia izan zuela sistema endokrinoren teoriaren jatorrian, obariotomiak egin baitzitzaizkien zenbait emakumeri\*, histeria tratatzeko. Ez dago jakiterik zenbat emakumek\* galdu zituzten obulutegiak era hartan, baina, Ostertag-en zenbatespenen arabera, 100.000 baino gehiago izango lirateke (2016, 29. or.).

*Propter secretiones internets tolas mulier est quod est.*<sup>305</sup> (1920 [1916], 129. or.)<sup>306</sup>

Hemendik aurrera, Oudshoorn-ek berresten duen bezala, hormonak ez dira izango soilik feminitatearen *locusa* eta sortzaileak, baizik eta baita maskulinitatearenak ere:

The new field of sex endocrinology introduced the concept of female and male sex hormones as chemical messengers of femininity and masculinity. This hormonally constructed concept of the body has developed into one of the dominant modes of thinking about the biological roots of sex differences. Many types of behavior, roles, functions and characteristics considered as typically male or female in western culture have been ascribed to hormones. (Oudshoorn, 1995, 8. or.)

1849an, Arnold Berthold ohartu zen oilarrak zikiratuz gero kokospea eta gandorra txikitzen zitzaizkiela (Fausto-Sterling, 2000, 149.-150. or.; Freeman, Bloom eta McGuire, 2001, 371. or.)<sup>307</sup>. Zikiratutako testikuluak oilarren abdomenaren barrunbera itzularaztean, berriz, ez zen gertatzen erregresiorik. Testikuluek nerbio-sistemarekiko konexioa galdua zutenez, zera ondorioztatu zuen: “[T]he testes must affect behavioral and sexual characteristics by secreting a substance into the bloodstream” (Freeman et al., 2001, 371. or.).

1889an, Charles-Édouard Brown Séquard fisiologo eta neurologo adituak, zeinak Londresko National Hospital for the Paralysed and Epileptic zentroan lan egin baitzuen eta irakasle jardun baitzuen Harvard-en eta Parisko Collège de France-n eta zeina ezaguna baitzen

---

<sup>305</sup> Blair-Bell-ek lan honi egiten dio erreferentzia: “Arris and Gale Lectures, Lancet, 1913, i. lib., 944. or.” (1920 [1916], 129. or.).

<sup>306</sup> Laqueur-ek, logika monosexualetik sexu-dimorfismoaren logikarako pausoa azaltzean, adierazi zuen 1800eko hamarkadaren hasieran jada idazle ugari azpimarratzen zutela emakume\* eta gizonen artean bazirela desberdintasun biologiko funtsezko eta neurtezinak, eta, horretarako, erretorika berri bat baliatu zuten, hainbat elementu aipatuz (1990, 5. or.). Haietariko bat Jacques-Louis Moreau zen, zeinak Aristotelesen eta Galenoren ikusmoldea kritikatu baitzuen *Histoire naturelle de la femme, suivie d'un traité d'hygiène Appliqués à son Régime physique et moral aux différentes époques de la vie* lanean. Izan ere, zera zioten emakumeaz: “[N]’est qu’un homme imparfait et manqué, un individu malheureux et débile” (1803, 66. or.). Hona Moreau-ren hitzak: “[L]’homme et la femme ne different pas du plus au moins, mais que la structure, les fonctions de leurs organes générateurs son autres; et que toute leur constitution a son type prope, dont les traits distinctifs nous offrent une longue chaine d’effets physiques et moraux, qui se lient (...) à les organes spécialement chargés de la génération” (1803, 69. or.). Soilik emakumeek\* dituzten ezaugarri dagokienez, zera idatzi zuen: “Les plus importants de ces caractères sont, comme nous l’avons indiqué dans notre Plan, 1°. la direction du conduit *vulvo-utérin*; 2°. la présence de la membrane *hymen*; 3°. la conformation du bassin” (1803, 49. or.). Laqueur-ek, berriz, Chereau-k idatzi eta Blair-Bell-ek erantzundako esaldia bilduz, aporia anatomiko gisa deskribatu zuen; izan ere, haren arabera, XIX. mendearen amaierara arte –hau da, 40 urte geroago– ez zen “behin betikoz ezarri” zer rol zeukaten obulutegiek gorputz-biologian (1990, 175.-176. or.). Ezagutza horren izaera hormonalak, bai obulazioarena, bai ugalketarena, 1920ko eta 1930eko hamarkadetan ezarri zuen Laqueur-ek: “Until the 1930s, even the outlines of our modern understanding of the hormonal control of ovulation were unknown” (1990, 8., 53. or.).

<sup>307</sup> 1767an, John Hunter eskoziar kirurgialariak oilar baten testikuluak transplantatu zituen oilo baten abdomenaren barrunbean. Freeman eta beste egile batzuei jarraituz, Hunter-ek interes handiagoa zeukan ehun-transplantearen teknikan haren efektuetan baino, eta ez zuen emaitzarik argitaratu (2001, 371. or.).

animalien guruinak erauzi eta transplantatzeagatik, *The Lancet*-en argitaraturiko artikulu batean (“Note on the effects produced on man by subcutaneous injections of a liquid obtained from the testicles”) deskribatu zuen nola testikulu-jariakinak injektatu zizkion bere buruari, 72 urte zituela, gaztetzeko eta indarra hartzeko: “I have made use, in subcutaneous injections, of a liquid containing a small quantity of water mixed with the three following parts: first, blood of the testicular veins; secondly, semen; and thirdly, juice extracted from a testicle” (1889, 105. or.). Testikuluak txakurrenak eta akurienak ziren. Brown-Séquard-ek berak adierazi du testikuluek jariatzen duten semen-likidoan badela substantzia bat edo batzuk zeinak odolean sartuz gero “have a most essential use in giving strength to the nervous system and to other parts” (1889, 105. or.), eta dio ideia hori “generally admitted view” dela. Testikuluez gainera<sup>308</sup>, berak uste zuen pankreak, gibelak, tiroideak, guruin suprarrenalak, bareak eta giltzurrunek jariatutako substantziak erabilgarriak izan zitezkeela gaixotasunak sendatzeko (Freeman et al., 2001, 371. or.).

Brown-Séquard-ek ondorioztatu zuen injekzio haiei esker indar fisikoa, buru-trebetasuna eta jateko gogoareagotu zitzaizkiola. Frogatu ez arren, “organoterapia” izeneko arlo berri bat sortu zen, hau da, animalien jariakinak errezetatzea eta animalia gizatiar eta ez-gizatiarren testikuluak transplantatzea epilepsia, tuberkulosia, diabetesa, paralisia, gangrena, anemia, histeria, migraina, minbizia eta abar tratatzeko (Hoberman eta Yesalis, 1995, 77. or.). Hona Freeman eta beste egile batzuen hitzak: “By the end of 1889 more than 12,000 physicians were administering Brown-Séquard’s fluid, and manufacturing chemists were making fortunes selling the new ‘Elixir of Life’” (2001, 371. or.). 1896an eta 1900ean, Vienako bi ginekologok, Emil Knauer-ek eta Josef Alban-ek, obulutegietako substantzia kimikoen jariaketa deskribatu zuten, eta Brown-Séquard-en “barne-jariaketen teoria” berretsi (Oudshoorn, 1994, 18. or.).

Eugene Steinach, Vienako Physiological Section of the Institute of Experimental Biology-ren zuzendaria, mundu guztian ospetsu egin zen gonaden transplante eta esperimenduei esker. Steinach-ek uste zuen gonadetako jariakinek sexu-garapena determinatzen zutela. Halaber

---

<sup>308</sup> Giza gorputzaz denaz bezainbatean, Ostertag-ek dio zikiratze bidez eunukoak sortzea antzinako Egiptotik datorrela gutxienez eta historia guztian zehar izan direla eunukoak, hasi Egiptoko faraoien, asiriar errege-erreginen, erromatar enperadoreen eta otomandar sultanen garaian, eta, kristautasunaren hasierako eunukoetatik pasatuz, europar operako *castrati* gurtuetara, hariak eta XIX. mendean debekatu zituzten arte (2016, 22.-23. or.). Oudshoorn-i esker jakin dugunez, antzinako Grezian eta Erroman aker- eta otso-testikuluak erabiltzen zituzten sexu-kitzikagarri gisa (1994, 17. or.) –horraino eraman genezake testosterona proposatzea eta/edo errezetatzea sexu-disfuntzioarentzako eta inpotentziarako erremedio gisa–; Hoberman eta Yesalis-ek diotenez, antzinako Egipton, pentsatzen zuten testikuluek ahalmen sendagarriak zituztela (1995, 77. or.); eta, areago, 1720an (1618), Londresko William Salmon medikuaren *Pharmacopeia Londinensis. Or, the New London Dispensatory Dispensatory* famatuan, txakur, zaldi, basurde, orein, lehoiabar, arrano eta abarren testikuluak gomendatzen ziren zenbait gaixotasun eta bizi-prozesutarako, bai gizonentzat, bai emakumeentzat\* (Ostertag, 2016, 23. or.). Ostertag-ek dio halako praktikak erabiltzeari utzi ziotela XIX. mendearen erdialdera bitartean baina testikulu bidezko erremedioak indarra hartu zuela beriz garai hartan (2016, 23. or.).

uste zuen gonaden bereizkuntza ezean zegoela homosexualitatearen jatorria eta horren ondorioz jariakin feminizatzaileak ekoizten zituztela homosexualen testikuluek (Sengoopta, 2003, 123. or.). “Arazo hori” konpontzeko, tratamendu bat asmatu zuen: homosexualei testikulu bat erauzi, eta, ondoren, emaile heterosexual baten testikulua txertatzea. Hala, arratoiei basektomiak egin zitzaizkien, gaztetzeko, eta, ikusirik pisua eta sexu-jarduera eta -interesa areagotzen zitzaizkiela, gizonengan aplikatzen hasi zen esperimendu bera<sup>309</sup>. 1918ko lehen basektomiaren arrakastaren ondotik, gaztetze-operazioak egin zituen, Vienan, New Yorken, Londresen, San Petersburgon, Kopenhaguen, Txilen, Kuban eta Indian, eta, beti gaztetzea lortu ez zuen arren, emaitzak ez ziren katastrofikoak izan, operazioa arrunta zenez gero (Sengoopta, 2003, 125. or.).

Serge Voronoff kirurgialariak tximino ez-gizatiarren testikuluak transplantatu zizkien adineko gizonei, gaztetzea helburu (Sengoopta, 2003, 122. or.). Ostertag-en (2016, 43. or.) eta Beccalossi-ren (2018, 44. or.) datuen arabera, 1926rako mila tximino-testikulu txertatu zituen gizakiengan, haietariko batzuk homosexualitatea tratatzeko. Organoterapiaren gainbehera zientzialariak hormona sinetikoak garatzen hastearekin batera etorri zen.

Hiru gizonok, Brown-Séquad, Voronoff eta Steinach<sup>310</sup>, gonadetatik gonadetako jariakinetara eta hormonetara iragatearen irudi eta adibide dira, baita zientziaren eta paradigma sexu-generikoaren molekularizazio-prozesuarena<sup>311</sup>, hau da, Hormonen Aroaren etorrerarena. Baina gizonok zientziaren munduan lortu zuten arrakastaz gainera –zenbaitetan, porrota izan zuten gerora–, prestigiozko aldizkarietan ere argitaratzen baitzituzten beren lanak, beste zerbait behar litzateke hormonak, agertzeaz gainera, hemen geratzeko. Aktore berri eta garrantzitsu hori konpainia farmazeutikoak dira: “In addition to clinicians and laboratory scientists, the emerging field of sex endocrinology also attracted a third group to the scene: the pharmaceutical industry. The manufacturing of extracts from animal organs offered a new and promising line of production” (Oudshoorn, 1994, 21. or.). Oudshoorn-ek dioenez, konpainia farmazeutikoek

---

<sup>309</sup> Gaur egun, basektomia anestesia lokalarekin egiten da, 30 minutuan. Bi testikuluen kanalak ebakitzean datza, baina, “Steinach operazio”an, bakarrekoak ebakitzen ziren (Ostertag, 2016, 41. or.).

<sup>310</sup> Ostertag-ek testikulu-transplanteak egin zituzten beste gizon batzuen izenak ere eman ditu: George Frank Lydston urologoa, zeinak bere buruari egin baitzion transplantea, edo John R. Brinkely, zeinak 1912tik 1925era bitartean tximino, ahari, orein eta batez ere akerreren mila testikulu inguru txertatu baitzituen gizakiengan, AEBn (2016, 44.-45. or.). Leo L. Stanley-k, San Frantziskoko San Quentin presondegi zuzendari medikoak, preso exekutatuak testikuluak transplantatu zizkien presondegi bereko 600 presori baino gehiagori, eta, haiek bukatutakoan, beste animalia batzuen testikuluak (Ostertag, 2016, 44. or.; Beccalossi, 2018, 44. or.).

<sup>311</sup> “Zientziaren molekularizazio” esaten dugunean, Oudshoorn-ek deskribaturiko pausoaz ari gara, hau da, sexu-endokrinologiako estilo biologikoago batetik estilo kimikoago batera. Oudshoorn-i jarraituz, XX. mendearen hasieran, sexu-endokrinologian, beste bizitza-zientzia batzuetan bezala, bi ikuspegi nagusitzen ziren: biologikoa eta kimikoa (1994, 14. or.). Lehen urteetan, estilo biologikoari loturiko zientzialariek egin zituzten “sexu”-hormonei buruzko ikerketa gehienak: fisiologoek, ginekologoek, anatomistek eta zooloek. 1920ko hamarkadan, kimika nagusitu zen (1994, 15. or.). Biologo eta ginekologoek funtzioari erreparatzen diote; kimikariek, berriz, hormonen egitura kimiko molekularri (1994, 39.-40. or.). Hortik dator “zientziaren molekularizazio” adierazpide kontzeptuala.

obulutegi eta testikulu bidezko prestakinak ekoizteari ekin zioten, eta, XX. mendearen hasieran, aldizkari medikoetan gomendatzen eta iragartzen ziren, orotariko izenekin. Sintesi hormonalen kasuan ere, hormonak edo gonadetako jariakinak ikertzen ziharduten zientzialarien eta konpainia farmazeutikoen arteko harreman estu berbera errepikatu zen. Patroi historiko horrek Kapitalozeno neoliberalak zeharkatzen du; handik azalera da, eta, aldi berean, hura koeratu du: “[T]he structural relationships and interactions between three groups that were actively involved in the shaping and establishment of sex hormones as scientific facts and artefacts: laboratory scientists, clinicians and pharmaceutical entrepreneurs” (Oudshoorn, 1994, 10. or.).

Hoberman bat dator Oudshoorn-ekin, biek azpimarratu baitute zer garrantzia izan zuten konpainia farmazeutikoek hormonak ekoizpenean:

[N]ot by the lone investigator who experiments on himself but by competing teams of scientists employed by pharmaceutical firms—a commercial strategy that developed during the 1920s. One consequence of this change is that commercialization has become the premise rather than (as it was in the 1890s) a consequence of drug development. (2005, 39. or.)

Oudshoorn-i jarraituz (1995, 15. or.), *hormona* hitza Ernst H. Starling-en *Croonian Lectures of Chemical Correlations* lanean agertu zen lehen aldiz (1994, p. 15). Zera dio Starling-ek:

These chemical messengers... or “hormones” (from ὀρμάω, I excite or arouse), as we may call them, have to be carried from the organ where they are produced to the organ which they affect, by means of the blood stream, and the continually recurring physiological needs of the organism must determine their production and circulation through the body. (1905, 6. or.)

1920-1930eko hamarkadetan, “sexu-hormona” deritzenak isolatu ziren (Oudshoorn, 1994, 69. or.; Fausto-Sterling, 2000, 180.-181. or.). Hamarkada haietan hormona kristalino estrogenikoa eta testosterona isolatu zituen lehen ikerketa-taldeetako bat Amsterdamgo Unibertsitateko Pharmac-Therapeutic Laboratory izan zen, Ernst Laqueur fisikari eta farmakologoaren gidaritzapean, zeina Thomas W. Laqueur-en osaba baitzen. Ikerketa-talde hark lan-harreman estua izan zuen Holandako Organon konpainiarekin. Organon 1923an sortu zen; estrogeno-ekoizle handiena izan zen II. Mundu Gerrara bitartean, eta hormona bidezko antikonzeptiboaren arloko hiru konpainia handienetako bat mundu-mailan 1995ean (Oudshoorn, 1994, 13. or.). 2007an, AEBko Schering-Plough-ek bereganatu zuen; gero, 2013an, Merk & Co., Inc.-rekin fusionatu zen enpresa hori, eta izen hori hartu zuen.

Bai Organon<sup>312</sup> konpainiaren Hombreol produktu hormonalaren kasuan, bai emakume\* menopausiadun eta haurdunentzako hormona-terapien eta pilula antikonzeptiboen kasuan, ezer baino lehen, behar bat sortu edo areagotu beharra zegoen. Horretarako, zenbait bizi- eta gorputz-prozesu –haurdunaldia, zahartzea, indarra galtzea, eta abar– eta zenbait identitate sexu-generiko eta sexu-desira eta -praktika –emakumeak\*, lesbianak, homosexualak, trans\* ez-bitarrak, emakume\* transak\*, gizon transak\*, intersexualak, emakume\* intersexualak, gizon intersexualak, eta gainerako identitate-konbinazioak– arazotsu, patologiko eta gaixotasun gisa kontzeptualizatu beharra zegoen. Honela dio Oudshoorn-ek: “Sex hormones may best be portrayed as drugs looking for diseases. Before the actual process of marketing could begin, the pharmaceutical company had first to create its audiences” (1994, 107. or.). Zeregin horretan, ezinbestekoa da konpainia farmazeutikoen eta industria medikoen arteko elkarlana, ikusteko zer prozesu patologiza daitezkeen eta zer “gaixotasun” “senda” daitezkeen produktu hormonalen bitartez. Laborategian hasitako prozesuak –askotan, konpainia farmazeutikoen finantziarioari esker–, beraz, orduantxe hartzen du garrantzia. “Sexu-hormonak” sortzeko prozesua ez da merkaturatzearekin bukatzen; areago, orduan hasten dira laborategian sorturiko produktu hormonalak testatzen –laborategian eta klinikan proba prozesu jarrai baten bitartez–. Ernst Laqueur mediku eta laborategiko zientzialariak bitartekari-lanak egin zituen Organon-en eta komunitate medikoaren artean, lankideak elkarlan horren onurez konbentziturik: “[B]y promising the provision of high quality hormonal drugs in exchange for the delivery of raw materials and their cooperation in clinical trials” (Oudshoorn, 1994, 108. or.).

“Sexu-hormona femenino” bidezko farmakoen ekoizpenak eta merkaturatzeak bidea erdi-egina zuen ginekologiari esker, bai bezeroei bai gaixotasunei dagokienez. Konpainia farmazeutikoek zein ginekologoen estatus zientifikoa lortu nahi zuten, elkarren beharra zeukaten; hortaz, ez zen zaila izan estrategia bat diseinatzea “sexu-hormona femeninoak” “big science and big bussiness” bihurtzeko (Oudshoorn, 1994, 108. or.). Gizonen ugalketa-aparatuaren fisiologia instituzionalizatu gabe egotea –eta horrek inplikazio politiko eta kultural sakonak ditu– erabakigarria izan zen emakumeen\* teknogorputzak konpainia farmazeutikoek konkistatu, kolonizatu eta kapitalizatu beharreko esparru bilakatzeko, eta, ondorioz, “sex hormones became marketed as specific drugs for menstruation and the female menopause, and not for contraception and the male menopause” (1994, 109. or.).

---

<sup>312</sup> Konpainiak saldu zuen lehen produktu hormonalak intsulina izan zen, diabeteserako, 1923an (Oudshoorn, 1994, 82. or.). 1931n, Organon-ek Hombreol merkaturatu zuen, “hormona maskulinoak” zeuzkan lehen produktu estandarizatua (1994, 98. or.).

Pilula antikonzeptiboaren kasuan, haren sortzaileak, Gregory Pincus-ek, urte askoan lan egin zuen G.D. Searle & Company konpainia farmazeutikoan, aholkulari gisa. Pilula, ikusiko dugunez, jaiotze-tasa kontrolatzeko mugimenduaren ondorioz sortu zen, emakume\* zurien emankortasuna areagotzeko proiektuaren babespean, John Rock ginekologiako irakasle eta Free Hospital for Women-en zuzendariak zuzenduta. Azkenean, Karibeko emakumeekin\* testatu zen. Beraz: “[T]he story of hormones became entangled with big politics... in which birth control ideologies mix with cultural imperialism” (Oudshoorn, 1994, 112. or.). Konpainia farmazeutikoen, zientziaren eta medikuntzaren *ménage à trois*-a berriz errepikatu zen<sup>313</sup>.

### 3.5.2. Gorputzaren kartografia hormonalak: “sexu-hormon”en izaera sexu-generikoa eztabaidatzen

Badirudi XX. mendearen hasieratik hona ez dela askorik aldatu “sexu-hormonak” ulertzeko modua. Ostertag argi eta garbi mintzo da zera esaten duelarik: “‘Sex hormones’ have moved to centre of the stories we tell ourselves about not only about what makes us transgender, or what make us homosexual or heterosexual, but what makes us men or women, male or female” (2016, 2. or.). Saul Rosenzweig eta R. G. Hoskins-ek, 1941eko “A Note of the Infertility of Sex-Hormone Medication in a Case of Pronounced Homosexuality” artikuluan –gero aipatuko dugu xehekiago–, behin eta berriz erabili zuten “sex-hormone/s” esapidea. Adibidez: “An attempt was then made to enhance the responsiveness to sex hormones by the use of desiccated thyroid (Armour)” (1941, 88. or.). Beste batzuetan, “[s]ex-hormone medication” aipatzen dute (1941, 88. or.). Artikulu horretan hormonez hitz egiteko erabiltzen duten hizkera alderatzen badugu Celia Roberts-ek “Hormones as messengers of sex” testuan (2018) erabiltzen duenarekin –aurreko atalean aipatu dugun *Transitional States* proiektuaren barnean–, hormonon terminologian aurkituko dugun desberdintasun bakarra izango da “sexual” adjektiboaren ondotik “esteroide” gehitzen duela Roberts-ek. Nolanahi ere, Roberts-ek, planteamendu sortzaile eta interesgarri bat egiten badu ere sexu-generoaren materialtasunaren gaineko begirada feminista

---

<sup>313</sup> Oudshoorn-ek aipatzen dituen hiru eragileak –konpainia farmazeutikoak, estamentu medikoa eta zientzialariak– ezinbestekoak dira produktu hormonalak sortzeko, eta hori guztiz bat dator Preciado-k egiaztatze-aparatutzat hartzen dituen bi agente nagusiekin: merkatua –kasu honetan, konpainia farmazeutikoak– eta hedabideak. Preciado-k ez du esaten aparatu zientifiko-medikoa, hormonon –bai artefaktu teknozientifiko zein merkatuko produktu gisa– sorreran hain garrantzitsua izanik, desagertu denik, baizik eta indarra galdu duela. Gonadetako jariakinen prestakinek hasi zirenetik, publicitatearen eginkizuna eta garrantzia nabarmena izan da produktu hormonalak saldu eta arrakastatsu egiteari begira; zenbait egilek –Oudshoorn-ek berak eta, aurrerago ikusiko dugunez, Nancy Langston-ek– jakinarazi dutenez, garrantzi hori areagotu egin zen XX. mendean zehar.



bat proposatuz, ingurunera eta elementu kimiko ugaritara irekitako prozesu aldakor bat den heinean, ez du ez kritikatzeko ez ukatzeko “sex hormones” nomenklatura:

Sex hormones, and the many chemicals that act like them, function as messengers in human bodies. They partake in complex communication systems involving genes, cells, glands, organs, whole bodies and environments. As messengers, sex hormones are deeply relational entities: they operate within feedback loops, reacting to current conditions and interactions. Sex hormones also fluctuate over time, in both hourly and daily patterns and over the life course. In many senses, then, sex hormones flow. (2018, 39. or.)

Hala eta guztiz ere, hormonak sexu-mezulari gisa teorizatzean, ikusmolde deterministetatik eta begirada sexu-generiko dimorfiko eta dualistetatik aldentzen da, eta adierazten du *Transitional States* proiektuaren erronka hau dela: “[O]pen our minds and bodies to possible re-framings of sex hormones as actors in our contemporary and future lives” (2018, 42. or.). Beharbada, hori egiteko modu bat izan liteke hormonon izaera sexu-generikoa problematizatzea edo eztabaidatzea eta beste modu batera kontzeptualizatzea, eta, hori lortzeko, Fausto-Sterling-ek adierazi duen bezala, ezinbestekoa izango da gure paradigma sexu-generikoa aldatzea (2000, 194. or.).

Oudshoorn-ek (1994, 21. or.) eta Fausto-Sterling-ek (2000, 163. or.) diotenez, XX. mendearen lehen hamarkadetan, sexu-garapena bi prozesuren bitartez definitzen zen: faktore genetikoen erregulaturiko sexu-determinazioa eta faktore hormonalen ondoriozko sexu-diferentziazioa. 1920eko hamarkadan, genetikaz eta endokrinologiaz gainera, biokimika ere agertokira igo zen, eta horrek aurreko ikusmoldea aldatzea ekarri zuen. Lehenago ere esan dugunez, 1910ean, kimika organikoaren aurrerapenei segituz, gonadak transplantatzeko praktikak indarra galdu eta gonaden erauzketa kimikoa nagusitzen hasi zen. 1905etik 1920ra bitartean, gizarte viktoriarrek sexu-generoaz zeukan ikuspegia bilduz –nahiz eta “genero” nozioa agertu gabea baitzen artean ere, edo agertu berria– eta gonada femeninoak feminitatearen *locus* gisa eta gonada maskulinoak maskulinitatearen *locus* gisa agertzeko ideia aurrezientifikoa ere kontuan hartuz, sexu-hormonak honela definitzen ziren: badira bi sexu-hormona desberdin; batetik, maskulinoak, zeinak gonada maskulinoetan ekoizten baitira, eta, bestetik, femeninoak, zeinak gonada femeninoetan ekoizten baitira. Horrenbestez, bazeuden bi hormona, bat sexu-genero bakoitzeko, eta sexualki espezifikoak ziren bakarrik, bai jatorriari, bai funtzioari dagokienez (Oudshoorn, 1994, 21.-22. or.).

Gizarte viktoriarrean, Laqueur-ek azaltzen digun gisara, bi sexuak elkarren kontrakoak balira bezala karakterizatzen ziren. Steinach-ek sexu-antagonismoaren ideia aplikatu zien hormonei, hau da, ezaugarri sexu-generizatu “koherenteak” estimulatzeaz gainera, aurkako sexu-generokoen garapena inhibitzen dute<sup>314</sup>. Prozesu horri “sex hormone antagonism” izena eman zion (Fausto-Sterling, 2000, 159. or.), eta, ondorio horretara iristeko, esperimentu anitz egin zituen arratoi eta akuriek (Oudshoorn, 1994, 156. or.; Fausto-Sterling, 2000, 158.-164. or.; Sengoopta, 2003, 124. or.; Ostertag, 2016, 34. or.). Hala, obulutegiak transplantatu zizkien ar zikiratuei –Steinach-en arabera, horrek haien hezur-egitura, zakilaren tamaina, ilea eta titiburuak “feminizatzen” zituen–, eta testikuluak eme zikiratuei, “maskulinizatzeko”; bi transplante mota horiek eragina izan zuten karraskarien jokabidean (Ostertag, 2016, 34. or.). Era berean, obulutegiak eta testikuluak transplantatu zituen karraskari berean<sup>315</sup>. 1920ko hamarkadan, Steinach-ek giza gorputzen hormonetara hedatu zuen sexu-antagonismoaren kontzeptualizazioa, eta, horretarako, esperimentuak egin zituen homosexualekin (Oudshoorn, 1994, 156. or.). Fausto-Sterling-ek honela dio: “[T]he highly anthropomorphic way he described his results speaks to how deeply his assumptions about sexual difference shaped his science” (2000, 158. or.). Egilearen aburuz, Steinach-ek honelako termino eta esapideak erabiltzen zituen hazkuntza-prozesuak deskribatzeko: “battles of the antagonistic actions of sex hormones” eta “sharp antagonisms” (2000, 159. or.).

Steinach-en esperimentuen emaitzak Carl R. Moore enbriologoak gezurtatu zituen, esperimentu berak errepikatuz. Fausto-Sterling-en iritziz, Steinach-en datuak bateragarriak ziren beraren ondorioekin, baina ondorioak azpideterminatuta zeuden (2000, 162. or.). Moore-k aurkitu zuen Steinach-ek feminizazioaren edo maskulinizazioaren adierazletzat harturiko aldaketak –gorputzaren pisua eta luzera, ilearen egitura, ugatz-guruinak, eta abar– hain desberdinak zirela banako batetik bestera, ez zeudela sexuarekin korrelazioan modu fidagarri batean (Fausto-Sterling, 2000, 164. or.). Esate baterako, Steinach-ek garrantzi handia eman zion testikuluak transplantatzearen ondorioz pisua areagotzeari, baina Moore-ren kontra-argudioa izan zen Steinach-ek arratoi-lagin handiagoak erabili izan balitu konturatuko zatekeela eme asko arrak baino handiagoak zirela. Gainera, pisuaren gorakada txikia zen, eta galdera sortu zen,

---

<sup>314</sup> Brown-Séquard-ek ezaugarri homologoen sorrerara murriztua zuen jariakin hormonalen funtzioa: jariakin hormonal femeninoak sexu-garapen femeninoarako eta jariakin hormonal maskulinoak sexu-garapen maskulinoarako. Testikuluekin esperimentuak egiteaz gainera, Brown-Séquard-ek Parisko emagin baten jardunaren berri eman zuen, emakumeen\* histeria tratatzen baitzuen akurien obulutegietako zukuarekin (Oudshoorn, 1994, 17. or.).

<sup>315</sup> Steinach-ek arratoi eta akurietan eginiko testikulu- eta obulutegi-transplanteen efektuei buruzko analisi eskematiko eta aldi berean landu baterako, ikus Fausto-Sterling (2000, 160. or.).

zergatik ez izendatu hori tamaina edo pisua handitzea, eta ez maskulinizatzea (Ostertag, 2016, 35. or.).

Fausto-Sterling-en ustez (2000, 165. or.), Moore-k argudiatu zuen arren jokabide batzuetan garbi ikusten zela hormonak eta sexu-diferentziak lotuta zeudela, jokabide generizatu guztiak ez ziren beti agerikoak<sup>316</sup>:

Steinach has described the docility of the normal female rat (does not fight, is easily handled, not so apt to bite or to resist handling, etc.) but here again the variations are too great to be of any practical value. Many females of this colony are decidedly [sic] more pugnacious than males. In several cases, these, after repeated handling, would bite, scratch, and resemble any other than a meek and mild-tempered female of the colony. (Moore, 1919, 151. or.)

Steinach-en eta Moore-ren arteko liskar zientifikoak bere horretan jarraitu zuen. Steinach-ek irmo defendatu zituen bere teoriak, eta esperimentuak egiten segitu zuen; besteak beste, obulutegi- eta karena-estraktua injektatu zien arratoi arrei, eta hala berretsi zituen sexu-antagonismoari buruzko bere ondorioak (Fausto-Sterling, 2000, 168. or.). Moore-k, Dorothy Price-rekin lankidetzan, esperimentu hori errepikatu, eta oso ondorio desberdinak atera zituen, zeinak “Gonad hormone functions and the reciprocal influence between gonads and hypophysis with its bearing on the problem of sex hormone antagonism” artikuluan argitaratu baitzituen, 1932an: “[C]ontrary to Steinach, that oestrin is without effect upon the male accessories. It neither stimulates nor depresses them” (1932, 22. or.).

Moore-k eta Price-k berek diotenez, Steinach-en sexu-antagonismoaren teoria eztabaidatzeak hormonon ekintza hipofisira hedatzera eramane zituen, eta horrek hormonon gaineko teoria berri bat ekarri zuen. Lau puntutan laburbildu zuten teoria berria:

1. Gonad hormones stimulate homologous reproductive accessories, but are without effect upon heterologous accessories.
2. Secretions produced by the hypophysis stimulate the gonads to function both in germ cell production and in hormone secretion.
3. Gonad hormones have no *direct* effect on the gonads of either the same, or the opposite, sex.
4. Gonad hormones, of either sex, exert a depressing effect upon the hypophysis which results in a diminished amount of the sex-stimulating factor available to the organism. (1932, 19.-20. or.)

---

<sup>316</sup> Fausto-Sterling-ek xeheki azaldu ditu Moore-ren esperimentuen emaitzak (2000, 166.-167. or.). Ostertag-ek, bestalde, ehun urtean arratoiekin esperimentuak egin eta gero, arratoien sexu-jokabideei buruzko gaur egungo ondorioen berri eman du, eta ohartarazi du, aurreko ataletan albatrosei buruz jakinarazi dugun moduan, balitekeela antropomorfismo-kasuak izatea (2016, 36. or.).

Fausto-Sterling-en aburuz, teoria horrek dakarrena da gonadek sexu-garapenaren eragile nagusi izateari uzten diotela eta sistema askoz konplexuago baten barnean sartzen direla, beste elementu batzuekin batera, non denek betetzen baitute eginkizun bat sexual gisa kategorizatzen eta sexu-generizatzen ditugun morfologiaren eta gorputz-funtzioen efektu jakin batzuk sortzeko orduan (2000, 168. or.). Alegia, hormonon sexu-espezifikotasunari buruzko ikusmoldean – hormonak sexu-generoaren, feminitatearen eta maskulinitatearen *locus* gisa ulertzea– eragiteaz eta hura zalantzan jartzeaz gainera, halaber eragin edo zalantzan jarri zuen azpian zetzan beste ideia bat, hots, gonadak dualtasun sexu-generikoaren *locus* eskusibo eta nagusi gisa (Oudshoorn, 1994, 23. or.). Fausto-Sterling-i jarraituz, Price eta Moore-k kontakizun bat sortu zuten zeinean gonada-hormonek ez baitzeukaten sexu-rol espezifikorik, hazkuntza-erregulatzaile indartsu gisa agertzen baitziren (2000, 169. or.).

Sistema endokrino edo hormonalak zelulen arteko komunikazio-sistema gisa kontzeptualizatzen da gaur egun, eta, sistema horretan, “hormona” deritzen estimulu kimikoen bitartez garraiatzen da informazioa. Elkarren ondoan dauden zelulak gainazaleko molekulen eta elkartze espezializatuen bidez komunikatzen dira; elkarrengandik urruti daudenak, aldiz, odoletik garraiatzen diren mezulari kimikoen jariaketan bidez, hau da, hormonon bidez, zeinek itu-zelulak aktibatzen baitituzte hartzaile espezifikoeekin –zelularteko hartzaileak edo mintz-hartzaileak– interakzioan (Ross eta Pawlina, 2007, 740. or.; Molnar eta Gair)<sup>317</sup>. Zenbait zelula endokrinok jariatzen dituzte hormonak; zelulok organo edo guruin endokrinoak osatzen dituzte, hala nola guruin pineala, hipotalamoia, hipofisia, tiroidea, paratiroidea, timoa, bihotza, guruin suprarrenalak, pankrea, obulutegiak eta testikuluak<sup>318</sup>; bestela, epitelio-mintzetako beste zelula batzuen artean sakabanatuta egon ohi dira, bereziki digestio- eta arnas aparatuetan, eta sistema neuroendokrino difuso deritze (Crespo González, 2016, 117.-118. or.). Badira ehun hormona baino gehiago (Ross eta Pawlina, 2007, 739. or.).

Maiz, sistema endokrinoak *feedback loops* bidez funtzionatzen du, eta nerbio-sistemarekin batera jarduten, besteak beste hipotalamoaren, hipofisiaren eta neurotransmisoreen bitartez, eta, era berean, biok jarduten dute sistema immunearekin, zitokinen bitartez, zeinak

---

<sup>317</sup> Hormona-jariaketa lau motatakoa izan daiteke. Batetik, autokrinoa, itu-zelula zelula jariatzailea bera denean. Bestetik, parakrinoa, itu-zelula zelula jariatzailearen aldamenean dagoenean. Bestetik, endokrinoa, itu-zelulak zelula jariatzaileetatik urruti daudenean eta hormonak odolaren bitartez garraiatzen direnean. Azkenik, sinapsia, bi zelularen artean komunikazio zuzena dagoenean, nerbio-sistemaren bereizgarri. Zelula jariatzailea –kasu honetan, neurona bat– itu-zelularen ondo-ondoan dago, eta hura aktibatzen du neurotransmisore deritzon mezulari kimiko baten bitartez, zeina sistema endokrinoarekin partekatua izan baitaiteke (Ross eta Wojciech, 2007, 739. or.).

<sup>318</sup> Ikus Crespo González, hormona nagusien, haien organo jariatzaileen, kokagunearen eta funtzioen zerrenda zehatzago baterako (2016, 119.-120. or.).

hormonak baitira (Vandenberg et al., 2012, 408. or.). Oso erlazio estua dutenez, egile batzuek batera hartzen dituzte hiru sistemak, hau da, sistema neuro-immuno-endokrina osatuz.

Uste da hipotalamoak –burmuinean dago– erregulatzen duela prozesu endokrina (Ostertag, 2016, 20. or.; Kethan, 2014, 31. or.). *Feedback loop* setako bat, hain zuzen, hor hasten da; gonadotropina hormona askatzailea jariatzen (GnRH), adenohipofisiak zelula gonadotropetara hedatu, eta zelulok hormona gonadotropina folikulu-estimulatzaila (FSH) eta luteinizatzailea (LH) sintetizatzen/jariatzen dituzte. GnRH estimulazioari erantzunez, zelula gonadotropek gonadotropinak askatzen dituzte zirkulaziora. Gonadetan, gonadotropinek hormona esteroideen sintesia gidatzen dute, esteroideogenesiaren eta gamotegenesi bidez espermatozoideak eta obuluak ekoiztearen bitartez. Hormona esteroideek, bestalde, hipotalamoko GnRH ekoizpena erregulatzen dute, eta, horrenbestez, baita gonadotropinak pituitarioan jariatzea ere (Kethan, 2014, 31. or.).

Nolanahi ere, antagonismo sexu-generiko hormonalaren ideia ez zen bazterrean geratu. Steinach-en jarraitzaile Harry Benjamin-ek hura defendatzen segitu zuen; bere burua Steinach-en dizipulutzat zeukan (Fausto-Sterling, 2000, 169. or.; Ostertag, 2016, 48. or.). Paul de Kruif-ek ere zentzu berean lan egin zuen; *The Male Hormone* idatzi zuen, 1945ean, eta, Brown-Séquard-en eta Steinach-en ildotik, hormona-jariakinak baliatu zituen gizonak gaztetzeko eta indarra berreskuratzeko, eta gizontasunaren zeinu eta estimulagarri gisa defendatu zuen testosterona (Oudshoorn, 1994, 101. or.; Fausto-Sterling, 2000, 169. or.). Esanguratsua da Kruif-ek Charles F. Kettering-en aipu hau jarri izana bere liburuaren hasierako orrialdeetan –liburuaren izenburua, editoriala eta argitalpenaren tokia agertzen diren lekuan–: “Remember, Paul, people are very open-minded about new things –so long as they're exactly like the old ones”. Fernández-ek honela dio: “[E]rrelato [zientifiko]ak funtzio bat betetzen du, eta hori funtsezkoa da. Egia ez izateak edo frogatua ez egoteak ez du esan nahi errelato horrek funtzio bat betetzeari uzten dionik” (Missé eta Fernández, 2018).

Izan ere, antagonismo sexu-generiko hormonalaren ideiak –estrogenoak hormona femeninotzat eta androgenoak, bereziki testosterona, hormona maskulintzat dituen– gaur eguneraino iraun du. Ez bakarrik hori; areago, antagonismoaren ideiarekin batera, bi sexu-generoetako baten gailentasun heteropatriarkalaren ideia aurkitzen dugu: “T” da hormona erregina<sup>319</sup>. Missé-k eta Fernández-ek Bartzelonan *Transitional States* proiektuaren harira izan zuten elkarrizketan, ikus-entzunezko “pilula txiki” batzuk tartekatu zituzten; besteak beste,

---

<sup>319</sup> Brown-Séquard-ek ere aipatu zuen ideia hori. Hoberman-ek zera dio horri buruz: “[I]t is not surprising that Brown-Séquard maintained that testicular extract was more powerful than ovarian extract. Indeed, to have argued otherwise would have challenged the biological foundations of male supremacy” (2005, 95. or.).

“testosterona” hitza Google-n bilatu, eta, gero, gauza bera egin zuten estrogenoekin (2018). Emaizta harrigarria izan zen. Genero-ideologia osoa molekula horren eta haren imaginario sozialaren inguruan biltzen eta zabaltzen da. Irudietan, gizon hipermuskulatuak ageri dira, bibotedunak eta/edo bizardunak; beso gihartsuko gizonak besoak zutik eta/edo pesak altxatzen; zakilak eta testikuluak; gizon tripa-handien eta gihartsu-indartsuen irudiak elkarren ondoan jarrita, testosterona hartzearen efektuak ikusarazteko (beti eta bakarrik gizonak); eta mutil baten burmuina. Gizon erakargarriak, atletikoak eta boteretsuak, arrakasta sozialaren irudi<sup>320</sup>.

Shanon Pettypiece-k artikulu bat argitaratu zuen *Bloomberg* aldizkarian, “Are Testosterone Drugs the Next Viagra?” izenburupean (2012). Artikulu horretan, bertikalki paraturiko pilula baten irudiak adierazten du testosterona, eta, hartatik, bi beso gihartsu ateratzen dira, bat alde bakoitzetik, gorantz, indar-erakustaldien keinu tipikoa eginez.

Baina, “estrogenoak” hitza sartuz gero, ez da halakorik agertzen. Pantailan agertzen diren irudi gehienetan, obulutegiak eta baginak ageri dira, hilerokoa, estrogeno-pilulak, estrogenoen molekula-egitura... Imaginario sozialari dagokionez, emaitzak erakusten du Google-k eta hark biltzen duen genero-ideologiak, hormonon bitartez oraingoan, ugalketaren eta zaintzaren esparruan kokatzen dutela emakumea, esparru pribatuan, ugalketarako eta kontsumorako gorputz gisa, estrogenoak garrantzi eta proiektzio sozial eta publikorik gabe utzirik. Missé-k, irudiak ikusirik, zera ondorioztatu zuen: “[A]zkenean, *hormona* testosterona da (...) iruditeria sozial oso indartsu bat sortzen duen hormona erregina testosterona da” (Missé eta Fernández, 2018)<sup>321</sup>.

Fernández-ek, berriz, adierazi zuen Google-ko irudiak bitan banatu daitezkeela: batetik, egitura kimiko molekularra daukatenak, zeinei buruz ezin baitu mundu guztiak hitz egin, profesionalizazioa eskatzen baitute; bestetik, alderdi sozialarekin lotuago daudenak (Missé eta Fernández, 2018). Inferentzia handia dago irudi kimikoen eta irudiok biltzen dituzten imaginario sozial sexu-generizatuen artean. Irudiek agerian uzten dute sexu-hormonen fikzio-izaera.

Bada gaur eguneraino iraun duen “sexu-hormonei” egotzitako sexu-antagonismoaren eta genero-arauek inposaturiko koherentziaren beharraren ideiak ironikoki eztabaidatzen dituen fenomeno bat: androgenoak luzaroan kontsumitzeak maiz eragiten duen efektua, hau da, ginekomastia edo gizonen bularra haztea; kulturisten hizkeran, “*bitch teets*” esaten zaio (txakur emearen titiak), eta testosterona ekoizteko gaitasun endogenoa ere murrizten du (Preciado, 2008,

---

<sup>320</sup> Berriz errepikatu dugu esperimentua, “testosterona” eta “estrogenoak” hitzak sartuta, eta irudi berak agertzen dira.

<sup>321</sup> Jatorrizko testua: “[A]l final *la* hormona es la testosterona (...) la hormona reina que genera un imaginario social muy potente es la testosterona”.

128.-129. or.; Ostertag, 2016, 93. or.)<sup>322</sup>. Apta Vital Sport kirol-eskolaren web-orrian, testosterona-anabolizatzaileak kontsumitzearen efektuen artean, ginekomastiaz gainera, honako efektu gehienetan “itzulezin” hau aipatzen da: “Hormona gonadotrofikoen jariaketa deuseztatzen dute. Hormona gonadotrofikoek gonaden (testikuluak eta obulutegiak) garapena eta funtzioa kontrolatzen dituzte. Gizonetan, gonadotrofina gutxitzeak testikulu-atrofia, testosterona-jariaketa gutxitzea eta esperma kantitatea urritzea eragin dezake” (2019)<sup>323</sup>.

Oudshoorn-en arabera, 1920an, lipidoen kimika biokimikaren barneko ikerketa-lerro berri gisa agertu zen. Ordurako, egileak dioenez, “sexu-hormonak” kolesteroletik eratorritako esteroide gisa sailkatzen ziren: “[A] class of substances that could be extracted with the same solvents applied in extracting lipid” (1994, 21. or.). Fausto-Sterling-ek azaldu du kimikari organikoek 1914an identifikatu zituztela esteroideak eta 1920rako aurkitua zutela material biologikotik erauzteko modua (2000, 170., 177. or.).

Badira hiru hormona mota nagusi: aminoazidoetatik eratorriak –adibidez, adrenalina, noradrenalina edo tiroxina–; peptidoak, peptido txikiak eta proteinak biltzen dituztenak –adibidez, insulina, entzefalina, basopresina edo hazkuntzarako hormona–; eta esteroideak, kolesteroletik eratorriak –besteak beste, kortisola, progesterona, estradiola edo testosterona– (Ross eta Pawlina, 2007, 739. or.). “Sexu-hormona” deritzen guztiak, estrogenoak, progesterona eta androgenoak, kolesteroletik eratorriak dira, eta esteroideak dira. Progesterona pregnenolonatik sintetizatzen da, zeina aldi berean kolesteroletik eratorria baita. Aldosterona mineralokortikoidearen aurrekaria da progesterona, eta, 17-hidroxiprogesteroa progestageno endogenora bihurtu ondoren, baita kortisolaren eta androstenedionaren aurrekaria ere. Androstenedionak testosterona, estrona eta estradiola ekoizten ditu. Aromatizazio deritzon prozesuan, testosterona, zeina ikusi dugun bezala progesteronatik eratorria baita, estradiol bihurtzen da; eta androstenediona, progesteronatik eratorria, estrona (White, 2001, 705.-708. or.).

Ostertag-ek dio: “The endocrine sytem is currently the subject of a considerable amount of research, and the more we learn, the more we become aware of how little we undertand about it” (2016, 20. or.). Hormonek, eta, haien artean, esteroideek, askotariko funtzioak betetzen dituzte teknogorputzetan. Hormona batek oso funtzio desberdinak erregula ditzake organo ezberdinetan. Fausto-Sterling-i jarraituz, historikoki “sexu-hormona” izendatu direnek zenbait

---

<sup>322</sup> Fausto-Sterling-ek azaltzen duenez, 1930eko hamarkadarako argi zegoen “hormona maskulino”ek eragina izan zezaketela sexu-garapen “femenino”an, eta alderantziz (2000, 182. or.).

<sup>323</sup> Jatorrizko testua: “[s]uprimen la secreción de hormonas gonadotróficas, que controlan el desarrollo y la función de las gónadas (testículos y ovarios). En los varones, la reducción de gonadotrofina puede producir atrofia testicular, reducción de la secreción de testosterona y menor cantidad de esperma”.

ehuni eragiten diete, hala nola hezurrei, nerbioei, bihotzari, gibelari edo giltzurrunei, eta “under the right circumstances these hormones can dramatically affect sexual development at both the anatomical and the behavioral level” (2000, 193. or.). Odoleko hormonien kopurua desberdina da teknogorputz batetik bestera, eta alda daiteke adinaren, sexuaren, ugalketa-zikloko unearren edo osasun-egoeraren arabera. Teknogorputzasun bakoitzak hormona-oreka propioa dauka (Vandenberg et al., 2012, 383.-384. or.). Fausto-Sterling-en ustez, zelula-mailan, egokiagoa da zelulen hazkuntzako, zelulen bereizkuntzako, zelulen fisiologiako eta zelulen heriotza programatuko prozesuak erregulatzen dituzten hormona gisa kontzeptualizatzea. Berak teknogorputzasunen organo-sistemaren zati nagusian –edo are osoan ere– eragiten duten hazkuntza-hormona boteretsu gisa definitzen ditu (2000, 193. or.).

1927an, Amsterdango Unibertsitateko Ernst Laqueur-en Pharmaco-Therapeutic Laboratory-ko lantaldeak jakinarazi zuen “sexu-hormona femeninoak” aurkituak zituztela ez bakarrik testikuluetan, baizik eta baita gizonen gernuan ere, eta horrek zalantzan jarri zuen hormona-sistema dualista. Eta ez hori bakarrik, ondorioztatu baitzuten hazitarako zaldia zirela ordura arte ezaguturiko “sexu-hormona femenino”en iturri handiena (Oudshoorn, 1994, 23.-24. or.; Fausto-Sterling, 2000, 182. or.)<sup>324</sup>. Ildo horretan, Thomas Laqueur-ek zera ondorioztatu zuen bere *Making Sex* lanean:

I might have ended with the scientists, including my great-uncle Ernst Laqueur who in the 1930s worried about endocrinological androgeny, when male hormones were found in the female and female hormones in the male. But that worry is only a chemical version of the sorts of issues already raised by nineteenth-century embryology. (1990, 243. or.)

Alegia, gorputz guztietan orotariko hormonak egoteak, Thomas Laqueur-ek bi sexuen jatorri enbriologiko komunari dagokionez adierazten duen bezala, aski ongi berrets zezakeen eredu monosexuala eta ez sexu-diferentziarena (1990, 169.-170. or.)<sup>325</sup>. Eta ageri utzi zuen honako hau: “[H]ow difficult it is for culture to make the body fit into the categories necessary for biological and thus cultural reproduction. Two sexes are not the necessary, natural consequence of corporeal difference. Nor, for that matter, is one sex” (1990, 243. or.). Oudshoorn-ek, harago joan, eta zera aipatu zuen hormonei buruz: “[T]he facts undermine the notion of two stable, opposite sexes, where the ‘toys’ opposed the ‘boys’” (1994, 9. or.).

---

<sup>324</sup> Premarin®, sortu zenetik gaur arte, behorrei –eta ez hazitarako zaldiei– erauzitako estrogenoekin fabrikatu da; besteak beste, errazagoa delako behorrek lortzea hazitarako zaldia baino (Ostertag, 2016, 65. or.).

<sup>325</sup> Izan ere, Thomas Laqueur-ek berak dio aurkikuntza horrek ekarri zuela “uncomfortable possibility of endocrinological androgyny at the very moment when science seemed to have finally discovered the chemical basis of sexual difference” (1990, 249. or.).



Ondoren, beste argitalpen batzuetan, jakinarazi zen obulutegietan ere bazirela “sexu-hormona maskulino” deritzenak (Oudshoorn, 1994, 25. or.). Oudshoorn-i jarraituz, 1937rako, guruin adrenalak eta guruinak hartzen ziren hormona-jariaketarako gune gisa; alegia, ordurako, zalantzan jartzen hasiak ziren “sexual” deituradun hormonen sexu-berariazkitasuna, bai jatorriari dagokionez, bai funtzioari dagokionez (1994, 27. or.).

Nolatan iritsi da gure egunetara “sexu-hormonak” logika dualista heteropatriarkal batean txertaturiko entitate antagonikoak direlako ideia? Diskurtsoak edo hizkuntzak teknologia baten gisara funtzionatzen du “sexu-hormona” deritzenen koeraketan<sup>326</sup>, eta, horretaz gainera, Oudshoorn-ek azaldu du “sexu-hormona femeninoak” eta “maskulinoak” akritikoki onartzen direla gertaera naturalak balira bezala, zientziak errealitatea den bezalaxe deskribatzen duelako ideia positibistari jarraituz. Hacking-ek *Representing and Intervening* (2010) (1983) lanean dioenaren arabera, laborategi-zientziek ahalmena dute, beren aparatu eta tresnen bitartez, artefaktu teknozientifikoak sortzeko; kasu honetan, sexu-hormonak. Arazketa- eta egonkortze-praktikek zuzenean parte hartu zuten artefaktu horien sorreran, eta praktika horien aurretik existitzen ez ziren eta aurkitu ezin ziren gauzak sortu zituzten: “[S]ex hormones do not simply exist in nature, they are literally created by laboratory scientists” (Oudshoorn, 1994, 42. or.). Endokrinologiaren zientzia berriak bere autoritate materiala ezarri zuen “sexu-hormonak” kontzeptu teorikoa errealitate material bihurtuta: sexu propiodun substantzia kimikoak (1994, 42. or.). Zientzialariek hainbat aukeraren artean testatu, neurtu eta hautatu zuten zer hormona izango ziren eta bakoitzak zer egingo zuen. Fausto-Sterling-ek dio sexu-generoarekin eta ugalketarekin loturarik ez zuten prozesu eta funtzio guztiak kanpoan geratu zirela (2000, 185. or.).

1929an, “sexu-hormonak” hormona esteroideak zirela gauza jakina zelarik, “sexu-hormona femeninoak” erauztea, isolatzea eta araztea –hau da, kristalizatzea– lortu zuten bi taldek –lehenbizi, Edward Doisy estatubatuarraren taldeak, eta, handik bi hilabetera, Adolf Butenandt alemanarenak–; lehenik, behorren gernutik, eta, gero, emakume\* haurdunetatik (Oudshoorn, 1994, 69. or.; Fausto-Sterling, 2000, 180.-181. or.; Beccalossi, 2018, 14. or.). Hurrengo urtearen hasieran, Laqueur-en lantaldeak ere lortu zuen. Oudshoorn-ek dioenez, hiru zientzialari-taldeok lan-harreman “estua” zeukaten konpainia farmazeutikoekin: Doisy-ren taldeak, Parke, Davis, and Company-rekin; Butenandt-enak, Schering-Kalhbaum-ekin; Laqueur-enak, Organon-ekin (1994, 69. or.). 1931n, Butenandt-ek “sexu-hormona maskulinoa” isolatu zuen gizonen gernutik,

---

<sup>326</sup> Ez da kasualitatea izen posible eta proposaturiko izen guztien artean “estrogeno” aukeratu izana “sexu-hormona femeninoak” izendatzeko eta “androgeno” “sexu-hormona maskulinoak” izendatzeko. Nomenklaturari eta izen-hautaketari buruzko arrazoiengatik, ikus Fausto-Sterling (2000, 187.-190. or.).

eta, 1935-1936an, isolatuta sortzea eta sintetikoki ekoiztea lortu zuten (Oudshoorn, 1994, 69., 103. or.; Hoberman eta Yesalis, 1995, 78. or.; Fausto-Sterling, 2000, 181. or.; Freeman et al., 2001, 327. or.)<sup>327</sup>.

Handik aurrera, nahiz ez homogeneouski eta bat-batean, konpainia farmazeutikoek “sexu-hormonak” kontzeptua bi entitatetan banatzeko ikuspegia indartu zuten: “sexu-hormona maskulinoak” gizonentzako farmako gisa eta “sexu-hormona femeninoak” emakumeentzako\* farmako gisa (Oudshoorn, 1994, 106. or.).

Lau argudio nagusi eman ditugu “sexu-hormona” deritzenen izaera sexu-generikoa, zeinak sexu-dimorfismoa, antagonismo sexu-generikoa, gizonen gailentasun patriarkala eta egitura heteronormatiboa barnebiltzen dituen, problematizatzen:

1. Historikoki “sexu-hormona” izendatu direnak kolesterolek eratorriak dira, eta hormona esteroideak dira denak.

2. Hormona esteroideek, gorputzaren garapen sexu-generizatuan parte hartzeaz gainera, teknogorputzen askotariko funtzioetan parte hartzen dute.

3. “Sexu-hormonak” ez dira ekoizten ez nagusiki ez eskusiboki “sexu-gonada” deritzenetan; kontrara, hainbat organo eta guruinetan sortzen dira, beste gorputz-sistema batzuekin interakzioan, eta odolletik garraiatzen dira gorputzean zehar.

4. “Sexu-hormona” guztiak teknogorputz guztietan ekoizten dira; ez du axola zer sexualitate, desira, sexu-genero, arraza edo gaitasun dauzkaten.

Hemen azaldu ditugun eta, beharbada, ezagutzen ez ditugun beste arrazoi batzuk direla eta, Fausto-Sterling-ek proposatu du “sexu-hormon”en metafora antolatzailea eta “estrogeno” eta “androgeno” terminoak bertan behera uztea (2000, 193. or.). Eta ez da lehenbizikoa. Oudshoorn-i esker jakin dugunez, zenbait zientzialarik uko egin zioten “sexu-hormonak” nomenklatura eta sailkapenari (1994, 33.-34. or.). John Freud holandar biokimikaria, Laqueur-en lantaldekoa bera, “hormona maskulino” eta “hormona femenino” terminoei uko egitearen alde agertu zen 1936an, besteak beste argudiaturik biak ageri zirela bi sexu-generoen gertuan, eta “katalizatzaile” gisa pentsatzea proposatu zuen: “If we understand the hormones as catalysts for certain chemical conversions in cells, it would be easier to imagine the manifold activities of each hormonal substance” (Freud, 1936, 12.-14. or., Oudshoorn-ek aipatua, 1994, 34. or.).

Ez dugu ukatu nahi hormona esteroideek materialtasun sexu-generikoaren koeraketan duten papera –kontuan izan organiko-teknologiko-diskurtsibo-material gisa kontzeptualizatu

---

<sup>327</sup> Gizonen teknogorputzetatik gertu lortzeko zailtasunak –batetik, ez baitzegoen halakoak modu erraz batean jasotzeko tokirik, hala nola klinika ginekologikorik, eta, bestetik, ospitaleetako gaixoen eta animalia-teknogorputz ez-gizatiarren gertuak “sexu-hormona maskulino” gutxi baitzeukan– sintesira bultzatu zituen konpainia farmazeutikoak eta zientzialariak (Oudshoorn, 1994, 75. or.).

dugula koeraketa hori-. Problematizatzen ari garena hormona jakin batzuen izaera nagusiki sexu-generikoa da; izan ere, sexu-generoa eta, horrenbestez, ahalmen ezohiko eta funtsezko bat esleitu zaie sexu-generoaren eraketan, beste elementu batzuk baztertuz eta ikusezin bihurtuz, generoaren funts kimikoa osatuz eta, hala, sexu-generoaren sinonimo bihurtuz. Hormonen izaera sexu-generikoa zalantzan jartzeak ez du esan nahi teknogorputzen sexu-generizazioaren prozesuan –aldakor eta ingurunera ireki gisa kontzeptualizatu dugun prozesua– esku hartzeko elementu gisa egiten duten lanari balioa kentzen diogunik edo hura ukatzen dugunik.

Lehenago ere azaldu dugu zer paper betetzen duten kimiko xenoestrogenikoen agenteek teknogorputzen sexu-generizazioaren prozesuan. Xenoestrogenoek efektu ugari eragiten dituzte gorputzetan; haietariko batzuk sexu-generikotzat hartzen dira, edo zerikusia dute morfologia, garapen eta funtzio sexu-generizatuekin. “Sexu-hormonek” teknogorputzen sexu-generizazioaren prozesuan duten izaera eskusibo eta *esentzialaren* ikuspegia kritikatzeko bat dator Ah-King eta Hayward-en kritikekin, zeinak bi gairen inguruan formulatuak baitira: 1) Garrantzi handiegia eman zaie xenoestrogenoen edo disruptore endokrinoen efektu sexu-generikoei eta ugalketaren gaineko efektuei, ia panikoa eragiterainokoa, izatez efektu mota ugari eragiten baitituzte teknogorputzetan, hala nola minbiziak, gaixotasun edo arazo immunologikoak, obesitatea, diabetesa, eta abar, beste ikuspegi batzuetatik are esanguratsuago bezala pentsa litezkeenak. Alde horretatik, erakutsi dugun moduan, gauza bera esan genezake teknogorputzen askotariko prozesu eta funtzioetan parte hartzen duten hormona esteroideez ere. 2) Paniko horrek, zeinak sorrarazi duen espezifikoki sexual gisa katalogaturiko efektuei gehiegizko garrantzia ematea eta, ondorioz, gainerako efektuak txikiagotzea eta ikusezin bihurtzea, lotura estua dauka ikuspegi sexu-generiko dimorfista, heteronormatibo eta patriarkal batekin eta begirada antropomorfizatzaile batekin. “Sexu-hormonak” sexu-generizatzea begirada dimorfista, heteronormatibo eta patriarkal horren beraren emaitza da.

Nolanahi ere, norbaitek galdetu edo zalantza ager lezake ea zergatik proposatu dugun atal honetan nomenklaturak aldatzea aurreko ataletan “xenoestrogeno”, “estrogeno-hartzaile”, “androgeno-hartzaile” edo “hormona tiroideoaren hartzaile” terminoak erabili baditugu. 3.2. atalean azaldu ditugu “xenoestrogeno” terminoa erabiltzeko egokitasunaren, komenigarritasunaren eta doitasunaren arazoak. Gainerako terminoei dagokienez, Fausto-Sterling-ekin bat eginez, terminologia aldatzeak generoaren gaineko ikuspegia aldatzea dakar. Teorizazio berriak pentsatu eta garatu beharko dira, xenoestrogenoen eta/edo disruptore endokrinoen efektuak azaltzeko terminologia hori erabili gabe. Etorkizuneko ikerketa-lerroetako bat izango da aztertzea zer neurritan izan daitekeen hori interesgarri, komenigarri eta eraldatzaile, eta proposamen berrietan eta termino berriak sortzeko aukeretan arakatzea.

### 3.6. Hormonen kutxa beltza irekitzen

Questioning the meanings and uses of technology is the most urgent task of our times.

B. Ostertag, *Sex, Science and Self*, 2016, 151. or.

Atoniak jota bizitzea. Ilusioak galtzea, adibidez. Halako gogo-aldartearekin zaudenean, ez zaude tristurak jota. Ez da depresio bat. Ez da depresio bat; hori gehiegi esatea da. Halako pena oso sakon bat balitz bezala da, kontra egin ezin diezaiokезun prozesu bat, ez baitakizu zer ari zaizun gertatzen. Urteek aurrera egiten dute, eta konturatzen zara ez dela desagertzen, ez dagoela irtenbiderik eta ez duzula ilusiorik aurkitzen. (...) Bizitzaren aurreko desilusioa da, eta nik adinari egozten nion neurri handi batean.

[...]

Denbora librea neukanean, ohera sartzen nintzen berehala, are lanorduetan ere. *Delux* programa edo gaueko beste programaren bat egin behar izanez gero, hiru orduko siestak programatzen nituen. Hori ez da normala 45 urteko pertsona batentzat. Lauretatik zazpietara lo egitea edo ohean etzatea programatzen nion neure buruari, gero lanera joateko.

[...]

Halako dinamika batean sartuz gero, tristurak eta bizi-larriminak zure bizitzaren atal asko kentzen dizkizute, eta horrela ezinezkoa da bizitzaren alderdi positiboa ikustea. (...) Eta niri amorrua ematen zidan pentsatzeak zer gertatzen ari ote zitzaidan nire adinean bizitzaz ez gozatzeko.

[...]

Prozesu hura bizi izan nuenean, eta bi urte edo bi urte eta erdi baneramatzan, poliki-poliki ari nintzen behera egiten, mailaz maila. Banekien ez zela prozesu psikologiko bat; izan ere, psikologo batekin baino gehiagorekin (...) ibili naiz nire bizitzan zehar, eta, hainbat psikologorekin egon eta lan handia egin eta gero, burua bere tokian daukat, gutxi gorabehera, eta badakit zerk eragiten didan eta zerk ez, eta banekien hura ez zela psikologo-kontu bat. (...) Erregresioak egitekotan egon nintzen. (...) Autolaguntzako liburuak irakurtzen hasi nintzen, erregresio bat egin nahian, iraganeko bizitzekin zerikusirik izan zezakeelakoan.

[...]

[A]nalisi sakon batzuk egin nituen, eta esan zidaten (...) *hormona-desoreka handia neukala eta horrek eragiten zuela ni halako egoeran egotea. Eta esan izan didate garaiz konturatu izan ez banintz depresio handi bat etorriko zitzaidala, etxetik ez ateratzeko modukoa. Hormona-desoreka batek halako egoera batera eraman zaitzake. Eta izango dira, segur aski, nire adineko gizon asko eta asko gauza bera*

*bizitzen ari direnak eta iruditzen zaienak horixe bizi beharra daukatela eta horixe dela bizitza. Eta ez da hori, ez.* (Geuk nabarmendua)<sup>328</sup>

Horra Jorge Javier Vázquez *Sálvame* telebista-programaren aurkezlearen hitzak – egunero ematen dute, 2009tik, eta % 18,5-19,5eko ikusle-kuota dauka gaur egun, hau da, ia bi milioi pertsonak ikusten dute egunero–, 2017ko azaroaren 29koak. Egun hartan bertan, *Lecturas* aldizkari arrosak antzeko adierazpen batzuk bildu zituen: “Kontsultara joan nintzenean, medikuak esan zidan *hormona-desoreka oso altua* neukala eta horrek *ezegonkortasun-sentipena* eragiten zidala. *Bitamina- eta testosterona-gehigarriak* hartuz ari naiz horren kontra borrokan” (*Lecturas*, 2017; Madrid eta Cornejo 2017 lanean aipatua; geuk nabarmendua)<sup>329</sup>. Lekukotasun hori testosterona-gutxiegitasunaren sindrome deritzonaren adibide bat izan liteke, eta, hura tratatzeko, HOTA eman ohi da.

Hala, *El País*en argitaraturiko albiste batean, honela azaldu zuten aurkezleari gertaturikoa:

Aurkezleak konpondutzat jotzen du bere krisi pertsonala; hitz egiten du hari buruz, eta izena ere jarri dio: testosterona-gutxiegitasunaren ondoriozko sindromea. “Zer gertatzen zitzaidan ez nekienez, gehiegi luzatu zen prozesua, baina gainditu dut. Tristura etengabeko bat sentitzen nuen. Adinaren krisiari

---

<sup>328</sup> Jatorrizko testua: “Vivir en un estado de total atonía. La pérdida de ilusiones, por ejemplo. Es un estado de ánimo en el que no estás en lo más hondo de la tristeza absoluta. No es una depresión. No es una depresión, porque eso son palabras mayores. Es un proceso, que es como una pena muy honda, contra la que no puedes luchar porque no sabes lo que te está sucediendo. Y van pasando los años y tú ves que no desaparece, que no hay salida, y que no encuentras ilusión. (...) Es la desilusión ante la vida, que yo achacaba muchísimo a la edad. [...] En cuanto tenía tiempo libre me metía en la cama en periodo laboral. Yo para hacer el de *Lux* o un programa de noche yo lo que hacía era programarme tres horas de siesta. Para una persona de 45 eso no es normal. Y yo me programaba de 4 a 7 dormir o estar en la cama para ir a trabajar. [...]

Entras en una dinámica en la que la tristeza y la angustia vital se van apoderando de muchas partes de tu vida y así es imposible verle la parte positiva a la vida. (...) Pero a mí lo que me daba rabia era ¿qué me está pasando para no poder disfrutar de todo esto a mi edad?! [...]

Cuando yo estaba pasando este proceso, que ya llevaba como dos años-dos años y medio incluso, era como pequeños escaloncitos, pequeños peldaños, que iba descendiendo, descendiendo. Yo sabía que no era un proceso psicológico, porque yo he visitado (...) a varios psicólogos a lo largo de mi vida y yo, después de pasar por varios psicólogos y de haber trabajado muchísimo, tengo la cabeza más o menos en su sitio y sé lo que me afecta, lo que no me afecta y yo sabía que eso no era un proceso de ir a un psicólogo. (...) Estuve a punto de hacer regresiones. (...) Empecé a leer libros de autoayuda, a ir a ver si me podían hacer una regresión, a ver si esto tenía que ver con vidas pasadas. [...]

[D]espués también de hacerme también unos análisis muy muy exhaustivos, determinaron que lo que yo estaba sufriendo (...) era un *desequilibrio hormonal importante, que me estaba afectando y me estaba conduciendo a ese estado. Y a mí me han llegado a decir que si no lo hubiera pillado a tiempo, podría haber desembocado en una depresión de las de no poder salir de casa, pero lo que es el desequilibrio hormonal que te puede llevar a esta situación. Y que probablemente hay muchísimos hombres de mi edad que también lo están pasando, y consideran a lo mejor que eso es lo que les toca vivir a esa edad y que eso es lo que es la vida. Y no lo es, no lo es*”.

<sup>329</sup> Jatorrizko testua: “Cuando fui a la consulta el médico me comentó que tenía un *desequilibrio hormonal muy elevado* y que eso provocaba esta *sensación de inestabilidad*. Lo estoy combatiendo con *suplementos de vitaminas y testosterona*”.

egozten nion, baina ez zahartzen ari nintzelako. Gainera, ez nion ematen merezi zuen garrantzia, neure buruari esaten bainion ezin nintzela kexatu, dena ongi zihoakidala”. Azkenean, hormona-arazo batek depresiora eramane zuen. Testosterona gutxiegia zeukan. “Jendeak sexualitatearekin lotzen du, baina funtsezko hormona da egonkortasun fisiko, mental eta emozionalerako. Orain, 15 egunetik behin injektatzen dut, eta bizitza aldatu zait”, azaldu du telefonoz, bidaia batetik iritsi berritan. (Gomar, 2017)<sup>330</sup>

Hoberman eta Yesalis-ek jakinarazi dutenez, 1990eko hamarkadaren hasieran, zenbait doktorek esperimentu pilotuak zuzendu zituzten 54 urtetik gorako gizonei testosterona-gehigarriak ematearen efektuez; itxura denez, testosterona maila “normalak” eta maila “baxuak” zeuzkaten gizonak ziren (1995, 80. or.). Egile horien arabera, esperimentuon emaitzak positiboak izan ziren oro har: gorputz-masa eta indarra handitu zitzaizkien, hezur-erresortzioa atzeratu, sexu-desira eta -jarduera handitu, eta espazio-kognizioa eta hitz-memoria hobetu. Bestalde, egileek azaldu dutenez, mediku askok, intuitiboki onartzen dutenez hormona bidezko terapia onuragarria dela emakumeentzat\*, antzera jokatu zuten gizonentzako hormona-terapiaren kasuan ere, eta azpimarratu dute estrogeno- eta testosterona-terapiak adineko jendearengan dituzten onura potentzialak iratiaren, telebistaren eta prentsa idatziaren bitartez zabaltzeak agerian utzi zuela kulturalki oso onartuta zegoela “hormona maskulinoaren terapia masiboa” (1995, 81. or.). Ildo horretan, honela diote egileek: “The Hormonal Healthcare Center in London administers testosterone injections to hundreds of men irrespective of age, and a gynecologist at Chelsea and Westminster Hospital in London currently prescribes testosterone pellets for about 25 percent of his postmenopausal patients” (1995, 81. or.). Ez hori bakarrik, iragarri baitute joera horrek aurrera jarraituko duela: “[M]eaning that mass testosterone therapy could become standard medical practice within a decade” (1995, 81. or.).

Hoberman eta Yesalis-ek diote herritarrek espero dutenaren eta arrazoi komertzialen ondorioz “nahasmendu” mediko berri bat definituko dela, eta National Institutes Of Health-en kasua eman dute adibide gisa; egileen arabera, testosterona-terapiak adineko gizonen depresioa eta beste gaixotasun fisiko batzuk prebenitzeko balio ote dezakeen ikertzeko proposamenak eskatu zituen 1992an: “[T]hereby raising the question of whether the aging process itself is about to be officially recognized as a treatable deficiency disease” (1995, 81. or.). Egileek John B.

---

<sup>330</sup> Jatorrizko testua: “Respecto a la crisis personal, el presentador la da por zanjada, habla de ella y le pone nombre: síndrome por déficit de testosterona. “He superado un proceso que se alargó demasiado porque no sabía qué me pasaba. Tenía una sensación de tristeza continua. Lo achacaba a una crisis de edad, pero no por el hecho de hacerme viejo. Encima no le daba la importancia que merecía porque me decía a mí mismo aquello de que no me puedo quejar porque todo me va bien”. Al final, resultó ser un problema hormonal el que le sumió en una depresión. Le faltaba testosterona. “La gente la asocia a la sexualidad, pero es una hormona fundamental para la estabilidad física, mental y emocional. Ahora me pincho cada 15 días y me ha cambiado la vida”, explica por teléfono recién llegado de un viaje”.

McKinlay epidemiologo ospetsu eta New England Research Institutes Inc.-ren zuzendari eta lehendakariordearen adierazpenak jaso dituzte; menopausian eta erektzioaren disfuntzioan aditua izanik, berak dio ez dagoela “epidemiological, physiological or clinical evidence for such a syndrome, [but] I think by the year 2000 the syndrome will exist. There is a very strong interest in treating aging men for profit, just as there is for menopausal women”<sup>331</sup> (1995, 81. or.). McKinlay-k antzeko ikuspegia azaldu zuen emakumeentzako\* HOTari buruz, kontuan hartuta garai hartarako ibilbide luzea zuela terapia horrek, gorago agertu dugun bezala: “‘HRT is inappropriate for the vast majority of women, who shouldn't use it,’ John McKinlay says. ‘Yet the pharmaceutical industry's goal is to have every post-menopausal woman on it until death’” (Gallagher, 1993).

Bestalde, Feldman, Goldstein, Hatzichristou, Krane eta McKinlay-k (1994) inpotentzia eragiten duten faktore posibleak analizatu dituzte. Horretarako, Massachusetts Male Aging Study-aren datuak baliatu dituzte, ikerketa bat egin baitzuen 1987tik 1989ra bitartean, 40 urtetik 70era bitarteko 1.709 gizonekin, Bostondik (Massachusetts) gertuko 11 hiritan (1994). Haren ondorioen arabera, inpotentzia minimo, tarteko eta osoaren prebalentzia konbinatua % 52koa da, eta, adinarekin, inpotentzia osoaren prebalentzia % 5 eta % 15 handitzen da, 40 urtetik 70era bitartean (1994, 54. or.). Adinaz gainera, egileek diote inpotentziarako probabilitate handiena lotuta dagoela zenbait gaixotasunekin, hala nola gaixotasun kardiobaskularrekin, hipertentsioarekin eta diabetesarekin, baita medikazio asoziatuarekin eta haserre- edo depresio-indizeekin ere; bestalde, alderantziz lotuta dago dehidroepiandrosterona-serumarekin, kolesterol lipoproteinaren dentsitate altuarekin eta nortasun menderatzailearen indizearekin (1994, 54. or.). Tabakismoak ere badu lotura gaixotasun kardiobaskularra eta hipertentsioa duten gizonen inpotentzia osoa izateko probabilitate handiagoarekin.

Hori horrela izanik, ondorioztatu dute ez dagoela inongo loturarik testosteronaren eta inpotentziaren artean:

Of the 17 hormones measured in the MMAS subjects, only the adrenal androgen metabolite dehydroepiandrosterone sulfate showed a strong correlation with impotence... The age-adjusted probability of complete impotence increased from 3,4 to 16% as dehydroepiandrosterone sulfate decreased from 10 to 0.5 ug/ml. Dihydrosterone and cortisol showed effects of small magnitude on minimal impotence only. No correlation with impotence was found for testosterone (either free, albumin-bound or total), sex hormone binding globulin (the major serum carrier of testosterone), various other

---

<sup>331</sup> Adierazpen horien bila ibili gara, eta Natalie Angier-en artikulu batean aurkitu ditugu: “A Male Menopause? Jury Is Still Out” (*International Herald Tribune* argitaratua 1992ko maiatzaren 20an). Hoberman-ek ere pasarte bera aipatu du, erreferentzia honekin: “Midlife Myths: What about Men?”, *International Herald Tribune*, 1992ko maiatzaren 21a (2005, 143. or.). Guk, hala ere, ezin izan dugu erreferentzia hori aurkitu.

androgens and metabolites (including androstenedione and androstanediol), estrogens, prolactin or the pituitary gonadotropins (folicle-stimulating hormone and luteinizing-hormone). (1994, 56. or.)

Hala eta guztiz ere, Hoberman eta Yesalis-ek ohartarazi dute testosteronak inpotentziarekin zerikusirik ez izan arren –inpotentzia, bestalde, nahasmendu edo gaixotasun gisa kontzeptualizatzen da– ez dagoela bermatuta hura horretarako ez errezetatzea eta merkaturatzea (1995, 81. or.). Egileek gehitu dute adina arazo medikotzat hartzen dela gero eta gehiago eta horrek ekarri duela “gizonen menopausia” edo “andropausia” kontzeptualizatzea, “emakumeen\* menopausi”aren baliokide gisa. Horrek beste bultzada normatibo bat eta estandarrak betetzeko presioak sakontzea dakar: “The oficial status of such a syndrome will signify new societal definitions of physiological normality and further legitimize ambitions to boost the human organism to higher levels of mental and physical performance” (Hoberman eta Yesalis, 1995, 81. or.).

Badirudi Hoberman eta Yesalis-en pronostikoa bete egin dela eta McKinlay-ren hitz profetikoak gauzatu direla. Historia errepikatu egiten da, eta, emakumeen\* gorputzak eta bizi-prozesuak errentagarri bihurtu eta gero, beste teknogorputz-morfologia batzuei eta beste identitate sexu-generiko batzuei ematen zaie balioa merkatuan. Gehiegi esatea litzateke testosterona-terapia “ohiko praktika” bilakatu dela, baina baliteke ahalegin korporatiboak norabide horretan jartzea, lehen eta orain; izan ere, Ostertag-ek dioen bezala, edozein gizonek izan dezake testosterona-gutxiegitasunaren sindromea, inork ez baitaki zein diren testosterona-maila “normalak” (2016, 92. or.). University of California-Berkeley-n adierazi dute nahiz eta zientzialari batzuek adinaren arabera testosterona-maila “normalak” bereizi inork ez dakiela zein diren maila onenak (2011). Hala ere, gero eta ustezko gaixotasun gehiago diagnostikatzen dira, hala nola testosterona-gutxiegitasunaren sindromea eta inpotentzia, zeinak askotan lotuta baitaude, eta gero eta testosterona-preskripzio gehiago dago.

Bashin-ek dio adin ertaineko eta adineko gizonentzako testosterona-preskripzio gehienak diagnostiko egokirik gabe egiten direla (2016, 831. or.). Horretaz gainera, zera gehitzen du: “This growth in testosterone sales has occurred despite the fact that neither the long-term benefits nor risks of testosterone therapy have been clearly established in middle-aged and older men with age-related decline in testosterone levels” (2016, 831. or.). Adinarengatik testosterona-maila baxua duten adineko gizonen testosterona kontsumitzeak epe luzera dituen efektuei buruz emaitza argirik ez dagoela erakusteko, orain dela gutxiko bi proba erabiltzen ditu: Testosterone Trials eta Testosterone’s Effects on Atherosclerosis Progression in Aging Men (TEAAM). TEAAMek ez zuen desberdintasun esanguratsurik aurkitu atherosklerosia handitzeari



dagokionez testosterona edo plazeboa hartu zuten gizonen artean –ateroesklerosia: arteria ertain eta lodien hormetako barne-geruzan substantzia lipidikoak gordetzea edo infiltratzea ezaugarri dituen sindromea–. Sexu-funtzioan eta osasun-bizitzaren kalitatean ere ez zuen hobekuntzarik aurkitu testosterona hartu zuten gizonen taldean, plazeboa hartu zuenarekin alderatuta, testosterona-maila baxu, pixka bat baxu edo “normalak” aurkezten zuten gizonetan, ez zirenak aukeratuak izan inolako sintomatan oinarriturik (2016, 831. or.). Azkenik, Bhasin-ek ziurtatu du probak ez duela nahikoa ahalmen estatistiko testosteronak gaitz kardiobaskular larrietan edo prostatako minbizian zer efektu dituen jakiteko (2016, 831. or.). TTrials probak zazpi proba koordinatu dira, testosterona-terapia 65 urteko edo hortik gorako gizonen sexu-funtzioan, mugikortasunean eta bizitasunean eraginkorra ote den jakiteko; zehazki, testosterona-maila baxuak eta neke-sintoma fisiko eta sexualak zituzten 788 gizoni egin zizkieten probak. 2010ean hasi zen ikerketa, eta 2014an bukatu. Probetan, Androgel® erabili zuten<sup>332</sup>.

Bhasin-en arabera –proben emaitzak jasotzen dituzten lau artikuluen egileetako bat–, parte-hartzaile gutxi izanda, ikerketak ez du ahalmen estatistiko nahikorik testosteronak gaitz kardiobaskular larrietan edo prostatako minbizian zer efektu dituen jakiteko (2016, 831. or.). Gainera, prostatako minbizia edo gaixotasun kardiobaskularrak izateko arrisku handia zeukaten gizonak ikerketatik kanpo geratu ziren. Proben emaitzak lau artikulutan argitaratu ziren. Gaixotasun kardiobaskularrei dagokienez, Budoff-ek eta beste egile batzuek erakutsi dute arteria koronarioko plaka ez-kaltzifikatua nabarmen handitu zitzaiela testosterona hartu zuten gizoni, plazeboa hartu zutenekin alderatuta  $-41 \text{ mm}^3$  gehiago– (2017, 708., 715. or.)<sup>333</sup>. Proben emaitza positibo gisa, berriz, Roy-k eta beste egile batzuek azpimarratu dute hemoglobina kantitatea igotzen dela eta anemia sendatzen dela kasu askotan, nahiz eta ikerketaren muga garrantzitsuen artean egon “the small sample size for each anemia subgroup, resulting in wide confidence intervals for the estimated treatment effects”, hala nola “[the] lack of a prespecified adjustment for multiple comparisons [that] resulted in an inflated probability of a false positive result” (2017, 488. or.). Gaitasun kognitiboari dagokienez, Resnick-ek eta beste egile batzuek hirugarren artikuluan ondorioztatu dute testosteronak ez ziela inongo hobekuntzarik ekarri “low testosterone and age-associated memory impairment” zeukaten 493 gizoni (2017, 127. or.). Azkenik, laugarren artikuluan, Snyder-ek eta beste egile batzuek diote testosteronak hezurren neurria eta

---

<sup>332</sup> Ikerketa National Institute on Aging (NIA) erakundeak finantzatu zuen, zeina National Institutes of Health-en (NIH) atal bat baita. Beste funts gehigarri batzuk ere etorri ziren, National Heart, Lung, and Blood Institute, National Institute of Neurological Disorders and Stroke, eta Eunice Kennedy Shriver National Institute of Child Health and Human Development erakundeetatik, denak ere NIHren atalak. Ikerketan erabilitako medikamentua eta plazeboa, berriz, AbbVie, Inc. konpainia farmazeutikoak eman zituen.

<sup>333</sup> 170 gizonek parte hartu zuten azterketan, haietatik % 81 zuriak.

indarra hobetzen duela, probek beren mugak dituzten arren; besteak beste, parte-hartze urria – 211 parte-hartzaile, % 86 zuriak– eta “the inflated probability of a false-positive finding due to multiple testing; however, the large number of significant findings is not likely due to chance alone, suggesting that testosterone treatment truly improves bone outcomes” (2017, E7. or.).

Bashin-ek, bestalde, adierazi du gizonak gero eta gehiago kezkatzen direla beren sexu-, ugalketa- eta urologia-osasunaz, hala nola adinarengatik testosterona-mailak apaltzeaz eta/edo testosterona-gutxiegitasunaren sindromeaz<sup>334</sup>, gihar-dismorfiaz edo bigorexiaz, esteroide anaboliko-androgenikoen erabileraz, prostatako minbiziaren aurkako terapiaren konplikazio medikoez edo beheko gernu-traktuko sintomez (2016, 828. or.). Areago nabarmendu du, FDAren ohartarazpenarekin eta TTRial-en ondorioekin bat eginez, honako hau: “[A] growing body of evidence raises concern that long-term use of AAS may increase the risk of death, cardiovascular disease (CVD) events, major psychiatric disorders, musculoskeletal injuries, and profound AAS-withdrawal hypogonadism” (2016, 830. or.). Vigen-ek eta beste egile batzuek ere miokardio-infarturako arriskua handitzearekin, isuriekin eta testosterona-maila baxuko gizonen hilkortasuna handitzearekin lotu dute testosterona bidezko terapia (2013).

Piszczyk-ek eta beste egile batzuek ere hizpidera ekarri dute sintoma espezifikorik gabe odoleko testosterona kantitatea gutxitu zaien 65 urtetik gorako gizonen gero eta gehiago hartzen dituztela HOTak (2014, 1., 5. or.). Ontarion (Kanada) egin zuten beren ikerketa, 1997tik 2012ra bitartean, eta ondorioztatu zuten 66 urtetik gorako 90 gizonetik lek testosterona-tratamendua jaso zuela, nahiz % 6,3ri bakarrik diagnostikatu zitzaizen hipogonadismoa<sup>335</sup> eta nahiz eta ez dagoen hormonak ordezkatzeko tratamenduen eraginkortasuna eta segurtasuna frogatzen duen kalitatezko ikerketarik, batez ere era askotako komorbilitateak dituzten adineko gizonen kasuan: “Specifically, studies examining TRT are limited by short follow-up..., small sample sizes..., and use the of surrogate outcomes such as changes in hormone levels, bone mineral density and measures of muscle strength” (Piszczyk et al., 2014, 1. or.).

Bremner-ek honako hau dio: “It is now clear that men have gradual declines in average serum testosterone levels as they age. These decreases begin by middle age and continue into old age” (2010, 189. or.). Bestalde, gehitzen du testosterona gutxitzea funtsezkoa izan arren gizon askorengan, oso aldakorra dela eta horrenbestez gizon gazteen serumeko testosterona-maila antzeakoak dituztela adineko gizon batzuek ere (2010, 189. or.). Testosterona-mailak

---

<sup>334</sup> Ez gara ari esaten adinarekin testosterona-mailak jaisteak inongo sindrome edo gaixotasuna dakarrenik, baizik eta hala ulertzen dutela zenbait erakunde eta gizonen, askotan sinonimotzat jotzen baitituzte.

<sup>335</sup> Gizonen hipogonadismoa testosterona-ekoizpena baxua edo nulua izatea da, eta gorputz-morfologiaren eta osasunaren beste ezaugarri batzuekin batera ager daiteke. Gero eta anbiguoagoa eta zabalagoa da, eta teknogorputzasun askotara hedatu da.

gutxitzearekin batera, gizonak zahartu ahala izaten dituzten beste aldaketa batzuk dira gihar-masa, indarra, hezur-masa eta sexu-funtzioa urritzea, eta gorputzeko gantza, nekea eta egoera depresiboaren handitzea (Bremner, 2010, 190. or.).

Gizonen teknogorputzez harago, produktu hormonalak errezetatu izan zaizkie askotariko teknogorputzasun-subjektibotasunei: homosexualak, intersexualak, transak\*, emakumeak\*, gizonak, emakume\* transak\*, gizon transak\*, etab. Beccalossi-k dio hormonek izaera anbibalentea eta ia kontraesanezkoa dutela, eta azpimarratzen du haien zeregin bikoitza, batetik askatzaile eta emantzipatzailea eta, bestetik, patologizatzaile eta kaltegarria, batez ere emakumeen\* kasuan (2018, 2. or.). Ildo horretan, Seaman aipatzen du, zeinak lehenago esan dugun bezala emakumeen\* gainean inoiz egindako esperimenturik arriskutsuentzat jotzen baititu hormona bidezko terapiak (2003).

DES eta Premarin® produktu xenoestrogenikoak Doktorego-tesi honen bigarren eta hirugarren kapituluetan agertu dira. DES hormona sintetiko ez-esteroidea edo dietilestilbestrola 1938an sintetizatu zuen lehen aldiz Charles Dodds britainiar doktoreak, alemaniarrekin lehian, estrogeno sintetikoaren patentea nork lortuko, nahiz azkenean bere sorkaria jendaurrean erakutsi (Seaman, 2003, 43. or.; DES Action, 2019). 1940tik 1971ra bitartean, bi edo hiru milioi emakume\* haurduni errezetatu zitzairen (National Cancer Institute, 1976, 1108. or.; Haraway, 2016a, 106. or.)<sup>336</sup>; kopuru horri emakume\* haien alaben kopurua gehitu behar zaie, haien ere kaltetu baitzuten, baita AEBtik kanpo kalteturiko emakumeena\* eta 1971tik aurrera kontsumitu zutenena ere, abortu-arriskua edo haurdunaldiko konplikazioak saihesteko errezetatu baitzieten, “such as bleeding, threatened miscarriage, or diabetes”, izan ere “this treatment improved salvage of the fetus” (National Cancer Institute, 1976, 1107. or.).

DESa, hasiera batean, menopausiarako zegoen pentsatuta; dena den, Nancy Langston-ek 1944ko publizitate-iragarkien bitartez erakutsi duenez (2010, 52. or.)<sup>337</sup>, berehala hasi ziren errezetatzen beste kontu batzuetarako, hala nola “bulbobaginitis senila” tratatzeko, haurren “bulbobaginitis gonorreikoa” sendatzeko, edoskitzea kentzeko edo prostata-kartzinomaren gaineko jardunbide antiandrogeniko gisa. Seaman-ek honela azaltzen du menopausiaren eta DESaren arteko harremana, kontuan izanik aurretik ez zegoela halakorik: “Drug manufacturers dreamed about new hormone product lines. They thought menopause. They thought menstruation. They thought beautiful skin, thicker hair, more passionate sex. They thought of

---

<sup>336</sup> National Cancer Institute-k (1976, 1108. or.) eta DES Action-ek (2019) DES motako 78 farmako zerrendatu dituzte.

<sup>337</sup> Langston-ek (2010, 46., 50., 52., 66., 74., 76. or.) DESen zenbait iragarki ekarri ditu hizpidera, 1940-1960 bitartekoak, eta horrek berresten du nolako garrantzia duten komunikabideek –korporazio handiekin batera– egiaztatze-aparatu gisa, bestela ez baitago ulertzerik nolako arrakasta duten produktu hormonalek.

curing infertility, preventing miscarriages... Some of the more daring were also thinking birth control” (2003, 13. or.).

Langston-en arabera, zientzialariak hasieratik ohartu ziren DESa eta minbizia lotuta zeudela. 1939rako, haietariko batzuek kezka agertu zuten. *Journal of the American Medical Association* aldizkarian, “Estrogen Therapy-A Warning” editoriala argitaratu zen, eta Dodds-ek eta haren lantaldeak ere zenbait ikerketa argitaratu zituzten DESa minbiziarekin, sexu-garapenaren bariazioekin eta obulutegietako, testikuluetakako, prostatakako eta abarretako atrofiarekin lotuz (Langston, 2010, 31.-34. or.).

1947an, FDAk DESa onartu zuen nahi gabeko abortuak saihesteko. 1953an, Dieckmann, Davis, Rynkiewicz eta Pottinger-ek (Chicagoko Unibertsitatea) ikerketa bat argitaratu zuten *American Journal of Obstetrics and Gynecology* aldizkarian –haurdunaldian DESaren erabilerari buruzko lehendabiziko ikerketa kontrolatu, aleatorio eta itsu bikoitzekoa–, DESaren eraginkortasun eza erakutsiz; hala eta guztiz ere, emakume\* haurdunei errezetatzen jarraitu zuten 1971ra bitartean (DES Action, 2019; Haraway, 2016a, 106. or.). 1971n, beste ikerketa bat argitaratu zen, *New England Journal of Medicine* aldizkarian, “dena aldatu” zuena: jaio aurretik DESarekin kontaktuan egotea baginako zelula argietako adenokartzinoma arraroarekin lotu zuten Herbst, Ulfelder eta Poskanzer-ek, hau da, DESa errezetatua zieten emakumeen\* alabek minbizia izan zuten (DES Action, 2019; Haraway, 2016a, 107. or.). Hala ere, FDAk ez zuen DESa debekatu, eta, beraz, 1980ko hamarkadan ere jarraitu zuten errezetatzen. 1990ean, DESa giza teknogorpuztasunen prostatakako minbiziaren tratamenduan bakarrik erabiltzea onartzen legalki, harik eta 1997an Elli Lily & Co.-k “no longer profitable drug” hura fabrikatzeari utzi zion arte (Haraway, 2016a, 107. or.).

Animalia ez-gizatiarren teknogorpuztasunei dagokienez, FDAk haren erabilera onartu zuen eskorta-hegaztien kasuan, 1947an. 1954an, behi- eta ardi-azienden teknogorpuztetan erabiltzea onartu zen (Ostertag, 2016, 69. or.; DES Action, 2019). Langston-ek honela dio: “[B]y late 1955... fully half the cattle in America were receiving DES. Soon, 80 to 95 percent of cattle received DES” (2010, 75. or.). 1959an, hormonak eskorta-hegaztien hazkuntza bultzatzeko erabiltzea debekatu zuen FDAk, eta, 1979an, lagun egiteko animalien teknogorpuztasunetan elikagai gisa erabiltzea; dena den, 1954tik 1970era bitartean, behi-teknogorpuztasunen hazkuntza bultzatzeko erabili zen (Haraway, 2016a, 109. or.). Nolanahi ere, Haraway-k zera azpimarratu du:

[T]he core story here is not DES as such; the big story is the relentless rise of hormonal growth promoters of the next molecular generations that are integral to the ecosystem-destroying, human and

animal labor-transforming, multispecies soul-mutilating, epidemic-friendly, corn monocrop-promoting, cross-species heartbreaking, feedlot cattle industries. (2016a, 109. or.)

National Women's Health Network-ek bildutako National Cancer Institute-ren datuen arabera (2012), baginako edo zerbixeko zelula argietako adenokartzinoma izateko arriskua 40 aldiz handiagoa da "DES alabengan" DESik hartu ez duten emakumeengan\* baino; jaioberrien heriotza-arriskua, 8 aldiz handiagoa; erditze goiztiarrarena, 4,8 aldiz handiagoa; bigarren hiruhilekoan abortua izateko arriskua, 3,8 aldiz handiagoa, eta, lehenbizikoan, 1,6 aldiz handiagoa; haurdunaldi ektopikorako arriskua –umetokiaz kanpoko–, 3,7 aldiz handiagoa; antzutasun-arriskua, 2,4 aldiz handiagoa; menopausia 45 urteak baino lehenago izateko arriskua, 2,4 aldiz handiagoa; umetoki-lepoko neoplasia intraepitelialerako arriskua –umetoki-lepoan zelula ezkatatsuak hazteko prozesu anormal eta minbizi aurrekoa–, 2,3 aldiz handiagoa. Horretaz gainera, % 80tik gorako aukera dago endometriosisia –gaixotasun kronikoa, endometrioko ehuna pelbisaren barrunbean umetokitik kanpo egotean datzana– izateko, bestelako gaixotasun eta gaitzen artean (DES Action, 2019); eta bularreko minbizia izateko arrisku handiagoa –ia bikoitza 40 urtetik gorakoen artean, eta uste da are handiagoa dela 50 urtetik gorakoen artean–, Palmer-en eta beste egile batzuen arabera (2006, 1509. or.).

Gorago ere aritu gara Premarin®-en jatorriaz. Behorren gernutik erauzten da, eta 1941ean merkaturatu zen, Kanadan. Halaber aipatua dugu nolako arrakasta izan duten Premarin®-ek eta beste zaldi-estrogeno konjugatu batzuek –PremPro®, PremPhase® edo Duavee®– historian zehar –gogoratu dezagun Pfizer, Inc.-ek Grand View Research erakundeari emandako datuen arabera (2016) Premarin®-ek 1.076 milioi dolarreko salmentak izan zituela 2014an–; arrakasta haren atzean, milaka behorren esklabotza, konfinamendua eta tratu txarrak daude, baita milaka behorkumeren hilketa ere. Pfizer, Inc.-ek Wyeth-Ayerst erosi zuen 2009an –Ayerst konpainiak sortu zuen Premarin®, eta, gero, Wyeth-ekin elkartu zen–; berak kontratuak zeuzkan Kanadako 24 PMU (Pregnant Mare Urine) etxalde ingururekin; 2003an, Wyeth-Ayerst-ek 400 ingururekin zituen kontratuak (Haraway, 2016a, 112. or.). Animalien eskubideen aldeko kolektiboen protesta eta salaketei esker –HorseAid edo The Horse Fund, besteak beste–, behorren baldintzak hobetu dira<sup>338</sup>, baina, hala eta guztiz ere, kolektibo horiek lanean segitzen dute etxalde mota horiek desager daitezzen. Harawayk dakarrenez, Horse Aid-ek<sup>339</sup> kalkulatu du

---

<sup>338</sup> Ostertag-ek dioenez, protesten beste ondorioetako bat izan da ekoizpena deslokalizatzea eta Txinara bidaltzea, eta, ondorioz, behor kopurua handitzea (2016, 78. or.).

<sup>339</sup> Interneten bilatu dugu Horse Aid-en web-orria, informazio hori egiaztatzeko, baina ez dugu aurkitu. Dirudienez, kolektiboak Horse Aid Live du izena orain, eta, webgunean diotenez, 2009az geroztik zaldiak bezatzeko ekitaldi, ikuskizun eta lehiaketak antolatzen dituzte, zaldi asko baitago abandonatuta, etxerik gabe edo

2002an 15.000 behorkume hil zituztela (2016a, 114. or.). Oraingo kopuruak askoz baxuagoak dira, baina zero ere izan zitekeen, bai baitaude bestelako alternatiba batzuk, hala nola landare-jatorriko estrogeno esterifikatuak (Haraway, 2016a, 114. or.).

Haraway-ren hitzak dira: “It is no longer news that corporations, farms, clinics, labs, homes, sciences, technologies, and multiespecies lives are entangled in multiescalar, multitemporal, multimaterial worlding; but the details matter. The details link actual beings to actual response-abilities” (2016a, 115. or.). Kontziente izan nahi badugu zer produktu hormonal kontsumitzen ditugun eta zer efektu dituzten, ez bakarrik gure giza teknogorputzasetan eta gure sexu-generoen gauzatzean, hala maila subjektiboan nola teknogorputzarenean, baizik eta baita beste animalia batzuen teknogorputzasetan koeraketan eta orobat ingurunean, beharrezkoa da hormonon kutxa beltza irekitzea, industria tekno-bio-farmako-nekazaritzakoaren matazaren hari-zuntzak deskorapiltzeko eta trazatzeko, eta historian zehar errepikatzen diren patroiez ohartzeko.

Giza teknogorputzasetari dagokienez, 60 urte daramatzate Premarin® emakumeei\* errezetatu zientifiko-medikoki kontzeptualizaturiko menopausia tratatzeko. 1975ean, Ziel eta Flinkle-k zera adierazi zuten: “The evidence for a connection between the use of conjugated estrogens and the development of endometrial cancer seems rather persuasive” (1170. or.). Ikerketa horren arabera, arriskua 5,6 aldiz handiagoa zen urte batetik bostera bitartean estronen sodio sulfatoa hartu zuten emakumeen\* artean, eta 13,9 aldiz handiagoa zazpi urtetik gora hartu zuten emakumeen\* artean (1975, 1167. or.). Smith, Prentice, Thompson eta Herrmann-ek beste ikerketa bat argitaratu zuten aldizkari berean, urte berean, eta jakinarazi zuten endometriko minbizia izateko arriskua 4,5 aldiz handiagoa zela estrogeno-terapia hartu zuten emakumeen\* artean (1975, 1164. or.).

Harrezkero, konpainia farmazeutikoek hainbat eta hainbat ikerketa, “kontraikerketa” eta estrategia sustatu dituzte. Konpainia farmazeutikoek progestina gehitzen diete HOT medikamentuen estrogenei, horrek minbizi-arriskua gutxitzen duela argudiatuz, nahiz eta Watkins-ek dioenez ez dagoen hori frogatzen zuen ikerketarik (2010, 150., 155. or.). Aldi berean, konpainia farmazeutikoek kanpaina bat bultzatu zuten, mediku zein emakumeei\* zuzendurik, estrogenoak sustatzeko eta haien publizitatea egiteko, lehenbizi osteoporosia sendatzeko eta gero prebenitzeko (Watkins, 2010, 150., 154. or.). Ostertag-ek dioenez, 1980ko hamarkadara bitartean, osteoporosia ez zen ezaguna (2016, 76. or.); handik aurrera, baina, “80etako gaixotasun” bilakatu zen, osasun-arazo nazionala izateraino (Watkins, 2010,

---

baztertuta (Horse Aid Live, 2019). The Horse Fund-en web-orria, berriz, aktibo dago, eta informazioa eskaintzen du behorrei eta produktu estrogenikoei buruz (The Horse Fund, 2019).

155. or.)<sup>340</sup>. Medikuar hormonak errezetatzen hasi ziren, sistematikoki, menopausiadun emakumei\*, osteoporosia prebenitzeko eta sendatzeko<sup>341</sup>: estrogenoek osteoporosia sendatzen eta prebenitzen zuten, eta, progestinarekin batera, bazirudien endometrioko minbizirako arriskua neutralizatzen zutela (Watkins, 2010, 158. or.). Hezurren dentsitatea eta hezur-indarraren arazoak lotuta daudelako ideia gatazka-iturri bilakatu zen. Eztabaida handia piztu zen, ea osteoporosia emakumeen\* zahartze-prozesuaren parte den eta/edo botikekin tratatu behar den. 1991rako, baziren gutxienez HOTari eta bularreko minbiziari buruzko 30 ikerketa (Watkins, 2010, 215. or.). Batez ere National Institutes of Health-en (NIH) zuzendariak 1991an martxan jarritako Women's Health Initiative-k bildutako datu eta ehunka ikerketen ondoren, 2002an, argi zirudien HOTak ez duela gaixotasun kardiobaskularra prebenitzen eta, horretaz gainera, lotuta dagoela bihotzekoekin, odol-koaguluekin, enboliekin eta bularreko minbiziarekin (Watkins, 2010, 264. or.; Haraway, 2016b, 112. or.; Ostertag, 2016, 79. or.)<sup>342</sup>. Estrogenoek, beste ezerekin nahasi gabe, umetokiko minbizia eragin dezakete; progestinak efektu hori ahultzen laguntzen du, baina ez estrogenoak hartzearen ondoriozko gaixotasun kardiobaskularrak eta bularreko minbizia izateko arriskua (Ostertag, 2016, 80. or.). Gainera, produktu estrogeniko batzuk, hala nola Pempro®, ez dira eraginkorrak oroimena galtzearen aurka, eta, areago, dementziarako arriskua handitzen dute (Watkins, 2010, 279. or.).

Pilula antikonzeptiboak, “the most powerful outcome of the introduction of the concept of the hormonal body in the 1920s and 1930s” (Oudshoorn, 1994, 111. or.), zeina estrogenoz eta progestinaz osatua baitago, jatorri eugenesiko eta arrazista dauka<sup>343</sup>. Oudshoorn-ek honela dio: “The first large-scale trials, with all the risks involved, did not take place among the white

---

<sup>340</sup> Watkins-ek erantsi du konpainia farmazeutikoen interesari esnekien enpresena gehitu behar zaiela, haiek ere bat egin baitzuten kanpainarekin, kaltzioak hezurra birsendotzeko duen garrantzia argi geratu zenetik (2010, 150. or.).

<sup>341</sup> Watkins-en datuen arabera, 1992an, 36,5 milioi preskripzio egin ziren, eta, 1999an, 89,6 milioi (2010, 246. or.).

<sup>342</sup> NIHren 2013ko ikerketaren azken txostenaren ondorioa nahasia da. Zenbait produktu baztertzen ditu: “[T]he use of either CEE [zaldi-estrogeno konjugatuak] plus MPA [medroxiprogesterona azetatoa] or CEE alone for chronic disease prevention. The risks of CEE plus MPA outweigh the benefits irrespective of a woman's age; however, a more favorable risk-to-benefit ratio was seen in younger women with prior hysterectomy who received CEE alone. *Increased risks of stroke and venous thrombosis, as well as gallstones and urinary incontinence, in both younger and older women remain a concern with both regimens. Even though hormone therapy is a reasonable option for the management of moderate to severe menopausal symptoms among generally healthy women during early menopause*, the risks associated with hormone therapy, in conjunction with the multiple testing limitations attending subgroup analyses, preclude a recommendation in support of its use for disease prevention even among younger women. Current findings also suggest caution when considering hormone therapy treatment in older age groups, even in the presence of persistent vasomotor symptoms, given the high risk of CHD and other outcomes associated with hormone therapy” (Manson et al., 2013, 1366. or.; geuk nabarmendua).

<sup>343</sup> Aho bidezko antikonzeptibo hormonalak hartu dituzten emakume\* osasuntsuengan bularreko, umetokilepoko, obulutegiko edo kolon eta ondesteko minbizi-arriskua handitzeaz, ikus National Cancer Institute (2018).

majority of Americans or Europeans. It was Caribbean women who entered this history as the guinea-pigs of one of the most revolutionary drugs” (1994, 135. or.).

Oudshoorn-ek frogatua du hiru mugimenduk bat egin zutela pilularen sorreran, hirurak ere sexualitatea eta ugalketa bereizteko desesitatearen aldekoak: jaiotze-tasa kontrolatzeko mugimendua, populazioa kontrolatzeko neomalthusianismoan inspiratutako mugimendua eta espeziea “hobetzeko” mugimendu eugenetikoa (1994, 114. or.). Mendebaldeko emakume\* askoren askapena ugalketa eta sexualitatea pilula-formatuan bereiztetik etorri zen, baina horrek praktika arrazista, inperialista eta eugenetikoa dauzka oinarrian<sup>344</sup>. Pincus-ek 1951n sortu zuen progestinadun pilula –geroago, Enovid® izen komertzialarekin, estrogeno eta progesteronaduna atara zuten–, Margaret Sanger-ekin aliantza eginda eta G.D. Searle & Company farmazeutikaren bitartez (Oudshoorn, 1994, 115.-116. or.). Sanger-ek emakumeek\* beren ugalketa kontrolatzeko eta kudeatzeko eskubidearen alde egin zuen, baita populazio beltzaren jaiotze-kontrolaren eta kontrol demografikoaren alde ere; 1921ean, *American Birth Control League* sortu zuen, eta eugenistek askotan idazten zuten haren aldizkarian, *Birth Control Review* delakoan (Fausto-Sterling, 2000, 176. or.).

Pincus Rock ginekologoarekin elkartu zen; Rock hormonekin lanean ari zen emakumeen\* ugalkortasuna areagotzeko proiektu batean, eta, horrenbestez, marko ezin hobea eratu zen pilula ere proiektu berean testatzeko inongo susmorik piztu gabe (Oudshoorn, 117.-118. or.). Arazoa izan zen ikerketaren emaitzak bukatugabeak izan zirela, eta pilula egunero hartzearen albo-ondorio posibleak ere –haietariko batzuk ikerketan parte hartu zuten emakumeek\* deskribatuak– arazo bilakatu ziren. Massachusetts-en, legearen aurkakoa zatekeen eskala handiko saio kliniko bat egitea, jaiotze-tasa kontrolatzeko arauak oso zorrotzak baitziren han; hortaz, Puerto Rico testatzea erabaki zuten, han garai hartan ez baitzegoen halako legerik.

Hala, Puerto Rico uharteko emakumeetan\* testatu zen pilularen eraginkortasun teknikoak, jaiotze-kontrolerako klinika baten bitartez –gainpopulazioa herrialde pobre eta “azpigaratu”etako “arazo”etako bat zen, eta jaiotzak kontrolatuz “sendatu” beharra zegoen–, baita Worcester State Hospital ospitale psikiatrikoko zortzi pazientetan ere, zazpi emakume\* eta gizon bat (Oudshoorn, 1994, 122.-129. or.)<sup>345</sup>. Oudshoorn-en hitzetan:

---

<sup>344</sup> Oudshoorn-ek azaldu du pilula sortzeko ikerketarako dirua Katherine Dexter McCormick-ek jarri zuela, Massachusetts Institute of Technology-n graduatua eta Sanger-en adiskidea: “[T]he first step in this recontextualization of hormone research was initiated by feminist birth control activists, rather than by scientists themselves” (1994, 116. or.).

<sup>345</sup> Geroago, beste proba batzuk egin ziren, Puerto Rico eta Haitin; emakumeek\* albo-ondorio kaltegarriak izan zituzten, eta askok antzutzea erabaki zuten (Oudshoorn, 1994, 129.-130. or.).



The choice of Puerto Rico must therefore be understood as a mixture of cultural imperialism and practical testing considerations. Since the contraceptive pill was called into existence mainly because it was considered a technological fix for the population problem in “underdeveloped countries,” its testing required a population that reflected this ideology: poor, illiterate women. Puerto Rico, with its poorly educated and impoverished population, provided such a testing ground. (1994, 135. or.)

Hormonak homosexualitatea “sendatzeko” ere erabili izan dira historian zehar. Hoberman-ek zera dio horren harira: “Medical ambitions to ‘cure’ homosexuals originated in the early endocrinology of a hundred years ago and persisted in various forms throughout the twentieth century” (2005, 92. or.). Forma horietako bat, dirudenez askorik iraun ez zuena, homosexualek gainerako gizonek baino hormona maskulino gutxiago eta femenino gehiago dituztelako ideia izan zen; Hoberman-en arabera, 1935ean sortu zen teoria hori, eta, burmuineko sexu-bereizkuntzaren teoriak ez bezala, ez du gaur eguneraino iraun, aurrerago ikusiko dugun bezala (2005, 98. or.). Organon konpainia farmazeutikoak, adibidez, interesa agertu zuen merkatu horren aldera (Oudshoorn, 1994, 59. or.).

Homosexualitatea sendatzeko hormona bidezko tratamenduak erabili izanaren adibide bat –gorago ere aipatu dugu– “A. D., a male negro of 46”-ren kasua da, *Psychosomatic Medicine* aldizkarian argitaratua 1941ean (Rosenzweig eta Hoskins, 1941, 87. or.). A. D. 1921ean sartu zen Northampton State Hospital-en, eta, handik lau urtera, Worcester State Hospital-era bidali zuten, “constitutional psychopathic personality without psychosis” diagnostikoarekin (1941, 87. or.). Diagnostikoaren oinarria hau zen: nagusia aitatzat zeukan ia –artikuluaren arabera, jan eta lo ere berarekin egiten zuen–, eta, hura hil zenean, zenbait sintoma garatu zituen: “seclusiveness, shyness, pronounced effeminacy, and excessive preoccupation with drawing, painting, designing of women's clothes and similar ‘artistic’ activities” (1941, 87. or.). Rosenzweig eta Hoskins-ek, bestalde, zera dakarte horri buruz: “His speech became disjointed and unresponsive and for two years he refrained from leaving his home. He talked of wearing women's clothes and often went to bed with presumably imaginary ailments” (1941, 87. or.). Worcester State Hospital-en diagnostikoan, A. D. honela deskribatzen da: “[A] short, stocky negro who, except for his large masculine genitals, is in every respect a woman. He shows an exaggerated female gait and speech and all the mannerisms of a clinging-vine type of female, spends hours at his toilette” (1941, 88. or.). Gehitzen dute hainbat aldiz galdetu eta gero subjektuak azkenean onartu zuela jarrera pasiboak izan zituela jarduera homosexualetan, eta, orduan, ospitaleak zera ondorioztatu zuen: “[A] negro of passive homosexual type with feminoid make-up, without evidence of psychosis. Mental deficiency, if present, is of a high grade or

borderline degree” (1941, 88. or.). A. D.-k botikak hartu zituen 1939ko urriaren erdialdetik 1940ko apirilaren erdialdera bitartean; zehazki, Squibb konpainia farmazeutikoaren estilbestrol estrogeno sintetikoa –DESA– hartu zuen, aho bidez, astean hiru aldiz; Schering-en 150 mg-ko testosterona-tableta baten inplantea ipini zioten; behor ernarien serumetik eratorritako gonadotropina-prestakin bat injektatu zioten, astean bi aldiz, hori ere Schering-ena; eta testosterona propionatoa injektatu astean bi aldiz. Martxoan, Ayerst, McKina & Harrison-en Emmenin®-a gehitu zioten tratamenduari –Premarin®-en aitzindaria–, hiru dosi egunean; eta, apirileko aste batean zehar, Eli Lilly & Co.-ren estriola. Hormona-koktel haren eta goragale dosi handi baten ondotik, honako hau da Rosenzweig eta Hoskins-en ondorioa: “No influence upon the behavior or the personality of the patient could be detected” (1941, 89. or.).

Homosexualitatea hormona bidez tratatu izanaren beste kasu bat dugu Alan Turing matematikari britainiarrarena, zeina giltzarri izan baitzen naziek II. Mundu Gerran beren transmisioetan erabiltzen zuten kode sekretua azaleratzeko eta gaur egun konputazioaren eta informatikaren aitzindaritzat hartzen baita (Ostertag, 2016, 59. or.). 1952an, homosexuala izateagatik atxilotu zuten Turing –garai hartan, homosexualitatea kriminalizatuta zegoen Erresuma Batuan–, baita estrogeno-tratamendua hartzera zigortu ere, eta, ondorioz, bularrak hazi zitzaizkion (Hodges, 2014 [1983], 599. or.). 1954an, bere buruaz beste egin zuen (Hodges, 2014 [1983], 614. or.).

Baina hormonak aliatuak ere izan dira, eta esanahi eta erabilera positibo, emantzipatzaile eta askatzailea izan dute teknogorputzasun-subjektibitate trans\* askorentzat. Lehenago ere esan dugunez, Hayward-ek esana du (2014, 256. or.) emakume\* transek\* Premarin® erabili izan dutela *Standards of Care for hormonal transition* zaharkitu baina aski erabiliari jarraituz –World Professional Association for Transgender Health-ek eta haren aurreko Harry Benjamin Gender Dysphoria Association-ek argitaratua– (2014, 256. or.).

Beccalossi-k dio genero-onarpenerako prozesu batean edo jaiotzean esleituriko sexu-generoa aldatzeko hormonaren erabileraren lehendabiziko kasuetako bat 1949an erregistratu zela; hain zuzen, Alfred Kinsey estatubatuar sexologoak Harry Benjamin-engana bidali zuen paziente bat; sexologo eta endokrinologoa zen Benjamin, estatubatuarra baina Alemanian jaioa, eta teknogorputz transekin\* egindako lanarengatik ezaguna (2018, 46. or.)<sup>346</sup>. Beccalossi-ri (2018, 46. or.) eta Schaefer eta Wheeler-i (1995, 79. or.) jarraituz, Barry-k, gerora Sally deitua,

---

<sup>346</sup> Hormonak hartuz eta hormonalari hartu gabe egindako genero-onarpenerako lehen ebakuntzei buruz, ikus Meyerowitz (2004, 14.-50. or.).

emakume bihurtzeko gogo bizia adierazi zuen. 1953an, Benjamin hormonak ematen hasi zen<sup>347</sup>, eta, aurrerago, Sally Europara joan zen, genero-onarpenerako operazio kirurgikoak egitera (Beccalossi, 2018, 46. or.; Schaefer eta Wheeler, 1995, 79. or.). Christine Jorgensen-en kasua ere ezaguna izan zen: AEBko egunkarien azalak bete zituen, tartean 1952ko abenduaren 1eko *Daily Newsekoa*, izenburu honekin: “Ex-GI becomes blonde beauty. Operations Transform Bronx Youth”. 1926an jaioa zen, Bronx-en, eta, armadan zerbitzu egin eta gero, genero-onarpenerako prozesu bati ekin zion, hormonak hartuz eta genitaletako kirurgia eginez, Kopenhagen (Meyerowitz, 2004, 51.-98. or.; Stryker, 2008, 62.-63. or.).

Stryker-en arabera, Benjamin-en 1966ko *The Transsexual Phenomenon* lan ospetsua argitaratu (1999) eta hilabete batzuetara, ikerketa zientifikoa eta hormona eta kirurgia bidezko tratamenduei buruz trans\* adituek egindako ebaluazioa uztartzen zituen programa mediko bat zabaldu zuen Johns Hopkins University-k, AEBko lehenengoa (2008, 114. or.). Haren ondotik, antzeko programak garatu zituzten University of Minnesota-n, Stanford University-n eta Galveston-eko University of Texas-ko medikuntza-campusean, besteak beste. Batetik, estatubatuar transek\* oso ongi hartu zuten hori guztia, aukera ematen baitzien beren autodeterminazio sexu-generikorako nahia asetzeko. Nolanahi ere, dio Stryker-ek, zerbitzuetarako sarbidearekin batera etorri zen hau ere: “[A] socially conservative attempt to maintain traditional gender, in which changing sex was grudgingly permitted for the few of those seeking to do so, to the extent that the practice did not trouble the gender binary for the many” (2008, 115. or.).

Stryker (2008, 135. or.) eta Ostertag (2016, 153.-154. or.) bat datoz azpimarratzen dutelarik transexualitatea –“transexualismo” izenez– 1980an sartu zela lehen aldiz American Psychiatric Association’s Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders-ean (DSM-III)<sup>348</sup>, 1973ko edizioaz geroztiko lehen edizioan, hau da, homosexualitatea gaixotasunen zerrendatik kendu zen edizioaz geroztikoan. Ostertag-ek, bestalde, aipatzen du 1960ko eta 1970eko hamarkadetako gay eta lesbianen askapen-mugimendua estamentu medikotik urundu zela baina sistema medikoaren eskutik helduta etorri zela 1990eko trans\* mugimenduaren

---

<sup>347</sup> Deigarria da Beccalossi-k “female hormones” esapidea erabiltzea, kontuan hartuta hormonei buruzko beraren historia laburra *Transitional States* proiektuaren barnean dagoela –bera da proiektuaren burua–; izan ere, proiektu horretan, hormonon erabileraren eta kontsumoaren gaineko begirada kritiko eta analitiko batetik, askotariko testuak eta ikus-entzunezko materialak eskaintzen dira, eta era askotako teknogorputzasun-subjektibitateak aintzat hartzen.

<sup>348</sup> Aurrerago, 1994tik aurrera, “genero-identitatearen nahasmendua” (Gender Identity Disorder) izena eman zitzaion DSM-IV-ean, eta, 2013an, DSM-V-ean, “genero-disforia” (Ostertag, 2016, 153.-154. or.). Bestalde, OMEk “International Statistical Classification of Diseases and Related Health Problems” (DCI-11) gidaren edizio berri bat argitaratu du, “transexual” kategoria buruko gaixotasunen zerrendatik atereaz eta “genero-inkongruentzia” izenarekin sexu-osasuneko arazoan multzoan sartuz (2018b).

gorakada (2016, 153. or.). Dena den, trans\* mugimenduaren barnean, mugimendu askotarikoa eta anizkuna izanik, estrategia eta posizionamendu ezberdinak egon dira eta daude: genero-disforia besarkatzen osasun-sistema publikoko erabiltzaile gisa trans\* teknogorpuztasun-subjektibitateen despatologizazioa eta hormonak hartzeko eskubidea defendatzen dituztenetara (Missé, 2009), zeinak ez baitira nahitaez elkarrekiko jarrera baztertzailerik eta kontrakoak. Espainiako estatuan, salbu Euskal Autonomia Erkidegoan eta Kanarrietan, trans\* teknogorputzek legez erabil ditzakete doako osasun-zerbitzuak, hormona bidezko tratamenduak eta kirurgiak barne, diagnostiko mediko eta psikiatrikoen beharrik gabe. Duela gutxi orpea da hori, trans\* kolektiboaren eta jendearen borroka eskertorria. Nolanahi ere, Chrysalis-eko lehendakari ohi eta Euforia. Familias Trans-Aliadas-eko lehendakari Natalia Aventín Ballarínek<sup>349</sup> azpimarratzen duenez (jakinarazpen pertsonala, 2019ko maiatzaren 21ekoa), egoera hori ez da beti betetzen, bai baitira profesional batzuk araudiak araudi txostenak eskatzen segitzen dutenak. Beraz, autonomia-erkidegoen barnean ere badago tratu-desberdinkeria.

Hormonen esanahia eta efektu positiboak, lehen esan dugun bezala, autodeterminazio-prozesuaz, sexu-generoaren onarpenaz eta gorputza modu kontziente eta desiratuan eraldatzeaz – lotuta dagoena, bestalde, generoaren arau normatiboek eta onarpen sozialaren desesitateak eratutako testuinguruarekin– harago doaz, eta beste elementu batzuekin elkarlotzen dira, efektu, behar eta desiren sare askoz konplexuago batekin, Trans Eskubideen aldeko Plataformaren karteletako –beheko irudian– *#hormonak osasuna dira* hashtag-a osatzen duten hariak deskorapilatuz agerian geratzen den bezala. Hashtag horretan, hain zuzen, trans\* mugimenduaren alderdi baten medikalizazioari besarkada islatzen da, hala Stryker-ek nola Ostertag-ek aipatua –hori ohikoa da, bestalde, zis teknogorpuztasun-subjektibitate gehienetan, edo kopuru handi batean, behintzat Mendebaldean–, eta beren aldarrikapen identitario eta politikoak osasunaren paradigman kokatzen –ez nahitaez osasunarenean bakarrik–, hormonak hartzea eskubidetzat aldarrikatuz.

---

<sup>349</sup> Eskerrak eman nahi dizkiot Nataliari bere prestutasun eta adeitasun handiagatik, izan ditugun elkarriketengatik eta eman didan informazio guztiagatik.



Trans Eskubideen aldeko Plataforma

Kartelean irakur dezakegun bezala, Trans Eskubideen aldeko Plataformak kontzentrazio batera deitu zuen 2016ko abenduaren 17an, Madrilan, baita Espainiako estatuko beste hiri batzuetan ere, 250 mgko Testex Prolongatum®-aren<sup>350</sup> eta 1 mg-ko eta 2 mg-ko Meriestra®-ren hornidura etetearen harira. Lehena Desma Healthcare S.p.A. konpainia farmazeutikoaren testosterona injehtagarria da (ziklopentilpropionatoa), eta bigarrena, Novartis AGren estradiol baleratoko pilulak; Espainiako estatuko trans\* teknogorpuztasun-subjektibitateek gehien kontsumituriko bi farmakoak –edo kontsumituenetarikoak– ziren. Meriestra®-ren kasuan, ugalkortasun-tratamendu gisa ere erabiltzen zen. Kartel horretan aldarrikatzen dena hormonak hartzeko eskubidea da; ikusi dugunez, hori oso praktika orokortu eta sustatua izan da historian zehar era askotako talde sexu-generikoetan –are zigor kriminal gisa ezarria ere–, zentzu honetan inolako problematiziterik sorrarazi gabe. Meriestra®-rik ezean, emakumeek\* beste farmako batzuk eskuratu behar izan zituzten, hala nola Bayer AGren Progynova® edo Climen®, eta, finantzatu gabeak zirenez, prezioak nabarmen garestitu ziren<sup>351</sup>. Hornitze-falta horrek, bestalde,

<sup>350</sup> Itnogen® da Espainiako estatuko transek\* erabili duten beste medikamentu bat.

<sup>351</sup> Gaur egun, Meriestra®-k Estradiol Meriestra® izena hartu du, eta Sandoz-ek merkaturatzen du (Novartis AGren dibisio bat da), 2017ko uztailaren 3tik aurrerako merkaturatze-baimenarekin (Medikamentu eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentzia, 2019a). Hala eta guztiz ere, ez da farmazietan saltzen, ez behintzat Nafarroako Foru Erkidegoan, orriok idatzi genituen unean. Testex®-i dagokionez, badu Espainiako estatuan merkaturatzeko

hormonak hartzeari uzteak dakartzan ondorio fisiko, psikologiko eta emozionalak ere ekarri zituen. Ez da halakorik gertatzen den lehen aldia. 2014an, gauza bera gertatu zen Reandron®-ekin, beste testosterona injektagarri mota bat. *Vademecumek* jaso du Reandron® eskuratzeko arazoak egon direla 2019ko martxoaren 4tik maiatzaren 17ra bitartean: “[A]leak mugatuak izanda, merkaturatze-baimenaren titularra banaketa kontrolatua egiten ari da” (Vidal Group, 2019)<sup>352</sup>.

Meriestra®-ren prospektua irakurtzean deigarri gertatzen den lehen gauza zera da: trans\* emakumeek\* gehien erabiltzen duten farmakoa izanik eta ugalkortasun-tratamenduetan ere erabilia izanik, menopausiadun emakumeentzako\* medikamentua dela zehazten da. Eta ez hori bakarrik; izan ere, esaten da “umetokia erauzia duten (histerektomia) emakumeentzat bakarrik” erabiltzen dela (Medikamentu eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentzia, 2016, 1. or.)<sup>353</sup>. Orduan, nola liteke ugalkortasun-tratamendu gisa erabiltzea? Horrekin batera, lehenago ere esan dugunez, endometriko, bularreko eta obulutegietako minbiziaren eta gaixotasun kardiobaskularraren arriskuaz ohartarazten da<sup>354</sup>. Itnogen®-i dagokionez –lehen ere aipatu dugu–, prospektuak dio hipogonadismoa duten gizonei errezetatzen zaiela (Missé eta Fernández, 2018). Zera azpimarratzen du, gainera: “Gizonek bakarrik erabil dezakete Itnogen. Itnogen ez da probatua izan 18 urtetik beherako mutilengan, eta gutxi erabili da 65 urtetik beherako gizonen tratamenduan” (Missé eta Fernández, 2018)<sup>355</sup>. Preciado-k irudikatzen duen 50 mg-ko Testogel®-en prospektuan ere jasotzen da murrizketa teoriko sexu-generiko hori, testosteronaren erabilera gizonetara mugatuz (2008, 52.-53. or.). Kontraesan eta arau sexu-generikoz beterik daude medikamentuen prospektuak.

Hormonek ez dute esanahi eta efektu bera teknogorpuztasun eta identitate guztietan. Esate baterako, zis emakume batek erabaki politiko-bital gisa pilula antikonzeptiboa hartzeari kontzienteki uzteak ez du jokoan jartzen bere identitatea, zenbait trans\* gorpuztasun-

---

baimena, eta saltzen da farmazietan, bai behintzat Nafarroako Foru Erkidegokoetan (Medikamentu eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentzia, 2019b).

<sup>352</sup> Jatorrizko testua: “[E]l titular de autorización de comercialización está realizando una distribución controlada al existir unidades limitadas”.

<sup>353</sup> Jatorrizko testua: “Meriestra se utiliza solamente en mujeres que les han extirpado la matriz (histerectomía)”.

<sup>354</sup> Endometriko minbiziari dagokionez, zera esaten du hamaika orriko prospektuak: “Kontuan hartuz oraindik umetokia baduten eta THSrik erabiltzen ez duten emakumeak, batez beste 1.000tik 5i diagnostikatuko zaie endometriko minbizia 50 urtetik 65 urterako tartean. Umetokia baduten eta estrogenodun THS tratamendua hartzen duten 50 urtetik 65erako emakumeen artean, 1.000 emakumetik 10-60ri diagnostikatuko zaie endometriko minbizia (alegia, 5etik 55era kasu gehiago), dosiaren eta tratamenduaren iraupenaren arabera” (Medikamentu eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentzia, 2016, 4. or.). Odolbildei dagokienez, hau dio: “Zainetako odolbildeak izateko arriskua 1,3tik 3ra altuagoa da THS hartzen duten emakumeen artean, THSrik hartzen ez dutenekin alderatuta” (2016, 5. or.).

<sup>355</sup> Jatorrizko testua: “[S]ólo los hombres pueden utilizar Itnogen. Itnogen no ha sido probado en varones menores de 18 años y existe poca experiencia en el tratamiento de hombres menores de 65 años”.

subjektibitatek hormonak hartzeari uzteak haien identitatea jokoan jartzen duen moduan<sup>356</sup>. Askotan, gaur egungo egoera sozialean, hormonak hartzeari uztea ausardiazko eta subertsiozko ekintza bat izan daiteke trans\* teknogorpuztasunentzat. Dena den, trans\* mugimenduaren barnean ere sortu dira hormonon berrikuspen kritiko bat egitea aldarrikatzen duten ahotsak. Paul Galofre-k ohartarazi du “butch” kategoriatik “trans\*” kategoriara iragan dela hein batean hormonazioaren eskutik, genero bitarraren ideologiak inposaturiko koherentziaren nolabaiteko berrespenaren ondorioz:

Uste dut feminismoak eta mugimendu lesbikoak lan handia egin dutela genero maskulinoko adierazpidea izanik emakume gisa identifikatzen diren pertsonak egotea onar dadin, emakume kontzeptuaren barnean maskulinitate-espazio hori egon dadin, eta iruditzen zait espazio horri prestigioa kendu diotela. Baliteke emakumeok lehen ez trantsitatzeko, trantsitatzeko aukerarik ere ez zegoelako (...), baina kontua da orain gero eta mutil trans\* gehiago dagoela, askotan testuinguru lesbiko batetik trantsitatu dutenak. Hemen bada zerbait urduri jartzen nauena. Zerbait gaizki egiten ari al gara, maskulinitate hori bizitzeko beharrezkoa delako norberaren izena eta izenordainak aldatzea? Ez dakit ez ote den maskulinitatearen idealizazio bat... Aldi berean, neuk ere trantsitatu dut, eta ezin biziko nintzateke emakume lesbiana gisa, baina hori beharbada gertatzen zait ez nuelako erreferenterik izan, ez nuelako aurkitu emakumea eta maskulina izateko eta horrekin ongi sentitzeko modurik. Aldi berean, oso interesgarria da hainbeste jendeak trantsitatzeko, une honetan posible baita hori egitea, eta beste aukera batzuk ere sortzen dira. (2015)<sup>357</sup>

Missé-k adierazi zuen trans\* teknogorpuztasun-subjektibitate ugariak hormonak kontsumitzea aspalditik datorren kontua dela eta disposizio handiz eta analisi kritiko handirik egin gabe hartu direla hormonak (Missé eta Fernández, 2018). Hormona sintetikoak erregimen

---

<sup>356</sup> Dena den, neurri txikiagoan bada ere, hormona-artefaktuek badute loturaren bat identitate sexu-generikoarekin. Adibide berarekin jarraituz, pilula antikonzeptiboa sortu zenean, emakumeek\* hileko zikloa izaten jarraitzea –hilekoaren eta feminitatearen artean ezarritako loturaren ondorioz– elementu definitzaileetako bat izan zen pilularen kontsumorako egun eta ziklo kopuruak diseinatzeko (Oudshoorn, 1994, 119.-120. or.). Bestalde, Missé-k eta Fernández-ek deskribatzen duten T imajinarioak zis gizonen teknogorputzei ere eragiten die, hormonak hartzen baitituzte gizon arrakastatu ideal horren antza izateko (2018).

<sup>357</sup> Jatorrizko testua: “Creo que el feminismo y el movimiento lésbico han hecho un trabajo muy grande por permitir que haya personas identificadas como mujer con una expresión de género masculina, en dar este espacio de masculinidad dentro del concepto mujer, y tengo la sensación de que este espacio está siendo un poco desprestigiado. No sé si es que antes estas mujeres no transitaban porque la opción de transitar ni siquiera existía (...), pero lo cierto es que ahora cada vez hay más chicos trans, que transitan muchas veces desde un contexto lésbico. Aquí hay algo que a mi me tensiona. ¿Estamos haciendo algo mal porque para vivir esta masculinidad necesitamos cambiar el nombre, cambiar los pronombres? No sé si es que hay una idealización de lo masculino... al mismo tiempo, yo soy el primero que he transitado, y que ahora mismo no podría vivir como mujer lesbiana, pero quizá es porque no tuve los referentes, no encontré las formas de ser mujer y masculina y estar bien con eso. Al mismo tiempo es muy interesante que haya tanta gente que transita, porque estamos en un momento en el que esto es posible y genera otras posibilidades”.

sexu-generiko bitar eta heteronormatiboaren murrizketa, bazterketa eta jazarpenen aurkako panazea eta erabateko salbaziotzat hartzea arazo gisa planteatzen duelarik, zera dio:

[O]inarrian dagoen gaia zera da: ea trans politiketek gorputza aldatzearen alde egin behar duten trans pertsonen gatazka konpontzeko bide gisa, edo ea nabarmendu behar duten ez dela norbanakoaren arazoa baizik eta egiturazko arazo bat. Gorputza aldatuz gero, arazoa gure gorputzetan arintzen da, baina ez du konpontzen zergatik pertsona batzuek uko egiten dioten jaio ziren gorputzetan bizitzeari. Gorputza aldatuz gero, sufrimendua arintzen dugu, eta, askotan, iraupen-kontua da, baina ez diogu horratik zalantzan jartzeari utzi behar. Esleitu zitzaizkien gorputz edo generoak gorrotatzen dituzten pertsonak egote hutsa zinez lazarria da, eta agerian uzten dizkigu gure kultura (mendebaldar)raren genero- eta gorputz-presioak. Trans\* auzia ez da gorputzean konpontzen, baizik eta imaginario kolektiboan, emakume edo gizon zuzen izateari buruzko eredu sozialak malgutuz, posible denaren esparrua zabalduz, generoa ñabardurekin adierazteko askatasun handiagoa lortuz. (Missé, 2018, 69. or.)<sup>358</sup>

Ez gara ari esaten hormona sintetikoak txarrak direnik. Ezta onak direnik ere. Kontua ez da, gainera, onak ala txarrak diren. Agerian utzi nahi duguna da hormonak, artefaktu teknozientifikoak eta merkatuko produktuak diren heinean, testuinguru sozial bati dagozkioa, interes jakin batzuk biltzen dituztela eta haien erauzketak, ekoizpenak eta merkaturatzeak era askotako efektuak dakartzatela, bai hormonak kontsumitzen dituzten teknogorputzetan, baita hormonak erauzten dizkieten teknogorputzetan eta orobat ingurunean. Haien jatorria, efektuak eta interesak zein diren jakitea baliagarria, onuragarria eta emantzipagarria da. Horixe esan nahi dugu “hormonen kutxa beltza irekitzea” aipatzen dugunean: subjektibazio- eta materializazio-artefaktu horietan biltzen diren interesak kritikoki analizatzea eta geure buruari galdetzea zer eragin duten gorputzak eta ingurunea lotzean. Alegia, aztertzea eta zalantzan jartzea nola eta zer neurritan koeritzen dituzten teknogorputzak eta ingurunea, kontuan hartuz aldi berean teknogorputzek eta inguruneak hormonak koeritzen dituztela.

Identitate sexu-generikoek, teknogorputzen morfologia sexu-generizatuek eta/edo teknogorputzek askotariko bizi-, gorputz- eta emozio-prozesuak dituzte, baina horrek ez du esan nahi gaixo daudenik, oker daudenik, edo inkongruenteak, disforikoak edo akastunak direnik.

---

<sup>358</sup> Jatorrizko testua: “[L]a cuestión de fondo es si las políticas trans deben apostar por promover la modificación corporal como la solución al conflicto de las personas trans o si deben poner de relevancia que no se trata de un problema individual sino estructural. Modificar el cuerpo solo domestica el problema en nuestros cuerpos pero no resuelve la pregunta sobre porqué alguna gente se niega a vivir en los cuerpos con los que nació. Modificar el cuerpo domestica el sufrimiento y muchas veces es una cuestión de supervivencia pero no podemos no por eso debemos dejar de ponerlo en cuestión. El simple hecho de que haya personas odiando sus cuerpos o los géneros en los que fueron asignados es francamente dramático y nos desvela la fuerza de las presiones de género y corporales en nuestra cultura (occidental). La cuestión trans no se resuelve en el cuerpo, se resuelve en el imaginario colectivo, flexibilizando los modelos sociales sobre lo que es ser un hombre o una mujer correctos, ampliando nuestro espectro de lo posible, conquistando una mayor libertad para expresar género con matices”.



Besterik gabe, gure inguruko eta murgilduta gauden multiplizitate erlazional aldakorraren ondorioak dira. Gorputzak, subjektibitateak, desira, kemena, indarra, emozioak, hormonak, ilea, azala, hezurak, beste elementu asko bezala, aldatu egiten dira denborarekin.

Teknogorputz *guztiek* beren gorputzaren eta identitatearen koeraketa sexu-generikorako artefaktu teknologikoak erabiltzeko eskubideaz harago, ez dugu zertan nahitaez hormonak hartu. Hormonak kontsumitzea aukera bat da, ez betebeharrak bat. Gakoa zera da: hormonak gure identitate sexu-generikoen protagonista bilakatu dira, gure subjektibitate eta gorputzasun sexu-generizatuaren elementu definitzaile nagusi. Eta, beharbada, kolektiboki pentsatu behar genuke ea leku hori betetzea nahi dugun, eta ea zer teknologia sexu-generiko material-semiotiko nahi ditugun eta zertarako. Horren harira, zera dio Oudshoorn-ek:

[B]odies and technologies are not unequivocally determined by nature. Medical technologies do not necessarily have to be the way they actually are. Who knows what might have happened to the hormonally constructed body concept if there had existed an andrological clinic, rather than a gynecological clinic? Imagine what might have happened in a world with different cultural and moral attitudes towards gender and responsibilities for family planning and childcare. It is not beyond imagination that we would have ended up with a male contraceptive pill, a medical treatment of male menopause and a classification system of multiple sexes. Alas, we will never know whether this really would have happened. We know, however, one thing for sure: science and technology can take many shapes. A critical deconstruction of the processes that shape science, technology and bodies might help us to envisage technologies that have a chance of survival (1994, 150. or.).

Hormonak, xenoestrogenizitatea, sexu-generizazioaren prozesu ireki eta aldakorraren baldintza gisa agertzen dira, Kapitalozeno neoliberalen teknogorputzak eta ingurunea koeratzeko elementu nagusietako bat bezala. Baina, prozesu guztiak bezala, etengabe aldatzen eta eboluzionatzen ari da. Teknogorputzen hormona-izaera ez da berezko ezaugarri bat, ezaugarri *natural* eta beharrezko bat, baizik eta Kapitalozeno neoliberalen teknogorputz sexu-generizatuaren eta ingurunearen kondizio bat. Hormonek gure gorputzak zer neurri, maila eta modutan eratzten dituzten eta eratztea nahi dugun pentsatzeak esfortzu kolektibo bat merezi du.

### 3.7. Laburbilduz

Atal honen helburua hormonek teknogorputzen sexu-generoaren koeraketan zer eginkizun duten argitzea izan da.

Horretarako, teknogorputzaren kontzeptua eta hormonena analizatu ditugu haien zabaltasunean, kontuan hartuta biok eskaintzen dituzten aukerak –hau da, gorputzak ingurunera irekita egotea elkarrenganako osaeran– eta teknogorputzetako efektu hormonalak, ez bakarrik produktu hertsiki hormonalek eragindakoak, baizik eta askotariko produktu kimiko xenoestrogenikoen eragindakoak. Produktu edo medikamentu hormonaletan, hormonak – artefaktu teknozientifikoak eta merkatu-produktuak diren heinean– eta xenoestrogenoak edo disruptore endokrinoak elkarrekin korapilatzen dira modu banaezinean.

Giza jarduera eta praktika ugariaren bitartez ingurunera isurtzen diren produktu kimiko xenoestrogeniko kopuru erraldoi eta askotarikoaren zati bat analizatu dugu, pestiziden, arropen, kosmetika- eta higiene-produktuen, edo elikagaien fabrikazio edo erabilera, nola mikroelektronikako osagarriak biltzen dituen. Halako elementu kimiko sintetikoak ingurune osoan zehar hedatzen dira, haien elkarrekiko harreman konstitutiboa dela eta. Bestalde, elementu xenoestrogenikoak agertu dituzten teknogorputzasun ugari ere aztertu ditugu, geografia ugariatukoak. Produktu hertsiki hormonalak animalia-teknogorputz ez-gizatiarrek irentsi izan dituztenez eta irensten dituztenez, animalia-teknogorputz gizatiarrez gainera, eta produktu eta elementu xenoestrogenikoen sortzen dituzten efektuen nonahikotasuna eta garrantzia dela eta, ondorioztatu dugu ingurunea, teknogorputzasunak eta haien sexu-generoak xenoestrogenoz eta hormonaz koeratuta daudela.

Ah-King eta Hayward-en eskutik, elementuon efektu espezifikoak sexu-generikoei edo sexu-generizatutako morfologia eta garapenari eta ugalketa-funtzio eta -gaitasunari egotzitakoei eman zaien gehiegizko garrantzia problematizatu dugu. Alderdi sexu-generikoaren inguruko antsietatea eta tema sexu-generoaren eta sexualitatearen gaineko begirada heteronormatibo, dimorfiko eta antropomorfiko batetik eratorriak dira. Horren aurrean, proposatzen dugu xenoestrogenoak eta produktu hormonalak kontzeptualizatzea teknogorputzen sexu-generizazioaren prozesuan parte hartzen duten elementuetako *bat* bezala, aldakor eta ingurunera ireki gisa ezaugarritu dugun prozesua.

Hormonen eta xenoestrogenoen nonahikotasunaren eta garrantziaren analisiak agerian uzten du politikak eta botereak bilakaera molekularra izan dutela, eta horrek, Haraway-ren eta Preciado-ren eskutik, Kapitalozeno neoliberalen teknobiopolitikaren bilakaera molekularra kontzeptualizatzea eraman gaitu. Artikulu kimiko hormonal eta xenoestrogenikoen

ekoizpenaren tentakulu-sareak –zeinak artikulu horien beren bitartez teknogorputz eta identitate sexu-generizatu anizkoitzen kudeaketa, ekoizpena eta eraketa implikatzen baititu– efektu eta botere-harreman ugari sortzen ditu, eta gaur egungo industria-ekoizpenaren zati handi bat hartzen du, hala nola industria farmakologikoa, kimikoa, agroindustria, bioteknologikoa, elikagaiena eta militarra. Teknobiopolitikaren bilakaera molekular horretan, erakutsi dugu zientziaren eta medikuntzaren balioa, egiaren ekoizle gisa, txikiagotu dela hedabideen eta merkatuaren mesedetan.

Politikaren molekularizazioaren parte diren heinean, hormonon sorreraren jatorrian arakatu dugu, bai merkatuko produktu gisa, bai artefaktu teknozientifiko gisa, eta horrek Dreger-ek deskribaturiko Gonaden Arotik hemen “Hormonen Aro” deitu dugunerako iragatea kontzeptualizatzerara eraman gaitu. Hormonen Aroan, identitate sexu-generikoak eta gorputz-prozesuak funtsezko kontzeptu baten inguruan eraikitzen dira: hormonak. Politikaren molekularizazioak badu bere analogoa zientzian ere, eta horrek “sexu-hormona” deritzenak sexu-generoak azaltzeko, eratzeko eta sailkatzeko elementu nagusi –baina ez bakar– bihurtzea dakar, feminitatearen eta maskulinitatearen *esentziaren* eramaile bihurtzea. Oudshoorn-i segituz, ohartarazi dugu iragate hori ez zatekeela posible izango konpainia farmazeutikoen, estamentu medikoaren eta zientziaren arteko *ménage à trois* gabe, hau da, haien lankidetzaren esturik gabe. Azaldu dugunez, Preciado-ren bikotea guztiz bateragarria da Oudshoorn-en hirukotearekin; izan ere, egin dugun hormonon genealogian, agerian geratu da merkatuak bultzatzen duela prozesu zientifiko-medikoa eta aldi berean publizitateak ere funtsezko garrantzia duela produktu hormonalen arrakastari dagokionez. Hirukote horrek agerian uzten du Kapitalozeno neoliberallean behin eta berriz errepikatzen den patroietako bat.

Haraway-ren proposamenari jarraituz, hots, patroiz zaharren hari-zuntzak deskorapilatzea patroiz berriak sortzeko, “sexu-hormona” deritzenen izaera sexu-generikoa deskorapilatu eta problematizatu dugu, hala nola sexu-generoaren *esentzia kimikoaren* eramaile gisa haien kontzeptualizazioa, eta beste elementu bat gehiago balira bezala interpretatu, sexu-generoen koeraketan eta teknogorputzen beste askotariko prozesu eta funtzioetan parte hartzen duten askotariko elementu organiko-teknologiko-diskurtsibo-material ugariaren artean, betiere ingurunera irekitako prozesu baten barnean. Horrek ez du kontraesanik sortzen hormona esteroide eta ez-esteroideek Kapitalozeno neoliberalerako teknogorputzen sexu-generoen koeraketan izan duten eta duten garrantziarekin. Baina zalantzan jarri eta problematizatu dugu haien izaera eksklusibo eta espezifikoki sexu-generizatu, dimorfiko, sexu-generikoki antagoniko eta heteronormatiboa, zeinak gailentasun heteropatriarkala legitimatzen eta erreproduzitzen jarraitzen baitu.

Azkenik, hormonon kutxa beltza ireki dugu, kritikoki analizatzeko zer interes pilatzen diren “sexu-hormonak” merkaturatzean, merkatuko produktu bilakatzean, eta gorputz, bizi-prozesu eta identitate sexu-generiko eta sexualitate anitzak patologizatzean, aurretik deskribaturiko ereduak haien bitartez gertatzen eta gauzatzen baita. Halako interesez gainera, artikuluen hormonalen ekoizpenaren efektuak analizatu ditugu, ez bakarrik artikuluen kontsumitzean dituzten teknogorputzetan, baizik eta baita erazten diren teknogorputzetan eta ingurunean ere. Hormonak, bai artefaktu teknozientifiko gisa, bai merkatuko produktu gisa, animalia-teknogorputz gizatiar zein ez-gizatiarrak eta haien sexu-generoak koerazten dituzten elementu *teknologiko* nagusietako bat dira Kapitalozeno neoliberalen. Baina, kolektiboki pentsatzekoa izan daiteke eta beharbada merezi du kolektiboan birpentsatzea zer neurritan eta nola nahi dugun hori horrela izatea aurrerantzean ere.

## 4. Trans\* bilakaerak: trans\* anizkoitz eta erlazional gisa

### 4.1. Sarrera

Multiplizitatearen plazera (...) Elkarrekin nahasiz. Zentzua aurkituz nahasketa horretan bakarrik.

P. B. Preciado, *Testo Yonki*, 2008, 103. or.<sup>359</sup>.

It's relationalities all the way down.

N. Gane, "When We Have Never Been Human What Is to Be Done? Interview with Donna Haraway", 2006, 141. or.

Zergatik ezarri begirada kritiko eta analitikoa "trans\*" kategoriaren gainean? Zergatik ahalegindu hurbiltzen trans\* gorpuztasun-subjektibitateen –kolektibitate ikaragarri anitza– materialtasun sexu-generizatuaren koeraketara, emakume gisa sozializatua eta kontzeptualizatua izanik, emakume gisa borrokarako posizionamendu batetik?

Erabaki horren atzean dauden arrazoiak kezka/egiteko onto-politiko-epistemiko batetik datoz. Alde batetik, garrantzi eta esangura ontologiko handiko esanahi ugari daude momentu honetan lehian transaren\* gudu-zelaian. Transak\* halako "gorakada" bat izan du<sup>360</sup>. Horren adibide dira 2014ko ekaineko *Time* aldizkariaren azala, zeinean Laverne Cox aktorea –*Orange Is The New Black* (2013-2019) telesaileko protagonistetako bat– agertzen baita *The transgender tipping point. America's next civil rights frontier* titularraren ondoan (Steinmetz, 2014); 2015eko ekaineko *Vanity Fair*-en azala, Caitlyn Jenner-en argazki sensual eta txundigarri bat dakarrena (Bissinger, 2015) –Jenner *I am Cait* telesail dokumentaleko (2015-2016) protagonista ere izan zen–; edo 2017ko *Vogue*-ren azala, zeinean lehen aldiz agertzen baita trans\* modelo bat,

---

<sup>359</sup> Jatorrizko testua: "El placer de la multiplicidad (...) Mezclándose. Encontrando sentido solo en esta mezcla".

<sup>360</sup> Hala ere, transek\* ikusgaitasun handiago lortu badute ere –ez homogeneoki Mendebalde guztian–, trans\* gorputz askok sufritzen duten bazterkeria, prekarizazioa eta indarkeria, sarrean erakusten genuen bezala, kezkarriak dira oraindik ere. Espainiako estatua, Fátima Elidrissi-k dioen bezala, urruti dago oraindik itxurazko normalizaziotik (2018). Trans\* gorputzen ikusgaitasunari dagokionez, zera dio: "[P]antailan ikusten diren pertsonaia transexual apurra aktore zisek interpretatzen dituzte gehienetan (...), eta horrek pertsona transen estereotipazioa eta lan-bazterkeria larritzen du" (Elidrissi, 2018).

Valentina Sambaio, *La beauté transgenre. Comment elles bouleversent le MONDE*<sup>361</sup> titularraren ondoan. “Gorakada” edo ikusgaitasun handiago horren lekuko diren beste kultura-produktu batzuk dira, batetik, 2015ean estreinaturiko bi film: *The Danish Girl*, Lili Elbe genero-onarpenerako prozesu kirurgiko batetik igaro zen lehen pertsonetako baten bizitza kontatzen duena<sup>362</sup>; eta *Tangerine*, Sin Dee-Rella eta Alexandra trans\* prostituten bizipenei buruzkoa. Bestetik, bi telesail: *Transparent*, 2014tik 2017ra bitartean emititu zena, zeinean transexual bat baitzen protagonista<sup>363</sup>; eta *Pose* (2018-2019), 1980ko hamarkadaren amaierako LGTB komunitatearen erretratu bat, zeinean aktore protagonistetatik bost transak\* baitira eta kapituluetakoa bat Janet Mock telebista-aurkezle, zuzendari eta ekoizle transak\* zuzendu baitzuen.

Euskal Herriari dagokionez, trans\* gaia tokia betetzen hasia da egunkarietan eta telebistako programetan. Adibide gisa, 2017aren hasieran, Xabier Madariagak elkarrizketa bat egin zien Mikele Grande, Aitzole Araneta, Ixotz Louyest eta Ainara Ruiz-i, EITBko *Ur handitan* programan; 2016an, Julian Iantzik Nora Gómez Carrión elkarrizketatu zuen *Nafar Telebistan*; 2015eko ekainean, Ixotz Louyest-en lekukotasuna bildu zuten *Berrian* (Ares Amaya, 2015), eta, 2012an, *Maskarak* dokumentala egin zen, Ixotz Louyest eta Ainara Ruiz-ekin.

Zenbait egilek, hala nola Stryker-ek (2015, 15. or.) eta Galofre eta Missé-k (2015, 25.-26. or.), aipatu dute trans\* mugimendua instituzionalizatu egin dela nolabait –aurretik feminismoarekin eta gay-lesbianen askapen-mugimenduekin gertatu zen gisa berean– eta batez ere despatologizazioaren arloan aurrera egin den arren beharrezkoa dela gogoeta kritiko bat egitea.

“Emakumeak\*” terminoak biltzen dituen teknogorpuztasun-subjektibitateen multiplizitatearen kasuan bezala, baina maizago eta neurri handiagoan ikusezintasunezko, bazterkeriazko eta prekaritatezko esparruak habitatuz (Stryker, 2015, 11. or.), trans\* multiplizitatea normatiboki eta teknodiskurtsiboki murrizten, bideratzen eta moldatzen da edertasun tiranikoaren eredu heteronormatibo batera egokitzeko, ondorio askotan mingarriak eraginez, eta, era horretan, erregimen sexu-generiko oraindik bitar baten aginduak betetzen dira, nahiz eta badiren joera eta borroka ugari, beste leku batzuk bizitzeko aukera gauzatu aniztun eta askotarikoak.

---

<sup>361</sup> “Edertasun transgeneroa: nola eraldatzen ari diren haiek mundua”.

<sup>362</sup> Lili Elbe-ri buruz, ikus Meyerowitz (2004, 20. or.). Genero-onarpenerako lehen ebakuntzei buruz, ikus Meyerowitz (2004, 14.-48. or.).

<sup>363</sup> Amazon-ek telesailetik bota zuen Jeffrey Tambor, Maura protagonistaren papera interpretatzen zuena, sexu-abusuen salaketan ondorioz. Bestalde, Lili Elberena egiten duen aktorea eta Maurarena egiten duena ez dira transak\*.

Arazoa zera da: prekaritatea areagotzen ari den garaiotan, egitura sexu-generiko heteronormatiboaren eta egitura horren desberdinkeria beste batzuekin uztartzearen ondorioz – arraza-, klase-, gaitasun- eta adin-desberdinkeriarekin, besteak beste–, prekaritatea ez da berdin banatzen gorputzen artean, eta, horretaz gainera, erregimen sexu-generikoa multiplizitaterantz irekitzen edo demokratizatzen ari da, baina irekitasun hori ez dago eskuragarri mundu guztiarentzat<sup>364</sup>, eta ez dago ekitatiboki banatuta, lehen aipaturiko desberdintasun sistemikoak intersektatzen direlako. Era berean, irekitasun hori baliatzen da “beste” “hezigabe”, “antidemokratiko”, “estremista”, “intolerante”, “totalitario”, migratzaile, musulman, “ezjakin”en aurka, eta Latinoamerikako, Asiako eta Afrikako herritar eta herrialde pobretuen aurka, Mendebaldearen klase ertain-altuko botere eta gailentasun zuria legitimatzeko. Genero-islamofobiaren kasuan (Goikole, 2013; Vasallo, 2016) edo emakumeen\* aurkako tratu txarrak aitzakiatzat hartuta arabiar herrialdeak militarri eta ekonomikoki konkistatzearen eta mendean hartzearen kasuan gertatzen den bezala (Khan, 2001; Atabile eta Kumar, 2005; Fernandes, 2017), eskubideen diskurtso (neo)liberalaren eskutik doan irekitasun horrekin loturiko fenomenoetariko bat *pinkwashing*-a da (Pinkwatching Israel, 2012; Spade, 2014; Maykey, 2016; Palestinian Queers for BDS, 2018). Alde horretatik, AEBk eta Europako estatuak besteen aurka jotzeko modernotasun progresiboaren zeinu gisa hartu dute trans\* eskubideen aldarrikapena, eta, horren harira, zera dio Stryker-ek: “Garbi dago, denoi dagokigu, eta ez bakarrik transgeneroii, ulertzea ‘transgeneroa’ bere horretan bereganatzen ari direla ez bakarrik gutxiengoen askapenerako proiektuetarako, baizik eta baita estatu-mailako mendekotasun- eta kontrol-proiektuetarako ere” (2015, 15. or.)<sup>365</sup>.

Hari-zuntz horretatik tiraka, eta Stryker-en proposamen edo gonbita geure eginez baina estatuetatik gorputzetara lekualdatuz, kapitulu honetan, zenbait diskurtso problematizatuko ditugu; izan ere, diskurtsook, gutxiengoentzako efektu askatzaileak baino gehiago, efektu kontrolatzaile, erredukzionista eta blokeatzaileak dakartzate teknogorputzetara, eta, horretaz gainera, erraz barneratzen dira zapalkuntzazko, bazterkeriazko eta gutxieskeriazko helburuak lortzeko.

Horretarako, oinarri edo premisa gisa hartuko dugu “emakumeak\*” eta “trans\*” kategorien artean badagoela halako analogia historiko bat eta analogia hori beste hiru auzik osatzen dutela, aipatuak ditugun elementu komunetatik harago. Lehenik, “emakume”

---

<sup>364</sup> Irekitasun hori eskuragarri duten teknogorputzasun-subjektibitateen kasuan ere, beste gorputz, identitate eta desira batzuk onartzeak ez du esan nahi gizartean simetrikoki eta proportzionalki areagotzen denik haienganako desiragarritasuna.

<sup>365</sup> Jatorrizko testua: “Claramente, nos corresponde a todas, y no solamente a aquellas personas que somos transgénero, entender cómo lo “transgénero” en sí está siendo apropiado para proyectos no solo de liberación de minorías, sino también para proyectos estatales (...) de dominación y control”.

kategoriatik –hau da, batik bat klase ertain-altuko emakume zuri eta heterosexualei erreferentzia egiten dien kategoria, sexu *naturalaren* nozioak eta genero *kulturalaren* ideiak osaturiko dikotomia kontzeptual batean oinarritua eta horrenbestez homogenea eta homogeneizatzaila, itxia, hiperidentitarioa, naturalizatua, esentzializatua eta esentzializatzaila, baztertzaila eta zapaltzaila– “emakumeak” kategoriara igaro gara. Aurrerapauso hori feminismoek eta emakume\* lesbiana, txikano, beltz, asiarrak, pobretu, queer, prostituta, bisexual, pansexual, funtzionalki anizkun, trans\* eta beste hainbatek –ezin ditugu hemen denak aipatu<sup>366</sup> eginiko kritikei esker gauzatu zen. Gaur egun, desberdintasunak eta multiplizitatea sinbolo edo grafia berrietan biltzen dira, 2018an eta 2019an Euskal Herrian martxoaren 8an antolatutako greba feministan ikusi genuen bezala, “emakumeak\*” kategoriaren bitartez (Euskal Herriko Greba Feminista, 2019). Bat-bakarretik multiplizitatera eta homogeneotik anizkoitzera egindako aldaketa hori bera “trans\*” kontzeptuaren kasuan ere gertatu da, baina badaude korrante hegemoniko indartsuak, bai kontrako noranzkoan, bai multiplizitate horri etekin ekonomikoa ateratzeko, eta, ondorioz, trans\* kontzeptua transexualitatera murrizten da sarritan, eta haren multiplizitatea, berriz, hura osatzen duten elementu biologiko eta teknologiko jakin batzuetara.

Bigarrenik, aurrekoarekin loturik, diagnostiko medikoa eta haren ondoriozko teknologien erabilera historikoa aipatu behar dira, bai teknologia prostetikoak, histeriaren kasuan bezala (Laqueur, 1990; Gilman et al., 1993; Devereux, 2014), bai modu zabalago eta garaikideago batean teknologia farmakologikoak eta bioteknologiak, prozesu fisiologiko, psikologiko, bital eta emozionalak –besteak beste, menopausia, haurdunaldia, haien prebentzioa eta genero-onarpena– “tratatzeko” erabiltzen direnak (Preciado, 2008; Ostertag, 2016; Haraway, 2016a; Centers for Disease Control and Prevention. U. S. Department of Health and Human Services, 2019b), zeren horiek guztiak ez daude lotuta soilik norbanakoaren gorputzarekin eta identitate pertsonalarekin, baizik eta neurri handi batean sozialki eta politikoki eraikiak, kodetuak eta interpretatuak dira, eta teknogorputzasun-subjektibitateen ekoizpenaren, korritu ekonomikoaren eta kontrolaren esparruan kokatzen dira, Kapitalozeno neoliberalako teknobiopolitika molekularrean. Alegia, identitate sexu-generizatuak, desirak, libidoa, heterossexualitatea, homossexualitatea, transexualitatea, intersexualitatea, feminitatea, maskulinitatea eta kontzientzia kapital bihurtzea, ondasun ukigarri bihurtzea, substantzia kimiko material eta molekula merkaturagarri bihurtzea.

Hirugarren kapituluaren genioenez, zenbait farmako hormonal –besteak beste, Meriestra®, zeina medikamentuaren beraren informazioaren arabera estradiol “sexu-hormona

---

<sup>366</sup> Bigarren kapituluaren sarreran zerrendatu ditugu kritika hori egin zuten kolektibo, egile eta lan batzuk.



femenino”az osatua baitago– orotariko emakumeek\*, trans\* eta zisek kontsumitzen dituzte, nahiz honako hau ipintzen duen medikamentuaren prospektuan: “Meriestra erabiltzen da hormona-galera ordezkatzuz menopausiaren sintomak arintzeko (...) Meriestra erabiltzen da soilik umetokia erauzia (histerektomia) duten emakumeetan” (Medikamentu eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentzia, 2016, 1. or.)<sup>367</sup>. Meriestra® ugalkortasunerako tratamendu gisa ere erabiltzen dute zenbait emakumeek\*, eta horrek agerian uzten ditu erregimen sexu-generikoaren inkongruentziak. Hayward-ek ere hizpidera ekarri du trans\* emakumeek\* eta zis emakumeek\* erabiltzen dituztela HOTerako farmakoak (2014, 256. or.); zehazki, azaltzen du emakume\* transek\* Premarin® –batez ere menopausiadun emakumeei\* errezetatzen zaien farmako arrakastatsua– hartu izan dutela World Professional Association for Transgender Health-en –Harry Benjamin Gender Dysphoria Association-en ondorengoaren– *Standards of Care for hormonal transition* zaharkitu baina oraindik ere erabiliari jarraituz.

Geometria transfeminista zirkulari ehotzen duen hirugarren elementua diskurtso biologizista eta deterministak dira, hau da, elementu biologikoen bitartez trans\*aren auzi aberats, zabal eta erlazionala murriztea eta mugatzea bilatzen duten diskurtsoak. Halako ikuspuntuek oraindik ere *berezko* eta jaiotzezko desberdintasunak baieztatzen dituzte gizon eta emakumeen\* artean; horren ondorioztat hartzen dute emakume\* gutxiago egotea zientzietan edo ingeniariartzetan, eta emakumeen\* joera *natural* gisa kontzeptualizatzen dituzte enpatia, zaintza eta sentiberatasuna, eta gizonen joera *natural* gisa, aldiz, lidergoa eta boterea; hala, hainbat eta hainbat desberdinkeria justifikatzen dituzte, denak ere gizonak gorpuztasun-subjektibitate ez-hegemoniko guztien gaineratik jartzen dituztenak (Pinker, 2003, 220.-230. or.; 2005; Knickmeyer et al., 2005; Baron-Cohen, 2005; Auyeung eta Baron-Cohen, 2008; Jones et al., 2011).

Steven Pinker-ek Lawrence H. Summers Harvardeko Unibertsitateko zuzendari ohiaren diskurtsoaren “anekdota” bat ekarri du hizpidera: 2005ean, zientziako eta teknologiko genero-eta arraza-desberdintasunei buruzko konferentzia batean –“Women’s representation in tenured positions in science and engineering at top universities and research institutions” (Summers, 2005)–, National Bureau of Economic Research-en, adierazi zuen desberdintasun biologikoei eta bereziki genetikoei zor zaiela gizonak emakumeek\* baino emaitza hobek erdiestea zientzian eta matematikan (Pinker, 2005; Goldenberg, 2005; Summers, 2005). Summers-ek hiru argudio edo hipotesi aurkeztu zituen emakume\* eta gizonak esparru zientifiko-teknologikoetan duten presentzia desorekatua azaltzeko, eta, ikusiko dugunez, bakar batean laburbil litezke hirurak: haien arteko desberdintasun genetikoa. Lehen hipotesia genero-diskriminazioa edo -mugak dira.

---

<sup>367</sup> Jatorrizko testua: “Meriestra se utiliza para aliviar los síntomas de la menopausia reemplazando la pérdida hormonal (...) Meriestra se utiliza solamente en mujeres que les han extirpado la matriz (histerectomía)”.

Bigarrena, diskriminaziorik ez dagoenean ere genero-desberdinkeriak azaleratu daitezkeela. Izan ere: “[M]en and women differ, on average, in their mixture of talents, temperaments, and interests—whether this difference is the result of biology, socialization, or an interaction of the two” (Pinker, 2005). Hirugarrena, emakumeentzat\* zaila dela zaintza-lanak zenbait karrera profesionalen eskakizunekin uztartzea, zaintza emakumeen\* kontua izaten baita gehienetan (Summers, 2005). Galdetu genezake zer dela-eta gertatzen den hori, ez ote den diskriminaziozko genero-ideologia baten ondorio, baina argudio zirkular baten ondoriozko erantzun bat aurreikus liteke determinista biologikoen aldetik: emakumeek\* badute *berezko* jaidura bat zaintzarako, biologikoa, jaiotzekoa<sup>368</sup>.

Ingeniaritza emakume\* gutxiagok aukeratzeari dagokionez, Pinker-ek zera dio: “[T]o what degree these and other differences originate in biology must be determined by research, not fatwa” (2005). Nolanahi ere, Fausto-Sterling-ek honako hau iradokitzen du: “[P]erhaps there are things about sex and gender that we can never know” (2014, 2. or.). Izan ere: “[L]abeling someone a man or a woman is a social decision. We may use scientific knowledge to help us make the decision, but only our beliefs about gender—not science—can define our sex” (2000, 3. or.).

Pinker-ek emakumeen\* diskriminazioaren gaiari gizartean ematen zaion garrantzi gehiegizkoa kritikatu amaitzen du *The New Republic*eko artikulua. Erakunde publiko eta pribatuek diskriminazio hori arintzeko edo ahultzeko garaturiko neurriak problematizatzen ditu; izan ere, haren iritziz, efektu kaltegarriak dituzte are emakume\* direnentzat ere. Hortik abiatuta, Pinker-ek zera defendatzen du esparru batzuetako emakumeen\* proportzio baxuari buruz: “[T]enured job offers from Harvard during Summers's presidency may be an unintended consequence of his policy of granting tenure to scholars early in their careers, when women are more likely to be bearing the full burdens of parenthood” (Pinker, 2005)<sup>369</sup>. Pinker-en iradokizun

---

<sup>368</sup> Gizon eta emakumeen\* *berezko* jaidurei dagokienez, Pinker-ek, onartzen badu ere emakumeek\* legearen aldetik diskriminatuta egon direla historikoki behin eta berriz, zeren eta askoz ere zigor gogorragoak jaso dituzte gizonen baino desleialtasunagatik, eta onartzen badu ere gizonen bortxaketak barkatu zaizkiela eta emakumeek\* sexu-errepresioa jasan dutela, zera adierazten du: “[a] hostility to the idea that *selfish sexual urges* might be rooted in our nature comes from feminism. For millennia women have suffered under a double standard based on assumptions about differences between the sexes... Because of a fear of accepting any idea that would seem to make these outrages "natural" or unavoidable some schools of feminism have rejected any suggestion that men are born with greater sexual desire or jealousy... Even heavier bipartisan fire has recently been aimed at Randy Thornhill and Craig Palmer for suggesting in their book *A Natural History of Rape* that rape is a consequence of men's sexuality” (Pinker, 2002, 160.-161. or.; geuk nabarmendua). Liburuaren izenburu osoa *A Natural History of Rape: Biological Bases of Sexual Coercion* da. Sexualitatea, bestalde, fenomeno sozial konplexua da, eta ezin da auzi biologiko hutsera mugatu. Bortxaketaren kultura maskulinitate eta heterosexualitate mota baten, haiei buruzko ikuspuntu hegemoniko eta menderatzaile zehatz baten emaitza da, ez sexualitate maskulinoarena *per se*, sexualitate maskulinoa ez baita bakarra eta jaiotzekoa, oinarritzkoa –eta, era berean, ez dago sexualitate femenino *per se* bat, esleitua eta unibertuala–.

<sup>369</sup> Goldenberg-en arabera, Summers-en agintaldian, % 36tik % 13ra jaitsi zen kopuru hori (2005).

edo irizpideari jarraituz, hipotesi horrek ere egiaztapen eta frogapen zientifikoa behar luke izan. Aurrerago aletuko ditugu Samuel Baron-Cohen Cambridgeko Unibertsitateko psikologiako irakasle eta Cambridge Neuroscience diziplinarteko ikerketako zentroko kide ikaragarri emankorraren postulatuak; bakarkako edo taldekako argitalpenetan defendatu izan duenez –“The Essential Difference: the male and female brain” (2005), “Gender-Typed Play and Amniotic Testosterone” (2005) eta “A Role for Fetal Testosterone in Human Sex Differences” (2008)–, gizon eta emakumeen\* burmuinek badituzte desberdintasun natural eta esentzialak, eta azpimarratzen du hormonek zeregin garrantzitsua dutela giza burmuinaren konfigurazioa sexualki dimorfikoa izan dadin jaiotze aurreko aldietan.

Paradigma sexu-generiko heteronormatiboa trans\* esparruan birdefinitzen, sendotzen eta eztabaidatzen ari da. Trans\* subjektibitate-teknogorpuztasunen fenomeno anizkoitz, aberats eta konplexua azaltzen, kateatzen, murrizten eta are patologizatzen duten teoria biologiko deterministak eztabaidatzea, era berean, erregimen sexu-generikoaren esanahi eta diskurtsoak eztabaidatzea da, kontuan izanik denoi dagozkgigula. Injerentzia kolonialistak saihesten ahaleginduz, kapitulu honetan, kategoria, gorputz eta identitateen irekitasunaren eta multiplizitatearen aldeko argudioak eman nahi ditugu, gorputz *guztien* duintasuna eta desiragarritasuna, eta subjektibitate guztien adierazpide aske, ez-baztergarri eta ez-zapaltzailea aldarrikatzeko. Aldarri horren abiapuntua Cressida Heyes-ek aipatzen duen leku hori da, kontzientzia bat non “non-trans feminists’ failure to interrogate our own identities, and our comfort with our own gender, than they [trans\*] do about the realities of trans communities or political movements... leds us toward the recognition of political common ground and thus to the question of how feminist alliances can be formed” (2003, 1117. or.).

Horretarako, “emakume\* trans\*” kategorien analogia historiko hirukoitzetik abiatu –bi kategoria horiek lotura estua dute, korapilatuta daude, elkarrenganako inplikazioak dituzte, eta, askotan, gauza bera dira: trans\* asko emakume\* dira, eta emakume\* asko trans\* dira–, bigarren atalean, “trans\*” terminoaren genealogia labur bat egingo dugu, termino zabal, askotariko eta anizkoitz gisa kontzeptualizaturik, Feinberg-ek sortu zueneko multiplizitatearen adiera azaleratuz eta oraingoan izartxoaren bidez nabarmenduz. Izartxoak kategoria, filosofia, identitate eta gorputzen arteko irekitasunak eta senidetasunak sortzen ditu, intersex, emakume\* eta trans\* kolektibitateetan bat egiten dutenak bezala.

Hirugarren atalean, bi agerpen kultural eta politiko edo asoziatiboren bitartez deskribatuko dugu nola erreproduzitzen dituzten transen\* aitorenaren, autodeterminazioaren, eskubideen eta aniztasunaren alde diharduten gorputz eta kolektiboek trans\* teknogorpuztasun-subjektibitateei buruzko diskurtso naturalizatzaile, esentzialista, erredukzionista eta

deterministak, nahiz eta agerpen eta elkarteon helburuak itxuraz urruti egon ikuspuntuon ondorio potentzial eta materialetatik. Missé-k zera dio horri buruz: “[G]arrantzitsua da jakitea gizarte-mugimenduaren zati batek ere onartzen duela logika biologizista hori trans pertsonen eskubideak argudiatzeko eta defendatzeko erabiltzen duen diskurtsoan” (2009, 5. or.)<sup>370</sup>.

Laugarren atalean, diskurtso horietako batzuk aztertu eta problematizatuko ditugu; zehazki, “Brain Sex Theory” deritzenak, Rebecca Jordan-Young-ek “Brain Organization Research” deritzonaren parte direnak (2010). Kontakizun neurozientifiko horien arabera, giza burmuina sexualki dimorfikoa da, eta identitate sexu-generizatuak burmuinean jaio aurretiko eta jaio berriak eragin hormonalaren bitartez finkatzen eta programatzen dira. Oinarri horretatik abiatuz, transexualitatea anomalia, arazo edo nahasmendu gisa kontzeptualizatzen dute, eta, hura azaltzeko, maila hormonalen asalduren ondoriozko burmuin-atal jakin batzuen tamainaren eta/edo neurona kopuruaren alderantzizkizunak abiatzen dira, baita jaio aurreko genitalen eta burmuinaren sexuazio hormonalen arteko inkoherentziatik ere.

Jordan-Young-en arabera, gaur egun halako diskurtsoak zalantzan jartzea aniztasuna bera zalantzan jartzea da, edo hala uler daiteke, eta multiplizitate horren aurka egitea leporatzea ekar dezake:

In an era where diversity is celebrated, the idea of “sex in the brain” no longer equals an endorsement of male superiority, and critics of the idea are increasingly cast as not only antiscience, but antidiversity.... The gist... is that gay men, lesbians, and transgender people... have brains that are “wired” different from most people, and that accepting this is an important component combating anti-gay prejudice. And while the notion of innately different preferences in men and women was once politically suspect, it is now often suggested that accepting these innate differences will encourage a more rational approach to equality. (2010, 5. or.)

Nolanahi ere, identitate sexu-generizatuen gaineko halako azalpen biologizista, determinista eta erredukzionisten aurrean, bosgarren atalean, sexu-generoa eta hezur-osaera, kolore-lehenespena eta trebetasun kognitiboak –determinismo biologikoaren babesguneak denak ere– jorratzen dituzten kontakizunak azaldu eta aztertuko ditugu, erreakzio-arau diren aldetik, testuinguruaren eta prozesuen arabekoak diren aldetik, askotariko elementu eta dimentsioen interakzioaren ondoriozkoak eta garapenaren sistema dinamikoaren teoriaren ikuspuntutik. Bestalde, identitate sexu-generizatuak ere aztertuko ditugu, fokua identitate trans\*, anizkoitz, ez-bitarretan ipinita, garapenaren sistema dinamikoaren teoria eta genero-performatibitatea lotzen

---

<sup>370</sup> Jatorrizko testua: “[E]s importante saber que incluso una parte del movimiento social asume esta lógica biologicista en su discurso para argumentar y defender los derechos de las personas trans”.

dituen begirada batez. Begirada honek identitateen garapen eta eraketaren berri ematen du jaiotzatik hasita eta kontuan hartuz zaintzailearen eta hauraren arteko erlazio diadikoa, testuinguru sozial zabalagoa eta eragin sozialaren, hormonien eta konexio neuronalen arteko lotura. Modu berean, bilakaeran dauden eta ingurunera irekita dauden prozesu dinamiko anitzkoitz eta erlazional gisa kontzeptualizatzen ditu identitate sexu-generizatuak.

#### 4.2. Trans\*genealogia: multiplizitate izartsuak besarkatzen

Sexu-genero ez-bitarreko pertsonak munduko toki askotan daude eta egon dira historian zehar. Besteak beste, aipa ditzagun Indiako, Pakistango eta Bangladesheko *hijrak*; Tailandiako *kathoeyak*; Hawaiiiko *Māhūak*; Polinesiako Samoako *fa'fafineak*; edo Ipar Amerikako kulturetako bi-espirituak, zeinak 155 leinutan dokumentatu baitira (Roscoe, 2011). Leinu horietako batzuetan, termino bera erabiltzen da bi-espiritu maskulino eta femeninoak izendatzeko, hau da, hirugarren genero bat ordezkatzeko dutenak izendatzeko. Beste batzuetan, izen desberdinak erabiltzen dira bi-espiritu maskulino eta femeninoetarako, eta lau genero dituzte<sup>371</sup>. Indonesiako Sulawesi uhartean, bugien leinuan, *bissuak* ditugu. Davis-en arabera, haien hizkuntzan bost termino dituzte sexuaren, generoaren eta sexualitatearen zenbait konbinazio adierazteko: *makkunrai* (emakume femeninoa edo zis emakumea), *oroani* (gizon maskulinoa edo zis gizona), *calalai* (gizon femeninoa), *calabai* (emakume maskulinoa) eta *bissu* (trans apaiza) (2016). Davis-ek dio definiziook ez direla zehatzak, baina bai nahikoak<sup>372</sup>.

Afrikako ekialdeko gizarteetan, swahiliz mintzo diren herrietan, Keniaren eta Tanzaniaren kostaldearen zati bat barne, *mashogak* bizi dira. Batzuetan emakume gisa jantzen diren, eta emakume-izenak erabiltzen eta emakume-lanak egiten dituzten gizonak dira (Amory eta Gevisser, 2005, 227. or.). Amory eta Gevisser-ek azaldu dutenez (2005, 227. or.), Afrikako jendeak ez ditu erabiltzen “gay” edo “lesbiana” terminoak bere buruaz ari denean. Tokiko terminoak erabiltzen dituzte identitate zehatzak izendatzeko, sexu berekoen arteko harremanak, trabestismoa eta lan motak barnebil ditzazketenak. Kongoko Errepublika Demokratikoko Mbo leinuetan, hirugarren sexu-genero bat osatzen dute *mangaikoek* (Harrington, 2016, 38. or.).

Europari dagokionez, Antzinarotik Aro Modernora bitartean dokumentatu dira bai trabestismo-kasuak, bai “emakume\* oso maskulino” eta “gizon oso femenino”en kasuak. Greziar mitologian, badaude generoa aldatzen duten pertsonaien adibide ugari. Zeneok, zeina hasieran Zenis izeneko emakume bat baitzen, bere Poseidon maiteari eskatzen dio gizon bihurtzeko, eta

---

<sup>371</sup> Ikus Roscoe (1998).

<sup>372</sup> Ikus Davis (2010).

hark jaramon egiten dio. Gizon bihurturik, Zentauroen gerran borrokatu zen, eta, esaten dutenez, hil ondoren, berriz bihurtu zen emakume (Grimal, 1981, 95. or.)<sup>373</sup>. Tiresias pertsonaia mitologikoari buruzko elezaharretako batean kontatzen denez, egun batean, Tiresias paseatzen ari zelarik, bi suge ikusi zituen kopulatzen, eta, sugeak bereizi, edo zauritu, edo emea hil ondoren –bertsio bat baino gehiago baitago–, emakume bihurtu zen. Handik zazpi urtera, gauza bera gertatu zen toki berean, eta aurreko sexu-generoa berreskuratu zuen<sup>374</sup> (Grimal, 1981, 518. or.). Herkules edo Heraklesen eta Onfalia erreginaren arteko maitasunari buruzko kontakizunean –Herkules Onfaliaren zerbitzaria izan zen–, Herkules gisa honetan ageri da jantzita: “[A]rropa femenino luzeekin; erregina, berriz, bere atributuen jabe egina zen: mazoa eta lehoi-larrua. Herakles, haren oinetan eserita, ehuntzen ikasten ari zen” (1981, 255. or.)<sup>375</sup>. Blázquez Nuño-k ere aipatu zuen Herkulesen trabestismoa, Lidia Onfalia erreginaren maitale gisa zein esklabo gisa jardun baitzuen, baina “trabestitze burlesko” deitu zion (2017, 89., 92. or.).

Kristautasunaren barnean, I. mendetik V. mendera bitartean, kristau-ideal aszetari jarraituz birjintasunari bizitza guztian eutsi eta gizon gisa jantzi eta bizi izan ziren emakume\* tradizio bat dago. Emakumeon\* artean daude Santa Tekla, Santa Margarita/Pelagio, Santa Pelagia/Pelagius, Santa Teodora/Teodoro, Santa Eugenia/Eugenio, eta Santa Marina/Marino; Aita Ribadeneira-k haien bizitzak jaso zituen 1599ko *Flos Sanctorum* bilduman (1675) (Monsalve, 2003, 5. or.). San Jeronimok emakume\* trabestiak deskribatu zituen. 78. gutunean (*A Eustoquia*, 384. urtekoa), zera dio: “Beste batzuk, gizon-eitekoak eta janzkera permutatukoak, lotsatu egiten dira jaiotzez diren horregatik, hau da, emakume izateagatik. Ilea moztu, eta burua altxatzen dute eunukoen lizunkeriaz” (Valero, 1992, 238.-239. or.)<sup>376</sup>. Badira beren maskulinitatea azaleratu zuten beste emakume\* ospetsu batzuk, hala nola Joana Arc-ekoa (XV. mendean) eta Katalina Erauso (XVII. mendean). Joana Arc-ekoa deskribatzean, aipatu izan da

<sup>373</sup> Rodaseko Apoloniok, *Argonautikoak* poesia-lanean, Zeneok zentauroen aurkako gerran parte hartu zueneko kontakatu zuen (1996, 96. or.). Valverde Sánchez-ek, lan horren gaztelaniazko itzultzaileak, Ovidioren erreferentzia bat gehitu zuen oin-ohar batean: “Zeneo lapita, zeina Poseidonek gizon soraio eraldarazi baitzuen, bizirik ehortzi zuten zentauroek, izei-kolpekadaka” (1996, 96. or.).

<sup>374</sup> Publio Ovidio Nasón-en *Metamorfosiaren* hirugarren liburuan, 314-336 bertsoetan, istorio hau kontatzen da: “Freely the god began; ‘Who doubts the truth? The female's pleasure is a great delight, much greater than the pleasure of a male.’ Juno denied it; wherefore ‘twas agreed to ask Tiresias to declare the truth, than whom none knew both male and female joys: for wandering in a green wood he had seen two serpents coupling; and he took his staff and sharply struck them, till they broke and fled. 'Tis marvelous, that instant he became a woman from a man, and so remained while seven autumns passed. When eight were told, again he saw them in their former plight, and thus he spoke; ‘Since such a power was wrought, by one stroke of a staff my sex was changed—again I strike!’ And even as he struck the same two snakes, his former sex returned; his manhood was restored.—” (2019) (1922).

<sup>375</sup> Jatorrizko testua: “[C]on largos ropajes femeninos, mientras la soberana había adoptado sus atributos: la maza y la piel de león. Heracles, sentado a sus pies, aprendía a hilar”.

<sup>376</sup> Jatorrizko testua: “Otras, con aire viril, y permutada indumentaria, se avergüenzan de ser lo que nacieron, es decir, mujeres. Se cortan el cabello y levantan la cabeza con impudor de eunucos”.

generoak txandakatzen zituela, edo genero ez-bitarrekoa, edo *cross-dresser*, *cross gender* edo androginoa zela, egile guztiak ez baitatoz bat (Crane, 1996, 310.-313. or.). Katalina Erausori dagokionez, “moja alfereza” ere izendatu izan dute<sup>377</sup>, eta ez dakigu emakume maskulino bat izan zen, gaur egun, *butch* edo trans\* esango genukeena, ezta esleitu zioten sexu-generoak inposaturiko muga eta betebeharretatik ihes egiteaz haragoko motibaziorik ba ote zeukan ere, baina garbi dagoena da sexu-genero bitarra gainditu eta hartatik ihes egin zuela, eta garai hartako feminitatearen konbentzionalismoei aurre egin ziela (Pérez Villanueva, 2004, 1449. or.; Monsalve, 2003, 1. or.).

Norton-ek luze eta zabal dokumentatu zuen XVIII. mendeko Londresko *molly* delakoen bizitza; beste gizon batzuekin sexu-harremanak zituzten gizonak ziren, izen femeninoak erabiltzen zituztenak eta askotan trabestiak ere bazirenak. *Molly houses* delakoetan bildu ohi ziren –Norton-ek hogeita hamarren baten berri dakar–, hau da, sexua praktikatzeko eta “Festival Nights” izendatzen zituzten *drag balls*-ak antolatzeke pub edo tabernetan (2008, 2012a). Haietariko bat “Princess Seraphina” zen, jatorrizko izenez Cooper, trabesti erregular bat, zeina Nortonen arabera Ingalaterrako historiako lehen *drag queen* errekonozitua izan baitzen, trabestismoa bere bizimoduan txertatu zuen lehen gizon “homosexuala”, nahiz eta kategoria hori ez zen artean ere existitzen (2006). Norton-ek “Eliza” Edwards-en bizitza ere jaso zuen; antzezlea izan zen, eta 1833an hil zen, Londresen, 24 urte zituela, birrikako infekzio baten ondorioz (2012b). Autopsia egin ziotenean aurkitu zuten haren sexu-anatomia maskulinoa. “Miss Edwards” 14 urte zituenetik zebilen agertokietan, eta, batzuetan, “Lavinia Walstein” izena erabiltzen zuen<sup>378</sup>. Hil zenean, berarekin hitzorduak egiten zituzten gizon batzuen gutunak aurkitu zituzten. Bi gizonek berretsi zuten urte batzuk lehenago Mister Edwards ezagutua zutela Dublinen, aktorea zela eta emakume zein gizon gisa jarduten zuela, txandaka.

XIX. mendearen erdialdetik XX. mendearen hasierara bitartean, emakume\* asko ibili ziren gizon jantzita. N. P. Willis-ek bildu zuen nola 1821ean poloniar emakume bat Poloniako uniforme militarra soinean agertu ohi zen egunero Parisko Tuilerien Jauregian (1844, 24. or.). Willis-en arabera, gizon trabestitzea ez zen ezohikoa hiri hartako emakumeen\* artean, berak gizon jantzitako emakumeak\* ikusiak baitzituen jatetxe, antzoki, kafetegi, dantzaldi publiko, kale, goi-klaseko damen ekitaldi pribatu eta abarretan. Allan Bérubé-k ere gizon gisa agertu eta

---

<sup>377</sup> Ikus De Erauso, C. (1988).

<sup>378</sup> 1833ko urtarrilaren 29ko (asteartea) *Southern Reporter and Cork Commercial Courier*en bildu zuten informazio hori. Eliza Edwards-en gorputzari dagokionez, zera diote: “[T]here being no one to claim the body, it was sent to Guy’s Hospital for dissection, when it was discovered, to the surprise to every one, that the deceased was a perfect man”. Egunkari askotan argitaratu zuten albistea, hala nola *Norfolk Chronicle*n, *Oxford Journal*en edo *Western Times*en.

emakumeekin\* ezkontzen ziren emakumeen\* kasuen berri eman zuen. Haien artean daude Lucy Ann Lobdell eta Charles Warner; azken horrek gizon gisa bizitzea erabaki zuen 1860an, eta hala bizi izan zen 60 urtean, Saratoga Springs-en, New Yorken (Bérubé, 1979, 8. or.; 2011, 44. or.). Murray Hall-ek 25 urte eman zituen gizon gisa bizitzen; bi aldiz ezkondu zen emakume batekin, eta New Yorkeko politikari garrantzitsua izan zen 1880ko eta 1890eko hamarkadetan (Bérubé, 1979, p. 8; 2011, p. 44). Jeanne Bonnet, San Frantziskon jaioa, gizon janzteagatik atxilotu zuten behin baino gehiagotan. Prostitutei lagundu zien beren txuloengandik bereizi eta San Frantziskoko dendetan lapurretak egiteko talde bat sortzen. 1876an hil zuten, prostitutei laguntzen izandako arrakastarengatik. Luisa Mantson-ek Milton B. Matson ezizena erabiltzen zuen, eta Gatos-en atxilotu zuten (Kalifornia), txeke faltsuak pasatzeagatik (Bérubé, 1979, 9. or.; 2011, 46. or.). Berrogei urte zituen, eta gizontzat hartua izan zen beraren helduaro osoan (Bérubé, 1979, 9. or.; 2011, 47.-48. or.). 1929ko maiatzaren 4an, *The New York Times*ek albiste hau argitaratu zuen: “Woman Lived as Man, Wed to One of Her Sex”. Albistean, Peter Stratford, zeina Beth Rowland-ekin ezkondu eta egon baitzen, gizon gisa agertzen da bere heriotzaren unean, Oakland-en (Kalifornia)<sup>379</sup>.

D’Emilio eta Freedman-ek honela diote: “Although very much construed as a discovery of hidden lesbian lives, the showings of ‘Lesbian Masquerade’ also inspired some of the first explorations of transgender history” (Bérubé, 2011, 41. or.).

Nolanahi ere, sexu-genero ez-bitarreko subjektibitate-gorpuztasunon agerraldiak agerraldi, nahiz haietariko batzuk gaur egun “trans\*” kategorian sartuko genituzkeen, une historiko jakin batean azaleratu eta garatu da kategoria hori, gizarte mota jakin batean edo batzuetan, arraza-, sexu-genero, klase- edo gaitasun-erregimenen konfigurazio berezi batekin eta garapen teknologiko zehatz batekin, Kapitalozeno neoliberalerako teknobiopolitika heteropatriarkal inperialistan.

Atal honen helburua ez da trans\* historia bat edo trans\* mugimenduaren historia bat egitea. Areago, “trans\*” kategoriaren genealogia labur bat egin nahi dugu, eta horrek kontzeptu zabal eta aniztun horretan biltzen diren beste kategoria batzuk aztertzea ere ekarriko du.

---

<sup>379</sup> San Frantziskoko GLBT Historical Society-aren *The Bérubé Papers*. Albiste horrez gainera, Bérubé-ren jatorrizko beste material batzuk kontsultatu ditugu, *The Bérubé Papers* bildumaren bitartez; besteak beste, 1979an *Gay Community News*en argitaraturiko artikulua, edo urte berean *The Centinelen* argitaraturikoa; zenbait eskuizkribu, hala nola “Lesbian Masquerade” eta “Lesbians and Gay Men in Early San Francisco: Notes Toward a Social History of Lesbians and Gay Men in America. San Francisco Gay History Project”, edo konferentziak iragartzeko kartelak eta diapositiba-bildumak.



#### 4.2.1. Trans\* genealogia labur bat

Stryker-ek dioenez, “transgender” terminoa 1990eko hamarkadako trans\* komunitateen hedapenarekin batera agertu zen, transexual, trabesti, drag queen, gay, lesbian, eta abarrez osatua, gorpuztasun-subjektibitate sexu-generikoki ez-normatibo horiek guztiak izendatzeko (2008, 149. or.). Aurretik, 1960ko hamarkadaren bukaeran, Ari Kane-k, Virginia Prince-k eta beste aktibista batzuek antzeko beste termino batzuk erabili zituzten gizonen komunitate trabestietan beren burua izendatzeko eta berek bezala beren burua ez trabesti ez transexualtzat zeukatenak izendatzeko: “transgenderal”, “transgenderist” edo “transgenderism”. Halako terminoek egokitzapen genitalen beharrik gabe genero-rol sozialak etengabe eta iraunkortasunez aldatzeari egiten zioten erreferentzia. Stryker-ek dioen moduan, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, “transgenderist” esaten zitzaaien zakila izanik emakume\* gisa bizi zirenei.

Hoolly Boswell trans\* sinboloaren asmatzaileak aniztasunaren adieran erabili zuen “transgender”<sup>380</sup> hitza *Chrysalis Quarterly* aldizkarian argitaraturiko “The Transgender Alternative” artikuluan. Boswell-ek *cross dressing*aren eta transexualismoaren arteko aukera bideragarri gisa eta androginiaren tradizio zaharrearaino sendo oinarrituriko aukera gisa definitzen du “transgender” terminoa: “The prefix ‘-trans’ means: across, beyond, through, or so as to change. Words like transition, transformation, transparent, transpersonal, transcend –all are relevant to travestism (cross dressing), transgenderism (identifying oneself across gender lines) and transsexualism (realigning biology with dominant gender)” (1991, 29. or.). Kontzeptua argitzeko lehen ahalegin horretan, Boswell-ek esplizituki aipatzen du aniztasuna, eta zera dio: “[W]e are all in transition, in that broad evolutionary sense” (1991, 30. or.)<sup>381</sup>.

“Transgender” nozioa hedatu, eta gaur egun duen indar politikoa erdietsi zuen Leslie Feinberg-ek *Transgender Liberation: A Movement Whose Time Has Come* panfleto ezagunean<sup>382</sup>, zeinean multiplizitate sexu-generikoari egiten baitzaio erreferentzia. Feinberg-ek baietsi zuen *gender outlaws* delakoak izendatzeko moduen ugaritasuna –“gender outlaws”: transvestites, transsexuals, drag queens and drag kings, cross dressers, bull-daggers, stone

---

<sup>380</sup> Galofre eta Missé-ren irizpideari jarraituz (2015, 21. or.), hizkuntza-zorroztasunagatik eta nozioen eta haien esanahien sorrerako eta eboluzioko ezaugarri kultural eta politiko zehatzekiko errespetuagatik, nahiago izan dugu ingelesezko terminoa erabili hala ageri den testuetan, nahiz eta batzuetan euskaratu egin dugun “trans” termino orokorra erabiliz, eta, kategoria espezifikoki aipatu gabe, “trans\*” erabili dugu.

<sup>381</sup> Hala ere, kultura-inposaketak eta genero-arauek inposaturiko koherentzia kritikatzeko eta trans\* subjektibitate-gorpuztasunen existentziaren berri emateko, sexu-genero dikotomia onartzen du: “Many people confuse sex with gender. Sex is biological, whereas gender is psychosocial” (Boswell, 1991, 29. or.). “True selves”en ideia ere aurkitzen dugu Boswell-en testuan (1991, 30. or.).

<sup>382</sup> “Transgender” definitzeko beste ekarpen bat izan zen Sandy Stone-ren “The ‘Empire’ Strikes Back: A Posttranssexual Manifesto” artikulua (1992).

butches, androgynes, diesel dykes or berdache”<sup>383</sup>– ez dela haiek aukeratua, eta aldarrikatzen du beharrezkoa dela harrotasuna adierazteko eta multiplizitate horri ohore egiteko hizkera bat aurkitzea (1992, 5. or.). Autoizendapenerako, autodeterminazio sexu-generikorarako eskubidearen aldarrikapen horretatik, trans komunitatearen agerpena azaltzen du (“transgender community”), zeina bere burua era desberdin batean definitzen duen eta autodefinitzeko eskubidearen alde borrokatzen den askotariko jendeak osatua baita.

Kapitalismo patriarkala eta kolonialismoa kritikatzeko tonu nabarmen sozialista batekin, Feinberg-ek azpimarratzen du kategoria identitarioek izaera politikoa dutela, eta hizkuntza komun baten bila dihardu sufritzen duten zapalkuntzak batzen dituztenentzat (1992, 6. or.).

Ildo horretan, Missé-k dio “trans” edo “transgender” terminoak “transexual” kategoria medikoaren aurreko erantzun politiko gisa sortu direla, kategoria horren arabera modu biologizista eta patologizatzaile batean ulertzen baitira gorputza eta identitatea (2009, 1. or.). 1949an agertu zen lehen aldiz, David Oliver Cauldwell-en “Psychopathia Transsexualis” artikuluan, non transexualitatea patologia gisa definitzen baita<sup>384</sup>.

When an individual who is unfavourably affected psychologically determines to live and appear as a member of the sex to which he or she does not belong, such an individual is what may be called a *psychopathic transsexual*. This means, simply, that one is mentally unhealthy and because of this the person desires to live as a member of the opposite sex. (2001 [1949])

Testu horretan, Cauldwell-ek transexualitatea homosexualismotik eta trabestismotik bereizten du –azken kontzeptu hori Magnus Hirschfeld sexologo eta gayen eskubideen aldeko aktibistak sortu zuen, 1910ean, *Die Transvestiten: eine Untersuchung über den erotischen Verkleidungstrieb* (*The Transvestites: The Erotic Drive to Cross-Dress*) lanean–; izan ere, transexualitatean, esplizituki adierazten da kirurgia eta hormona bidez beste sexu bat izateko nahia. Honi Cauldwell-ek ustezko jokabide “psikopatikoak” eransten dizkio, hala nola sedukzioa, parasitismoa, kode sozialak behin eta berriz urratzea, kleptomania, lapurreta eta beste joera kriminal eta antisozial batzuk. “Transexual” kategoriaren deskribapen honen helburua ez

---

<sup>383</sup> “Bull-dagger” konnotazio peioratiboko termino bat da, lesbiana oso maskulinoei erreferentzia egiten diena, zeinak askotan arrazializatuagoak baitira “diesel dyke” sinonimoaren bitartez izendatzen direnak baino. Indar fisikoarekin eta bikaintasun sexualarekin lotu ohi dira. “Stone butch” lesbiana maskulinoetan maskulinoena da, nahi gabe ere gizontzat har daitekeena, trans\* izan zein ez, edo bere gorputz-atal femeninoekin eroso ez dagoena. Ukiezintasun emozional edo sexuala ere bil dezake. “Berdache” izena konkistatzaileek erabili zuten Ipar Amerikako gizarte natiboetako genero ez-bitarretako gorputzak izendatzeko.

<sup>384</sup> Ohartarazi nahi genuke “transexual” kategoria “Hormonen Aro” izendatu dugun garai historikoan agertu zela, Kapitalozeno neoliberaletako teknobiopolitikaren eta zientziaren bilakaera molekularren garai berean. Garapen kapitalista, teknologiko –kirurgiko eta hormonal– eta zientifiko zehatz hau gabe, zailki azaleratuko zatekeen kategoria hori.

da zalantzan jartzea baliozkoa eta egokia den ala ez, eta are gutxiago norberak nahi duen bezala autodeterminatzeko eta autoizendatzeko duen eskubidea zilegi den ala ez. Helburua terminoaren jatorria agerian jartzea da, eta, orobat, zer substratu medikotatik datorren azaltzea eta haren sorrerako konnotazio eta zama patologizatzailearen berri ematea.

“Transsexual” hitza Harry Benjamin “transsexualismoaren aita”ren lanari esker ezagutarazi zen, 1950ko eta 1960ko hamarkadetan, bereziki *The Transsexual Phenomenon* lanean (1966)<sup>385</sup>. Leah Cahan Schaefer eta Connie Christine Wheeler-ek, zeinak Benjamin-en lankide eta lagun min izan baitziren hamar urtean baino gehiagoan, Benjamin-en lehen hamar “kasuak” bildu zituzten –egozten zaizkion 1.500etik–, 1938tik 1953ra bitarteakoak<sup>386</sup>. Egileok diote “paziente\*” haiek “autodiagnostikatuta” joan zirela Benjamin-engana, bibliografiarik eta aurrekaririk ezean: “[E]ven before the phrase ‘trapped in the wrong body’ was coined” (1995, 75. or.). Benjamin-en *Sex(Gender) Orientation Scale (SOS)* ospetsuaren arabera (1967)<sup>387</sup>, hamar paziente haiek honela sailkatuak izan ziren: benetako trabesti bat; V. eta VI. kategorietako sei transexual; eta IV. kategoriako hiru transexual edo “genuine transsexual who does not require genital reassignment surgery” (Schaefer eta Wheeler, 1995, 76. or.). 1995ean, sailkapen eta kategoria horien balioa berretsi zuten.

Zazpi pazientek hormonazioa jaso zuten; zehazki, Premarin®-en eta progesteronaren ahoko dosiak, eta estrogeno-injekzioak (Enovid®). Haietariko batek testosterona-injekzioak hartu zituen; beste batek, pisua hartzeko hormonak; eta beste batek ez zuen hormonarik hartu. Hamarretatik seik genero-onarpenerako genitaletako operazio kirurgikoak egin zituzten. “Transsexualism and Transvestism—A Symposium” artikuluan, Benjamin-ek “*sindrome psikosomatiko eta somatopsikiko*”tzat hartu zituen trabestismoa eta transexualismoa, eta halako operazioak “kastrazio” eta “zakil-anputazio edo peotomia” izendatu (1954, 228.-229. or.). Schaefer eta Wheeler-ek diote aurrerago ere beste kirurgia batzuk egin zizkietela gorputz haiei, 1945etik 1960ra bitartean (1995, 77. or.). Seigarren pazientea Christine Jorgensen izan zen. Bere 1952ko genero-onarpenerako kirurgia oso zabaldua izan zen AEBn, lehenago azaldu dugun

---

<sup>385</sup> Benjamin-ek “genero-disforia” espezialitate mediko sortu berriaren arloan lan egin zuen bere bizitza profesionaleko azken 30 urteetan, 1948tik 1978ra, eta arlo horretako lan guztiak burutzen zituen, psikiatriakoetatik hormona-banaketaraino (Schaefer eta Wheeler, 1995, 74. or.).

<sup>386</sup> Psikoterapeutak ziren lanbidez; Benjamin-en pazienteekin lan egin zuten, eta, guztira, “genero-disforia”ko 800 paziente artatu zituzten –terminologia hori darabilte haiek–, haietariko asko Benjamin-en paziente izanak. Horretaz gainera, Benjamin-en artxibo mediko guztiak zaintzeko ardura izan dute (Schaefer eta Wheeler, 1995, 74. or.).

<sup>387</sup> Benetako trabestia II. motako trabesti gisa sailkatu zen, intentsitate apal eta zalantzakorekin. SOS agertu aurretik, Benjamin-en “Transvestite I, II, III” izendapenetan –1950aren hasieran–, III. motak “transsexual” esan nahi zuen literalki (Schaefer eta Wheeler, 1995, 83. or.).

bezala<sup>388</sup>.

Schaefer eta Wheeler-ek beren ondorioetan dakarten begirada normaltasun-irizpideetan harrapatuta dago oraindik ere, baina, nolana ere, badago irekitasuneranzko, multiplizitateranzko eta aniztasuneranzko joera bat:

Perhaps we can consider that there is one other answer to the question, "Is it a boy or a girl?" Perhaps on rare occasions, the answer might more accurately be neither, but instead, a rare and beautiful *combination* of boy *and* girl – another color on the gender rainbow... Listening to these early historical voices that inspired the development of a discipline in modern medical science, broadens and expands our considerations of the most basic aspect of the human personality – gender. Compassion and acceptance in creative conjecture of gender mosaics can reward us with enriched understanding and expanded life-choices. (1995, 91. or.)

Benjamin-ek, 1967ko artikuluan, "The transexual Phenomenon", homosexualitatea "sex problem" gisa definitzen du; trabestismoa, "social problem" gisa; eta transexualismoa, "gender problem" gisa (1967, 430. or.). Transexualitatearen gaia oraindik ere eztabaidagarria eta iluna izanik, haren izaera neuroendokrinoa azpimarratzen duten azalpenak dira asebetegarrienak Benjamin-entzat, zeinak "physiologists and psychobiologists such as Seymour Levine, Roger Gorski, and others"-ek garatu baitzituzten; Benjamin-en arabera, esperimentuak egin zituzten animaliekin, eta, hala, ikusi zuten jaio aurretiko hormonekiko esposizioak eragina zuela "hypothalamic brain center controlling sex behavior" delakoaren sexu-garapenean (Benjamin, 1967, 430. or.). Benjamin-i jarraituz, autore haiek ondorioztatu zuten hipotalamoaren erdigunea femeninoa zela fetu guztietan, genetikoki maskulinoak izan zein femeninoak izan. Haien iritziz, badago aldi kritiko bat zeinean burmuineko atal horren maskulinizazioa beren testikulu ñimiñoen eragin hormonal androgenikoaren bitartez gertatzen baita fetu genetikoki maskulinoetan. Interferentziaren bat izanez gero –esate baterako, haurdunak estrogeno ugari izatea edo organo neuronal hartzailearen erantzunik eza–, erdigune hori femeninoa izango da: "[D]etermining the later sexual behavior and possibly causing gender role disorientation" (Benjamin, 1967, 430. or.). Alegia, sexu genitalaren eta burmuineko sexuaren arteko inkoherentzia gisa azaltzen da transexualitatea, eta hori, burmuineko sexuaren osaera bezala, hormonon eraginez gertatzen da<sup>389</sup>. Azalpen horrek, aldaerak aldaera eta ñabardurak ñabardura, gaur eguneraino iraun du;

---

<sup>388</sup> Ikus 1952ko abenduaren 1eko *New York Daily News*en azala.

<sup>389</sup> Benjamin-ek beste faktore batzuk ere aipatu ditu hori azaltzeko, hala nola nahasmendu genetikoak, haurtzaroko kondizioak edo guraso okerrekiko identifikazioa, baina: "[P]erhaps only if a prenatal predisposition exists" (1967, 430. or.). Hortaz, ideia hauek argi daude: transexualitatearen fenomenoak jaio aurretik gertatzen edo sortzen da; jaio aurreko baldintza biologiko batzuk beharrezkoak ditu, eta hormonon eragina gakoak da baldintza horiek sortzeko.

onarpen zabala du, eta “Brain Organization Research” deritzonaren parte da. Deskribapen horretan, garrantzitsuena eta arazotsuena –eta Benjamin-ek honekin bat egiten du– zera da: transexualitatea burmuin- eta hormona-garapen “normal”aren “akats”, “interferentzia” eta “inkongruentzia”tzat hartzen dela.

“Trans” edo “transgender” terminora itzuliz, zeina testuinguru espezifikoki mediko batetik baino gehiago sustrai politiko batetik baitator, hasieratik, bi alderdi nagusi nabarmendu dira: multiplizitatearen erreferentzia eta izaera politikoa. Nolanahi ere, duela gutxi agertu eta hedatu denez, bere esanahiak eraikitzen ari dira oraindik ere. Hala, definizio ugari aurkitu daitezke, eta, batzuetan, definiziook eztabaidak eta liskarrak eragiten dituzte. Stryker-ek zera dio: “[I]t is the movement across a socially imposed boundary away from an unchosen starting place—rather than any particular destination or mode of transition” (2008, 11. or.). Missé-k honela definitzen du “transgeneroa”: “Jaiotzean esleitu zitzaion generoaren aurkakoan bizi den baina gorputza aldatzea beharrezkotzat jotzen ez duen pertsona” (2009, 1. or.)<sup>390</sup>. “Trans”, berriz, termino orokortzat dauka, identitate transexual, trabesti eta transgeneroak biltzen dituen (2009, 1. or.). Ostertag-en aburuz: “[T]ransgender refers to people who have taken hormones as a means of ‘transitioning’ from one gender to another, possibly along with ‘top surgery’ for female-to-males, and to all who claim that identity for themselves” (2016, xi). Bestalde, “transgender” eta “transsexual” terminoak biltzen dituen termino orokortzat hartzen du “trans” (2016, xi).

Oro har, esan dezakegu “trans” terminoa erabiltzen dela batik bat gaur egun eta termino orokortzat hartzen dela subjektibitate-gorputzasunen multiplizitatea biltzeko.

#### 4.2.2. Irekitasun eta korapilatze izartsuak<sup>391</sup>

Beraz, subjektibitate-gorputzasunen multiplizitatea izendatzeko, “transgender” terminotik “trans” terminora iragan da, eta, berrikiago, “trans\*” erabiltzen hasi da. Avery Tompkins-ek dio iragate hori erregularra bihurtu dela eta izartxoaren bidez trans\* identitatearen irekitasun handiagoa islatzea lortu dela 2010etik aurrera (2014, 26. or.).

Izartxoaren genealogiari dagokionez, Mauro Cabral-en *Interdicciones* lanera jo genezake; berak Argentinako intersexualen testuingurutik abiatuta azaltzen du haren erabilera,

---

<sup>390</sup> Jatorrizko testua: “Aquella persona que vive en el género contrario al que le fue asignado al nacer pero no considera necesaria una modificación del cuerpo”.

<sup>391</sup> Eskerrak eman nahi dizkiot nire lagun Brooke Lober-i, bestek beste kategoria identitario eta politikoei buruz, “emakume\*-trans\*”, adibidez, elkarrekin egin dugun lanagatik.

eta, ordezkotzat baino gehiago, laguntzailatzat hartzen du kasu honetan<sup>392</sup>. Poetikoki kontatzen duenez, nahiago du izartxoak erabili maskulino generikoa, maskulinoa eta femeninoa batera, biok “e”-rekin batera edo “x” erabili baino, ez duelako hizkuntza bitan edo hirutan zatitzen; ezta hizkuntza batekin biderkatzen ere, eta ez delako zirrimarratze, zirriborratze edo ezabatze gisa irakurtzen ere. Zera gehitzen du: “Ez delako ahoskatzen, [e]saldia lerrotik aterarazten duelako, [a]rmiarma-sare bat delako, zulo bat, izar bat” (2009, 14. or.)<sup>393</sup>. Izartxoaren balioa eta erakargarritasuna, Cabral-en ustez, homogeneousazioa eta unibertsalismoak saihestetik dator, denek ez baitute beti erabiltzen denetarako. Bakoitzak nahi duen eta ahal duen bezala idazten du. Eta, batez ere, inoiz ez da inposatzen.

Asteriskoaren erabilera 2018an eta 2019an mundu osoan egin zen greba feministaren testuinguruan ere topatzen dugu. Zaintza-greba izan zen batik bat, baina baita bestelako lan-, kontsumo- eta ikasleen greba ere, eta sexu-generoa eta sexualitateaz gain, klase eta arraza osagai garrantzitsua izan zuen –hori izan zen, behintzat, asmoa–. Euskal Herriko greba feministako subjektua “emakumeak\*” izan zen. 2018ko manifestuan, deialdi esplizitua egin zitzaion emakume\*, lesbiana, trans\* eta migratzaileei, grebarekin bat egin zezaten, eta honela azaldu zen “emakumeak\*” kategoriaren erabilera: “Emakume\* izendapena erabiliko dugu, martxoaren 8ko greba feministan artikulazio politikorako baliagarria delakoan, nahiz eta genero sistema bitarraz gaindi askotariko gorputz, ibilbide, bizipen, ahalmen eta identitateak bagaren (bollerak, transak...)” (Euskal Herriko Greba Feminista, 2018).

Hala, greban antolatu, batu eta borrokatu ziren teknogorputzasun-subjektibitateen multiplizitatea eta aliantzak “emakumeak\*” kategoriaren bidez eta kategorian adierazten eta kondentsatzen dira, berau gainditzen eta gainezkatzen duten bitartean, hedabideetako, plataformetako, agerkari digitaletako, prentsa idatziko, panfletoetako, karteletako eta pankartetako agerpen askotarikoetan.

Erdigunea “lesbiana” kategorian ezartzen duen arren, Judith Butler-ek kategoria identitarioen izaera arazotsua aipatzen du:

I’m permanently troubled by identity categories, consider them to be invariable stumbling-blocks, and understand them, even promote them, as sites of necessary trouble. In fact, if the category were to offer no trouble, it would cease to be interesting to me: it is precisely the *pleasure* produced by the instability of those categories ... that make me a candidate for the category to begin with.

---

<sup>392</sup> Genealogia honen beste geltoki batzuk: *Trans\*exualidades. Acompañamiento, factores de salud y recursos educativos* (Platero, 2014); “Una genealogía trans\*. Siglo XX” (Platero eta Rosón, 2017).

<sup>393</sup> Jatorrizko testua: “Porque no se pronuncia, [p]orque hace saltar la frase fuera del reglón, [p]orque es una tela de araña, un agujero, una estrella”.

...

How do I relate the paradoxical situation of this dependency and refusal? (1993b, 308. or.)

Kontziente izanik kategorien botere sahiestezin murriztatzaileaz eta aldi berean beharrezkoak direla gaur egun bai maila politikoan bai maila identitarioan, izartxoa erabiltzea emankorra eta gozagarria izan daiteke, ez hizkuntzaren botere murriztailea neutralizatzeko, baina bai beharbada hari iskin egiteko, grafikoki eta noizbehinka izan arren, bi ezaugarriren bitartez: batetik, multiplizitatea ikusgai eginez, beti egongo baita kategoriaz harago. Izartxoa pluralaz harago agertzen da –pluralak biderkatu eta pluraltasuna ikusgai egiten du–, multiplizitatea eta anizkoitzaren desberdintasunak ikusgai egiteko beste modu bat bezala<sup>394</sup>. Bigarren elementua aliantzak eta senidetasunak sortzea da. Izartxoaren tentakularitateak aliantzak, elkartzeak eta senidetzeak iradokitzen ditu.

Izartxoa kategoria identitarioen problematizitatetik eta egonkortasun ezetik azaleraturiko zeinu bat da. Kategoria irekitzen du, gainditzen, gainezkatzen. Finkatze nominalaz kanpo dagoena hartzen du kontuan eta egiten du ikusgai. Izartxoak gehiago esaten du hura daraman hitzak baino. Izartxoak adierazten duen multiplizitate eta erlazonaltasun mugaezinaren oihartzuna dakarte Eva Hayward eta Jami Weinstein-ek ere:

Trans\* is meant, in part, to break open the category of transgender, transwoman, or transman. It is recognized as “an effort” (...which is perhaps also affective) to include all noncisgender identities... The multipointed asterisk is fingery; it both points and touches. If trans was not understood, in at least one of its modes, as “always already” relational... then the \* repurposes, displaces, renames, replicates, and intensifies terms, adding yet more texture, increased vitalization. (2015, 198. or.)

Izartxoa goian dago; gidari gisa funtzionatzen du, adierazten baitu lehenbizi multiplizitatea dagoela eta ondoren sailkapena eta kategorizazioa. Izartxoak dei egiten du, besarkatzen du, eta trantsitibotasunak, alboko senidetasunak eta topaketa horizontalak sortzen ditu. Kategoria baten edo zenbaiten bidez adierazitako gorpuztasun-subjektibitate anitzkoitzen arteko aliantzak sustatzen ditu. Aldez aurretik ezagutzeko eta finkatzeko ezintasuna enfatizatuz, Halberstam-ek izartxoaren indarra zabaltzen du, zenbait absentsia baitakartza:

[F]inal form, a specific shape, or an established configuration of desire and identity. The asterisk... keeps at bay any sense of knowing in advance what the meaning of this or that gender variant

---

<sup>394</sup> Annemarie Mol-ek dioenez, pluraltasuna eta multiplizitatea ez dira gauza bera. Bigarrenak desberdintasuna dakar berekin; lehenak, berriz, gauza beraren errepikapena, ikuspegi desberdinen bitartez bada ere (1999, 76. or.).

form might be ... trans\* can be a name for expansive forms of difference ... uncertain modes of being, and the disaggregation of identity politics predicated upon the separating out of many kinds of experience that actually blend together, intersect and mix. (2018, 4.-5. or.)

“Trans\*” izendapenaren kasuan, izartxoaren grafiak ikusgai egiten du kategoría anizkoitz eta erlazional gisa ulertzea, dimentsio, teknogorputzasun-subjektibitate, kategoría, estrategia, aliantza, geografia, forma, geometria, testuinguru, sentipen, desesitate, pentsaera eta ikusmoldeen multiplizitateak osatua, koeraturua eta performatua, horiek guztiak ez baitira identifikatzen erregimen sexu-generiko bitar batean jaiotzean esleitu zitzaizen sexu-generoarekin eta/edo kategoría horrekin identifikatzen baitira, hormonak hartuta edo hartu gabe, kirurgiak eginda edo egin gabe. Multiplizitateari eman diogun garrantzitik, hemen izartxoa beste proposamen *bat* bezala ikusten da. Definizio itxi eta unibokoak baino interesgarriago deritzogu multiplizitate ez-hierarkikoak kontuan hartzen saiatzen diren kategoría irekiak baliatzeari<sup>395</sup>.

Multiplizitatearen eta homogeneousaren normatiboaren arteko liskarrek lur emankorra bilatzen dute hizkuntzan. Hizkuntzak ondorio semiotiko-material garrantzitsuak dakartzan arren –aski da generoaren performatibitatea adibide gisa hartzea–, hizkuntzak bakarrik ez ditu teknogorputzak eta subjektibitateak askatzen arraza-, sexu-genero edo gaitasun-zapalkuntzarako egitura ekonomiko eta materialetatik, baina, Haraway-k honela dio: “It matters what thoughts think thoughts. It matters what knowledges know knowledges. It matters what relations relate relations. It matter what stories tell stories” (2016a, 35. or.). Axola du eta berebiziko garrantzia dauka zer terminok izendatzen eta performatzen dituzten gorputz eta identitateak, zer hizkuntzak eta diskurtsok koeraten dituzten gorputzasun-subjektibitateak. Izartxoak antidoto gisa funtzionatzen du ikuspegi naturalizataile eta esentzialisten aurka. “Trans\*” hitza irakurtzen dugun aldiro, izartxoa aldean duela, gure begiradak ezinbestean topo egiten du izar-formako

---

<sup>395</sup> Kontraesana irudi lezake, Doktorego-tesi honetan kapitulu oso bat eman baitugu teknogorputzaren kontzeptua definitzen eta defendatzen, eta beste kontzeptu batzuetatik xeheki bereizten. Hala eta guztiz ere, uzteko kontraesan hori baliogabetuko luketen hiru arrazoi emango ditugu. “Teknogorputz”aren proposamenaren xedea gorputzen konfigurazio jakin baten berri ematea da, gaur egungo eraketa-elementu eta eratzeke modu jakin batzuen berri ematea. Egon litezke beste kategoría egoki edo are egokiago batzuk ere, Doktorego-tesi honen azpian dagoen pentsamoldea multiplizitatearen aldekoa eta multiplizitatean oinarritua den aldetik. Hori kontuan hartuta, argudiatu dugu zergatik den “teknogorputz” kontzeptua egokia gaur egungo prozesu politiko, zientifiko eta gorputz jakin batzuetara hurbiltzeko, eta zergatik, auzi hauei dagokienez, beste batzuk ez diren gure uestez hain egokiak. Kontzeptu baten egokitasunaren alde argudiatzea ez da nahasi behar hierarkia politiko-ontologikoak sortzearekin. Modu honetan, “teknogorputz”az eman dugun definizioan, halakotzat hartu dugu gorputz multiplizitate bat, ikuspegi ez-antropozentriko eta ez-espezista batetik. Azkenik, giza teknogorputzez denaz bezainbatean, identitate-autodeterminazioaren eskubidearen alde gaude, eta horrek definizioaren edo kategoriaren esanahiaren atea zabalik uzten du nahitaez, eta enuntziarioaren esparrua lekualdatzen. Ez dugu besteok erabaki behar nor den transa\* edo emakumea\* eta nor ez. Beste kontu bat da irekitasun hori erabatekoa izatea (adarkar bat naizela esateak ere ez nau adarkar bilakatzen).



multiplizitatearekin. Izartxoak munduak irekitzen eta senidetzen ditu izenetan, hori ez baitator emana, *besteekin-ekitearen, egitearen* bitartez azaleratzen baita.

### **4.3. Gizarteko kolektiboek determinismo (biologiko)aren *egiak* erreproduzitzen dituztenean**

Fausto-Sterling-ek tesi nagusi hau plazaratu zuen *Sexing the Body. Gender Politics and the Construction of Sexuality* lanean:

[T]ruths about human sexuality created by scholars in general and by biologists in particular are one component of political, social, and moral struggles about our cultures and economies. At the same time, components of our political, social, and moral struggles become, quite literally, embodied, incorporated into our very physiological being. (2000, 5. or.)

Idea horri jarraituz, bi adibide analizatuko ditugu, erakusten dutenak nola txertatu diren zientziak giza sexualitateaz sorturiko egiak ikuspegi sexu-generikoan eta nola erreproduzitzen dituzten egiok kolektibo sozialek, nahiz eta haien helburu itxuraz eta/edo espresuki emantzipatzaile eta solidarioen aurkakoak izan. Hurrengo atalean, xeheago aztertuko dugu Fausto-Sterling-en tesiaren bigarren zatia.

Lehendabiziko adibidea “genero-identitatea ez da aukeratzen” esaldian datza, *El Intermedio* programak trans\* kolektiboa babesteko eta HazteOir elkarte ultrakatolikoaren kanpaina transfobikoari aurre egiteko atera zuen autobusean agertua. Elkarte horrek autobus laranja bat erabilia zuen bere kanpainarako; 2017ko martxoan, Espainiako estatuko zenbait hiritan barrena ibili zen, lelo iraingarri, baztertzaila eta diskriminatzaileak zabaltzeko. Hona leloetako bat: “Mutikoez zakila dute. Neskatoek bulba dute. Ez zaitzatela engaina. Gizon jaiotzen bazara, gizona zara. Emakumea bazara, hala izaten segituko duzu”<sup>396</sup>. Agindu judizialak, atxikitzeak eta isunak<sup>397</sup> izan zituzten, eta hara-hona ibili ziren AEBko ekialdeko kostaldean; azkenean, urte bereko ekainean, berriz zirkulatzea lortu zuten, honelako leloekin: “Biologiak dio:

---

<sup>396</sup> Jatorrizko testua: “Los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva. Que no te engañen. Si naces hombre, eres hombre. Si eres mujer, seguirás siéndolo”.

<sup>397</sup> Madrilen egon eta zenbait ibilgailu eta lelo erabili eta gero, Bartzelonara iristen saiatu ziren; Iruñera errotulaziorik gabe iritsi zen autobusa, non LGTBIQ erresistentzia eta mobilizazio indartsua topatu baitzituen (eldiario.es, 2017; *Naiz*, 2017).

mutikoez zakila dute. Neskatoek bulba dute. Genero-doktrinamenduari ez<sup>398</sup>. Deigarria da erakunde ultrakatoliko batek zientziaren autoritate epistemikoa aipatzea –kasu honetan, biologiarena– *doktrinamendua* salatzen; generoarena, kasu honetan.

Ekintza eta haren helburuak laudagarriak izan arren, are eraginkorrak ere, genero-identitatea aukeratzen ez delako ideiak ondorio arazotsuak dakartza, zalantzan geratzen baita ea bateragarria den autodeterminazio sexu-generikoaren defentsarekin, sexu-multiplizitatearekin eta bazterkeriarik edo diskriminaziorik ezarekin. Izan ere, ondorioetako bat izango litzateke identitate sexu-generikoaren izaera natural, esentzial eta jaiotzetikoa, teorizazio feministaren parte handi bat eraisten saiatu den ideia. Ideia horren sorkuntzak, lehen eta bigarren kapituluan azaldu dugun bezala, Ilustraziora eta haren ondoko mendera eramango gintuzke; garai hartan, berezko *egiak* erabiltzen ziren *egia* transzendentalak legitimatzeko –kasu honetan, genero-hierarkia–, eta halaber garai hartakoak dira sexuaren sorkuntza –aurkikuntza baino–, entitate biologiko gisa eta sexu-dimorfismoa (Laqueur, 1990, 149.-156. or.)<sup>399</sup>. Esentzialismoaren eta naturalismoaren arrasto hori nabaria da, esate baterako, Stryker-en ikuspegiari:

[O]ur sense of being a man or a woman or something that resists those terms—really is a very idiosyncratic *personal matter*. It is something prior to, or underlying, our political actions in the world and not in itself a reflection of our political beliefs. Nontransgender people, after all, think of themselves as having a gender, or being a gender, and nobody asks them to defend the political correctness of their “choice”... or thinks that their having a sense of being gendered somehow compromises or invalidates their other values and commitments. Being transgendered is like being gay—*some people are just “that way,”* though most people aren’t. (2008, 14. or.; geuk nabarmendua)

Baina, eskusiboki pertsonala den horretatik harago, identitate eta kategoria sexu-generikoak eraikuntza sozialak dira, hots, historizitatearekin loturik daude, eta testuinguru

---

<sup>398</sup> Fiskaltzak 2017ko irailean artxibatu zuen salaketa, adierazpen-askatasunerako eskubidea eta gorrotozko deliturik eza alegatuz; horren ondotik, LGTBIQ+-en aurkako autobusak honelako mezuak zabaldu zituen: “Podemos eta haren LGTBI Mozal Legea: zure seme-alabak atxikitzen doaz!”. Jatorrizko testua: “Lo dice la biología: los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva. No al adoctrinamiento de género”.

<sup>399</sup> Ez dugu aditzera eman nahi Ilustrazio deritzona mugimendu homogeneo bat izan zenik, ezta ikuspegi hori guztiz nagusitu zenik edo prozesu azkar eta aldibereko bat izan zenik ere. Laqueur-ek dioenari jarraituz, erregimen sexu-generikoari dagokionez baziren ikuspegi desberdinak eta askotarikoak, are kontraesankorrak ere, eta haietariko batzuek eredu monosexuala berresten zuten. John Stuart Mill-ek, adibidez, *The Subjection of Women* liburuaren hirugarren kapituluan (1869), gizon eta emakumeen\* arteko gizarte-desberdintasunak justifikatzeko erabiltzen zen nozioa kritikatu zuen, burmuineko desberdintasun anatomikoetan oinarritzen baitzen, hau da, emakumeek\* gizonen baino burmuin txikiagoa dutela (1879, 120.-121. or.). Bestalde, desberdintasun estatiko hipotetikoaren (burmuinaren tamaina edo pisua) eta zenbait funtzio edo gaitasunen arteko ustezko lotura kausala problematizatu zuen, eta jarduerari garrantzia eman (1879, 121. or.). Mill-ek nortasunaren determinazio kausal askotarikoa defendatu zuen, faktore sozial zein fisiologikoak kontuan hartuz. Horra burmuinaren sexu-dimorfismoaren bertsio “zahar” bat, Mill-ek problematizatu. Eskerrak eman nahi dizkiot Agustin Arrieta Urtizbereari testu-trukeagatik eta Mill-en kritika hori gogorarazteagatik. Ikus Arrieta Urtizberea (2019, 237.-254. or.).

sozialaren arabera aldatzen eta bestelakotzen dira. Norbera une historiko jakin batean gizarte jakin batean eskura dituen kategoriekin identifikatzen da, edo, bestela, berriak sortzen ditu, kolektiboki, ekintza subertsibo eta sortzaileen bitartez. Horren harira, zera diote Galofre eta Missé-k:

[T]rans auziaren gaineko imaginario kolektiboa zabalduz, trans pertsonak beren bizi-ibilbideak marrazteko egiten dituzten buru-mapak ere zabaltzen ditugu (...) zenbat eta gorputz gehiago posible, bizigarri eta desiragarri izan, orduan eta txikiagoa izango da pertsona askok gorputzok aldatzeko daukaten premia erradikala (...) bada esaten duenik gizakiak berezkoa duela transexualitatea eta haren ingurunean ez dagoela ezer bizipen hori aldatuko duenik. Guk, aldiz, uste dugu gure kulturaren gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak, rolak (...) eta genero-desparekotasunak ulertzeko modua elementu gakoak dela trans bizipenerako (...) agertoki hori eraldatzen badugu, transaren bizimodua eta pentsamoldea ere aldatuko ditugu. (2015, 27. or.)<sup>400</sup>

Norberaren sentipen edo zentzu hori, Stryker-ek aipatua, ekintza politikoaren *ostekoa* da, baita identitatea aukeratzeko ekintza politiko kontzienterik egiten ez duenaren kasuan ere; izan ere, sentipen hori adierazteko aukeratzen dituen kategoriak, denak ere sentipen horren aurrekoak, halaber politikoak dira, askotariko ekintza politiko ugariaren emaitzak. Sentipen horrek garrantzi handiagoa hartzen du norberaren bizi- eta existentzia-posibilitateak sentipen hori aldarrikatzearen menpe daudenean. Ildo horretan, “it is essential to acknowledge... how each of us experiences and understands our gender identity” (Stryker, 2008, 14. or.); alegia, gure kontakizun eta teoria sexu-generikoei gai izan behar dute kontuan hartzeko badirela kategoria identitarioen eta bilakaera identitarioaren erabileran mugikortasun txikia edo ia ezdeusa adierazten duten esperientziak, bizikizunak eta ikuspegiak ere<sup>401</sup>.

Baina identitate sexu-generizatuak ez dira aldatzen testuinguru historiko eta sozialaren arabera bakarrik, teknogorputzasun-subjektibitateen bizitzan zehar ere aldatzen baitira. Fausto-Sterling-ek (2000, 25.-27. or.; 2012a, 119.-120. or.), eta Ah-King eta Nilyn-ek (2010) eta Ah-King eta Hayward-ek (2014) diote, azken hauek oro har animalia-teknogorputzez ari direla,

---

<sup>400</sup> Jatorrizko testua: “[A]mpliando el imaginario colectivo sobre la cuestión trans, también ampliamos los mapas mentales que las personas trans trazan para dibujar sus trayectorias vitales (...) cuantos más cuerpos sean posibles, habitables y deseables, menor será la necesidad radical de modificarlos que sienten muchas personas (...) hay quien sostiene que la transexualidad es algo intrínseco al ser humano y que nada en su entorno podrá modificar esa vivencia. Nosotros pensamos que, al contrario, la forma en la que nuestra cultura entiende las diferencias entre hombres y mujeres, los roles y (...) las desigualdades de género, son elementos claves para la vivencia trans (...) si transformamos ese escenario, alteraremos también la forma de vivir y de pensar lo trans”.

<sup>401</sup> Bonnie Morris historialari lesbiana (jakinarazpen pertsonala, 2017ko abenduaren 7an), adibidez, “ez dago ados sexualitate oro jariakorra delako argudioarekin”, eta kontatzen du nola 5 urte zituenean amodiozko gutun bat idatzi zion bere haurtzainari. Hala eta guztiz ere, halako kasuetan ere, aldaketa fisiologiko eta arau sexu-generikoen aldaketa ugari gertatzen dira, guztiak ere adinaren araberrakoak, adinarekin gurutzatuak, adinarekin eta adinaren arabera barneratuak, eta abar.

eboluzioaren historian zehar ere sexua eta sexualitatea fluxu- eta materializazio-prozesu kontingente eta aldakorak direla, ingurunera irekiak, eta prozesu horietan askotariko elementuek parte hartzen dutela; besteak beste, ingurumen-toxikotasunak. Gorputza eta portaera garapen-sistema interkonektatu konplexu baten parte dira, arlo zelularretik hasi eta arlo sozial eta historikoraino (Fausto-Sterling, 2000, 29. or.). Kategoriak, gainera, irekiak eta irazkorak dira, eta elkarrekin korapilatzen eta gurutzatzen dira. Hori dela eta, pertsona bat kategoria batean baino gehiagotan bizi daiteke bizitzan zehar, are une berean ere; kategoriaz alda daiteke, intentsitate eta maiztasun desberdinekin, aldaketa- edo egonkortze-aldiak txandakatuta.

Kategoria sexu-generikoen izaera sozialak berekin dakar *El Intermedioren* autobuseko ideiarekin bigarren ondorio arazotsuaren eztabaida: identitate sexu-generikoaren izaera eskusiboki indibidual, pertsonal eta pribatua. Feinberg-ek, genero-arauak sozial eta aldakor gisa deskribatu arren, norberaren *autoadierazpen* gisa ere definitzen du generoa, hura bere dimentsio indibidualera murriztuz: “Gender: self-expression; not anatomy” (1992, 5. or.). Generoa anatomiatik bereizi eta hartara genero-koherentzia deseraikitzean, nahiz eta continuumaren ideia baietsi, barne-egia gisa aldarrikatzen du generoa. “Egiazko nia” “transgender” terminoari loturik egon da hasieratik Boswell-en definizioan (1991, 30. or.). Hala eta guztiz ere, gure ustez, garai hartan aintzat hartzen ez ziren existentzia, sentipen, pentsamendu eta teknogorputzasun-subjektibitate horiek guztiak kontuan hartzeko behar premiazko eta ezinbestekoari zor zaio generoaren dimentsio indibidualari gehiegizko garrantzia ematea eta halako hizkuntza erabiltzea. Horrenbestez, alde zuzenetik pentsatu eta nahita egindako zerbait baino gehiago, baliteke halako gehiegikeriak zapalkuntzaren, ikusezintasunaren, ukapenaren eta bazterkeriaren aurrean nor bere burua baiesteko eta determinatzeko beharraren ondorio izatea.

Dena den, Preciado-k zera dio: “[E]z dago generorik (...) jendaurrean baino, hau da, izaera kolektiboko eraikuntza somato-diskurtsibo gisa” (2008, 91. or.)<sup>402</sup>. Hortik teknogorputz garen heinean gure ulergarritasuna eta onarpen soziala jokoan jartzea genero-arauen bitartez. Sexu-generoa bi norabidekoa da, edo, hobeki esanda, norabide eta dimentsio askokoa, eta dimentsio horietakoren bat ukatzeak mina eta zapalkuntza dakartza. Har dezagun “John/Joan” bikien kasu ospetsua. Haren bitartez, plastikotasun sexu-generikoaren teoria frogatu nahi izan zuen Money-k<sup>403</sup>, haietako bati zirkunzizio bat egin eta zakila suntsitua ziotela baliatuz.

---

<sup>402</sup> Jatorrizko testua: “[N]o hay género (...) más que frente a un público, es decir, como construcción somato-discursiva de carácter colectivo”.

<sup>403</sup> Money-k zioen generoa modu aske batean esleiri daitekeela 2 urteak arte; horretarako elementu nuklearra esleipen- eta zaintza-sexua zen, zeina berreraikitze genitalaren bideragarritasun teknologikoaren mende baitzegoen nagusiki eta gorputzeko edozein osagai sexuatu baino fidagarriagoa baitzen. Generoa, sexu psikologiko gisa ulertuta, morfologia genitalarekin, berreraikitze teknologikoarekin eta hazkuntzarekin loturiko kontu bat zen.

Orkidektomia bat egin, estrogenu-tratamendu bat eman, eta Brenda izena eman zioten (Colapinto, 2006, 53. or.). David-ek ez zuen inoiz onartu sexu-genero femeninoa, eta, 14 urterekin, depresio bat izan eta gero, bere rol maskulinora itzultzea erabaki zuen (2006, 181. or.). 1980an, esleipena lehengoratzeko tratamendu bat hartu zuen: testosterona-injekzioak, mastektomia bikoitz bat eta bi faloplastia-operazio (2006, 183. or.). David Reimer-ek oinazealdi fisiologiko eta bital bat sufritu zuen, eta, azkenean, bere buruaz beste egin zuen, 2004an (Colapinto, 2006, 10. or., eranskina)<sup>404</sup>. Kasu horrek agerian uzten du ikuspegi identitarioak ezin daitezkeela guztiz konstruktibista izan.

Bai teoria biologizisten erredukzionismoaren eta determinismoaren, bai teoria guztiz konstruktibisten ukoaren eta inposaketaren (arestiko kasuan bezala) alternatiba gisa, multiplizitatea modu ez-hierarkiko eta ez-zapaltzaile batean kontuan hartzeko –eta, hartara, mina eta injustizia saihestu eta zorientasuna areagotze bidean–, sexu-generoaren eta sexualitatearen multidimentsionalitate erlazionala aintzat hartzeko gai diren teoriak formulatu behar ditugu, nagusiki erlazional gisa agertzen baita. Ildo horretan, zera dio Heyes-ek: “Although gender is often experienced as a deeply authentic aspect of the individual self, many theorists have persuasively argued that gender identities must be understood as *relationally* formed” (2003, 1094. or.). Proposamen erlazionalak defenditzen dituzten egileen artean, lehen eta bigarren kapituluetan azaldu dugun bezala, Fausto-Sterling (2003, 123. or.) eta Haraway daude, biak ere barne-ni aldaezinaren ideiarekin aurkakoak, baita hauen aurkakoak ere: “binary dualisms, and both relativisms and universalisms of many flavors, contribut[ing] a rich array of approaches to emergence, process, historicity, difference, specificity, co-habitation, co-constitution, and contingency... Subjects, objects, kinds, races, especies, genres, and genders are the products of their relating” (Haraway, 2003, 6.-7. or.). Haiekin batera, postulatu dugu desberdintasun sexu-generikoak, arrazazkoak, gaitasunezkoak, edo klaseari eta sexualitateari dagozkionak elementu organiko-teknologiko-diskurtsibo-materialen arteko koeraketa-harremanen efektuak direla.

Bigarren adibidean, Fausto-Sterling-en tesiari jarraituz, ikusten da nola zientziak giza sexualitatearen inguruan sorturiko egiak ikusmolde sexu-generikoan txertatzen diren eta kolektibo sozialek erreproduzitzen dituzten, batzuetan, beren helburu emantzipatzaile eta solidarioak mugatu edo oztopatu arren, Chrysallis adin txikiko transen\* familien elkarteari kasuan bezala, zeina kolektibo aitzindaria baita eta lan laudagarria eta miresgarria egiten baitu trans\* haurren eskubideen, duintasunaren eta zorientasunaren alde. Bada, 2017an, Chrysallis

---

<sup>404</sup> Bi urte lehenago, gauza bera egin zuen haren anaia Brian Reimer-ek.

Euskal Herria elkarteak<sup>405</sup> “Badaude zakila duten neskak eta bulba duten mutilak” izenburuko esku-orri bat banatu zuen, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultatean, eta zera irakur daiteke:

Guztiok ditugu sexu bien ezaugarriak. Ohikoena ez bada ere, garuneko sexuazioak alde batera egin dezake eta genitalen sexuazioak bestera. Hori da, hain zuzen ere, zakila duten nesken eta bulba duten mutilen kasua.

(...) Badakigu jakin gizon edo emakume garela, mutil edo neska, eta ez genitalengatik preseski. Identitatea ez dago hankartean, buruan baizik. Badaude, egiazki, zantzu zientifikoak ondorioztatzeko identitatea estria terminalis izeneko nukleo linbiko batean egon daitekeela, jaio baino lehen ezarrita gelditzen dena. (Chrysallis, 2017)

Pasarte horretan badira zenbait ideia oso arazotsuak direnak eta determinismo biologikoaren postulatu nagusiak erreproduzitzen dituztenak: burmuinaren sexuazioaren nozioa; burmuineko sexu-dimorfismoa; burmuinaren sexuazioa edo identitate sexu-generikoa jaio aurretik determinatzen eta finkatzen delako ideia; eta, zehatzago, identitate sexu-generikoa “ildaska terminaleko nukleo linbikoa” deritzon eremuan egon daitekeelako edo dagoelako nozioa. Aurreko adibidean adierazi dugunez, horren ondorioa da ez dagoela inongo zati, dimentsio eta aderdirik –ez bereziak, baizik eta modu banaezinean lotuak– agentziari edo hautuari, kontingentzia ebolutiboari eta historiko-sozialari dagokionik, eta, horrenbestez, gorputzen arteko eta gorputzen eta ingurunearen arteko interakzioaren eraginez aldatu eta eralda daitekeenik<sup>406</sup>. Butler-ek *zer da sexua?* galdetzen duen modu berean (1990, 6.-7. or.), hemen, hauxe da galdera: *Non dago sexu-(genero)a?*

Missé-k eta Fernández-ek *Transitional Statesen* markoan ikus-entzunezko pilula txiki batzuk trukatzuz izandako elkarrizketan<sup>407</sup>, Missé-k Chrysallis-en autobus arrosa erakusten dio Fernández-i –HazteOír-en autobusaren aurrean sorturiko beste erantzun bat izan zen–, eta zera irakurtzen da: “Badira neska zakildunak eta badira mutil bulbadunak. Zer axola du? Generoa

---

<sup>405</sup> Chrysallis Euskal Herriak, Espainiako estatuko Chrysallis elkartetik atera, eta bere kolektibo propioa sortu zuen, “Naizen. Adingabe Transexualen Familien Elkarte”, zeina 2019ko urtarrilaren 26an aurkeztu baitzuten jendaurrean. 2019an, beste zatiketa bat gertatu zen Chrysallisen barnean, eta hala sortu zen “Euforia. Familias Trans-Aliadas” estatu-mailako kolektiboa.

<sup>406</sup> Chrysallis kolektibo zabal eta askotarikoa da. Ez gara ari esaten kolektiboko kide guztiak ados daudenik diskurtso horrekin, baina bai kolektiboak onesten eta zabalitzen duela adierazpen publiko ofizial batzuetan. Missé-k ere aipatu du Chrysallis-ek determinismo biologikoa baliatu izan duela jendaurrean transexualitatea justifikatzeko eta azaltzeko (2018).

<sup>407</sup> Elkarrizketa hori UPV/EHUko 2017ko maiatzean Filosofiako Mintegi Irekian analisi hau aurkeztu ondokoa da.

burmuinean dago, ez genitaletan” (2018)<sup>408</sup>. Fernández-ek kritika positiboa egiten du kolektiboari buruz, mezu aldarrikatzaile eta aldi berean gizarte gehienak ulertzeko modukoa sortzeko gai izateagatik, are haurrek ulertzeko modukoa ere, eta nabarmentzen du ere hartzen ditugun erabakiak zuzenak direlakoaren berme edo ziurtasun gisa aukeratzen ditugun tokien lekualdaketa gertatu dela kasu honetan (2018). Hori ulergarria izan liteke, Chrysallis-ek aldaketa sozial esanguratsuak transfobia-testuinguru batean ekartzeko duen beharra ikusita. Problematizitatea, aldiz, beste kontu batzuen artean, transexualitatea eta, orokorrago, trans\* identitateak zer diren azaltzeko diskurtso horrek sozialki hartu duen hegemonia da.

Ostertag-en (2016) eta Jordan-Young-en (2010) ildotik, Missé-k Fernández-ekiko elkarrizketan dio konstrukzionismoak tokia libre utzi zuela diskurtso biologizistei, eta, are, gaur egun, determinismo biologikoa kritikatzeko duten diskurtsoak gaizki ikusiak direla eta trans\*aren edo aniztasunaren aurkakotzat hartzen direla (2018). Sexu-generoaren jatorri edo *locus* hormogenikoa genitaletatik burmuinera aldatzeak ez du esan nahi diskurtso biologizista eta deterministarik egiten ez denik. Sexu-generoa izaera biologikoko leku batean kokatzen da. Halako diskurtso biologizisten problematizitatea inkoherentziaz, akatsaz, interferentziaz, arazoaz eta/edo anomaliaz hitz egitea da, eta hori lur emankorregia da biologiarri helduz gizarte-hierarkiak justifikatu nahi dituztenentzat. Beharbada, biologia ez da beti eta une oro tokirik egokiena kolektiboki sostengatzeko. Beharbada, multiplizitatea besarkatzen duten helburu emantzipatzaileak izanik, erlazonaltasun multidimentsional organiko-teknologiko-diskurtsibo-materialetik sexu-generoaren alderdi biologikoak ere kontuan hartzeko gai diren diskurtsoak landu behar genituzke. Elkarloturiko dimentsioen multiplizitatea kontuan hartzen duen ikuspegi sexu-generiko koeratzailetatik abiatzeak zientziaren parte hartzea dakar, baina horrek ez du esan nahi azalpenak diskurtso zientifikora *murritz* behar direnik, ezta azken autoritatea eta justifikazioa zientziari dagozkionik ere.

Missé-k Fernández-ekiko elkarrizketan iradokitzen du gaiari heldu eta kolektiboki elkarri galdetu beharko geniokeela zein den transexualitatearen jatorria, eta horrek utopiez eta beste mundu posible eta bizigarri batzuek hitz egitea dakarrela (2018). Benjamin-ek, aldiz, transexualitatearen jatorriari buruzko galdera bat eginez amaitzen du “The Transsexual Phenomenon” artikulua, baina beste ikuspegi batekin:

---

<sup>408</sup> 2019ko martxoaren 29an, Missé-k, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) “Genero-aniztasuna haurtzaroan” konferentzian, modu berean kritikatu zuen Chrysallis-en leloaren atzean dagoen determinismo biologikoa. Jatorrizko testua: “Hay niñas con pene y niños con vulva. ¿Qué más da? El género está en el cerebro, no en los genitales”.

Could it be that the aforementioned female hypothalamic center, if insufficiently masculinized, may constitute such a predisposition? Or, in female transsexuals, was this center somehow masculinized by an endocrine abnormality of the mother during her pregnancy?

I must leave these questions open. Perhaps, in the future, someone else may supply the answers. (1967, 430. or.)

Ez dago oso urruti joan beharrik jatorri edo iturburu sexu-generiko hormogenikoa burmuinean kokatzen duten “someone else” horiek nor diren bilatzeko. Chrysalis Euskal Herria elkartearen esku-orrian bertan –arestian aipatu dugu–, oin-ohar bat ageri da “daitekeela” hitzaren ondoan: “‘Male-to-female transsexuals have female neuron numbers in a limbic nucleus’, Kruijver et al., 2000”<sup>409</sup>.

#### **4.4. Jatorri sexu-generizatuaren ehiztariak. Transexualitateari buruzko teoria determinista biologikoak: *Brain Sex Theory* eta *Brain Organization Research***

Transaren\* jatorri soziala nabarmentzen duten ikuspegiaren aurrean –zeinetan elementu soziokultural eta diskurtsiboak biologikotasunarekin eta ingurunera irekitako teknogorputz-materialtasunarekin urtzen diren, Doktorego-tesi honetan argudiatzen ari garen bezala–, badira beste ikusmolde batzuk trans\* multiplizitate subjektibo-korporala eta konfigurazio sexu-generikoa burmuinean kokatzen, finkatzen eta ezartzen dutenak modu aldaezin eta estatiko batean, jaio aurreko eta jaioberritako faseetatik hasita. Bilaketa baten antzekoa da, zeinean bilatzen den xedea aurkitu orduko ehizatu eta finkatuta, atzemanda, harrapatuta geratzen baita. Atal honetan, identitate eta materialtasun sexu-generizatuari buruzko postulatu deterministak eta biologizistak defendatzen dituen literatura zientifikoa aztertuko dugu. Halako lanetan, transa\* anomalia, alderantzizkatze, arazo edo nahasmendu gisa kontzeptualizatzen da, ikuspegi

---

<sup>409</sup> Identitatea genitalean ez baizik eta burmuinean dagoelako ideia errepikatzen dute *Maskarak* dokumentaleko protagonistek –sarreran aipatu dugu– eta *Ur handitan* programako elkarrizketatuetako batek ere. Xehetasun, espezifikotasun eta irudi gehiagorekin, batetik, Zhou eta beste egile batzuek (2000) eta Kruijver eta beste egile batzuek (2000) BSTc-ari edo ildaska terminalaren nukleoaren oharburuzko deskribaturiko teoriak biltzen eta azaltzen dira, transexualitatearekin loturik, Madrigo “Golfx con principios” kolektiboaren blogeko “La base biológica de la identidad y la orientación sexual: INAH3 y BSTC” sarreran (2015). Bestetik, Simon LeVay-k hipotalamoko INAH3 eremuari buruz defendatutako teoriak ere azaltzen dira, zeinek homosexualitatea azaltzen baitute; Jordan-Young-ek problematizatu egin ditu teoriok (2010, ix.-xi. or., 102., 105.-106., 160.-161., 171. or.). Nolanahi ere, LeVay-ren teoriak gure analisiaren irismenetik kanpo daude, batez ere ez direlako zehazki transexualitateari buruzkoak eta denbora-toki mugengatik. Halako adibideek berresten dute Fausto-Sterling-en tesia, hots, zientziak sexu-generoaz sortzen dituen egiak erreproduzitzen dituztela kolektibo sozialek –baita itxuraz eraldatzaile eta alternatiboek ere– eta, aldi berean, zientzia bera ere sexu-generoari buruzko ikuspegi sozialetatik elikatzen dela eta halakoak erreproduzitzen dituela.



patologizatzaile bat zabalduz. Ondoren, aztertutako transexualitateari buruzko artikulua eta/edo ikerketa neurozientifikoak problematizatuko ditugu, bai akats metodologikoei eta/edo diseinuzkoei begira, bai justifikaziorik gabeko inferentzia eta ondorioei begira, bai genero-isuriei begira, bai nahasmen kontzeptualei begira, bai oinarri teoriko determinista biologikoei begira, sozialki ondorio arriskutsuak dakartzatenez gero.

#### **4.4.1. Burmuineko sexu-dimorfismoa eta hormonon eragina: transexualitatea nahasmendu, anomalia, arazo eta alderantzizkatze gisa**

Sexu-generoa burmuinean dagoelako ideia, zehazki, ildaska terminaleko ohantzeko nukleoaren erdiguneko subdibisioan (BSTc), hau da, burmuineko amigdalatik hipotalamorainoko zatian, “Brain Sex Theory” izenez da ezaguna, eta, besteak beste, lau artikulutan du oinarria, atal honetan aztertuko ditugunak. Lau artikulutan, zeinak hainbat egilek idatziak baitira azkena ez beste guztiak, Dick F. Swaab ekinak parte hartzen du, Netherlands Institute for Brain Research-en zuzendaria 2005era bitartean –handik aurrera The Netherlands Institute for Neuroscience izena hartu zuen erakundeak<sup>410</sup>–. Lehen bi artikuluetan, “A Sex Difference in the Human Brain and its Relation to Transsexuality” (Zhou et al., 1995, *Nature* aldizkarian argitaratua), eta “Male-to-Female Transsexuals Have Female Neuron Numbers in a Limbic Nucleus” (Kruijver et al., 2000)<sup>411</sup>, *postmortem* ikerketetan oinarrituta, sei trans\* teknogorputz aski izan ziren transexualitateari eta orobat trans\* subjektibitate-gorputzasunei buruz dagoeneko hegemoniko bilakaturik den teoria bat sortzeko.

Haietariko lehenbizikoan, Zhou-k eta beste egile batzuek ondorioztatu zuten *postmortem* aztertutako 42 burmuinetan BSTc-aren bolumena % 44 handiagoa zela gizonetan emakumeetan\* baino. Hormona bidezko terapia hartua zuten 6 *male-to-female* (MtF) transexualen artean, BSTc-aren batez besteko tamaina batezbesteko femeninoaren barnean zegoen; zehazki: “Although the mean BSTc volume in the transsexuals was even smaller than that in the female group, the difference did not reach statistical significance” (Zhou et al., 1995, 69. or.). Pertsona horiek, gainera, sexu-orientazio desberdinak zituzten; hortaz, Zhou-k eta beste

---

<sup>410</sup> Gaur egun, Netherlands Institute for Neuroscience-ko “nahasmendu neuropsikiatriko”en gainean diharduen ikerketa-taldearen zuzendaria da Swaab. Swaab Group-ek bi ikerketa-lerro ditu. Lehen lerroaren hipotesiaren arabera, giza burmuineko jardueraren asaldurek nahasmendu neurologiko, psikiatriko eta neuroendokrinoak ekar ditzakete. Burmuineko “sexu-diferentziazioa” eta “sexu-hormonen” eta burmuin helduaren arteko interakzioak ikertzen dituzte, beste nahasmendu edota arazo batzuekin lotuta, hala nola hipertentsioa, depresioa, esklerosi anizkoitza, alzheimerra, anorexia, eskizofrenia, tiroide-arazoak eta transexualitatea. Bigarren lerroari dagokionez, Alzheimer-en gaixotasunean neuronak berraktibatzearekin du zerikusia (Netherlands Institute for Neuroscience, 2020).

<sup>411</sup> Aurreko ikerketaren lau egileek ere sinatu dute artikulua hori.

egile batzuek ondorioztatu zuten ez zegoela loturarik sexu-orientazioaren eta BSTc-aren tamainaren artean.

Ikertzaileek diotenez, arratoiekin eginiko zenbait esperimentuk proposatu zuten haien BSTko sexu-desberdintasun neurokimikoak “sexu-hormonek” garapenean eta helduaroan eragindako efektuek sortuak zirela (1995, 69. or.). Nola baztertu zuten Zhou-k eta beste egileek halako desberdintasunak –alegia, sexu-dimorfismoa– helduaroan garatzea gizakietan? Bada, burmuinen *postmortem* azterketa gehigarriak erabiliz. Kasu horretan, 5 teknogorputz aski izan ziren. Haietariko bat 46 urteko emakume batena zen; kortex suprarrenaleko tumore bat izan zuen gutxienez urtebetean, eta, ikertzaileen arabera, horrek odoleko androstenediona- eta testosterona-maila oso altuak eragin zizkion. Hala ere, emakume haren BSTc-aren tamaina haiek femeninotzat hartua zuten tartean sartzen zen. Hormona-maila “anormalak” zituzten 70 urtetik gorako beste bi emakume\* postmenopausiadunek “showed a completely *normal female-sized BSTc*” (Zhou et al., 1995, 69. or.; geuk nabarmendua). Azkenik, bazen 31 urteko mutil bat tumore suprarrenal baten eraginez odoleko estrogeno kantitate altuak zituena; haren BSTc-aren tamaina “normala” zen gizon batentzat. Azken froga sei transexualetako bik eman zuten: hil baino 3 eta 15 hilabete lehenago utzia zioten hormonak hartzeari, eta horrek ez zuen haien BSTc-aren tamaina aldatu.

Baina oraindik bazen beste aukera bat: transexualen BSTc-a hain txikia izatearen arrazoa helduaroan androgeno-falta izatea; izan ere, bat ez beste guztiei egina zieten orkiektomia bat. Hipotesi hori baztertzeko, prostatako minbiziaren ondorioz hil baino 2 eta 3 hilabete lehenago orkiektomia egina zieten bi gizonen BSTc-a analizatu zuten. Ez zen ezustekorik izan. Hona ikertzaileen ondorioa: “[T]he small size of the BSTc in male-to-female transsexuals cannot be explained by differences in adult sex hormone levels, but is established during development by an organizing action of sex hormones” (1995, 70. or.). Eta zera gehitu zuten: “[A]n idea supported by the fact that neonatal gonadectomy of male rats and androgenization of the female rats indeed induced significant changes in the number of neurons of the BST and suppressed its sexual dimorphism” (1995, 70. or.).

Neuroanatomiar buruzko Zhou eta beste egileen artikuluaen abiapuntua honako ideia hau da: “Transsexuals have the strong feeling, often from childhood onwards, of having been born the wrong sex”<sup>412</sup> (1995, 68. or.). Hormonak agertokira itzuli ziren, berriz ere, burmuineko sexu-dimorfismoa finkatzeko elementu garrantzitsu gisa edo, bestela, haren *asalduren* erantzule

---

<sup>412</sup> Ostertag-en arabera, XIX. mendearen amaieran, Mendebaldean bazegoen “female soul in a male body” delako ideia (2016, 37. or.). Karl Heinrich Ulrichs homosexualen eskubideen aldeko ekintzaileak era horretan azaltzen zuen homosexualitatea.

gisa. Hala, transexualitatea BSTc-aren tamainaren *alderantzikatz*<sup>413</sup> gisa azaldu zuten, hau da, jaiotzean gizon esleituriko transexualen BSTc-aren tamaina batezbesteko femeninoei zegokien. Hortaz, transexualitatea ere BSTc-aren garapen *normalaren asaldura* gisa aurkeztu zuten.

### Hallan una enzima clave en el desarrollo del cáncer de colon

Washington. Agencias

La elevada actividad de la enzima NMT podría estar relacionada con el cáncer de colon, según un informe que publicó ayer el diario del Instituto americano del Cáncer. Para los autores de este estudio, los resultados podrían tener un valor incalculable en el diagnóstico temprano de este carcinoma, y en el estudio de posibles inhibidores de esta enzima para diseñar nuevos tratamientos terapéuticos.

La doctora Bernadene Magnuson, del Centro del Cáncer de Saskatoon, en la Universidad canadiense de Saskatchewan, que dirigió este estudio, observó la actividad de la enzima NMT (N-miristoyl-transferasa) en los tumores de colon de ratas de laboratorio y en la mucosa adyacente, de apariencia normal.

Los animales habían desarrollado el cáncer mediante inyecciones de una sustancia cancerígena disuelta en una solución salina, solución que recibió también, pero sin esa sustancia, otro grupo de roedores.

Además, la actividad de la enzima se evaluó en muestras de tejido de colon procedente de cinco personas, tres de ellas con cáncer de colon y dos con lesiones no cancerosas.

Los investigadores hallaron un aumento significativo de la actividad de la enzima NMT en los tumores de colon de las ratas, en los pólipos precancerosos o adenomas y en los tumores incipientes.

Los niveles de actividad eran mayores en el colon descendente, más cercano al recto, y menores en el ascendente. En las muestras humanas, la actividad de la enzima era mayor en los tejidos con cáncer de colon que en el tejido circundante aparentemente normal.


Sobre los resultados del estudio en ratas, los autores se han mostrado cautos al advertir de que debe esperarse la confirmación de los hallazgos en estudios sobre seres humanos.

• Los astronautas del transbordador «Columbia», entre los que figura Miguel López Alegria, realizaron ayer un experimento para investigar cómo los planetas pueden formarse en el Universo a partir de nubes de polvo interplanetario.

## Descubren la primera diferencia biológica en el cerebro de los varones transexuales

Una estructura del hipotálamo es más pequeña que en los heterosexuales

Madrid. J. M. Fernández-Rúa/A. Aguirre de Cárcer. La primera diferencia biológica detectada en el cerebro de los transexuales ha sido descubierta por científicos del Instituto holandés para la Investigación del Cerebro. En un estudio que publica hoy la revista «Nature», Dick Swaab y sus colaboradores afirman haber comprobado que los varones que cambian de sexo tienen una pequeña estructura del hipotálamo, cuyo tamaño es inferior al de los hombres heterosexuales y similar al de las mujeres.



El autor principal de este trabajo, Dick Swaab, fue el primer investigador que comunicó haber detectado una diferencia estructural en el cerebro de los homosexuales, tras comprobar que el núcleo supraquiasmático de éstos es dos veces mayor que el de los heterosexuales. Ahora su investigación se ha centrado en la transexualidad, cuyo posible origen ha sido debatido durante años aunque nunca se habían descubierto anomalías genéticas u hormonales en estas personas.

Su estudio, al que ha tenido acceso ABC, fue realizado durante los últimos once años mediante análisis post-mortem de seis transexuales varones. Para averiguar la existencia de diferencias anatómicas en sus cerebros, Swaab y sus colaboradores centraron sus análisis en una estructura del cerebro que es sexualmente dimórfica, esto es, diferente en tamaño en hombres y mujeres. Se trata del núcleo base de la estría terminalis (BSTc), una estructura cerebral de mayor tamaño en los varones que en las mujeres.

Tras llevar a cabo los análisis, descubrieron que el BSTc de los seis transexuales tenía un tamaño inferior al de los hombres y similar al de las mujeres. Los científicos del Instituto holandés para la Investigación del Cerebro creen que esta diferencia aparece en los transexuales antes de que decidan cambiar de sexo, y

más concretamente antes de la edad adulta. Incluso apuntan que probablemente sea resultado de una interacción entre las hormonas sexuales y el cerebro durante su desarrollo en el feto. Esta conclusión encenderá de nuevo la polémica sobre el posible origen biológico de la orientación sexual, según afirma el investigador de UCLA Marc Breedlove, en un artículo que también publica hoy «Nature».

### Tratamientos con hormonas

Este especialista en Psicología y Neurobiología precisa que el tamaño del BSTc no puede ser claramente relacionado con la orientación sexual porque, en su opinión, los hombres que desean convertirse en mujeres constituyen un grupo poco homogéneo. Algunos se sienten atraídos por los hombres, otros por las mujeres, también los hay bisexuales e incluso quien no muestra interés en las relaciones sexuales.

Puntualiza además que el tamaño de esta estructura estaría determinado por posibles alteraciones en el neurotransmisor VIP, originadas por tratamientos hormonales con estrógenos que recibieron los seis transexuales, de los que cinco se sometieron a operaciones para eliminar los genitales. En su opinión, estas dudas podrían despejarse si los análisis de estas personas no fueran post-mortem.

“Gizon transexualen burmuineko lehen desberdintasun biologikoa aurkitu dute”,

ABC, 1995eko azaroaren 2a

<sup>413</sup> Alderantzikatzearen ideia ez da berria. Historian zehar erabili izan da lesbianez eta gayez hitz egiteko. XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako erabileraz jakiteko, ikus Meyerowitz (2004, 14.-49. or.), Fausto-Sterling (2012a, 73.-74. or.) eta Ostertag (2016, 45. or.).

Irudian ikusten den bezala, 1995ean, *ABC* egunkariak argitaratu zuen Swaab-en lantaldeak ustezko desberdintasun biologikoa aurkitua zuela transexualen burmuinean. Baina ez zen izan ikerketaren ondorioak –eta/edo auresuposizioak– jaso eta bere egin zituen bakarra. Transexualen burmuinetan desberdintasun biologikoak badaudela defenditzen duen bigarren artikulua Kruijver-ek eta beste egile batzuek idatzia da (2000), Chrysallis-en esku-orrian bertan aipatzen dena. Azterketa berri bat baino gehiago, Zhou-k eta beste egileek 1995ean eginiko ikerketaren lanketa da, lantalde berak egin; izan ere, analisi nagusian erabili zituzten 34 teknogorputzetatik 26 aurreko ikerketako berak izan ziren (Jordan-Young, 2010, 105. or.). Hala, Kruijver-ek eta beste egile batzuek (2000) BSTc-ko neurona kopurua analizatu zuten, eta ez haren tamaina; zehazki, somatostatina interneuronen kopurua (*somatostatin (SOM)-expressing neurons*). Horretarako, aurretik ikertuak zituzten 6 MtF transexualen ehunak baliatu zituzten, eta, horretaz gainera, baita FtM<sup>414</sup> transexual batenak eta sekula hormonarik hartu gabea zen 84 urteko trabesti batenak ere. Hala, neurona kopurua tamaina baino are dimorfikoagoa zela aurkitu zuten: % 71 handiagoa gizon heterosuxaletan emakume\* heterosuxaletan baino, eta % 81 handiagoa gizon homosuxaletan emakume\* heterosuxaletan baino. Beste behin ere, MtF transexualek alderantzizko patroia agertu zuten, batezbesteko femeninoaren barnean baitzegoen haien neurona kopurua. Halaber, batezbesteko femeninoaren barnean zegoen trabestiaren BSTc-ko neuronen kopurua, eta maskulinoaren barnean, berriz, FtM transexualarena, eta hori guztiz bateragarria da “the sexual brain paradigm” delakoarekin (Kruijver et al., 2000, 2041. or.).

Ikertzaileek ondorioztatu zuten BSTc-ko neuronen kopuruak ez duela harremanik helduen hormona-aldaketekin: “Instead, the neuronal differences are likely to have been established earlier during development” (2000, 2039. or.). Helduaroko hormonon eragina baztertzeko, aurreko ikerketaren argudio berak erabili zituzten. Transexualen burmuineko neurona-desberdintasunak –hots, burmuineko hormonon antolaketa– betiko finkatuta geratzen dira burmuinean: “Apart from such well known irreversible “organizing” effects of sex hormones on the developing brain, the possibility of a direct action of genetic factors on sexual differentiation of the brain should not be ruled out” (2000, 2039. or.). Berriz ere, *alderantzikatze* gisa azaldu zuten transexualitatea, biologikoki, eta hori bateragarria da eta ongi ahokutzen da transexualitatea *nahasmendu* gisa kontzeptualizatzearekin:

The present findings of somatostatin neuronal sex differences in the BSTc and its sex *reversal* in the transsexual brain clearly support the paradigm that in transsexuals sexual differentiation of the

---

<sup>414</sup> Zera diote horri dagokionez: “[W]e had the exceptional opportunity to be able to study the first collected brain ever of a female-to-male transsexual (FMT)” (Kruijver et. al, 2000, 2034. or.).

brain and genitals may go into opposite directions and point to a neurobiological basis of gender identity disorder. (Kruijver et al., 2000, 2034. or.)

Bi artikulu horiek, aldi berean, Jordan-Young-ek “Brain Organization Research” deritzonaren barnean biltzen dira. 300 artikulutik gorako bilduma bat da, 1960tik gaur egunera artekoak, eta identitate sexu-generikoa eta sexu-orientazioa burmuinean kokatzen dute guztiek ere (2010, xi). Teoria horren arabera, jaio aurretik hormonekiko esposizioak eragiten du burmuineko sexu-diferentziazioa edo, hobeki esanda, haren sexu-dimorfismoa edo dimorfismo sexu-generizatua, hau da, desira-, nortasun-, aldarte- eta kognizio-eredu iraunkorrek sortzen ditu. Gero, bizitzan zehar, hormonek predisposizio horiek aktiba ditzakete, baina joerok antolatuta, programatuta eta grabatuta geratzen dira hormonon bidez hasieratik fetuko burmuinean. Jordan-Young-ek analizaturiko 300 ikerketen artean, bakar batean –baita Kruijver eta beste egile batzuen luzapenean ere– aipatzen da transexualitatea<sup>415</sup>: Zhou eta beste egileen artikuluan –gorago aletu dugu–. Gainera, Jordan-Young-ek ikerketa horri buruz egindako iruzkin eta kritikek, baita aipatzen dituen beste ikertzaile batzuenak ere, sexu-orientazioa dute ardatz nagusi<sup>416</sup>. Transexualitatearen gaia oharkabean geratzen da; salbuespen bakarra da transexualen sexu-orientazioaren aldakortasuna aipatzen dela, ordura arte ez baitzen halakorik aintzat hartzen, eta, beraz, ikerketaren elementu positibotzat hartu behar da.

Lehenago Missé-k adierazitako hildotik, baita Fausto-Sterling-ek ere (2012a, 44. or.), kontruktibismoak atek zabaldu zizkiola determinismo biologikoari, Jordan-Young-ek dio Milton Diamond-ek onura atera zuela Money-k David Reimer-ekin izandako porrotetik –etsaietan etsaiena zuen Money–, erabili baitzuen baieztatzeko Reimer-i identitate maskulinoa burmuinean “finkatuta” geratu zitzaioala fetu “normal maskulino” bat zelarrik ekoitzi zuen testosteronaren bitartez<sup>417</sup>. Ironikoki dio: “[I]t is particularly fascinating that... Money, who is presented in the popular version of that story as the absolute embodiment of ‘blank-slate thinking’ about gender, was in fact the very first scientist to extend brain organization theory to humans” (Jordan-Young, 2010, 6. or.). Izan ere, Jordan-Young-ek adierazten duenez, Money –baina ez “lehenbiziko Money” hura, baizik eta geroagokoa, bereziki Anke Ehrhardt-ekin batera

---

<sup>415</sup> Bakar batean ere ez da aztertzen lesbianen burmuinik.

<sup>416</sup> Kritiketako batek dio beren burmuina *postmortem* erabilitako teknogorputzetako asko VIHak jota hil zirela eta horrek eragina izan zezakeela beren burmuinean (Jordan-Young, 2010, 105. or.). Zera diote Kruijver eta beste egile batzuek: “We are aware of the fact that our data are based on postmortem brain material derived from a heterogeneous patient population of which each individual’s clinical status might have had an impact on the brain” (2000, 2041. or.). Hala ere, irmoki aipatu zituzten aurkituriko “striking sexual dimorphic differences” delakoak. Horretaz gainera, hildako pertsonen sexualitateari eta desireri buruzko informazio urria aurkeztea da ikerketa/artikulu hauei egindako beste kritiketako bat (Jordan-Young, 2010, 105. or.). Problematizatzen da halaber aztertutako burmuinen egituren garapenearen denborei buruzko informazio falta.

<sup>417</sup> Hori bera jaso zuen Colapinto-k (2006, 209.-210., 270.-271. or.).

lan egin ondokoa–, egile oparoenetako bat izan da hormonek portaeran duten eragina aztertzeke ikerketak sortzeari dagokionez. Baina hori beste historia bat da.

Aipatu ditugun bi artikulu horiez gainera, beste bi lan aztertuko ditugu. Oro har beste bien tesi nagusiei eusten badiete ere, badira zenbait desberdintasun. Ezer baino lehen, har ditzagun berriz emakumeak\*trans\* analogia eta jaio aurretiko hormonekiko esposizioak burmuinean sorturiko sexu-dimorfismoa defendatzen duen determinismo biologikoaren teoria, Baron-Cohen ekinaren eskutik.

Baron-Cohen-en eta haren enpatia-sistematizazioaren (*empathizing-systemizing theory*) (E-S) teoriaren arabera, burmuin femeninoa enpatiarako programatuta dago, hau da, pertsonen pentsamendu eta sentimenduak identifikatzeko eta haien aurrean emozio egokiaz erantzuteko: “The empathizer intuitively figures out how people are feeling, and how to treat people with care and sensitivity” (2005, 23. or.). Burmuin maskulinoa, berriz, sistematizatorako dago programatuta, sistemak ulertzeko eta eraikitzeke: “The systemizer intuitively figures out how things work, or what the underlying rules are controlling a system. Systems can be as varied as a pond, a vehicle, a computer, a plant, a library catalogue, a musical instrument, a math equation, or even an army unit” (2005, 23. or.). Egiatzki, badira hiru burmuin mota: femeninoa edo nagusiki enpatikoa/enpatizatzailea (E mota), maskulinoa edo nagusiki sistematikoa/sistematizatzailea (S mota) eta bion arteko oreka daukatenak edo “balanced brain” deritzenak (B mota). Dena den, gehienetan, bitan laburbil daitezke. Baron-Cohen-en teoria sexu-desberdintasun psikologikoei buruzko aurreko teorien birformulazio bat da; teoria haien ardatza “the holy trinity” deritzona zen: “Spatial ability, mathematical ability, and verbal ability. The first two of these are areas where males perform at a higher level, and the last of these typically shows a female advantage” (2005, 26. or.).

Baron-Cohen-en aburuz, 12 hilabete betetzerako, argiak dira burmuineko sexu-dimorfismoaren ebidentziak, eta esparru anitzetan azaleratzen dira, hala nola haurtzaroko jolasetan<sup>418</sup>. Cambridgeko Unibertsitatearen ikerketa bat aipatzen du<sup>419</sup>, zeinak, Baron-Cohen-en

---

<sup>418</sup> Beste desberdintasun batzuk ere aipatzen ditu, hala nola oldarkortasun fisikoa. Haren teoriaren arabera, hori ere gizon eta emakumeen\* burmuinen artean jaio aurretik hormonon eraginez sorturiko desberdintasunei zor zaie: “Gender differences also appear in aggression. Males tend to show far more direct aggression (pushing, hitting, punching). Females tend to show more indirect (relational, covert) aggression, which includes gossip, exclusion, and cutting remarks” (Baron-Cohen, 2005, 24. or.). Geuk aurkituriko jatorrizko testuan, “sex differences” erabiltzen zuen, eta ez “gender differences”, baita “bitchy remarks” ere, eta ez “cutting remarks”. Ez dugu berriz bertsi hori aurkitzerik izan, eta aipatu duguna egileak berak Academia.edu-ko bere orrian argitaraturikoa da. Haren erabakia errespetatu dugu, beraz. Nolanahi ere, garrantzitsua deritzogu haren hasierako adierazpideak ere aipatzeari.

<sup>419</sup> Baron-Cohen-ek bi bertsiotan aipatzen du ikerketa hori, baina ez dakar testu barruan ez erreferentziarik, ez aipurik. Amaieran, bi erreferentzia bibliografiko ematen ditu, bata berea eta bestea hauxe: “Kimura, D. *Sex and*

esanetan, frogatzen baitu neskek denbora gehiago ematen dutela aurpegiei begira eta mutilek aldiz altzari zintzilikatuei begira. Horretaz gainera, azaltzen du nola Cambridgeko lantaldeak ondorioztatu zuen haurren arteko begi-kontaktua faktore biologiko batek determinatzen zuela, jaio aurreko testosteronak, likido amniotikoa neurtuz frogatu den bezala.

Beste ebidentzia batzuk dira mutilek jostailu batzuk nahiago izatea beste batzuk baino: autoak, kamioiak, hegazkinak, ezpatak, pistolak, eraikuntzako jostailuak eta jostailu mekanikoak. Edo lanbide maskulinizatuak, hala nola metalaren sektorea, armen sektorea, eraikuntza-industriak, matematika, fisika eta ingeniartzak. Baron-Cohen-ek tarte bat uzten die kulturari eta sozializazioari, baina predisposizioak biologikoki eta hormonalki ezartzen dira (2005, 24.-25. or.). Hormonen eraginaren teoria berresteko, beste bi adibide aipatzen ditu: batetik, DESa errezetatu zitzairen amengandik jaiotako haurren jolas motetan efektu feminizatzaileak. Bestetik, arratoiekin eginiko esperimentu bat; jaiotzean, testosterona injektatu zitzairen, eta, “maskulinizazio” horri esker, ustez sistematizaziorako gaitasunak hobetu zituzten (2005, 26. or.).

Psikologoak autismoaren ikerketan aplikatu zuen E-S teoria, arlo horretan egin baitu lan gehien. Autismoa burmuin hipermaskulino gisa edo “burmuin maskulino muturreko” gisa kontzeptualizatzen du, eta, haren arabera, fetuan testosteronaren eraginez sortzen da (Baron-Cohen, 2005, 26. or.; Auyeung eta Baron-Cohen, 2008, 185., 200.-201. or.). 2011ko “Brief Report: Female-To-Male Transsexual People and Autistic Traits” artikuluan, Jones-ek eta beste egile batzuek –tarteaz, Baron-Cohen-ek berak– autismoaren espektroaren ezaugarriak zituzten emakumeak\* –zeinek, “burmuin maskulino muturreko”aren teoriaren arabera, portaeraren alderdi batzuk hipermaskulinizatuta baitzeuzkaten– eta “Genero Identitatearen Nahasmendua zuten emakume maskulinizatuak” edo “female-to-male transexualak” edo “transmen” delakoak – ikerketaren terminologia bera erabiliz– lotu zituzten. Zehazki, aurreikusi zuten azken horiek Autismoaren Espektroko Koefiziente (AQ) altua izango zutela.

Hori frogatzeko, 5 taldetako emaitzak alderatu zituzten: (1)  $n = 61$  trans gizon (FtM transexualak); (2)  $n = 198$  trans emakume (MtF transexualak); (3)  $n = 76$  gizon tipiko; (4)  $n = 98$  emakume tipiko; (5)  $n = 125$  pertsona (69 gizon eta 56 emakume) Asperger sindromedun. Trans gizonak AQ altuagoa zuten emakume tipikoek, gizon tipikoek eta emakume transek baino, baina Asperger sindromedunek baino baxuagoa. Hona ikerketaren ondorioa: “[T]ransmen have an elevated number of autistic traits” (Jones et al. 2011, 306. or.). Baliteke hori fetuko testosteronamaila altuaren efektuz gertatzea:

---

*Cognition*. Cambridge, MA: MIT Press, 1997” (Baron-Cohen, 2005, 26. or.). Baina, MITen orrira joanez gero, lan horrek 1999ko data du. Ez dugu beste ediziorik aurkitu beste inon.

[S]ince both normative amniotic testosterone studies... and studies of rare genetic conditions in which FT levels are abnormally high (such as in females with Congenital Adrenal Hyperplasia)... indicate that higher FT is correlated with reduced empathy, reduced social interest, reduced social skills, and higher AQ scores. (Jones et al. 2011, 306. or.)

Transexualitateari buruzko Brain Sex Theoryko beste bi artikulu geratzen zaizkigu aztertzeko; zehazki, ikerketa bat eta bilduma-artikulu bat, eta ez Jordan-Young-ek (2010), ez Fausto-Sterling-ek (2012)<sup>420</sup> ez dituzte analizatu. Lehenbizikoa: “Sexual Differentiation of the Bed Nucleus of the Stria Terminalis in Humans May Extend into Adulthood” (Chung et al. 2002). Ikerketa horrek burmuineko zenbait eremutako sexu-dimorfismoaren baieztapena berretsi egiten du, zehazki, hipotalamoko eremu preoptikoko eta aurreko eremuko zelulen zenbait taldetakoa, nukleo suprakiasmatikokoa, BST-dspm-koa eta BSTc-koa, zeina hainbat ikerketa edo artikulutan aipatzen baita, hala nola Zhou eta beste egile batzuen lanean (1997) eta Kruijver eta beste batzuenan (2000). Hala ere, azken horiek ez bezala, BSTc-ko sexu-dimorfismoa helduaroan bihurtzen dela esanguratsu baieztatzen dute.

Chung eta beste egile batzuek 50 burmuin analizatu zituzten *postmortem*, adinaren arabera hiru taldetan sailkatuta: fetu/jaioberriaren aldia –haurdunaldiaren 25. astetik 41. astera–, haurtzaroa/pubertaroa –3 hilabetetik 16 urtera bitartean– eta helduaroa –22 urtetik 49 urtera– (2002). Zhou eta beste egile batzuen (1995) eta Kruijver eta beste egile batzuen (2000) oso antzeko emaitzak lortu zituzten: gizon helduen BSTc-aren tamaina eta neurona kopurua handiagoa zen emakume\* helduena baino. Hala ere, lehen ikerketa horrekiko eta bere luzapenarekiko desberdintasun nagusia zera da: adinean aurrera egin ahala BSTc-aren bolumenean aldaketak topatzen dituztela. Gizonen kasuan, BSTc-aren bolumena nabarmen handitzen zen, eta aldea zegoen aldi guztien artean. Emakumeen\* artean ere, BSTc-aren tamaina handitzen zen adinean aurrera egin ahala, baina aldi guztiak ez ziren desberdinak elkarren artean: baziren desberdintasunak fetu/jaioberriaren aldiaren eta haurtzaroa/pubertaroaren artean, eta fetu/jaioberriaren aldiaren eta helduaroaren artean. Alegia, ez zuten desberdintasun esanguratsurik aurkitu haurtzaroa/pubertaroaren eta helduaroaren artean. Chung eta beste egile batzuen arabera, gainera, helduaroan bakarrik zen gizonen BSTc-a handiagoa emakumeena\* baino, eta helduaroan bakarrik zituen neurona gehiago (2002, 1031. or.).

Aurreko ikerketaren eta haren birlanketaren aldean, desberdintasun nagusia zera da: burmuineko, bereziki BSTc-ko, sexu-dimorfismoaren agerpena ez da jaiotze aurretiko edo

---

<sup>420</sup> Fausto-Sterling-ek hemen aztertutako lehen bi artikuluak eta beste bi jaso zituen (2012a, 59.-62. or.), hormona-tratamendurik jaso ez zuten teknogorputzei buruzkoak. Artikulu horiek, Rametti et al. (2011a) eta Rametti et al. (2011b), ez dira burmuinaren *postmortem* ikerketak, baizik eta burmuin bizidunen ikerketak, difusio-tenkagailuen bidezko (DTI) erresonantzia magnetiko bidezko irudiekin eginak.



jaioberriko aldira mugatzen, ezta haurtzarora mugatzen ere, baizik eta helduaroan ere gerta daiteke. Hona haien ondorioa: “[O]ur finding of a sex difference in BSTc volume only in adulthood suggests that marked sex-dependent organizational changes in brain structure are not limited to early development but may extend into adulthood” (2002, 1032. or.)<sup>421</sup>. Egileek sexu-dimorfismoaren agerpen berantiar hori azaltzeko ematen duten azalpen posibleetako baten arabera, “organizational effects of testosterone on sexual differentiation may become clear much later in life” (2002, 1031. or.). Modu berean, baieztatzen dute “although sex differences in gonadal steroids are the most likely factor to cause sexual differentiation of the BSTc and the areas that innervate the BSTc”, ezin dira beste mekanismo batzuk baztertu, hala nola sexu-kromosomen geneen adierazpen lokala: “A candidate gene for such an effect is the *SRY* gene, which was shown to be transcribed in the adult human hypothalamus and cortex of males but not in females” (2002, 1032. or.).

Transexualitateari dagokionez, egileek diote transexualek 20 urtetik 45 urtera bitartean izan zutela lehen kontsulta medikoa, eta hori bat letorke ustezko BSTc-aren tamainaren araberrako sexu-dimorfismoaren agerpen berantiarrekin. Baina bazen arazo bat, hori ez baitzen oso bateragarria transexualitateaz esku artean zeuzkaten datuekin: “67–78% of transsexuals in adulthood report having strong feelings of being born in the wrong body from childhood onward..., supporting the idea that disturbances in fetal or neonatal gonadal steroid levels underlie the development of transsexuality” (Chung et al., 2000, 1032. or.)<sup>422</sup> –ohartu gaitzen transexualitatearen nozioa asaldurekin lotzen dela hemen–. Nola konpondu zuten arazo hori? Bada, artikulua azken paragrafoan nozio berri eta ordura arte agertu gabeko bat txertatuz: “funtzioa”. Hala, BSTc-aren tamainaren araberrako sexu-dimorfismoaren agerpen berantiarrak ez du neutralizatzen, baliogabetzen edo ukatzen gonadetako esteroideak eragina izatea jaio aurretik eta haurtzarora haren funtzioetan. Beraz, gerta liteke fetuen edo jaioberrien testosterona-mailan izandako aldaketek eragina izatea genero-identitatearen garapenean, baina aldaketok ez lukete eragingo BSTc-aren bolumenaren eta neurona kopuruaren berehalako aldaketarik (Chung et al., 2002, 1032. or.).

Horren azpian, transexualitatearen azalpen hau dago: jaio aurretik edo jaiotzean, testosterona-mailan asaldurak gertatzen dira, eta horrek eragin negatiboa dauka BSTc-aren funtzioetan, edo asaldatu egiten ditu, zeinak genero-identitatearen nahasmendua sorrarazten duen

---

<sup>421</sup> Hipotesi hori sakonago formulatzen da aurretik: “Therefore, marked morphological changes in the human brain, including sexual differentiation, may not be limited to childhood but may extend into adulthood” (2002, 1031. or.).

<sup>422</sup> Horri beste ebidentzia batzuk gehitzen dizkiote: adibidez, haurdunaldian fenobarbitala edo diphantoina hartzeak jaioberrien transexualitatearen prebalentzia areagotzea dakarrela (Dessens et al., 1999; Chung et al., 2000, 1032. or.-an aipatua).

eta, geroago, zonalde horretako sexu-dimorfismoaren alderantzizkatzea, helduaroan agertu edo ageriko bihurtzen dena. Hori hala azalduz ere, ez dute zehazten ezta azaltzen ere ea loturarik badagoen eta, baldin badago, zer lotura dagoen BSTc-aren tamainaren eta/edo neuronen kopuruaren eta beren funtzioen artean. Halaber, zehaztu gabe uzten dute ea, nahiz eta BSTc-aren aldaketa sexualki dimorfikoak geroago agertzen diren edo ager daitezkeen –horrek ez luke baliogabetuko BSTc-aren funtzioa eta jaio aurretiko edo jaiotzetiko hormonon eragina beronetan–, transexualitateak zerikusirik ba ote duen BSTc-ko sexu-dimorfismoaren alderantzizkatzearekin, bai bolumenari dagokionez, bai neuronei dagokienez, Zhou eta beste egile batzuek (1995) eta Kruijver eta beste egile batzuek (2000) dioten bezala, ala ez. Edo ea transexualitateak funtzioarekin soilik daukan zerikusia, BSTc-aren tamainatik eta neurona kopurutik at, eta ea funtzio hori sexualki dimorfikoa den. Alde horretatik, adierazpen lauso samar bat dakarte: “Alternatively, it must also be taken into consideration that changes in BSTc volume in male-to-female transsexuals may be the result of a failure to develop a male-like gender identity” (Chung et al., 2002, 1032. or.).

Laburbilduz, Zhou eta beste egile batzuen (1997) eta Kruijver eta beste egile batzuen (2000) lanean funtsatu arren, transexualitateaz ematen duten azalpena ez dago zuzenki oinarrituta jaiotzeko edo garapenaren aro goiztarretako BSTc-aren tamainan eta neurona kopuruan, baizik eta jaio aurreko edo jaiotzeko gonadetako esteroideen mailaren nahasmenduetan; nahasmenduok BSTc-aren *funtzioak* ere asalda ditzakete, eta horrek helduaroan BSTc-aren tamainaren eta neurona kopuruaren sexu-dimorfismoa alderantzizkatzea ekarriko luke, eta, horrenbestez, eragina izanez genero-identitatearen garapen *normalean*.

Laugarren artikulua, “Sexual differentiation of the brain and behavior”, hainbat egileren artikulua eta azterketen bilduma zabal bat da. Hala, Swaab-ek azalpen neurobiologiko bat ematen du transexualitateari buruz, zeina giza burmuinaren antolaketaren teoriaren barnean txertatzen baitu. Burmuin-egituren alderantzizkatzearen eta jaio aurreko eta jaiotzeko hormonon eraginen bitartez azaltzen du transexualitatea<sup>423</sup>. Swaab Brain Organization Researcharen funtsezko egileetako bat da –beste izen batzuk: LeVay, eta Laura Allen, baita haren mentore Roger Gorski ere, zeina Benjamin-ek aipatzen baitu 1967ko artikuluan–, eta Jordan-Young-ek azaldu ditu haren tesiak. Artikulu horren aipamena behin ageri da *Brain Stormen* (Jordan-Young, 2010, 166. or.), baina ez da xeheki analizatzen.

---

<sup>423</sup> Artikuluan lantzen den beste gai bat sexu-orientazioa da, baina ez dugu aztertuko, ez baita gure gai nagusia.

Swaab-en teoriaren arabera –zeinari Aristotelesen metafora baitario maiz, hau da, maskulinoa presentzia gisa eta femeninoa absentsia gisa ulertzea<sup>424</sup>, zeinari femeninoaren agerpen eza gehitu behar zaion–, genitalak, obulutegiak edo testikuluak haurdunaldiaren lehen sei asteetan garatzen dira. Gene sail baten eraginez gertatzen da hori, besteak beste, “sex-determining gene on the Y chromosome (the SRY)” delakoaren eraginez<sup>425</sup>, baina badira beste faktore batzuk ere (2007, 431. or.). Femeninotzat hartzen diren sexu-organoen –sexu-generizatuena– umetoki barneko garapena androgenoen absentsian oinarritzen da nagusiki, eta maskulinoena, berriz, haien presentzian (2007, 432. or.).

Burmuina da umetoki barnean “bereizten” hurrengoa –beharbada, egokiagoa litzateke “dimorfizatu” forma–, Swaab-ek dioenez. Burmuina “norabide maskulino”an garatzen da testosteronak nerbio-sisteman garatzen ari diren zelulen gainean duen ekintza zuzenaren bitartez; “norabide femenino”an garatzen da, berriz, nesken kasuan, testosteronarik ez dagoenean. Swaab-en aburuz, badira bi testosterona-gailur. Lehena jaio aurreko estadioetan gertatzen da: “[T]estosterone levels peak in the fetal serum between weeks 12 and 18 of pregnancy. In weeks 34–41 of pregnancy the testosterone levels of boys are 10 times higher than those of girls” (2007, 432. or.). Bigarrena, bizitzako lehen hiru hilabeetan, eta orduan erdiesten dira, Swaab-en arabera, helduaroko testosterona-mailak: “[t]his two peaks of testosterone are said to fix the development of structures and circuits in the brain for the rest of a person’s life (= programming, organizing)”, hots, modu iraunkor batean (2007, 432.-433. or.). Modu honetan, “gender identity (the feeling of being a man or a woman) and our sexual orientation are programmed into our brain structures when we are still in the womb” (2007, 442. or.). Pubertaroan, neurobiologoak dioenez, “sexu-hormonek” umetokian garaturiko burmuin-zirkuituak aktibatzen dituzte (2007, 432. or.).

Swaab-ek David Reimer-en kasua ere jaso du, eta Money-ren 1950eko hamarkadako teoriak kritikatu, argi eta garbi Diamond-en korrante deterministarekin bat eginik. Baron-Cohen-

---

<sup>424</sup> Femeninoa zientzian –zehazki, garapenaren biologian– absentsia gisa analizatzeko eta kritikatzeko, ikus Fausto-Sterling (1989). Honen aburuz, “the generally accepted theory of sex determination claims that female differentiation is determined by the *absence* of something, that a female develops when something is lacking” (1989, 327. or.).

<sup>425</sup> Maskulinoa presentzia gisa eta femeninoa absentsia gisa ulertzen dituen logika aristotelikoa argi ikusten da SRY geneari dagokionez. Y kromosomako SRY geneak determinatzen du *maskulinoaren* sexu-garapena, baina sexu-garapenaz oro har hitz egiteko erabiltzen da: “In many research papers the genetic factor on the mammalian Y chromosome is called the “sex determining factor” rather than the “male determining factor... Femaleness then becomes an absence, something that happens by default, something that does not merit the same level of scientific investigation as the more active male process...” (Fausto-Sterling, 2012a, 16. or.). Tradizio hori gutxienez Aristotelesen garaitik datorrela azaldu ondoren, Fausto-Sterling-ek zera dio: “Given our rich past of conceptualizing the female as a lack or absence, it is probably more than an accident, although less than a conspiracy, that, when writing about sex determination, scientists slip without noticing into linguistic muddiness” (2012a, 17. or.). Horren aurrean, berak aldarrikatzen du badela garaia metafora berriak asmatzeko. SRY geneari buruz, ikus Fausto-Sterling (2012a, 19. or.).

en gisara, Swaab-ek defendatzen du neskato eta mutikoen portaera eta lehentasunen arteko desberdintasunak, oldarkortasunetik jokorainokoak, ez direla sortzen haurzaintzaren eta sozializazioaren kausaz, berezkoak baitira. Neskek mutilek baino joera handiagoa dute giza irudiak, loreak edo tximeletak marrazteko, horretarako gorria, laranja eta horia erabiliz, eta oro har gai baketsuak aukeratzen dituzte; mutilek, aldiz, nahiago dute objektu teknikoak, armak, autoak, trenak edo hegazkinak marraztu, kolore ilun eta hotzetan, hala nola urdinez; eta hori guztia jaiotze aurreko eta jaiotzeko hormonek burmuinean duten eraginagatik gertatzen da, burmuina sexu-generikoki programatuta geratzen baita betiko (2007, 434. or.). Primateekin eginiko azterketa batean oinarrituta, zera baieztatzen du neurobiologoak: “It thus seems as if the sexual differences in play behavior originated early on in our evolution, before the hominids, and that they are imprinted during intrauterine development under the influence of sex hormones” (2007, 433. or.).

Hortik abiatuta, Swaab-ek “genero-arazo” gisa kontzeptualizatzen du transexualitatea – “genero-disforia” ere aipatzen du, behin–, eta zera dio: “Transsexuality is characterized by a conviction of having been born in the wrong body” (2007, 435. or.). Hori sexu genitalaren eta burmuineko sexuaren arteko inkoherentziaren bitartez azalduko litzateke. Gogoratu dezagun genitalen sexu-diferentziazioa haurdunaldiaren lehen bi hilabeteetan gertatzen dela; burmuinarena, berriz, neurobiologoaren arabera, haurdunaldiaren bigarren erdian hasten da, eta helduaroraino luza daiteke bere ageriko agerpena. Bi prozesuok elkarrengandik bereiz gerta daitezke, eta horren ondoriozkoa da transexualitatea: “[P]eople with male sexual organs who feel female and viceversa” (Swaab, 2007, 442. or.). Jaiotzean sexu anbigua izanez gero ere gerta daiteke hori; izan ere, gerta daiteke genitalen eta burmuinaren maskulinitate-mailak bat ez etortzea. Swaab-ek Chung eta beste egile batzuen (2002) adierazpenak ere jaso ditu; esan nahi baita, haurdunaldian fenobarbitala edo diphantoin-a hartu duten emakume\* epileptikoek arrisku handiagoa dute haur transexualak izateko, bi substantziok interferentzia egiten baitute “sexu-hormonen” metabolismoan eta eragina izan baitezakete fetuen burmuinen sexu-diferentziazioan. Neurobiologoak irrimo dio: “There are no indications that postnatal social factors could be responsible for the occurrence of transsexuality” (Swaab, 2007, 436. or.).

Swaab-ek Zhou eta beste egile batzuen (1997) eta Kruijver eta beste egile batzuen (2000) BSTc-aren tamainaren eta neurona kopuruaren sexu-dimorfismoaren –sexu-generizatuaren– inguruko “emaitzak” berresten ditu, hala nola hauen alderantzikatzea transexualitatearen kasuan. Halako kasuetan, burmuinaren sexu-garapena alderantzikatzen denez genitalen garapenarekiko, espero izatekoa litzateke, dio Swaab-ek, burmuin-egiturak alderantzikatzea eta horrenbestez aurkitzea “female structures in a male brain and viceversa”.

Honela jarraitzen du: “[I]ndeed, we did find such a reversal in the... (BSTc), a brain structure that, in rats, is involved in many aspects of sexual behavior... However, a gender identity test for a rat does not exist, and this can therefore be studied only in humans” (Swaab, 2007, 436. or.). Swaab-ek transexualitateari buruz hori guztia esan zuen, azterketa-lagin bakarrak 6 MtF transexualenak, trabesti batenak eta FtM transexual batenak zirenenean oraindik ere.

Neurobiologoak ukatu egiten du identitate sexu-generizatuaren garapenean ingurune sozialak jaio ondotik daukan eragina: “There is no proof that social environment after birth has an effect on the development of gender or sexual orientation” (2007, 442. or.). Burmuinaren antolaketaren aldaketak iraunkorrak dira, eta pubertaroko aldaketak antolaketa-aldaketa horien aktibazioa besterik ez dira, batik bat hormonalak dena, baina partehartze genetikoarekin ere.

#### **4.4.2. Transexualitateari buruzko teoria determinista biologikoak eztabaidatzen**

Oro har, bi kritika mota egin dakizkioke Brain Sex Theory teoriari eta Jordan-Young-ek “Brain Organization Research” izendatu duenaren zati bati: kritika metodologikoa edo diseinuaren kritika, eta mamiaren kritika. Jordan-Young-en kritikek ez dute hainbeste ikustekorik zientzia itxuratzen duten faktore sozial eta kulturalekin, baizik eta ikerketa zientifiko hauen alderdi teknikoekin. Berak honela aitortzen du: “I am trained as a scientist, and I value scientific method. I believe it is worth holding scientific research— especially high-profile research on a topic that is of great social and political importance—to the highest standards” (2010, 12. or.). Alde horretatik, Brain Organization Research osatzen duten ikerketa eta artikuluak, hemen aztertu ditugunak barne, ez dira esperimentuak, baizik eta *kuasi-esperimentuak* (2010, 3. or.).

Jaio aurreko hormonek giza garapenean zer eragin duten aztertzen duten esperimentu errealak –ikerketaren xedea genitalak, burmuina zein portaera izan– ezinezkoak dira, etika-kontuengatik. Animalia ez-gizatiarrekin egiten diren esperimentuak ez daude problematizitate etiko eta politikotik salbu, baina guztiz naturalizatuta dagoen jarduera bat da, oharkabean pasatzen dena.

Problematizitate etikoarekin batera, giza burmuinaren antolaketari buruz esperimentu kontrolatuak egitea ikaragarri konplexua eta zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, batik bat –baina ez soilik– burmuina eta neuronen arteko konexioak bizi guztian zehar garatzen direlako, beste teknogorputz batzuekin eta ingurunearekin interakzioan, eta, horrenbestez, hauek ezinbesteko elementuak dira neuronen arteko konexioak sortzeko –neurogenesisia–, sendotzeko eta

mantentzeko, bai burmuineko zelulen artean, bai burmuinaren eta gorputzeko gainerako atalen artean (Jordan-Young, 2010, 43. or.; Boldrini et al., 2018, 589., 597. or.; Moreno-Jiménez et al., 2019, 3. or.)<sup>426</sup>. Alegia: “(the size and shape of particular brain areas and how various areas connect), as well the function of key cells such as hormone receptors, all depend to some extent upon the particular stimulation and interaction the person experiences” (Jordan-Young, 2010, 43. or.). Ondorioz, ezinezkoa da burmuinaren garapena analizatzea ingurunea kontuan hartu gabe, baina ez dimentsio beregainak diren heinean, baizik eta elkarren eraketari begira. Esperimentuen eremuan, horrek esan nahi du ezinezkoa dela –gaur egun behintzat– kondizio eta estimulu berdin-berdinak edo oso antzekoak lortzea ehunka edo milaka haur eta neraberren lagin baterako bi hamarkadatan zehar eta eguneko 24 orduetan. Ezinezkoa litzateke teknogorputz guztion interakzioak kontrolpean izatea.

Baina badago beste aukera bat, esperimentu mota ez hain kontrolatu bat, hain justu ere faktore jakin batek askotariko faktoreek parte hartzen duten prozesu luzeetan zer eginkizun duen neurtzeko: saiakuntza kliniko (Jordan-Young, 2010, 44. or.). Halako probek, estatistikoki esanguratsuak izateko, honako ezaugarri hauek izan behar dituzte: teknogorputzak zoriz aukeratuak izatea, kopuru esanguratsu bat izatea –ehunka edo milaka–, eta itsu bikoitzeko saiakuntzak izatea, hau da, ez jakinaraztea nor ari den plazeboa eta droga hartzen<sup>427</sup>. Giza teknogorputzetan hormonek dituzten efektuak neurtzeko lehen saiakuntza kliniko aleatorio eta itsu bikoitzekoa Dieckmann eta beste egile batzuek (1953) egin zuten, DESarekin, tesi honen hirugarren kapituluaz azaldu dugun bezala. Giza burmuinaren antolaera aztertzeko entsegu kliniko batek eskatuko luke haurdun asko eta asko esleitzea zenbait talderi eta talde horietan sistematikoki aldatzea hormonekiko kontaktua; aldi berean, eskatuko luke haien ingurune sozialeko inork ere –ezta berek, haurrek eta doktoreek ere– ez jakitea zer hartu edo zerekin kontaktuan egonak ziren. Denborarekin, haur horien fetu-garaiko hormonekiko esposizioa alderatu liteke, eta, helduaroan, zientzialariak saiaturiko ziren argitzen ea erlazioaren badagoen hormonekiko esposizioaren eta sexualitatearen artean. Aukera hori ere fikzioaren esparruan dakusagu (Jordan-Young, 2010, 44. or.).

Hortaz, Brain Sex Theory eta Brain Organization Research teorien sendotasuna eta indarra problematizatzen duen lehen argudioa zera da: ez daudela funtsatuta ez esperimentu zientifikoetan, ez itsu bikoitzeko saiakuntza kliniko aleatorioetan. Horrek beste bi argudio dakartza inplizituki: oso-oso teknogorputz gutxiren gainean ateratzen direla ondorioak –lau

---

<sup>426</sup> Eskerrak eman nahi dizkiot Irantzu Urizi, interakzio eta estimulu bidezko neuronon arteko konexioen eraketen inguruko gure elkartrukeengatik.

<sup>427</sup> Idealki, horrek bai pazienteak bai zientzialariak inplikatzeko ditu (Jordan-Young, 2010, 44. or.).

azterketak edo artikulua kontuan hartuta, zortzi trans\* teknogorputz dira guztira: sei MtF, trabesti bat eta FtM teknogorputz bat. Horretaz gainera, ez dira aleatorioki aukeratuak. Hona hemen Jordan-Young-en ondorioa: “Neither individual studies nor even a small set of replications can ever be decisive in supporting the theory of brain organization in humans. Nor can the results of even a vast number of quasi experiments simply be evaluated in an “additive” fashion” (2010, 44.-45. or.)<sup>428</sup>.

Animalia-teknogorputz gizatiarretan berez esperimenturik egin ezin denez, zientzialariek beste animalia-teknogorputz batzuekin egindako azterketen eta giza teknogorputzekin egindako *kuasi-esperimentuen* ebidentzien piezak biltzen dituzte beren ondorioak funtsatzeko, baina halako azterketa eta *kuasi-esperimentuak* partzialak eta ez-kontrolatuak dira definizioz. Zhou eta beste egile batzuek karraskarien gaineko ikerketak bildu dituzte (1995, 68., 69., 70. or.), Kruijver eta beste egileek arratoien gainekoak (2000, 2039. or.), Swaab-ek arratoi eta hudoen gainekoak (2007, 439. or.), eta Chung eta beste egile batzuek txerri, primate eta arratoien gainekoak (2002, 1031. or.). Zhou eta beste egileek, adibidez, zerbait “berria” aurkitu baino gehiago, aurretiko hipotesi bat formulatu dute, beste animalia batzuen burmuinaren gaineko ikerketetan oinarritua, eta, gero, hipotesi hori gizakien burmuinean berresten saiatu dira:

In experimental animals... the same gonadal hormones that prenatally determine the morphology of the genitalia also influence the morphology and function of the brain in experimental animals in a sexually dimorphic fashion.... This led to the hypothesis that sexual differentiation of the brain in transsexuals might not have followed the line of sexual differentiation of the body as a whole. (1995, 68. or.)

Adibide horretan, badira bi “akats” metodologiko. Batetik, ondorioa ezarrita dago aldez aurretik: “[S]ex differences in the size and cell number of the BST have been described in rodents which are influenced by gonadal steroids in development” (Zhou et al., 1995, 68. or.). Beraz, “aurkikuntza” hori giza burmuinean ere badagoela berrestean edo egiaztatzean datza ikerketa, eta horrek nozio honekin topo egiten du: “Scientists can test only what they do not take

---

<sup>428</sup> Anne A. Lawrence psikologo, sexologo eta trans\*-gaiei buruzko idazle emankorrek, parafilia gisa kontzeptualizatzen duena bere transexualitate mota, ere kritikatu ditu Zhou eta beste egile batzuen (1995), Kruijver eta beste egile batzuen (2000) eta Chung eta beste egile batzuen (2002) artikulua eta/edo ikerketak. Lawrence-ren ustez, ikerketa horiek, zerbait frogatzekotan, frogatzen dute helduaroan hormona bidezko terapiak hartzeak eragina daukala giza burmuinean: “The simplest and most plausible explanation of the Zhou/Kruijver findings is that they are attributable, completely or predominantly, to the effects of cross-sex hormone therapy administered during adulthood. There is no longer any reason to postulate anything more complicated” (2007, 7. or.).

for granted” (Jordan-Young, 2010, 55. or.). Bestetik, inferentzia eta estrapolazio batzuk ez daude justifikatuta: karraskarien burmuinen gaineko ikerketetatik ateratako ondorioak giza burmuinean aplikatzea.

Ikerketaren lausotasuna eta zorroztasun-falta agerian geratzen dira berriz ere: “Considered together with *information* from animals, then our study supports the hypothesis that *gender identity* alterations may develop as a result of an altered interaction between the development of the brain and sex hormones...” (Zhou et al., 1995, 70. or.; geuk nabarmendua). Chung eta beste egile batzuen lanean ere ikusten da nola egiten dituzten arratoien burmuinei buruzko ikerketetatik giza burmuinenetarako estrapolazio eta inferentzia justifikaezin berberak eta nola lortu nahi diren alde zuzenak jakinak diren emaitzak:

For instance, perinatal sex differences in testosterone are required for the principal nucleus of the BST in the *rat brain* to become larger and contain more cells in males than in females... Moreover, *these sex-dependent morphological changes occur within the first week of postnatal life... Therefore, gonadal steroids are presumed to play a role in the sexual differentiation of the human BSTc... which was predicted to be apparent early on during fetal or infant development. This idea is further supported by observations in humans, which indicate that dramatic changes in circulating gonadal steroid levels do not seem to alter the size of the BSTc in adult control subjects.* (2002, 1027. or.; geuk nabarmendua)<sup>429</sup>

Jordan-Young-i jarraituz, espezieen genitalen eraketan, garapenean eta eboluzioan dauden antzekotasunak ezin dira alderatu haien burmuinen eraketan, garapenean eta eboluzioan dauden antzekotasunekin. Egileak dioenez, azken horiek txikiagoak dira, giza burmuinak askoz ere konplexuagoak baitira, eta, horregatik, askoz denbora gehiago behar dute azalertzeko eta garatzeko (2010, 48.-49. or.). Hori hala izanik ere, Chung eta beste egile batzuen ikerketan badira ornodunen burmuinari buruzko orokortasun batzuk talde gutxi-asko homogeen bat iradokitzen dutenak: “In general, perinatal sex differences in gonadal steroid levels are responsible for organizing the vertebrate brain in a sex-dependent manner” (2002, 1027. or.).

Fausto-Sterling-ek ere kritikatu du beste animalia batzuen burmuinei buruzko ikerketen ondorioak giza burmuinera aplikatzea, bereziki ustezko sexu-dimorfismoari dagokionez. Ugaztun eme askok testosteronarekiko sentiberatasun diskretuko aldi bat igaro ohi dute hasieran, baina beste batzuek, hala nola txerriek, ez (2000, 231. or.). Izan ere, txerri emeek jaiotzetik pubertarora bitartean erantzuten diote testosteronari, eta injektaturiko hormonen portaera-efektuek aurrera egiten dute denborarekin (2000, 231. or.). Gogoratu dezagun Chung eta beste

---

<sup>429</sup> Aiputik kendu ditugun zatiak ez dira testu-zatiak, baizik eta erreferentzia bibliografikoak.



egile batzuk “relatively late sexual differentiation has also been observed in the pig hypothalamus” delakoaren aurkikuntzetan oinarritzen direla (2002, 1031. or.)<sup>430</sup>, eta hori bat etorriko litzateke Fausto-Sterling-ek dioenarekin, baina haiek erabiltzen dute zertarako eta baieztatzeko giza burmuinaren BSTc-a jaio aurretik eta jaiotzean hormonon eraginez sexualki dimorfiko gisa antolatuta geratu arren, diferentziazio anatomikoa geroago agertzen dela, modu esanguratsu batean, helduaroan. Alegia, aldarrikatzen dute berandu agertzen bada ere sexu-dimorfismoa, hormonalki finkatuta geratzen dela giza burmuinean jaio aurreko eta jaiotzeko estadioetan. Fausto-Sterling-ek, baina, ondorio oso desberdin bat ateratzen du horretaz –kasu honetan, txerri emeen sexu-portaerari dagokionez–, esperientziaren garrantziaz dihardu eta: “Since juvenile pigs frequently engage in sexual play in both male-male and male-female combinations, it seems especially possible that experience and hormone co-produce adult behaviors” (2000, 231. or.).

Oro har, Fausto-Sterling Jordan-Young baino harago doa, zera baieztatzen baitu gorago ingurunearen garrantziaz esan dugunaren haritik:

It seems ironic, therefore, that our most prominent and influential accounts of the development of sexual behaviors in advanced mammals omit learning and experience. Because the control of hormone synthesis differs between primates and other species, a case can be made that studies on the hormonal basis of sexual behaviors in nonprimates tell us little, if anything, about primates, including humans... I make a broader claim: that the theories we have derived from rodent experimentation are inadequate even for rodents. (2000, 232. or.)

Izan ere, esperientziaren garrantzia nabarmentzen du are karraskari emeen hormona-mailetan ere, eta haien sexu-portaeraren garapena birkontatzen du ingurunearen eta biologiarren interakzioaren eta elkarrekiko osaeraren bitartez. Baina hori ere beste kontu bat da.

Lau ikerketa edo artikulu horietan aurkitzen dugun beste elementu arazotsu bat burmuinaren *postmortem* ikerketa da. Zaila da gorputz kailukara gainerako burmuinetik bereiztea, aski konplexua eta irregularra baita mugaezina izateko, eta, hortaz, haren behaketak asaldurak eta deformazioak dakartza, zaintze- eta finkatze-metodoen bitartez. Horri objektu zientifikoa *sortzen* laguntzen duten bisualizazio-teknikak eta -aparatuak gehitu behar zaizkio<sup>431</sup>.

---

<sup>430</sup> Zehazki, zera diote: “The number of cells in the sexually dimorphic vasopressin and oxytocin-containing nucleus in the pig hypothalamus increases in (post)adolescent females but not in males” (Van Eerdenburg eta Swaab, 1994; Chung et al., 2002, 1031. or.-an aipatua).

<sup>431</sup> Kruijver eta beste egileek SONY B/W CCD kamera bati konektaturiko Zeiss eskaner bat erabili zuten, planapo objektibodun mikroskopio batean (Kruijver et al., 2000, 2.036. or.). Zhou eta beste egileek, berriz, HP-UX 9.0 sistema eragileari konektaturiko Calcomp 2000 digitalizatzaile baten bidez ikertu dituzte BSTaren 6 mm-ko serie-sekzioak, Zeiss mikroskopio bat erabiliz, 2.5x-eko objektibo batekin eta 10x (PLAN) motako objektibo

Fausto-Sterling-i jaramon egitera, zientzialariek zenbait segmentazio-metodo aukeratu eta zenbait subdibisio kopuru eraikitzen dituzte: “Each approach to subdividing the CC represented an attempt to tame it—to make it produce measurements the authors hoped would be objective and open to replication by others. Labeling choices gave the methods different valence” (2000, 127. or.). Finkatze-metodoei dagokienez, askotariko metodoak daude, baina denek eragiten dute deformazio edo asalduraren bat, Fausto-Sterling-ek dioenez. Zhou eta beste egile batzuen (1995, 70. or.), Kruijver eta beste egile batzuen (2000, 2034. or.) eta Chung eta beste egile batzuen (2002, 1027. or.) lanetan, formalina erabili zuten, formaldehidoaren edo metanalaren ur-soluzioa. Finkatze horren ondotik –37 egun, Kruijver eta beste egileen kasuan–, burmuinak mikrotomo batez ebaki, deshidratatu, eta parafinatan blaitu zituzten.

Fausto-Sterling-ek dioenari jarraituz, Kruijver eta beste egileek berek ere onartu dituzte muga horietako batzuk; burmuin transexual kopuru benetan txikia aztertzeaz gainera, zera diote:

The development of high resolution imaging techniques may allow *in vivo* volume measurements of particular brain areas in much larger groups of transsexuals... Although brain imaging proved to be useful in visualizing [*e.g.* septo-hypothalamic brain injuries leading to hypersexuality or altered sexual preference...], precise neuroanatomical delineation of small brain structures such as the BSTc or neuronal counts are, at present, not possible using such techniques. (2000, 2041. or.)

Fausto-Sterling-en aburuz, “that researchers continue to probe the corpus callosum in search of a definitive gender difference speaks to how entrenched their expectations about biological differences remain” (2000, 145. or.). Horren aurrean, zera azaltzen du: “[T]he real excitement of studies on the corpus callosum lies in what we can learn about the vastness of human variation and the ways in which the brain develops as part of a social system” (2000, 145. or.). Hain zuzen, giza burmuinen arteko desberdintasunen multiplizitate horretatik dator –kontuan hartuta desberdintasunok ingurunera irekitako sistema sozial baten parte gisa daukaten garapenetik eratorriak direla– halako ikerketei egiten zaien kritika garrantzitsuenetako bat: burmuinak ez direla sexualki edo, hobeki esanda, sexu-generikoki dimorfikoak. Haien anizkoitzasuna ezin da dimorfikoki sailkatu, finkatu eta murriztu:

The point here is not to say that there are no sex differences in behavior or cognitive skills; on average, when large groups of people are involved, there do seem to be some small but real sex

---

okularrekin (1995, 70. or.). Chung eta beste egileen kasuan, “[c]ross-sectional digital images (every 50th to 100th section) were made using a 2.5x objective (Plan-Neofluar) on a Zeiss Axioskop microscope, mounted with a Sony B/W CCD camera (model XC77CE) that was connected to an IBAS imaging analysis system (Kontron Elektronik)” (2002, 1.029. or.).

differences (though this does not mean such differences are innate...). The point, instead, is that the nature of differences between the sexes is such that it is misleading to talk about “male-type” or “female-type” cognitive patterns, even though it is currently popular to do so. There is simply too much overlap between the sexes, and too much variation in traits and skills within each sex, for that sort of categorical reference to be meaningful. (Jordan-Young, 2010, 52. or.)

Norabide berean, Fausto-Sterling-ek eta Dafna Joel-ek baieztatu dute giza burmuina hobeki deskribatzen dela populazio heterogeneo bakar batean bitan baino, eta burmuin maskulino eta femeninoen artean maiz aurkitzen diren “desberdintasun”ek ez dakartela inongo loturarik burmuinaren eta sexuaren artean; hori dela eta, proposatzen dute “sexua” kategoria baztertzea burmuinaren egitura eta funtzioei buruzko ikerketetan (2016, 5.-6. or.). Sexu-generoa sozialki sorturiko zerbait da, baina burmuinari edo burmuinaren atal batzuei egotzi zaie – gizakiarenari, kasu honetan–, edo haien ezaugarri gisa hartu da. Burmuinaren sexu-generoaren jatorria, beraz, soziala da, eta ez dauka inongo zerikusirik burmuinarekin.

Joel-ek (2011, 3. or.) eta Joel eta Fausto-Sterling-ek (2016, 1. or.), mosaikoaren eta continuumaren ikuspegitik, adierazi dute erabilera oker bat egiten dela, askotan, “sexu-dimorfismo” eta “desberdintasun” kontzeptuak nahasi eta parekotzat hartzearen ondorioz. Hori oso garbi ikus daiteke aztertu ditugun lau artikuluetan; izan ere, batzuetan “sexu-dimorfismo” ere erabiltzen duten arren, askotan erabiltzen dute “BSTc-aren desberdintasunak” kontzeptua, hau da, gizonen BSTc-a emakumeena\* baino handiagoa dela eta neurona gehiago dituela. Zhou eta beste egile batzuen artikulua baten izenburuan bertan, honako hau irakur daiteke: “A Sex Difference in the Human Brain and its Relation to Transsexuality” (1995, 68. or.). Hortik aurrera, artikulua guztian zehar erabiltzen da oker “sexu-desberdintasun”aren kontzeptua (1995, 68., 69., 70. or.).

Chung eta beste egile batzuek zera diote: “In summary, our finding of a *sex difference* in BSTc volume only in adulthood suggests that marked sex-dependent organizational changes in brain structure are not limited to early development but may extend into adulthood” (2002, 1032. or.; geuk nabarmendua). Era berean, Swaab-en bilduma-artikuluan ere barra-barra aurkitu daiteke “desberdintasun” hitza “dimorfismo” ordez: “The different brain structures that result from the interaction between hormones and developing brain cells are thought to be the basis of sex differences in the structure of the brain, and thus for behavior” (2007, 433. or.). Hona beste adibide batzuk: “*Sex differences* are not only found in relation to gender and sexual orientation, but also in cognition, aggression, and many other behaviors” (2007, 442. or.; geuk nabarmendua); “[u]nfortunately, the *sex difference* in the BSTc does not become apparent in the

BSTc volume until early adulthood, and this neuroanatomical *sex difference* therefore cannot play a part in the early diagnosis of transsexuality” (2007, 437. or.; geuk nabarmendua).

Ildo berean, azterturiko ikerketa eta/edo artikuluen beste arazo bat definizio- eta argitasun-falta eta are kontraesan terminologikoa da<sup>432</sup>. Swaab-en artikuluan, “transexualitate”aren inguruko nahaste semantiko larria dago, kontuan izanik horixe dela bilduma-lanaren kategoria eta gai nagusietako bat. Paragrafo berean, “genero-identitate” gisa eta “sexu-orientazio” gisa definitzen da transexualitatea:

The different brain structures that result from the interaction between hormones and developing brain cells are thought to be the basis of sex differences in the structure of the brain, and thus for behavior, *gender identity* (the *feeling* of being either a man or a woman), gender role (behaving as a man or a woman in society), *sexual orientation* (heterosexuality, homosexuality or *transsexuality*) and sex differences regarding cognition and aggressive behavior... may be influenced independently of each other, which may result in people with male sexual organs *who feel female and vice versa* (a phenomenon called *transsexuality*). (2007, 433. or.; geuk nabarmendua)

Jordan-Young-en iruzkinen arabera, eta tesi honetan zehar egiaztatu dugunez, “sexua”, “generoa”, “sexu-generoa”, “sexualitatea”, “sexu-orientazioa”, “identitate sexu-generikoa”, “trans\*”, “transexualitatea” edo “transgeneroa” kontzeptu konplexuak dira; ez dute esanahi bateratu eta homogeneorik; era askotara erabiltzen dira askotariko diziplina, egile eta kolektiboetan; eta problematikoak dira, begi-bistakoak baino gehiago. Labur-labur burutu dugu “trans\*” terminoaren genealogia, zeinak gorpuztasun-subjektibitateen multiplizitate handi bati egiten baitio erreferentzia. “Genero” terminoari dagokionez, hainbat kontzeptu eta esanahi erabili izan dira eta erabiltzen dira; besteak beste, “genero-rol”, “genero-identitate” eta “genero-adierazpen”, besteak beste. Gauza bera gertatzen da “sexu”rekin; aldaera ugari edukitzeaz gainera –geneak, kromosomak, hormonak, genitalak, etab.–, agerian geratu da soziokulturalki eraikia dela. Jordan-Young-en iritziz, kontzeptuen aldaketa historikoek, haien aldagarritasun semantikoak eta diziplinaren araberrako erabilerak sexualitatearen eta generoaren gaineko ikerketek berez daukaten zailtasun kontzeptuala areagotzen dute (2010, 60. or.).

Horrek kontrastea egiten du artikuluan hauek nozio horiei buruz dagoen sinplifikazioarekin, azalpen-faltarekin eta eztabaida- edo ñabardura-faltarekin, hala nola Kruijver eta beste egileen artikuluan: pasarte batean, “sexu-identitatea”, “BSTc-aren desberdintasuna

---

<sup>432</sup> Alde batera utzita, Jordan-Young-ek dioen bezala, askotan artikuluko zientifikoak itzuli egin behar direla gizarteak uler ditzan, erabiltzen duten hizkera teknikoaren eta espezifikotasunaren ondorioz, baliatzen dituzten neurri eta metodoen ondorioz, eta are ikergai dituzten elementuen ondorioz; horrek kontraste argia egiten du artikuluko ulertzeko erraztasunarekin (2010, 61. or.).

generoaren arabera”, “sexuaren ezaugarri fisiko eta genetikoak”, “aurkako sexua”, “transexualitate genetikoak”, “sexuaren ezaugarri biologikoak”, “burmuineko sexu-diferentziazioa” eta halako kontzeptuak erabiltzen dituzte haien esanahi zehatza azaldu gabe eta kontzeptu horien eta erreferentzia egiten dieten elementu biologikoen arteko lotura ere azaldu gabe:

*Gender identity (i.e. the feeling to be male or to be female) is an important trait of a subject. Transsexuals experience themselves as being of the opposite sex, despite having the biological characteristics of one sex... In line with the hypothesis that in transsexuals sexual differentiation of the brain contrasts with that of the genetic and physical characteristics of sex, our group has recently found that the size of the central subdivision of the BST (BSTc) was within the female range in genetically male-to-female transsexuals... A crucial question resulting from that study was, therefore, whether the difference according to gender in the BSTc is based on a neuronal difference in the BSTc itself or rather a reflection of a difference in innervation from the amygdala. (Kruijver et al., 2000, 2034. or.; geuk nabarmendua)*

Oro har, deigarria eta harrigarria da hain konplexua den gauza bat, identitate sexu-generikoa, kasu honetan, “trans\*” terminoan biltzen dugunarena, hormonon eraginez programatu eta antolatutako burmuineko eremu ñimiño baten tamainara edo haren neuronon kopurura murriztea eta hortik ondorioztatzea. Jauzi kontzeptual horretaz gainera, erredukzionismo horrekin batera, justifikaziorik gabeko inferentzia bat egiten da: burmuineko eremu horretatik ondorioak ateratzea norbaitek bere bizitza guztian zehar izango dituen portaera sexu-generizatuaz. Halako azalpen zientifiko bat gertu legoke magikotasunetik. Ikuspegiz irakurriz gero, fantasiako kontu bat dirudi.

Bestalde, atal honen hasieran “trans\*” terminoarekin ikusi dugun bezala, terminoak edo kontzeptuak aldatu egiten dira denborarekin. Fausto-Sterling-ek lesbianismoarekin eta homosexualitatearekin loturiko artikulu zientifikoetan terminologiak nolako eboluzioa izan duen aztertu du. Haren arabera, lesbianek eta gayek gero eta ikusgarritasun eta garrantzi sozial handiagoa izateak animalia ez-gizatiarren esperimenduetako hizkuntza aldatu zuen, baita alderantziz ere –karraskariekin eginiko esperimenduei erreparatu die berak–. Hala, 1978tik 1998ra bitartean *Hormones and Behavior* aldizkarian argitaraturiko artikuluetan erabili zen hiztegia aztertu du. Haren arabera, “sexu-lehenespen” adierazpidea darabilen lehen artikulua 1983koa da; hurrengoa, 1987koa, eta, 1987tik 1998ra bitartean, 16 aldiz ageri da: “In the 1940s,

rodents were 'bisexual.' In the (gay) 1990s, rodents have 'preferences' and 'orientations.' Whether they mount or show lordosis is a separate story" (2000, 226. or.).

Trans\*ak ez du soilik biltzen transexualitatea edo trabestismoa, baizik eta baita, edo bil dezake, androginia, anbiguotasuna, bi sexu-genero normatiboetako bakar batekoa ere ez izatearen ideia edo/eta sentimendua, edo bietakoa izatekoa ere. Alde horretatik, etorkizuneko aldaketa posibleez gainera, galdetu behar genuke nola azalduko lituzketen Brain Sex Theory eta/edo Brain Organization Researchek fenomeno horiek, ea burmuinaren alderantzikatzeko eta genitalen eta burmuinen oposizio gisa azalduko luketen, hau da, esparru kontzeptual dualista dikotomiko eta antagoniko bati eutsiz, ala ez. Alderantzikatzeko eta oposizioaren ideiek ikuspegi sexu-generiko dimorfiko eta dualista bat behar dute: "Our observations on a *reversed* sex difference in the brain support the idea that transsexuality is based on an *opposite sexual differentiation* of the brain in the second half of pregnancy and sexual differentiation of sexual organs during... pregnancy" (Swaab, 2007, 441. or.; geuk nabarmendua). Ideia hori Chung eta beste egileek ere errepikatzen dute: "Transsexuals experience themselves as being of the *opposite sex*, despite having the biological characteristics of one sex" (2002, 1034. or.; geuk nabarmendua).

Azkenik, artikuluko horietako transaren\* gaineko ikuspegi patologikoa eta trans\* identitateak burmuinaren garapen "normal"aren eta hormona-mailen "akats" edo "asaldura"n oinarrituta nahasmendu eta arazo gisa kontzeptualizatzea problematizatu eta eztabaidatuko dugu. Azterturiko artikuluen egileek "gender problem" izendatzen dute transexualitatea (Swaab, 2007, 435.-436. or.; Chung et al., 2002, 1032. or.), edo "gender identity disorder" edo "disorder" (Kruijver et al., 2000, 2034, 2040. or.; Chung et al., 2002, 1027, 1032. or.), edo "gender dysphoria" (Swaab, 2007, 435. or.).

Hiru artikulutan, abiapuntutzat hartzen da transexualitatea akats bat delako premisa, hau da, okerreko gorputzean jaiotzearen ondoriozko akatsa, eta horixe egozten zaie trans\* pertsona guztiei, denek gauza bera sentitu eta pentsatuko balute bezala, eta denek modu berean biziko balute bezala beren gorputza eta identitatea: "Transsexuals have the strong feeling, often from childhood onwards, of having been born the wrong sex" (Zhou et al., 1995, 68. or.; Swaab, 2007, 435. or.). Chung eta beste egileek ere gauza bera diote: "Differences in the size of the human BSTc have been related to the gender identity disorder transsexuality, in which subjects voice the strong feeling of being born in the wrong sex" (2002, 1027. or.). Halako ikerketek "akats" horren azalpen edo funtsatze biologiko bat bilatzen dute, hau da, noiz eta non gertatzen den "akatsa" prozesu eta elementu biologikoetan.

Horretarako, BSTc-aren bolumenaren edo neurona kopuruaren “alderantzikatzeko” kontzeptuaren eta hormona-mailaren “asaldura” kontzeptuaren bitartez azaltzen dute transexualitatea, betiere estandar maskulino eta femenino “normalak”<sup>433</sup> aintzat hartuta:

[E]pidemiological studies show that the awareness of *gender problems* is generally present much earlier. Indeed, 67–78% of transsexuals in adulthood report having strong feelings of being born in the wrong body from childhood onward (Van Kesteren et al., 1996), supporting the idea that *disturbances* in fetal or neonatal gonadal steroid levels underlie the development of transsexuality. (Chung et al., 2002, 1032. or.; geuk nabarmendua)

Nahasmenduaren edo asalduraren ideia etengabe errepikatzen da: “[O]ur study supports the hypothesis that *gender identity* alterations may develop as a result of an *altered* interaction between the development of the brain and sex hormones” (Zhou et al., 1995, 70. or.; geuk nabarmendua); “there was no difference in BSTc size between early-onset (T2, T5, T6) and late-onset *transsexuals* (T1, T3), indicating that the decreased size is related to the *gender identity alteration* per se rather than to the age at which it becomes apparent” (Zhou et al., 1995, 70. or.; geuk nabarmendua).

Ikusi dugunez, bi nozio horiek hirugarren bat eskatzen dute: “normaltasuna”. Alegia, nahasmenduak edo asaldurak estandar normalekikoak dira. Hala, transa\*, transexualitatera mugaturik, anomaliaren edo anormaltasunaren nozioarekin lotuta geratzen da: “This observation points to an early intrauterine exposure of the female fetus to *abnormally* high levels of testosterone” (Swaab, 2007, 435. or.; geuk nabarmendua); “*abnormal* hormone levels during early development may play a role” (2007, 435. or.; geuk nabarmendua)<sup>434</sup>.

Alderantzikatzearen eta nahasmenduaren kontzeptuak beste nozio eta kontakizun garrantzitsu batekin batera agertu ohi dira: “inkoherentzia” edo “inkongruentzia”. Areago, hirugarren kapituluaren zehaztu dugun bezala, OMEk buruko gaixotasunen zerrendatik atera berri du “transexual” kategoria, eta, orain, DCI-11 gidaren edizio berrian, “genero-inkongruentzia” izenarekin agertzen da, sexu-osasuneko “arazo” gisa (2018b). Genero-identitatea “arazo” gisa kontzeptualizatzea inkongruentziaren ideiaz baliaturik guztiz bateragarria da Swaab-en

---

<sup>433</sup> Kruijver eta beste egile batzuek ere berretsi dituzte alderantzikatzearen eta asalduraren ideiak: “The present findings of somatostatin neuronal sex differences in the BSTc and its sex *reversal* in the transsexual brain clearly support the paradigm that in *transsexuals* sexual differentiation of the brain and genitals may go into *opposite* directions and point to a neurobiological basis of *gender identity disorder*” (2000, 2034. or.; geuk nabarmendua).

<sup>434</sup> Alde horretatik, Jordan-Young-ek Brain Organization Researchari egiten dion kritiketako bat da hormonon eraginaren eta sexualitatearen arteko erlazioak analizatu behar lituzkeela baina hormonon jatorriaren eta sexualitatearen izaeraz iritzirik eman gabe: “In a study of how early hormone exposures affect mature sexuality, the point is to discern the relationship between hormones and sexuality—not to explore the nature of hormones or the nature of sexuality. But there is no way to study that relationship without either explicitly or implicitly asserting a great deal about the nature of the things being related” (2010, 54. or.).

kontakizun zientifikoarekin (2007); izan ere, haren arabera, transexualitatea sortzen da jaiotze aurreko genitalen sexu-garapenaren, haurdunaldiaren lehen bi hilabeteetan gertatzen dena, eta burmuineko sexu-garapenaren, haurdunaldiaren bigarren erdian hasi eta helduarora bitartean ebidente bihurtzen dena, inkongruentziaren kausaz (2007). Alegia, burmuineko eta genitalak sexuazioaren arteko inkongruentzia gisa agertzen da transexualitatea. Esana dugunez, Chrysalis-ek ere ideia horixe aldarrikatzen du.

Nolanahi ere, transari\* buruzko halako kontzeptu eta kontakizun patologizatzaile, erredukzionista, determinista, innatista eta murriztaileen aurrean, trans\* multiplizitatea, emakume\* multiplizitatea eta orokorrean teknogorputzasun-subjektibitateen multiplizitatea bezala, askoz hobeki txertatzen da ingurunearen garrantzirik eta teknogorputzen eta ingurunearen arteko erlazioaltasun konstitutibotik abiatuz sexu-generoa continuum gisa kontzeptualizatzen eta gorputzen arteko desberdintasunak graduzko eta bilakaerazko gisa ulertzen dituzten kontakizunetan. Alde horretatik, hurrengo atalean, sexu-generoari eta teknogorputzen eta identitatearen eraketari buruko beste kontakizun posible batzuk azalduko ditugu, azalpen alternatiboen bitartez lau artikulu zientifiko horiek defenditzen dituzten ideia nagusietako hiru eztabaidatuz: 1) Sexu-generoa esentzia naturala da –biologikoa, kasu honetan–, jaiotzean finkatua, determinatua, antolatua, aurretik ezarria. 2) Sexu-generoa estatikoa da: jaiotzean determinatuta geratzeaz gainera, bizitza guztirako determinatzen da, eta iraunkorra eta aldaezina da. 3) Ingurunea guztiz ukatzen da sexu-generoaren eta teknogorputzasun-subjektibitateen eraketan.

#### **4.5. Bilakaera sexu-generizatuak: trans\* erlazioaltasun anizkoitzak**

Jordan-Young-ek errusiar panpinen jolas gisa deskribatzen du Brain Organization Research teoria, hots, panpina bakoitzak hurrengo panpina dauka (2010, 270. or.). Kontua feminitatearen eta maskulinitatearen esentzia garraiatzea da, oraingoan hormonien bidez: estrogenoek eta testosteronak daukate “gizon txiki” eta “emakume txiki” horiek. Honela dio: “Brain organization theory is little more than an elaboration of long-standing folk tales about antagonistic male and female essences and how they connect to antagonistic male and female natures” (2010, 291. or.). Horren aurrean, egileak azpimarratzen du beharrezkoa dela ikuspegi deterministak eta esentzialistak alde batera uztea, eta aldarrikatzen du honako hauek direla garapen-prozesuen hiru elementu gakoak: herentziaren eta esperientziaren arteko bereizetasuna, zorizko gertaeren garrantzia, eta garapena bizitza osorako prozesu dinamiko



bat izatea, ingurunearekiko etengabeko interakzioan gauzatzen dena (2010, 271. or.). Geneak bloke estatiko eta konkretu gisa hartzen dituen ideia deterministarekin kontrastea eginez eta gure herentzia genetikoak ezarritako mugen onarpenarekin batera, badago beste nozio esanguratsu bat: “[W]hatever is “written in our genes” must be a very open-ended story, because gene expression is a dynamic, contingent process that is responsive both to specific conditions during development and to random events” (Jordan-Young, 2010, 271. or.).

Hemendik aurrera, giza teknogorputzen garapenari eta koeraketa sexu-generizatuari buruzko kontakizun alternatiboak egingo ditugu, elementu batzuen bitartez antolatzen eta biratzen direnak, hala nola “prozesu”, “bilakaera”, “multiplizitate”, “aldaketa” eta “erlazionaltasun” edo “interakzio”en bitartez. Identitate sexu-generizatuen konfigurazioei erreparatzeaz gainera, bereziki jorratuko ditugu determinismo biologikoaren babesgune diren hiru elementu garrantzitsu: hezurren osaera eta garapena, kolore-lehenespena eta trebetasun kognitiboak. Halako azalpenak, gainera, dimentsio biologikora murriztu beharrean, multidimentsionalak dira, eta lekua egiten diete diferentziei, ez hierarkikoki eta patologikoki; alegia, identitate eta sexu-genero ez-normatiboak subjektibitate-gorputzasunen multiplizitate erlazional zabal eta aldakorren parte gisa azaleratzen dira, feminitate eta maskulinitate normatiboak bezalaxe.

#### **4.5.1. Hezurrez, kolorez eta trebetasun kognitiboez**

Garapenaren eredu interakzionista batek –hots, besterik gabe gehigarria izateaz gainera herentziaren eta esperientziaren arteko fusio bat islatzen duena– nola funtzionatzen duen ulertzeko, Ah-King eta Nylin-en kontzeptu bat berreskuratu beharra daukagu, hain zuzen ere sexua erreakzio-arau gisa aldarrikatzen duena eta guk “sexu-generoa erreakzio-arau gisa” kontzeptualizatuko duguna. Jordan-Young-ek (2010, 271.-272. or.) eta Fausto-Sterling-ek (2012a, 105. or.) bat egiten dute Ah-King eta Nylin-ekin, kontzeptu egokitzat jotzen dutelarik eta nabarmentzen dutelarik biologia ebolutiboan kontzeptu berria ez izan arren orain arte ez dela askorik erabili.

Richard Lewontin biologo ebolutibo eta determinismo genetikoaren kritikari sutsuak honela azaldu zuen “erreakzio-arau”aren kontzeptua: “[A] genotype does not specify a unique outcome of development; rather, it specifies a norm of reaction, a pattern of different developmental outcomes in different environments” (2000, 23. or.). Genotipoak geneei egiten die erreferentzia, DNAko material hereditarioaren oinarritzko unitateei. Fenotipoa kontzeptu

zabala da, eta garapenaren emaitzei egiten die erreferentzia, banakako “ezaugarri” anatomiko, fisiologiko eta portaerazkoei; ezaugarriok gaingiroki defini daitezke –altuera, funtzio intelektuala–, edo modu espezifikoago batean –femurraren luzera edo buru-errotazioa hobetzeko X hobekuntza lortzeko behar den praktika kopurua–. Gainerako guztia inguruneak biltzen du: airea, toxikotasuna, nutrizioa, erlazio materialak, afektuak, traumak, kognizioa, orotariko esperientziak, ezaugarri baten garapenerako esanguratsuak ez diren herentzia genetikoaren alderdi guztiak, are hormonak ere (Jordan-Young, 2010, 272. or.). Erreakzio-arauek agerian jartzen dute genotipoek eta fenotipoek hainbat inguruetan duten erlazioa.

Horrek guztiak nola funtzionatzen duen azaltzeko, landareekin egindako esperimentu edo azterketetara jo izan dute Fausto-Sterling-ek (2012a, 103.-104. or.) eta Jordan-Young-ek; lehenbizikoaren kasuan, baita euliekin egindakoetara ere. Fausto-Sterling-ek, Cook-en (1968) ikerketan oinarriturik, irudi bidez erakutsi zuen nola aldatzen den *Ranunculus aquatilis* eta *Ranunculus flabellaris* espezieen hostoen morfologia hiru inguruetan: uretan sartuta, aire-ur interfazean eta aire zabalean. Desberdintasunak harrigarriak dira. Gauza bera gertatzen da Clausen, Keck eta Heisey-k 1958an *Achillea* landarearen zazpi genotiporekin egindako esperimentuaren irudiekin, zeinak Jordan-Young-ek jaso baitzituen (2010, 274. or.); zehazki, hiru inguruetan egin zuten esperimentua: Stanfordeko Unibertsitatetik (Kalifornia) gertuko lorategietan, kostaldeko klimarekin eta itsas mailatik hurbil, Sierra Nevadan 1.400 m inguruan, eta 3.050 m inguruan. Desberdintasunak nabariak dira. Jordan-Young-en iritziz, esperimentu horiek ezbaian jartzen dute garapenaren kodearen edo mapa genetikoaren ideia. Ez dago jakiterik zer inguruetan izango den landare bakoitza altuagoa edo baxuagoa: “[T]here is no way to intuit a norm of reaction. It must be measured, rather than imagined or taken for granted” (Fausto-Sterling, 2012a, 103. or.).

Sexu-generoari dagokionez, hirugarren kapituluan adierazi dugun bezala, Ah-King eta Nylin-ek sexu-determinazioa funtsean “plastiko” gisa ezaugarritu zuten, baita genetiko izendatzen denean ere (2010, 234. or.). Haien arabera, sexua ingurunearekiko interakzioaren ondoriozko erreakzio-arau gisa uler daiteke; horregatik, oso oso aldakorra izan daiteke, bai sexu-atributu fenotipikoei dagokienez, bai portaerari dagokionez. Ah-King eta Hayward-ek erakutsi zuten, teknogorputzen –anfibioak, narrastiak eta arrainak, besteak beste– sexu-mutazio eta -eraldaketak, gure ikuspegi sexu-generikotik queer edo trans\* deituko genukeen norabide batean, teknogorputzen *potenzialaren* parte dira, haren erantzun-gaitasunarena, sexu-generoa ingurunearekiko etengabeko interakzioaren ondoriozko erreakzio-arau gisa ulertuta –interakzio horretan, toxikotasunak eta ingurumen-xenoestrogenizitateak ere parte hartzen dute– (2014, 6. or.).

Baina, toxikotasunaz gainera, badira beste adibide batzuk inguruneak teknogorputz sexu-generizatuen garapenean duen eragina adierazten dutenak, betiere gizakiez ari garela. Jordan-Young-en arabera, sexu-generiko gisa etiketatzen eta sailkatzen diren eta jaio aurreko eragin hormonalari egozten zaizkion giza teknogorputzen portaera ia guztiak –edo guztiak–, hau da, ezaugarriak, haien tamaina eta haien norabidea, malguak eta testuinguruaren arabera dira (2010, 278. or.). Hezurren adibidea bereziki egokitzen jotzen du egileak giza teknogorputzen ezaugarri sexu-generizatuen garapena birpentsatzeko, hormona esteroideek haien hazkuntzan eta mantentzean duten zeregin nagusia dela eta –gogoratu dezagun hirugarren kapituluan aipatu dugun eztabaida neketsua, emakume\* menopausiadunen osteoporosiari eta ondoriozko farmako hormonalen ustezko beharrari buruzkoa–. Hezurak, askotan, ezaugarri fenotipiko argi eta garbi sexualki dimorfikotzat hartzen dira: gizonak, batez beste, emakumeak\* baino altuagoak dira, hots, hezur luzeagoak dituzte (Jordan-Young, 2010, 280. or.). Jordan-Young-ek dioenez, altuerari dagokionez, sexu-diferentzietan edo, hobeki esanda, dimorfismo sexu-generikoari buruzko oinarritzko teoriak honako hau dio:

The growth plates or epiphyseal plates are generally more sensitive to the effects of estrogen than to those of testosterone. During puberty in the female, the rising levels of estrogen seal the epiphyseal plate earlier than testosterone does in males. The effects of the male hormone, testosterone, are felt at a later stage. Thus, females stop growing earlier than males do. (2010, 280. or.)<sup>435</sup>

“Sexu-hormonei” eta haien inguruko eta sostengurako narratiba guztiari egindako kritikaren ildo berean, Jordan-Young-ek dio bai testosterona bai estrogenoak garrantzitsuak direla teknogorputz guztien hezur-hazkuntzaren gelditzean. Horretaz gainera, azpimarratzen du kontakizun horrek ez dituela kontuan hartzen testuinguru historiko eta geografikoaren arabera hezur-hazkuntzan dauden desberdintasunak. “Sexu-hormonak” baldin badira azalpenerako faktore nagusia, nola azaldu –galdetzen du Jordan-Young-ek– holandarren eta Europako mendebaldeko gainerako herritarren arteko desberdintasunak, elikadura eta osasun-baldintzak antzekoak izanik? Nola azaldu holandar emakumeen\* batez besteko altuera duela hirurogei urte Espainiako estatuko gizonena baino altuagoa izatea (Cavelaars et al., 2000, 11. or.)? Eta holandar emakumeen\* –eta gainerako herrialde industrializatuakoen– altuera zergatik igo da

---

<sup>435</sup> Egileak [skeletalsystem.net](http://skeletalsystem.net) iturria aipatzen du. Saiatu gara iturri horretan sartzen, baina bilatzaileak diosku “ezin dela webgune horretara sartu”. Dirudienez, existitzeari utzi dio.

urtetik urtera, menarkia –estrogeno-maila altueneko garaia– atzeratuz joan den garai berean?<sup>436</sup> (2010, 280. or.).

Galdera guztiok iradokitzen dutena, antza, zera da: altuera ez dela ezaugarri sexualki dimorfiko biologikoki determinatu bat. Altuera ez da modu determinista batean zuzenean eratortzen sexutik; areago, denbora-espazio testuinguruaren arabera aldatzen da. Horrek ez du esan nahi desberdintasunik ez dagoenik gaur egun “gizon” eta “emakume” deritzogunen batez besteko altueren artean, baina, Jordan-Young-en aburuz, ez da datu bereziki interesgarria. “Funtsezko sexu-diferentzi”aren kontakizunaren arazoetako bat zera da: “[H]ow sex differences, themselves, change shape in different environments. It also makes it hard to absorb information on important influences from social structures” (2010, 281. or.). Alde horretatik, Song eta Burgard-en ikerketaren arabera, Txinako batez ere landa-eremuetako haurren sexu-diferentziak –dimorfikoak–, Filipinetakoekin alderatuta, lotuta zeuden semeak alaben gainetik lehenestearekin, horrek elikadura-arreta eta zaintza handiagoa esan nahi baitu (2008, 305., 317. or.). Galdetu genezake ea Txinatik harago –Europar, adibidez– zer elikagai kopuru ematen zaizkien neska eta mutilak, eta orobat haurrei, hau da, ea genero-espektatibek eta -arauak –zeinen arabera mutilak altuagoak eta handiagoak baitira eta jarduera fisiko gehiago egiten baitute– eraginik ba ote duten inbertitutako elikadura-baliabideetan hasieratik beretik.

Egiaz, Fausto-Sterling-i jarraituz, biologikoki emandako afera sexualki dimorfiko bat baino gehiago, ingurunearekiko interakzioaren efektua dira hezurak, kontuan izanik ingurune horretan askotariko elementuek parte hartzen dutela eta haien erlazonaltasuna garapenaren sistema dinamikoen teoriaren ikuspegitik uler daitekeela, baina ez ikuspegi dikotomiko batetik, sexua afera biologiko gisa eta generoa, berriz, kultural gisa banatzen dituen. Alde horretatik, Taha eta beste egile batzuen lana (2001) aipatuz, Brooklyneko judu ultraortodoxoen talde baten adibidea dakar –Jordan-Young-ek ere erabiltzen du, erreakzio-arauaren kontzeptua azaltzeko–, zeinek beren kide sekularrek baino jarduera fisiko urriagoa egiten baitute, eguzki-argitan gutxiago egoten baitira, esne gutxiago edaten baitute eta hezur-dentsitate apalagoa baitute orno lunbarretan (Fausto-Sterling, 2005, 1491. or.). Fausto-Sterling-ek, bestalde, Hu eta beste egile

---

<sup>436</sup> Jordan-Young-ek Fredriks eta beste egile batzuen azterketaren (2000) berri dakar. Azterketa horren arabera, Holandako gizon eta emakume\* gazteen altuera etengabe haziz joan da 1955etik 1997ra bitartean. Horretaz gainera, menarkia sei hilabete atzeratu da azken berrogei urteetan, 13.15 urtera arte (2000). Bestalde Jordan-Young-ek Ong, Ahmed eta Dunger-en artikulua (2006) ere baliatu zuen menarkiaren atzerapenari buruzko zenbait ikerketaren berri emateko. Ikerketa horietako batzuen arabera, hamarkada batetik bestera 3,6 hilabete atzeratu da menarkia –Alemania 1958-1975, Holanda 1955-1965, Hungaria 1935-1985 eta Turkia 1970-2000–; beste ikerketa batzuetan, berriz, aipatzen da hamarkada batetik bestera 2,4 hilabete atzeratu dela Turkian, Hegoafrikan eta Espainiako estatuan (Ong et al., 2006, 11. or.); eta, beste batzuetan, hilabete bat hamarkada batetik bestera –Alemania 1975-, Holanda 1965-1997, Espainiako estatua, Danimarka, Erresuma Batua, Belgika, Norvegia, Suedia eta Italia– (2006, 9. or.).

batzuen lana (1994) ere azpimarratzen du, Txinako landa-eremuetako emakumeen\* hezurren egoeraren eta bizimoduen arteko lotura aztertzen duena. Zehazki, Txinako bost kantonamendutako 775 emakume\* aztertu zituzten, 35 urtetik 75era bitartekoak –hiru kantonamendutan, baziren Han jatorriko emakumeak\*, eta, beste bitan, mongoliar eta kazakhstandar jatorrikoak–, eta ondorioztatu zuten eguneroko jarduera fisikoa –nekazari-lana, kasu honetan– eta hezurren osasuna lotuta zeudela (1994, 289., 296. or.). Zenbat eta lan gehiago eta gogorragoa egin, orduan eta hezur-dentsitate eta hezurretako mineral kantitate handiagoa. Nekazari-lanen ondorioz eguzki-argitan denbora gehiago pasatzeak, gainera, onura zekarkion, antza, hezur-masari, D bitaminaren sintesian laguntzen duen heinean, kontuan izanik bitamina horrek kaltzioa xurgatzen duela (1994, 296. or.).

Fausto-Sterling-en aburuz, hezurak, haien osaera eta haien bilakaera, afera sexualki dimorfiko bat baino gehiago, ingurunearekiko interakzioaren ondorio dira, eta kulturaren, klasearen, sexu-generoaren eta arrazaren erregimenen arteko loturek ere badute zerikusia, zalantzarik gabe. Egileak zehaztu zuenez, elkarren artean lotuta dauden zazpi sistemak osatzen dute hezurren garapena, eta bizitza *guztian* zehar eragiten dute hezurren indarrean. Honako hauek dira: jarduera fisikoa –jolasa zein lana–, dieta, drogak –medikamentuak zein legez kanpoko drogak–, fetu-garapenaren aldiko hezurren osaera, hormonak, hezurren metabolismo zelularra eta haien guztien ondorio biomekanikoak hezurren osaeran eta mantentzean (2005, 1513. or.)<sup>437</sup>. Era berean, zazpi sistema horietan, eragin handia dute eta, horrenbestez, haiengandik bereizezinak dira generoa, egoera sozioekonomikoa edo klasea, eta kultura –arrazak eta etnizitatea barne–, zer eta zenbat jaten dugun, zer ariketa mota egiten dugun eta zer maiztasunekin, zer droga mota kontsumitzen ditugun eta abar zehazten duten heinean (2005, 1515. or.).

Kontakizun horretan, hirugarren kapituluan adierazi dugunaren ildotik, hormona esteroideak gure teknogorputzen materialtasun sexu-generizatua etengabe aldatuz eta garatuz eratzen duten erlazioen multiplizitatearen *beste* elementu bat bezala ageri dira. Doktorego-tesi osoan sexu-generoaren elkarrekiko eraketaren inguruan aipatzen ari garen bezala, Fausto-Sterling-ek honela amaitzen du “The Bare Bones of Sex: Part 1—Sex and Gender” artikulua:

The sex-gender or nature-nurture accounts of difference fail to appreciate the degree to which culture is a partner in producing body systems commonly referred to as biology—something apart from the social... We will not lay bare the bones of sex, but we will come to understand, instead, that our

---

<sup>437</sup> Fausto-Sterling-ek kontakizun zehatzagoa egin du lotura horien edo haietako batzuen inguruan, eta azalpenezko diagrama posible bat ere badakar.

skeletons are part of a life process. If process rather than stasis becomes our intellectual goal, we will improve medical practice and have a more satisfying account of gender and sex. (2005, 1516-1517. or.)

Hezurrez gainera, trebetasun kognitiboak ere determinismo biologikoaren babesguneak dira; hain zuzen, haien teoriak garatu eta defendatzeko aukeratutako esparrurik maiteenetariko bat, nahiz eta teoriok oso problematikoak izan, aniztasun argumentatibo eta faktiko baten argitan. Jordan-Young-ek dioenez, 1970eko hamarkadaz geroztik nabarmen igo da unibertsitatean ikasten duten emakumeen\* kopurua, eta horrek bertan behera utziko luke emakumeek\* gizonen baino gaitasun eta lehiakortasun gutxiago dutela dioen teoria, jaiotzetiko ustezko desberdintasun sexu-generiko naturalki eta hormonalki programatuen eraginez. Hala, erreakzio-arauetan oinarrituriko kontakizun bat eskaintzen du. Kontuan izanik, adibidez, 2018an Kaliforniako States Universities unibertsitate-sistemako master edo doktoregoetan matrikulatutakoen % 62 emakumeak\* zirela (The California State University, 2018), eta, kontuan izanik azken hamarkadetan ez dela aldaketa biologiko esanguratsurik egon, ingurune sozialean bilatu behar dira arrazoiak<sup>438</sup>.

Herrialde askotan igo da unibertsitatean ikasten duten emakumeen\* kopurua; besteak beste, Argentinan. Argentinako Hezkuntza Ministerioaren datuen arabera, 2015ean unibertsitatean sartu ziren 458.565 ikasleen % 58 emakumeak\* ziren (Costa, 2017). Bost –are zazpi– karrera ohikoenetan, ikasle gehienak emakumeak\* ziren: Zuzenbidean, % 56 (41.854); Enpresen Kudeaketa eta Administrazioan, % 51,4 (25.307); Kontularitza Publiko Nazionalan, % 74,5 (24.190); Psikologian, % 74,5 (21.519), eta, Erizaintzan, % 79,6 (20.919) (Costa, 2017).

Zientziei, teknologiari, matematikari eta ingeniariari (STEM) dagokienez, Jordan-Young-ek jakinarazi du arrakala nabarmen txikitu dela azken hamarkadetan, esparru batzuetan beste batzuetan baino gehiago (2010, 283. or.). Ingeniaritzan, adibidez, oraindik ez da lortu antzeko mailetara iristea, nahiz eta lizentziadun eta doktoreen tituluak 1966ko % 0,5etik 1996ko %17,9ra eta % 12,3ra igo diren, hurrenez hurren (Huang, Taddese eta Walter, 2000, 5. or.; Jordan-Young, 2010, 283. or.-an aipatua). Arrakala txikitu den arren, oraindik ere ikusten da Argentinako kasuan, adibidez. 2015ean, gizonen aukeraturiko laugarren karrera Konputazioa, Sistemak eta Informatika izan zen (% 83). Ingeniaritza guztiak batuta, % 36,2 izan ziren emakumeak\*.

Europar ere, arrakala nabarmena da oraindik ere, nahiz lehen baino gutxiago. 2009an, EB-27ko ikertzaileen % 33 ziren emakumeak\*; nolana ere, emakume\* ikertzaileen kopurua

---

<sup>438</sup> Desberdintasun sexu-generikoak beste desberdintasun batzuekin gurutzatzen dira –klasea, arraza, gaitasuna, etab.–, eta, Jordan-Young-en dioen bezala, “[t]he shape of sex[-gender] difference is *specific* to class-race groups and has *changed differently* in specific groups over the past few decades” (2010, 282. or.).

azkarrago hazi da gizonena baino; zehazki, 2002tik 2009ra bitartean, % 5,1 hazi zen urtean, gizonena, aldiz, % 3,3. Era berean, 2002tik 2010era bitartean, emakume\* zientzialari eta ingeniariaren proportzioa urtean % 5,4 hazi zen; gizonena, berriz, % 3,1 (Europako Batzordea, 2013, 5. or.)<sup>439</sup>. 2002tik 2010era bitartean, emakume\* doktoreen kopurua % 3,7 igo zen urtean; gizonena, aldiz, % 1,6. Areago, 2016an, oreka lortu zen genero aldetik: doktoreen % 40tik % 60ra bitartean emakumeak\* izan ziren herrialde gehienetan (Europako Batzordea, 2019c, 18. or.). Arrakala txikitu den arren, oraindik ere agerikoa da aldea ingeniarietza, manufaktura eta eraikuntzan, eta informatikan; zehazki, 2012an, doktoreen % 28 eta % 21 izan ziren emakumeak\*. Nolanahi ere, Irlandan, ia erabateko oreka lortu zuten genero aldetik: 2012an, konputazio-arloko doktoreen % 45 emakumeak\* izan ziren (Europako Batzordea, 2016, 20. or.). EBko emakume\* doktore kopurua igotzea, sistemazio-ikasketetan –adibidez, Enpresen Kudeaketa eta Administrazioa, eta Kontularitza Publiko Nazionala, Argentinan–, gizon baino emakume\* gehiago egotea, STEM arloan gero eta emakume\* gehiago egotea, edo Irlandan konputazio-arloko emakume\* doktore ugari egotea ezin da modu egokian azaldu burmuin-antolaketa sexu-generikoki dimorfiko hormonalaren teoriaren bitartez, Swaab-ek eta beste egile batzuek defendatzen duten bezala. Ezta jaio aurretik hormonalki finkatzen diren burmuin sistematizataile maskulinoaren eta burmuin enpatizataile femeninoaren kontakizun deterministaren bitartez ere, Baron-Cohen-ek dioen bezala.

Mura, Yansen eta Zukerfeld-ek xeheki aztertu dute zer arrazoi egon daitezkeen Argentinako software-ekoizpenaren sektorearen maskulinizazio handiaren atzean, kontuan hartuz enplegua gero eta gehiago feminizatu dela 1990eko urteez geroztik (2012)<sup>440</sup>. Berriz ere, arrazoi biologikoek ez dute ia zerikusirik, edo batere ez. Arrazoi horien artean, ekoizleen lehen haurtzaroarekin loturikoak daude. Hauxe diote etapa horri buruz: “[S]ubjektibitate femeninoa tankeratzen hasten da genero bakoitzerako artefaktu egokiak definitzen dituzten eragin esplizitu eta inplizituen eta haiei eman beharreko erabilerean bitartez” (Mura et al., 2012, 272. or.)<sup>441</sup>. Egileek diotenez, artefaktuek eta jostailuek balio jakin batzuk eta diseinu heteropatriarkala daukate, hau da, esperimentazioarekin, esplorazioarekin eta eraikuntzarekin zerikusia duten artefaktu eta jostailuak, baita haien argibideak eta publizitatea ere, ez dira neskei zuzenduak, eta

---

<sup>439</sup> Europako Batzordeak jakinarazi duenez, emakume\* ikertzaileen ratioa nabarmenago hazi da gizonena baino, arlo guztietan, bai enpresa pribatuaren sektorean, bai goi-mailako hezkuntzan eta gobernuan (2012, 5. or.).

<sup>440</sup> Zenbait datu eman dituzte: batetik, multinazional handiei buruzko datu ofizialen arabera, sektore horretako langileen % 34,7 emakumeak\* dira; bestetik, beste ikerketa batzuen arabera, % 24 dira emakumeak\*; eta, Buenos Airesen 2010ean elkarrizketatutako 24 software-ekoizleetako batzuen arabera, 1-10 (Mura et al., 2012, 272. or.).

<sup>441</sup> Jatorrizko testua: “[L]a subjetividad femenina empieza a moldearse a través de las diferentes influencias explícitas e implícitas que definen los artefactos adecuados para cada género y los usos que deben dar a los mismos”.

horrek zera dakar: “[G]enero-rolak partzialki egonkortuta daude haurra hezkuntza-sistema formalean sartu baino askoz lehenagorako” (2012, 272. or.)<sup>442</sup>. Neskei eskaintzen zaizkien jostailuek zerikusi handiagoa dute zaintzarekin, hazkuntzarekin, estetikekin eta sukaldearekin; hots, genero-estereotipoak sustatzen eta elikatzen dituzte, eta neskek teknologiarekin garatzen duten lotura kontsumoan oinarrituta dago, haren eraikuntzan baino gehiago. Haurtzaroan jolas mota jakin batzuk aukeratzea edo nahiago izatea, beraz, askoz ere lotuagoa dago genero-arauekin eta erregimen sexu-generikoaren egitekoarekin, jaiotzetik dimorfikoki egituraturiko gaitasun eta trebetasunekin baino, Swaab-ek eta Baron-Cohen-ek dioten bezala.

Mura eta beste egile batzuek programatzaile urrien kopuruak azaltzeko ematen duten beste arrazoi bat zera da: gizonak ez bezala, elkarrizketatutako emakumeek\* –24 programatzaile elkarrizketatu zituzten guztira– ez zuten harreman berezirik izan bideo-jokoekin haurtzaroan, hau da, ez zituzten hizkera teknikoa eta programa jakin batzuk ezagutzen (2012, 273.-274. or.). Hirugarren elementuari dagokionez, zaila da programatzaile bakartiaren estereotipoa<sup>443</sup> uztartzea emakumeek\* hezteko eta sozializatzeko baliatzen den enpatia-, afektibitate- eta gizartekoitasun-aginduarekin. Artefaktuarekin harreman intimo bat ezartzea askoz gaitzagoa da emakumeentzat\*, araei eta espektatiba sozialei muzin egin behar baitiete. Mura eta beste egile batzuek diotenez, laugarren arrazoi garrantzitsua enpresetako kontratatzaile edo kudeatzaileek emakume\* informatikariak kontratatzeke izan ohi duten erreparoa da (2012, 276. or.). Diskriminazio hori gauzatzeko, zenbait diskurtso mota baliatzen dira, egileen arabera: 1) Emakumeek\* ezin dute zeregin fisikorik bete, edo, hobeki esanda, haien gorputzak disruptiboak dira. 2) Gizonak ez daude ohituta emakumeekin\* lan egiten, eta ez dute hartu nahi zer gertatuko den ez jakiteko faktore bat bereganatzeko arriskurik. 3) Emakumeek\* ez lirakeke eroso sentituko halako giro maskulinoetan: “[N]ahiz beharbada pentsatuko duten gizonak ez lirakekeela gustura sentituko, ez arrazoi fisikoengatik, baizik eta, adibidez, ohiko elkarrizketa motengatik)” (2012, 276. or.)<sup>444</sup>. Hona haien ondorioa: “[N]olanahi ere, garbi dago programazioa emakumeentzako jarduera bat ez dela irudikatzea oso presente dagoela langileak kontratatzea erabakitzen dutenen artean” (Mura et al., 2012, 277. or.)<sup>445</sup>.

---

<sup>442</sup> Jatorrizko testua: “[Q]ue los roles de género ya se encuentran parcialmente estabilizados mucho antes de que el niño ingrese en el sistema educativo formal”.

<sup>443</sup> Gogoratu dezagun, adibidez, Baron-Cohen-ek gizon-burmuinaren muturreko kasu gisa kontzeptualizatzen duela autismoa.

<sup>444</sup> Jatorrizko testua: “[A]unque posiblemente piensan que ellos no se sentirían a gusto, ya no por cuestiones físicas, sino, por ejemplo, por el tipo de conversaciones usuales”.

<sup>445</sup> Jatorrizko testua: “[E]n cualquier caso, es claro que las representaciones respecto de que la programación no es una actividad para las mujeres se encuentran bien presentes entre quienes deciden contratar personal”.



Hierarkia, boterea, aitorpena eta ordainsariak handitzen diren heinean, gizon eta emakumeen\* arteko arrakala ere handitzen da: “Women’s academic career remains markedly characterised by strong vertical segregation” (Europako Batzordea, 2013, 6. or.). 2010ean, gradudunen % 59 emakumeak\* ziren; emakume\* doktoreen kasuan, berriz, kopuru hori % 46ra jaitsi zen, nahiz 2016an % 48ra igo. 2010ean, C mailako langile akademikoen % 44 ziren emakumeak\*; 2016an, % 46-ra igo zen; B eta A mailetan, berriz, % 37 eta % 20 2010ean, % 40 eta % 24-ra igo zirenak hurrenez-hurren 2016an. STEM arloan, subrepresentazio hau handiago da, baina joera txikiagotzearen norabidean doa: 2010ean, doktoreen % 35 ziren emakumeak\*, eta, 2016an, % 39; A mailako langileei dagokienez, 2010ean % 11 ziren emakumeak\*, eta % 15 2016an; EBko goi-mailako hezkuntzako erakundeetako liderrei dagokienez, 2010ean % 15,5 ziren emakumeak\*, eta, 2016an, % 22 (Europako Batzordea, 2013, 6. or.; 2019c, 6. or.).

Argudiatu dugunez, esparru akademikoan eta ikerkuntzan –zientzia eta teknologia barne– gero eta emakume\* gehiago egoteak eta hazkuntza-ratioa gizonena baino altuagoa izateak ezbaian jartzen ditu Baron-Cohen-en eta Swaab-en teoria biologiko deterministak, baita Summers-ek zioen bezala gizonek berez zientzia eta ingeniartzetan aritzeko joera handiagoa dutela ere. Hala eta guztiz ere, emakumeek\* eta gorpuztasun-subjektibitate ez-normatiboek sistema sexu-generikoak inposaturiko muga, traba eta zigor asko gainditu dituzten arren, horrek ez du esan nahi gaur egun holakorik ez dagoenik: genero-ideologiak bere horretan dirau erregimen sexu-generikoa mantentzeko. Bai botere-arrakalari dagokionez, bai STEM arloetan emakume\* gutxiagok parte-hartzeari dagokionez, desberdinkerien –diferentziak baino gehiago– arrazoi nagusia soziala da, Summers-en eta Pinker-en atsekaberako. Esan nahi baita, jaiotzetiko trebetasun eta nahiagotasun dimorfikoak baino gehiago<sup>446</sup>, arau eta egitura sozialen emaitza dira. Europako Batzordeak *glass ceiling* kontzeptua darabil (2013, 7. or.). Goldenberg-en aburuz, Summers-en agintaritzapean izendaturiko emakume\* irakasle titularren lanpostuen kopurua % 36tik % 13ra jaitsi zen (2005). Gure ustez, garai horretako emakumeek\* garaturiko diferentzia biologikoei ez, baizik eta faktore sozialei zor zaie beherakada hori, bereziki genero-ideologiarekin loturiko faktoreei.

Emakumeak\* zaintzarako, ugalketarako, haurzaintzarako<sup>447</sup>, otzantasunerako, sumisiorako, enpatiarako eta konplazentziarako hezten dira oraindik ere; horrek haien lehiakortasuna eta anbizioa zigortzen ditu, eta zailtasun handiak dakartzkie zenbait karreratan aurrera egin eta arrakasta lortzeko. 2001ean, Sylvia Hann Hewlett-ek, Harris Interactive

---

<sup>446</sup> Alde handia dago giza teknogorputzen artean aukera, gustu eta gaitasun ezberdintasunak egotearen eta askotariko ezberdintasun horiek dimorfikoki gauzatzearen edo adieraztearen artean.

<sup>447</sup> Summers-ek berak dio haurren zaintza emakumeen\* esku geratzen dela oraindik ere.

merkatu-ikerketarako enpresarekin eta National Parenting Association-ekin batera, inkesta bat egin zuen, AEBn, goi-mailako hezkuntza zuten eta soldata altuak zituzten emakumeen\* bizitza pertsonal eta profesionalak aztertzeko —“the top 10% of women—measured in terms of earning power” (Hewlett, 2002a)—, eta liburu batean argitaratu zituen emaitzak: *Creating a Life: Professional Women and the Quest for Children* (2002b). Hala, zera dio *Harvard Business Review* aldizkarian argitaraturiko artikulu batean:

At midlife, between a third and a half of all successful career women in the United States do not have children. In fact, 33% of such women (business executives, doctors, lawyers, academics, and the like) in the 41-to-55 age bracket are childless—and that figure rises to 42% in corporate America. These women have not chosen to remain childless. The vast majority, in fact, yearn for children. (Hewlett, 2002a)

Amatasunaren agindu sozial tinkoa alde batera utzita, azpimarratu nahi dugu Hewlett-ek elkarrizketatutako emakume\* askok amatasunari uko egiteko arrazoi gisa aipatu zutela arrakasta profesionalarekin uztartzeko zailtasuna eta, maiz, ezintasuna. 100.000 dolarretik gorako irabaziak zituzten 40 urtetik gorako emakumeen\* % 49k ez zuten seme-alabarik; gizonen artean, berriz, % 19ra jaisten zen kopurua. Zera dio Hewlett-ek: “[T]hese figures underscore... the persisting, painful inequities between the sexes. Women face all the challenges that men do in working long hours and withstanding the up-or-out pressures of high-altitude careers. But they also face challenges all their own” (2002a).

Pérez Sedeñok zuzendutako *La situación de las mujeres en el sistema educativo de ciencia y tecnología en España y su contexto internacional* ikerketan, “emaitza aipagarrienetako bat” da emakume\* ikasle eta lizentziadun gehiago dagoela, salbu ingeniartzan (2003, 29. or.)<sup>448</sup>. Arantza Etxeberria Agirianok ere emakumeen\* ordezkariak apalagoa egiaztatu du filosofia-ikasketetan ere, maila guztietan. Haren arabera, datuek diote AEBn, Kanadan eta Britainia Handian filosofian dihardutenen % 30 direla emakumeak\*, eta, enplegu finkoaz hitz egiten hasten garelarik, kopuru hori % 16-25era jaisten da (2018, p. 335). Etxeberria Agirianoren arabera, Espainiako estatuko datuak antzekoak edo okerragoak dira. Emakumeen\* presentzia, gainera, nabarmen urritzen da hierarkian gora egin ahala (Etxeberria Agiriano, 2018, 335. or.)<sup>449</sup>. Ildo horretan, zera dio Pérez Sedeñok:

---

<sup>448</sup> Arlo horretan ere, gero eta emakume\* gehiago matrikulatzen dira: 1997-1998 ikasturtean, % 21,14; 2000-2001ean, % 30,9.

<sup>449</sup> Arrazoia eta pentsamendua maskulino gisa kontzeptualizatu dira historian zehar, baita gaur egun ere. Etxeberria Agirianok beste arrazoi posible batzuk ere ematen ditu, hala nola filosofia historikoki lotzea “jokabide maskulino estereotipatuekin, hala nola eztabaidetako oldarkortasunarekin eta eztabaida filosofikoetan

Berdintasun-egoera ideal batean, normala izango litzateke lizentziatura-mailan ere doktorego-ikasketetan gertatzen den gauza bera gertatzea, hau da, gizonak eta emakumeak parekatuta egotea (...) Baina, nolana ere, doktore-graduaz geroztik, proportzioak alderantzikatu egiten dira, ‘guraize’ deritzona sortuz, eta horrek goia jotzen du katedradunen mailan. Horrek adierazten du karrera akademikoan zehar emakumeak galtzen direla. (2003, 29. or.)<sup>450</sup>

Halakorik nekez gertatuko zatekeen ekitate-egoera batean, eta, arrazoiaren artean, karrera akademikoa eta haurren zaintza uztartzeko zailtasuna edo ezintasuna aipatzen dira, halako lanak emakumeen\* esku egoten baitira<sup>451</sup>. Horretaz gainera, zaintzarako egiten diren etenaldiek ere eragin negatiboa dute merezimenduetan eta maila-igoeretan (Pérez Sedeño, 2003, 111.-150. or.)<sup>452</sup>. Areago, kontuan hartu behar dira emakumeek\* karreran sufritzen dituzten bazterkeria profesionalak, mugak eta diskriminazioak, estereotipoak eta balio soziokulturalen onarpena: “Balioen, ohituren eta gainerako elementu soziokulturalen transferentziaz beteta dago zientziaren instituzioa, eta, horrenbestez, halakoek eratzen dituzte sozialki unibertsitateko emakumeen ingurunea eta lehenespenak” (2003, 30. or.)<sup>453</sup>. Diskriminazio hierarkikoarekin batera, “lurralde-diskriminazioa” deritzona ere aipatu behar da, hau da, emakumeak\* diziplina eta lan jakin batzuetara bideratzen dira, femeninotzat hartzen direnetara; besteak beste, Humanitateetara<sup>454</sup> edo Gizarte Zientzietara<sup>455</sup>. Azken hamarkadan, Osasun Zientzietan ere sartu dira, baina, Pérez Sedeñok dioenez, emakumeei\* tradizionalki esleitzen zaien eta haiek betetzen duten zaintzaren rolaren luzapen “profesional”tzat har liteke (2003, 30. or.). Jordan-Young-ek zera dio horren harira: “[C]ore gender schemas don’t seem to have changed much in this time... People still hold

---

liskarrerako grinarekin” (2018, 337. or.). Berriz ere aipatu beharrean gaude otzantasuna, adeitasuna, konplazentzia, sumisioa eta lehiakortasun eza; egiletza mota eta sormen modua eta mota; diziplinaren etsaitasun-izaera; edo misoginia eta abusuak (2018).

<sup>450</sup> Jatorrizko testua: “Lo normal, en condiciones ideales de igualdad, sería que en el nivel de licenciatura sucediera lo mismo que en el de los estudios de doctorado, donde hombres y mujeres está prácticamente a la par (...) Pero, sin embargo, a partir del grado de doctor, las proporciones se invierten, formándose la denominada ‘tijera’ que logra su máxima abertura en el nivel de catedrático/a. Eso muestra una pérdida de mujeres a lo largo de la carrera académica”.

<sup>451</sup> Pérez Sedeñoren aburuz, karrera zientifiko eta profesionalak uzteari buruzko adierazleak oso altuak dira, eta horretan bat datoz, desberdintasunak desberdintasun, Kanadako, AEBko eta Europako datuekin (2003, 31. or.).

<sup>452</sup> Elkarrizketatu batzuek adierazi zuten ez dagoela estatu-mekanismoak bi esparruok uztartzeko (Pérez Sedeño, 2003, 111. or.). Horrekin batera, aipatu zuten beharrezkoa zela hutsuneak aitortzeko mekanismoak sortzea, eta karrera akademikoa luzatzeak amatasuna atzeratzea eta/edo zaintzaz arduratuko diren aitona-amonak zahartzea edo gero eta gutxiago izatea zekarrela (Pérez Sedeño, 2003, 29., 111. or.).

<sup>453</sup> Jatorrizko testua: “La transferencia de valores, costumbres y demás elementos socioculturales impregnan la institución de la ciencia y, por consiguiente, conforman socialmente el entorno y preferencias de las mujeres en la universidad”.

<sup>454</sup> Filosofia, aipatu dugun moduan, salbuespena izango litzateke.

<sup>455</sup> Emakumeen\* agentzia ukatzen duen irakurketetatik ihes egiten dugu, eta lehenetsi ditugu salatzeaz gainera emakumeen\* lanak aintzat hartzeko eta balioa emateko beharra nabarmentzen dutenak.

the same basic stereotypes about the attributes that men versus women should have” (2010, 283. or.).

Horretaz gainera, ikerketa horretan, Swedish Medical Research Council-eko Wennerås eta Wold-en ikerketaren emaitzak ere jaso dira (1997, 341. or.); haren arabera, Suedian, emakumeek\*, finantzazioa lortzeko, gizonek baino 2,2 aldiz produktiboagoak izan behar dute (Pérez Sedeño, 2003, 33. or.). Hori bat dator Pérez Sedeñok zuzenduriko ikerketako emakume\* elkarrizketatuek behin eta berriz aipatzen dutenarekin: kontuan hartuak eta balioetsiak izateko, ahalegin gehigarria egin behar dute, gizonek halako bi. Antzeko zerbait bildu da Europako Batzordearen 2016ko txostenean: “[M]en in the EU tend to have greater success in funding applications in national programmes, outstripping women by 4.4 percentage points in 2013 (success rate for men = 31.8 %; rate for women = 27.4 %)” (2016, 6. or.). Azkenik, diskriminazioa, askotan, ez da agerikoa, baizik eta sotila, ezkutukoa eta tentakularra; horrek ez du esan nahi, noski, eraginkorra eta sistematikoa ez denik. Diskriminazio horretan, honako hau ere sartzen da: “Sistematikoki ukatzea diskriminaziorik badenik ere, eta diskriminazioen kexen eta ustez emakumeei bereziki mesede egiten dieten ekintzen ondoriozko erresumina eta haserrea” (Pérez Sedeño, 2003, 34. or.)<sup>456</sup>.

Fausto-Sterling-ek, bestalde, azaldu zuen matematika eta halako trebetasun kognitiboak ez direla arlo sexu-generikoki dimorfikoak eta biologikoki determinatuak, baizik eta testuinguruaren araberakoak, dinamikoak eta etengabe garatzen ari direnak (2012a, 106.-107. or.). Ideia hori argudiatzeko, Janet Shibley Hyde-ren lanera jo zuen. Hyde-k, “The Gender Similarities Hypothesis” artikuluan, 46 meta-analisi aztertu, eta teoria bat formulatu zuen: hedabideetan nagusitzen eta sustatzen den ideiaren aurka, gizon eta emakumeen\* artean ez dago desberdintasun psikologiko handirik, eta, areago, oso antzekoak dira –ez alderdi guztietan, dena den—. Gizon eta emakumeen\* arteko desberdintasun handien ideiaz honako hau dio: “not consistent with the scientific data” (2005, 590. or.). Hyde-k aldaera kognitibo eta portaerazko ugari aztertu zituen, eta haietariko bat nabarmendu nahi genuke: matematika eta, bereziki, konputazioa eta arazo konplexuen ebazpena.

Hyde, Fennema eta Lamon-en meta-analisan, matematika-emaitzei dagokienez bi generoen artean dauden desberdintasunak oso txikiak dira haurtzaroan, edo ez da ageri halakorik, eta gizonek pubertaroan erdiesten dute emakumeen\* gaineko abantaila (1990, 151. or.). Hyde eta beste egile batzuek desberdintasun txiki bat aurkitu zuten, nesken aldekoa, konputazio-arloan,

---

<sup>456</sup> Jatorrizko testua: “La negación sistemática de que exista dicha discriminación, y el resentimiento y enfado cuando se producen quejas por la existencia de discriminaciones y cuando se efectúan acciones que se considera que favorecen especialmente a las mujeres”.

*elemental school* (5-10 urte) eta *middle school* (11-15 urte) garaietan, eta desberdintasun bakar bat ere ez *high schoolean* (15-18 urte) (147. or.). Bestalde, ez zuten genero-desberdintasunik hauteman arazo konplexuen ebazpenean, ez elementalean, ez *middle schoolean*, baina baziren desberdintasun txiki batzuk gizonen alde egiten zutenak *high schoolean* eta *collegeean* (1990, 148. or.).

Hyde-ren arabera, horrek guztiak garbi erakusten du bi generoen arteko desberdintasunak ez direla ez handiak ez egonkorrak, baizik eta testuinguruaren arabekoak eta mendekoak (2005, 588. or.). Izan ere, emakume\* gazteek arazo konplexuen ebazpenean erdiesten dituzten emaitzen beherakada azaltzeko, arrazoï gisa aipatzen ditu nerabegarora iristean haien autoestimua jaistea –helduaroan desagertzen da– eta estereotipoak (2005, 588. or.). Datuek kontrakoa erakusten duten arren, guraso eta irakasleek barneratzen eta behin eta berriz errepikatzen duten mantra bat da mutilak neskak baino hobekak direla matematikan, eta, ondorioz, matematikan bikainak diren neska asko geratzen da itzalean, eta/edo helduen espektatibek eragin kaltegarria dute haiengan, autoestimua ere zauritzeraino: “In short, girls may find their confidence in their ability to succeed in challenging math courses or in a mathematically oriented career undermined by parents’ and teachers’ beliefs that girls are weak in math ability” (2005, 590. or.). Hona Hyde-ren hitzak: “The conclusion is clear: The magnitude and even the direction of gender differences depends on the context. These findings provide strong evidence against the differences model and its notions that psychological gender differences are large and stable” (2005, 589. or.). Egileak ohartarazten duenez, genero-desberdintasunak edo, hobeki esanda, dimorfismo sexu-generikoa dimentsioz gaindi aldarrikatzea kaltegarria da, eta ondorioak dakarzkie emakumeei\*, harreman-gatazkak sortzen eta lan-aukerak murrizten baititu (2005, 590. or.).

Hain zuzen ere, desberdintasun sexu-generikoak testuinguruaren arabera aldatzen direnez, Lindberg, Hyde, Petersen eta Linn-ek 2010ean eginiko meta-analisan, zeinean 1990etik 2007ra bitartean egindako azterketak analizatu eta 1.286.350 teknogorputzetan<sup>457</sup> egindako probak bildu baitzituzten, ohartu ziren adinarekin desagertu egiten zela Hyde eta beste egile batzuek (1990) aurkituriko desberdintasun txiki hori. Haien ondorioa zera da: gizon eta emakumeak\* antzekoak dira matematikan, adin-tarte guztietan. Matematikako emaitzei gagozkiela, ez dago inongo alderik bi generoen artean. Desberdintasun txiki horren desagertzea

---

<sup>457</sup> Egiazki, bi meta-analisi azterketa egin zituzten. Lehena, arestian azaldukoak. Bigarrena, berriz, AEBko datu-base erraldoien bildumak aztertzean zetzan: National Longitudinal Surveys of Youth (1997-2002), Bureau of Labor Statistics, National Education Longitudinal Study (1988), National Center for Education Statistics, Longitudinal Study of American Youth eta National Center for Education Statistics-en National Assessment of Educational Progress.

azaltzeko, arrazoietakoa bat izan liteke estereotipoak aldatu –ezen ez desagertu– direla eta horren ondorioz neskato eta nerabeak ere matematika kurtsoetan izena eman dutela: “[C]ultural shifts have occurred over the last 2 decades. Specifically, girls are now taking advanced mathematics courses and some science courses in high school at the same rate as boys are, closing the gap in course choice” (2010, 1125. or.). Hona Lindberg eta beste egile batzuen ondorioa:

[I]t is clear that in the United States... girls have reached parity with boys in mathematics performance. It is crucial that this information be made widely known to counteract stereotypes about female math inferiority held by gatekeepers such as parents and teachers and by students themselves. (2010, 1134. or.)

Identitatearen auzi konplexuan sartu aurretik, kolore-lehenespina da landuko dugun hirugarren elementua. Arrosak eta urdinak ere badute genealogia bat. Ez dira unibertsalak, ezta jaiotzetikoak ere. Gaur egun, oraindik ere banaketa argia egiten da haurren eta haur jaioberrien arropa eta osagarrietan: mutilentzat, batez ere urdina, baina baita grisa edo beltza ere; neskentzat, batez ere arrosa, baina baita grisa eta lila ere. Aski da Interneten “haur jaioberrientzako arropa” idaztea segregazio sexu-generikoaren irudi garbi bat erdiesteko. Mutilentzat, futboleko bodyak, pajaritak, autoak edo dinosauroak; neskentzat, adarbakarrak, tximeletak, loreak eta untxiak. Nolanahi ere, Fausto-Sterling-ek dioenez, 1880ko hamarkadaren amaieran, Europako mendebaldean eta AEBn, haur jaioberriei gona luze zuriak jartzen zitzaizkien, eta, hiru urteetatik bost urteetara bitartean, soineko edo gona laburrak (2012a, 110. or.). Fausto-Sterling-ek Frassanito eta Pettorini-ren “Pink and blue: the color of gender” artikuluan oinarrituz dio garai historiko hartan arropa eta kolorea ez zirela baliatzen generoak bereizteko (2008, 881. or.). 1910eko eta 1920ko hamarkadetan, arrosa mutilentzat eta urdina neskentzat erabiltzen hasi ziren<sup>458</sup>, eta, ondoren, II. Mundu Gerraren ostean ezarri zen, zorrotz eta sakon, urdina mutilentzat eta arrosa neskentzat izango zirela (Frassanito eta Pettorini, 2008, 881. or.). Egileen arabera, Alemania naziak eta homosexualak markatzeko erabiltzen zuten triangelu arrosak eragina izan zuten arrosa feminitatearekin lotzeko orduan, eta, II. Mundu Gerraren ondoren, urdina gizonen uniformeetarako erabiltzea orokortu zen (2008, 881. or.).

Aldaketa horren arrazoiak, haurrak jaiotzetik arroparen kolorearen bitartez sexu-generikoki bereizteko beharra edo agindua, Fausto-Sterling-en iritziz, ez daude garbi, baina

---

<sup>458</sup> Frassanito eta Pettorini-ren iritziz, kristau-tradizioan, urdina –batez ere urdin iluna– Ama Birjinarekin lotzen zen, lapis lazulia eramaten baitzuen, eta baliteke horrek eragina izatea (2008, 881. or.). Egileek 1910eko zenbait egunkari eta aldizkaritako artikulua bildu dituzte, *The Sunday Sentinel* edo *Ladies Home Journal*, adibidez, kolorearen arabera bereizkuntza sexu-generikoa gomendatzen dutenak (2008, 881. or.). Haietako batean, arrosa gomendatzen da mutilentzat, kolore sendoagoa eta ausartagoa delakoan.

berak dio beharbada zerikusia izan zuela emakumeak\* esparru publikoan agertzen hasteak eta zenbait eskubide lortzeak, hala nola botoa ematekoa edo jabego pribatua edukitzekoa (2012a, 110. or.). Bitxia da, baina koloreen patroia korapilo askatuak, Haraway-ri jarraituz beste modu batera lotu nahi dugun korapilo horrek, Kapitalozeno neoliberalaren hasierara garamatza. Orogen zuritik arrosa eta urdin zorrotzetarako garai historikoa bat dator paradigma hormonalaren sorrera eta ezarpenarekin. Nolanahi ere, honako hau garbi dago: “[S]trong as it is, the specific shape of so-called feminine and masculine color coding is peculiar to our (historical) period. Pink and blue provide a colorful example of socially produced gender coding” (Fausto-Sterling, 2012a, 111. or.). Hala ere, honako hau gehitzen du: “[D]espite the code being socially produced, it probably *has* changed how our bodies work” (2012a, 111. or.).

Gogoratu ditzagun Swaab-en adierazpenak: haren arabera, neskek gorria, laranja eta horia aukeratzeko joera dute beren marrazkietan, eta irudi baketsuak marrazten dituzte, hala nola tximeletak, loreak, emakumeak eta neskatoak; mutilek, berriz, kolore ilun eta hotzak erabiltzen dituzte, urdina, adibidez, eta irudi tekniko edo belikoak marrazten dituzte, hala nola autoak, trenak, hegazkinak eta armak; eta hori guztia umetokiko fetuak izandako hormonon eraginez gertatzen da (2007, 433.-434. or.). Nola azalduko genuke haur batzuek kolore bat aukeratzea eta beste batzuek beste bat, hormonalki finkaturiko burmuineko sexu-dimorfismoaz landara? Ez bakarrik begirada dimorfiko batetik, baizik eta baita erregimen sexu-generikoak esleitzen dienaz harago beste aukera edo praktika batzuk adierazten dituzten haurrak ere kontuan hartuz, haurtzarotik presente dagoen subjektibitate eta gorputzen multiplizitatearen parte gisa azalera direnak.

Fausto-Sterling-en arabera, ikerketa sistematiko gutxi egin da bi urtetik beherako haurren kolore-lehenespenaren inguruan. Nolanahi ere, Chiu eta beste egile batzuek, “Sex-Dimorphic Color Preference in Children with Gender Identity Disorder: A Comparison to Clinical and Community Controls” lanean (2006), sexu-genero ez-bitarreko eta/edo jaiotzean esleitutako sexu-generoarekin identifikatzen ez ziren haurren kolore-lehenespena aztertu zuten. Fausto-Sterling ikerketa honetan oinarritzen da, nahiz eta berak arreta gorpuztasun-subjektibitate normatiboetan ipintzen duen.

Chiu eta beste egileen helburua “genero-identitatearen nahasmendua” diagnostikoa duten haurren kolore-lehenespen sexualki dimorfikoak aztertzea eta lehenetsun horiek komunitatearen kontrolpean eta kontrol klinikoaren mende dauden haurrenekin alderatzea da (2006, 386. or.). Lehen taldea, Torontoko Adikzioaren eta Buru Osasunaren Zentroko Genero Identitate Zerbitzuko 65 haurrek osatzen dute –egileen arabera, 47 mutil eta 18 neska–. Bigarrena, 100 haurrek –mutil gisa kontzeptualizaturiko 65 haur eta neska gisa

kontzeptualizaturiko 35-; haurrok kontrol klinikoaren mende zeuden zentro berean, eta DSM diagnostiko heterogeneoak zituzten, betiere “genero-identitatearen nahasmendu”az bestelakoak (2006, 387. or.). Hirugarren taldea, 100 haurrek osatzen zuten –56 mutil eta 44 neska–, Torontoko eguneko zentro batekoak. Hiru taldeetako haurrak 3 urtetik 12 urtera bitartekoak ziren. Haur bakoitzari hamaika kolore eskaini zizkieten, askotariko asetasun, argitasun eta tonalitatetakoak: beltza, urdina, marroia, grisa, berdea, laranja, horia, morea, arrosa, gorria eta zuria. Haurrek hiru aukeratu behar zituzten, bat txanda bakoitzean.

Egileek argi eta garbi hauteman zuten dimorfismo sexu-generiko normatiboa; izan ere, neskek –bai kontrol klinikoaren mende zeudeneke, bai komunitatearen kontrolpean zeudeneke– mutilek baino maizago lehenetsi zituzten arrosa eta morea (2006, 392. or.). Sexu-genero ez-bitarreko eta/edo jaiotzean esleitutako sexu-generoarekin identifikatzen ez ziren haurren kasuan<sup>459</sup>, erregimen sexu-generikoaren arabera aurkako gisa kontzeptualizatzen den sexu-generoari dagozkion koloreak lehenetsi zituzten. Egileen hitzetan, diformismo sexu-generikoa alderantzikaturik ageri zen, eta, hala, arrosa/morea lehenetsi zituzten mutilen ehunekoak kontrol klinikoaren mendeko eta komunitatearen kontrolpeko taldeetako neskenarekin alderatu liteke; arrosa/morea lehenetsi zuten neska ez-normatiboen ehunekoak, berriz, kontrol klinikoaren mendeko eta komunitatearen kontrolpeko taldeko mutilenarekin alderatu liteke (2006, 392. or.). Urdinari dagozkion emaitzak konplexuagoak dira. Hiru probetako bakoitzean, egileek ez zuten sexu-dimorfismo nabarmenik aurkitu, ez komunitatearen kontrolpeko taldean, ez kontrol klinikoaren mendekoan; dena den, neska ez-normatiboek sarriago lehenetsi zuten urdina mutil ez-normatiboek baino. Izan ere, komunitatearen kontrolpeko eta kontrol klinikoaren mendeko mutil ugari gorria lehenetsi zuten, neskek baino nabarmen gehiago (2006, 392. or.).

Arrosa/morea vs. urdina aukeratzeko orduan, eredu normatibo sexu-generikoa argi eta garbi azaleratu zen hiru probetan, egileen arabera: mutil ez-normatiboek eta kontrolpeko bi taldeetako neskek arrosa/morea lehenetsi zuten; neska ez-normatiboek eta kontrolpeko bi taldeetako mutilek, berriz, urdina (2006, 392.-393. or.). Hala eta guztiz ere, mutilek oso gutxitan lehenetsi zuten arrosa/morea urdinaren gainetik, eta neskek, arrosa/morea lehenetsi arren, urdina ere aukeratu zuten. Eredu hori alderantzikaturik ageri zen haur ez-normatiboen artean. Egileen arabera, mutilek araua estuago betetzea eta nesken artean aldakortasun handiagoa egotea beste ezaugarri sexu-generikoki estereotipatu askotan ere hautematen da (2006, 393. or.). Argitasunari dagokionez, kontrolpeko bi taldeetako neskek mutilek baino urdin argiagoak lehenetsi zituzten.

---

<sup>459</sup> Behin zehazturik ikerketan “genero-identitatearen nahasmenduaren diagnostikoa duten haurrak” erabili zirela, komenigarria iruditu zaigu terminologia patologizatzaile hori baztertzea eta beste bat erabiltzea haren ordez. Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu ohartaraztea haur batzuek, beren gorpuztasun-subjektibitatea etengabe aldatzeaz eta garatzeaz gainera, beharbada identitate-kategoria ere aldatuko dutela etorkizunean.



Bi ondorio atera litezke ikerketa horretatik: 1) Giza multiplizitatea; heteroarau sexu-generiko bitarra zorrotza eta nonahikoa den arren, ez du lortzen errealitatea bi multzotara murriztea, eta hori argi ikusten da haurtzarotik bertatik. 2) Identifikatzeko beharraren eta/edo agindu sozialaren indarrak eta sakontasunak –elkarren aurkako bi aukeraren artean hautatu behar baita: arrosa/morea edo urdina– eragiten du arauaren barnean ez bagaude araua urratzea. Alegia, ez du onartzen multiplizitatearen aberastasuna eta askotarikotasuna agertzetik.

Chiu eta beste egileek genero-eskemaren teoriaren bitartez azaldu dituzte emaitza horiek. Haurrak, jaiotzen direnetik, sexu-generikoki kodeturiko eredu baten arabera jantzen dituzte, eta inguruan dituzten estimulu, jostailu eta are ingurunea bera sexu-generikoki eta dimorfikoki kodetuta daude koloreen bidez; horregatik, baliteke ezaguna zaiena lehenestea, autoidentifikazio sexu-generikoaren emergentzia eta kolore batzuen konnotazio sexu-generiko dimorfikoaren gaineko kontzientzia baino lehenago betiere. Alde horretatik, zera diote: “If early parental gender stereotyping plays a contributory role, it would suggest that parents of children with GID were more likely to have engaged in cross-gender color-coding... but on this point there is no confirming or disconfirming empirical evidence” (2006, 394. or.). Egileen arabera, haurrak, sexu-generikoki autoidentifikatzeko gaitasuna garatzen dutenean eta aktiboki hasten direnean generoarekin loturiko informazioa bilatzen, baliteke konturatzea neskek eta mutilek eta emakumeek\* eta gizonek ez dituztela kolore berak erabiltzen arropetan eta jostailuetan, eta gerta daiteke une horretan kolore-lehenespenaren inguruko genero-estereotipoak “gender-linked schema system” baten atal bihurtzea, zentzu zabalago batean (2006, 394. or.). Hala, ondorio gisa, zera diote: “[G]ender stereotyped color preferences... provide yet another window into the subjective construction of gender in both typical and atypical children” (2006, 394. or.).

Fausto-Sterling-ek, nagusiki biologian *edo* kulturaren oinarritzen diren azalpenak baztertu, eta garapenaren sistema dinamikoen teoriaren ikuspegitik egiten du kolore-lehenespenaren garapenari buruzko kontakizuna; haren arabera, gorputzak eta inguruneak, korporalak eta soziokulturalak elkar osatzen dute: “[I]f we try to disentangle them we end up losing the forest amidst the trees” (2012a, 111. or.). Halako kontakizunek eboluzioaren ikuspegiaren bitartez azaltzen dituzte zenbait ezaugarri edo elementu, esaterako, kolore-lehenespena, hau da, ezaugarriok azaleratzen diren eta denboran garatzen diren *prozesuak* aztertzen dituzte. Horretaz gainera, gorputzean errotzen dira; ez gorputz finko batean, baizik eta denborarekin aldatzen den gorputz batean. Ezaugarriak egonkorak, nahiko egonkorak, aldakorak edo oso aldakorak izan daitezke. Kolore-lehenespena ere aldatzen da. Fausto-Sterling-ek berak hasieran arrosa edo morea aukeratzen duten eta gero gorriara igarotzen diren nesken adibideak dakartza. Beste adibide bat ematearren, ni neu haurra nintzela, arrosaz eta lore-

irudiz jantzita ibiltzen nintzen maiz, ama arrosazale eta lorezale bati esker. 18 urteetatik 30 urteetara, nire arropetan ez nuen erabili ez arrosa, ez zuria, baizik eta batez ere beltza; gaur egun, baina, arrosa eta zuria ere badaude nire arroparen koloreen artean. Horra Fausto-Sterling-ek azpimarraturiko beste elementu bat: aldaketak ez datoz ezerezetik; dagoenaren gainean eraikitzen dira (2012a, 113. or.).

Fausto-Sterling-en iritziz, kolore-lehenespena ez datorke nerbio-sistema bisualaren garapen, trebatze edo trebetasun handiago batetik (2012a, 114. or.). Zenbait azterketatan oinarriturik, egileak dio nahiz eta kolorea hautemateko gaitasunaren alderdi batzuk jaio aurretik finkatuta egon helduaro osoan irauten duela trebatzeko gaitasunak (*trainability*), batez ere L-M kolore-sistemari dagokionez (gorria-berdea)<sup>460</sup> –beste sistema horia-urdina da–; hortaz, teorian bederen, baliteke arrosa edo urdin ugarirekin kontaktuan egoteak lotura izatea koloreen pertzepzioa hobetzearekin. Hala eta guztiz ere, azken aldiko aurkikuntzak ez datoz bat hipotesi horrekin (Fausto-Sterling, 2012a, 114. or.). Jaioberriak gai dira zuriaren gainean horia, berdea eta gorria bereizteko, betiere koloreen asetasuna oso altua bada, helduentzat baino askoz altuagoa (2012a, 115. or.). Horia/urdina hautemateko sistemak gorria/berdea hautematekoak baino bi hilabete gehiago-edo behar izaten ditu. Egilearen arabera, txikitatik arrosa edo urdin ugarirekin kontaktuan egoteak haurren ikusmen-sistema baldintzatzen badu, lehenetsun fisiologiko bat garatzeraino, orduan, efektua nabarmen atzeratzen da. Zenbait ikerketaren arabera, 9 hilabeteak arte haurrek ez dute interesik agertzen arrosarekiko, eta urdina edo gorria atsegin dituzte (Franklin eta Davies, 2004 eta Franklin, Bevis, Ling eta Hurlbert, 2010, Fausto-Sterling, 2012a, 115. or.-an aipatua); 1 edo 2 urteko neska eta mutilek nahiago dituzte gorrikkak urdinkarak baino (Jadva, Hines eta Golombok, 2010, 1262. eta 1271. or.). Nolanahi ere, Fausto-Sterling-en arabera (2012a, 115. or.), arrosaren “aurkako” “pertzepzio-isuri” hori egon arren, 2-3 urteko neskatok, hitz egiten eta aukeratzen hasten direnean, argi eta garbi lehenesten dute arrosa (Chiu et al., 2006, 292. or.).

Fausto-Sterling-ek dioenez, arrosa lehenesteko joera 2 urtetik 3 urterako epean garatzen da, eta haren hipotesia da dopamina elementu garrantzitsua dela haien garapenean (2012a, 116. or.). Dopamina burmuinean sortzen den molekula bat da; zehazki, nerbio-sisteman sortzen den neurotransmisore kimiko bat, batez ere burmuineko “substantzia beltza” deritzon horretan, eta, aldi berean, hipotalamoan eratzen den neurohormona bat ere bada (Oates, Karmiloff-Smith eta Johnson, 2012, 10.-11. or.; Fausto-Sterling, 2012a, 116. or.) –hirugarren kapituluaz azaldu dugu

---

<sup>460</sup> “L-M” izendapenak kono motei egiten die erreferentzia, hau da, erretinako zelula fotosentikorrei, zeinek koloreak ikustea ahalbidetzen baitute. Badira hiru motatakoak: L, uhin luzeko luzerekiko sentikorrak direnak; M, uhin ertaineko luzerekiko sentikorrak; eta S, uhin laburreko luzerekiko sentikorrak.

sistema neuro-immuno-endokrinoaren lotura-. Horrek guztiak batez ere hirugarren kapituluaren aipatu dugun Kapitalozeno neoliberalaren bilakaera molekularra garrantzitsua berriz ere, zeinean hormonak gure sexu-generoak koerazten dituzten elementu garrantzitsu –baina inolaz ere ez bakar– gisa agertzen diren, ingurunera irekita dagoen etengabeko prozesu aldakor baten barnean. Baina kontakizun horren eta determinismo biologikoaren narratibaren artean badira bi desberdintasun garrantzitsu: Fausto-Sterling-en kontakizunaren arabera, kolore-lehenespena interakzioaren bidez *bakarrik* garatzen da, hau da, ez dago elementu bat bestearen aurretik, ezta bata bestetik bereiz ere, aldi berean eta elkarrengandik bereizi gabe jarduten baitute interakzioan<sup>461</sup>. Ezaugarri hori estimulu soziokulturalen eta kolorearen gaineko genero-arauen, eta, beste elementu batzuen artean, burmuineko zenbait eremuren eta dopaminaren arteko interakzioaren eta bereizezintasunaren bitartez garatuko litzateke soilik. Bestalde, ezaugarria denborarekin garatzen da, etengabeko bilakaera –aldakor– baten barnean. Ez dago aurretik ezarrita, antolatuta eta determinatuta behin betiko eta modu mugiezin eta aldaezin batean.

Burmuinak plazer beraren bilaketaren errepikapena sorrarazten duten zirkuituak garatzen ditu, eta horrek plazerezko gauzak bilatzen laguntzen digu, baina mendekotasunak ere eragin ditzake. Bide dopaminergikoak –“desiraren bidea” ere esaten zaio– estimulu motibagarriekin batera aktibatzen diren enbor entzefalikoko atalak arreata eta funtzio betearazleak kontrolatzen dituzten kortex prefrontalaren atalekin lotzen ditu (Oates et al., 2012, 12. or.)<sup>462</sup>. Dopaminak, gainera, higuinezko erantzunak susta ditzake egoera desatseginen aurrean (Fausto-Sterling, 2012a, 116. or.). Premisa gisa hartuz sari psikologiko batek portaera bat sendotzen duela eta hainbat sarik portaera bat areagotzen dutela, Fausto-Sterling-ek honako hipotesi hau planteatzen du: inguruan gauza arrosak izatea sari bat da milioika neskarentzat, eta fisiologikoki lotua dago plazer-sentimenduarekin. Egilearen arabera, haurtzarotik hasita inguruan kolore bat duela hazitako umeak plazera senti dezake ingurunearen etengabeko auresangarritasunean, gertutasunak segurtasuna eta erosotasuna ekar baititzake, eta, horretaz gainera, etxean eta kalean aurkitzen dituen heldu guztiek, amaz gainera, kitzikapena eta sari emozionalak adierazten dituzte jostailu bat eskaintzean edo arropa bati buruzko oniritzia ematean. Erantzun positiboa haurren

---

<sup>461</sup> Esperientziaren edo interakzio sozialen eraginez burmuin-predisposizioak edo joera naturalak aldatzearen ideia ez dator bat naturaren eta kulturaren arteko koeraketaren ideiarekin edo, Doktorego-tesi honetan erabili dugun izendapena erabiliz, elementu organiko-teknologiko-diskurtsibo-materialen arteko koeraketarekin. Fausto-Sterling-ek honela dio: “As long as one insists that in the interaction between nature and nurture, at some early moment in development nature starts it all, while only later does nurture tinker, a resolution is impossible... What I suggest is that we switch our vision..., so that we see nature and nurture as an indivisible, dynamic system. Such a systems approach to developmental psychology is not new, merely underreported” (2000, 227.-228. or.).

<sup>462</sup> Zehatzago, dopamina erdiko burmuineko bi eremutan dago: nigrostriatala eta mesolimbikoa. Biok bi bideren jatorria osatzen dute. Nigrostriatala funtsezkoa da mugimenduak kontrolatzeko, eta mesolimbikoa, berriz, maiz “desiraren bide” izendatua, oso garrantzitsua da motibazioarako (Oates et al., 2012, 10. or.).

dopamina-sistema kitzikatzen dute, eta, ondorioz, haurrak, neskatoak, etengabe ariko dira gauza arrosen bila; alegia, arrosa lehenestea ez da jaiotzetiko ezaugarri bat, baizik eta garatzen den zerbait (2012a, 116. or.).

Hurrei dagokionez, Chiu eta beste egileek ere aipatu zuten simetria falta azaltzeko, hau da, zergatik mutil askok saihesten duten arrosa baina gustuko dituzten urdina, berdea eta beste kolore ilunago batzuk, nahiz ez neskek arrosa gustuko duten grina berarekin, Fausto-Sterling-ek sistema dopaminikoaren higuin-funtzioa nabarmendu du: kontua ez da mutilek urdina gustuko izatea grinaz eta plazerez, baizik eta arrosak higuina ematen diela, arrosa saihesteko beharra dutela beren identitate sexu-generizatua osatzeko (2012a, 117. or.). Kolore-lehenespina garapen handiko une batean gauzatzen da, genero-arauak eta portaera sexu-generizatuak ikasteko prozesuaren barnean. 3 urteetan, haur asko gai dira neska ala mutila diren esateko; horregatik, koloreekin eta arropa edo jostailu motekin loturiko kritikak eta laudorioak bereziki garrantzitsuak dira aro horretan, eta, beste elementu sexu-generizatu batzuekin gertatzen den bezala, zorrotasuna handiagoa da mutilentzat neskentzat baino (2012a, 117).

Dena den, Fausto-Sterling-ek kolore-lehenespenez emandako azalpena, dopaminaren sari- eta zigor-sisteman oinarritua, ez da nahikoa arauaren eta saritzen, onartzen eta askotan zigortzen dietenaren aurka doazen haur sexu-generikoki askotarikoen multiplizitatea kontuan hartzeko. Hori azaltzeko, beharbada, pentsatu behar dugu geure burua identifikatzeko beharra edo agindua –hau da, ulergarritasuna lortzea eta “nor bait” gisa autoafirmatzea– sendoagoa dela saritze-sistema baino, eta alde bat edo bestea aukeratzeak eragiten duela geure burua sozialki esleitu digutenarekin identifikatzen ez badugu aurkakoa hautatzea, zigorrak zigor. Neska zakildunen edo mutil bulbadunen kasuan, jaiotzean esleitu zitzaizenaren aurkako generoarekin identifikatzean, kolore-lehenespina genero-arauek ezarritako koherentziaren barnean geratuko litzateke<sup>463</sup>. Baina badira argi eta garbi kolore bat lehenesten ez dutenak ere; hori ere araua ez betetzeko modu bat izango litzateke, ezbaian jartzen baita kolore bat lehenetsiz sexu-genero batekin *edo* bestearekin identifikatzeko beharra. Araua hain goiz betetzen ez dutenen aukerak azaltzean, faktore asko eta asko sartzen dira jokoan, hala zoria nola nortasun-ezaugarriak, ausardia, indarra, askatasuna, kasu. Banakako aldakortasunari dagokionez, Fausto-Sterling-ek

---

<sup>463</sup> Esate baterako, Ekhi da bere historia Naizen-en webgunean kontatzen duen nesketako bat. 11 urte ditu. Haren ama Alaitzek dio txiki-txikitatik gustuko izan zituela soinekoak, gonak, diademak, ile luzea, mototsak, makillajea, takoiak, panpinak, poltsak, sirenak, printzesak, maitagarriak, Hello Kitty, gauza distiratsuak, arrosa-kolorea eta fuchsia (2019). Nahiera bere historia kontatzen duen beste neska bat da. Haren kolore kutunak aldatu egin dira denborarekin. 4 urte zituela, arrosa eta morea zituen gogokoen; gero, urdina, eta, orain, arrosak “zoratu” egiten du berriz ere (2019). Webgune berean, badago Ekhi izeneko beste neska bat. Haren ama Laurak dio txikitan den-dena arrosaz margotzen zuela. Soinekoak, gonak eta zapata takoidunak jantzen zituen, eta panpinekin jolasten ibiltzen zen beti. Garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea webgunean agertzen diren haurrak askotarikoak direla.

garapenaren sistema dinamikoetara jotzen du berriz ere, eta adierazten du beharrezkoa dela informazio gehiago izatea ingurune fisikoaren, genero-garapenaren, zaintzaile eta gurasoen interakzio eta jarreraren, eta banakako fisiologiaren aldaketei buruz, eta horrek epe luzeko ikerketak egitea eskatuko luke, haurrak denbora-tarte luzeetan behatzeko (2012a, 117.-118. or.). Aurrerago helduko diogu gai horri.

Kolore-lehenespenak osagai sozial eta kultural garrantzitsua dauka, eta haren jatorria paradigma sexu-generikoan dago, hau da, gorputzak bereizteko eta sailkatzeko ezarritako arau bati erantzuten dio, baina, horrekin lotuta, estuki lotuta, badauka dimentsio biologiko bat ere, gure gorputzek sexu-generoa barneratzen eta performatzen baitute. Pinker-en *The Blank Slate* liburuaren izenburua berreskuratuz –500 orrialdetan ahalegintzen da ideia horren kontrako argudioak ematen–, ideia hau gogoratuko dugu: “We aren’t blank slates, but we also aren’t pink and blue notepads” (Jordan-Young, 2010, p. 290). Demagun bost sexu-generoren bitartez egituraturiko gizarte batean bizi garela eta geure burua arrosaz eta urdinaz gainera horiarekin, berdearekin eta gorriarekin ere identifikatzen dugula; orduan, bost kolore horiek izango lirateke, beharbada, Chiu eta beste egileen ikerketaren edo antzekoen emaitza. Bestalde, haurrak kolorearen arabera bereizten eta sailkatzen ez diren gizarte batean biziko bagina –eta badirudi hala zela 1880. urtearen aurretik, nahiz orduan ere baziren beste genero-arau zorrotz batzuk–, beharbada ez litzateke egongo halako lehenespenik. Kolore-lehenespena koeraketa organiko-teknologiko-diskurtsibo-materialen arteko harremanen ondorioa da. Hortik dator, hain zuzen, haren aldakortasuna eta gorputzen artean eta bizitzetan zehar aldatzeko aukera, eta hori pentsaezina litzateke kolore-lehenespena jaiotzetikoa balitz.

#### **4.5.2. Trans\* bilakaerak: begirada bat garapenaren sistema dinamikoen teoria eta genero-performatibitatea uztartuz**

Jatorriari buruzko galdera identitate sexu-generikoarekin lotuta agertzen da berriz ere. Afera biziki konplexua da, askotariko elementuak biltzen dituena eta ezaugarriaren edo bereizgarriaren kategoria nabarmen gainditzen duena:

We have these differences at birth. They are small; they don’t tell us much about any particular individual. And they may be a moving target as the environmental conditions for fetal growth and development change... (1) what do we know about sex differences in adults? and (2) if there are any, *where they might have come from?* (Fausto-Sterling, 2012a, 105. or.; geuk nabarmendua)

Determinismo biologiko mota jakin batek ematen dituen erantzunez harago, ñabardurak ñabardura eta aldaerak aldaera, badira identitate sexu-generizatuen *locusari* eta jatorriari buruzko beste kontakizun eta ikuspegi batzuk esentzialismotik urruntzen direnak eta teknogorputzen multiplizitate ikaragarri zabalarentzako espazio bizigarri eta desiragarriagoak eraikitzen laguntzen dutenak, multiplizitate hori, desberdintasunak eta aldaketak, ez zerbait problematiko, inkoherente, anormal edo patologiko gisa kontzeptualizatuz, baizik eta existitzen denaren parte gisa kontzeptualizatuz, bere aberastasun eta aldakortasun guztiarekin. Garapenaren sistema dinamikoaren teoriaren arabera, dimentsio soziokulturalen eta biologikoen lotura banaezinetatik sortzen diren interakzioen multiplizitateek eratzen dituzte gure identitate sexu-generikoak eta sexualitatea –zeinak modu bereizezin batean lotuta baitaude beste faktore batzuekin, hala nola klasea, etnia, gaitasuna, etab.–, historian<sup>464</sup> eta gure bizitzetan zehar etengabe aldatzen eta garatzen ari den prozesu baten bidez, nahiz eta identitateen egonkortasuna asko alda daitekeen batzuen eta besteen artean.

Butler-en performatibitatearen teoriaren norabide berean, Fausto-Sterling-ek zera dio: “[G]ender is never absent. There is never a point at which it begins” (2012b, 413. or.). Genero-arauak lehenagotik daude arauok performatzen, iraultzen edo haragitzen dituzten gorputzak baino: “[G]ender identity is a pattern in time. In any one individual, it is shaped by the preceding dynamics and becomes the basis of future identity transformations” (2012b, 405. or.). Dena den, galdera aurrez aurre daukagu oraindik: “How do increasing levels of gendered embodiment, knowledge about gender in the world, the growing abilities to self-label and modulate behaviors to correlate with labels, become part of an internal sense of self?” (Fausto-Sterling, 2012b, 413.-414. or.). Batuz eta konjurtatuz, Fausto-Sterling-en beraren proposamenari jarraiki, Butler-en genero-performatibitatea eta garapenaren sistema dinamikoaren teoria, sexu-generoa barruratzeko-gorputzeko prozesuari buruzko zenbait ikerketatako hipotesi eta emaitzak bildu eta erakutsiko ditugu. Helburua ez da kontakizun sistematiko, azken, itxi eta behin betiko bat eskaintzea, baizik eta identitate sexu-generikoen, besteak beste, “trans\*” terminoaren pean biltzen ditugun

---

<sup>464</sup> Maskulinitatea, feminitatea, nahasketa, tartekoak edo anbiguotasuna ulertzeko modua aldatu egiten da denborarekin. Ikus, adibidez, Jordan-Young (2010, 129.-143. or.), nola aldatu den 1967tik 1980ra bitartean Brain Organization Researcheko ikertzaileengan gizon eta emakumeen\* sexualitatea ulertzeko modua. Fausto-Sterling-ek oso adibide grafikoa dakar: XVII. mendean Europako mendebaldeko gizonen zerabiltzaten estetika eta arropak oso femininotzat hartuko genituzke gaur egun: zapata takoidunak, ile luzea eta kopeta-ilea, kapela lumadunak, kapak, mahuka luze eta zabaleko alkandorak, galtzerdi luzeak, lerre-zapiak, xingolak eta begiztak, etab. (2012, 80. or.). Gaur egun ere, gizonen tunika edo soineko luzeak jantzen dituzte planetako hainbat tokitan; herrialde musulmanetan, adibidez, Saudi Arabiako *qamisak*, Indiako gizonen *lungui* gona, edo hinduen *khalata*, bereizketa sexu-generikorik ez duen jantzia. Hala eta guztiz ere, nekez ikusiko dugu gizon bat gona edo soinekoa jantzita Mendebaldeko gorputz zurietan. Esan genezake genero-transgresio handienetako bat dela Mendebaldeko gizon zuri batentzat.

subjektibitate-gorpuztasunen multiplizitatearen, osaeran parte hartzen duten askotariko elementu biologiko eta materialen hari-zuntzen bat txirikordatzea. Garrantzitsua iruditzen zaigu esatea sexu-generoaren eta sexu-joeraren jabeakuntza-prozesuaz daukagun ezagutza<sup>465</sup> eskasa dela (Fausto-Sterling, 2019, 530., 545. or.); hein batean, badirelako gauza batzuk beharbada sekula “jakingo” ez ditugunak, esparru epistemologikoaz gaindi eta esparru politikoaren barnean daudelako, nahiz eta badakigun bi esparruok elkar osatzen dutela.

Zenbait kontakizunen arabera, identitate sexu-generikoa 3 urtetik 5 urtera bitarteko epean agertzen da. Fausto-Sterling-ek (2019, 530. or.) Jan Morris idazle eta historialari transexualaren adibidea dakar. Morrisek *Conundrum* lanean kontatu zuen nola 3 edo 4 urte zituela bat-batean kontzientzia piztu zitzaion eta jakin zuen transa\* zela (1974, 4. or.). Kapitulu honen hirugarren atalean oin-ohar batean bildu dugunez, Bonnie Morris historialari lesbianak ere, zeinak ez baitu babesten “sexualitatea oro jariakorra delako argudioa”, gardentasun handiz deskribatu zuen nola idatzi zion amodiozko gutun bat bere haurtzainari 5 urte zituela (jakinarazpen pertsonala, 2017ko abenduaren 7a). Badira sexu-generoari buruzko istorio ederrak, maitasunez eta ausardiaz beteak, 3 urtetik 5 urtera bitarteko hurrek bizi izandakoak. Kapitulu honen hasieran aipatu dugun *Ur handitan* telebista-saioan aurkeztu zituzten haietariko batzuk (2017). Ikerrek 3 urte ditu. Aurreko urtean, Ekhiñe zuen izena, baina ikaskideei eskatu zien “Iker” deitzeko. Denisek, 5 urte zituela, bizpahiru urte zeramatzan gurasoei eskatzen galtzontzillo batzuk oparitzeko (2018). Udako arropa erosteko sasoia iritsi, eta Denisi galdetu zioten ea galtzontzillo batzuk erostea nahi zuen. Ederne Belamendiak kontatzen du nola Denis, pozaren pozez, aulkitik jauzi egin eta bera besarkatzen hasi zen, “maite zaitut” behin eta berriz errepikatuz, dardarka. Sekula ez zuen horrela ikusi. Sentitu zuen Denisek une horretan pentsatu zuela “azkenean, ikusi naute”. Beldurrarekin batera, burura etorri zitzaizkion zergatik ez ote zizkieten lehenago erosi eta nolako zama zeraman gainean Denisek. Zer gertatzen ari ote zen galtzontzillo batzuk hain garrantzitsuak izateko hiru edo lau urteko ume batentzat. Uda hartaz geroztik, Denis mutil gisa hasi zen ikastolan. Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkartearen webgunean ere badira beste haur batzuen istorioak. Ekhi –gorago aipatu dugu– txiki-txikitatik garbi izan du nor den. Panpinak gustatzen zaizkio, printzesaz mozorrotzea eta dantza egitea. Haren ama Laurak kontatzen du nola 3 edo 4 urte zituela esan zien zakila moztu behar ziotela (2019). Beste Ekhi baten istorioa ere bildu dugu: berak betidanik jakin du neska

---

<sup>465</sup> Behin eta berriz azpimarratzen ari garen arren sexu-generoa eta sexualitatea lotuta daudela, ez dugu sexualitatean sakonduko, ez baita Doktorego-tesi honen gai nagusia. Ikus Fausto-Sterling (2012a, 70.-98. or.; 2019). Bestalde, nahiz eta “sexualitate” terminoa erabili dugun desira izendatzeko, baita, horrekin batera –baina gutxiagotan–, “sexual-sexu-generiko” ere, atal honetan, “sexu-joera” erabili dugu, Fausto-Sterling-en postulatu teorikoekin bat eginez, nozio horixe baitarabil berak.

dela. Anderrek 5 urte ditu. Neska-laguna zeukan besteek mutila zela jakin aurretik ere. Handitan, mekanikaria eta galtzontzillo-diseinatzailea izan nahi du. Norbaitek behin esan zuen Anderrek erabaki zuela mutila izatea eta Anderrek berak zuzendu zuen, zera esanez: “Ez nuen erabaki mutila izatea; mutil jaio nintzen” (2019).

Halako kontakizunen ezaugarri komuna “pertsona hala jaiotzen delako ideia” da. Aldaketak aldaketa, beraz, halako identitate-ikusmoldeei esentzialismoa darie. Fausto-Sterling-ek honela dio: “Nothing happens before language and self-consciousness develops. Then gender/sex and orientation appear, if not full-blown, still, somehow magically clear and constant. This leaves me wondering what does happen and what might happen in the period from... birth to three years” (2019, 530. or.). Berezkotasun sexu-generikoa kritikatu, egileak azpimarratzen du garrantzitsua dela fokua haurtzaro goiztiarrean ipintzea, baldin eta sexu-generoa gauzatzeko prozesua azaldu eta ezbaian jarri nahi badugu norbera emakume, lesbiana eta/edo trans jaiotzen delako ideia. Horri dagokionez, honako galdera hau egiten du: “What processes mediate this transfer of gender/sex from primarily exterior to strongly interior?” (Fausto-Sterling, 2019, 539. or.). Nola txertatzen da identitate sexu-generikoa gure niaren sakon-sakonean, harik eta zerbait finkoa eta egonkorra bihurtzen den arte?

Galdera horri erantzuteko, Esther Thelen-ek (2000, 2001) kognizio gorputzuaren<sup>466</sup> aldera eginiko biraketan txertatzen du Fausto-Sterling-ek sexu-generoa, eta Jean Piaget-i jarraituz (Piaget eta Inhelder, 1972), desberdintzen ditu identitate sexu-generizatuaren eraketaren eta garapenaren fase auresinbolikoa, haurra jaio eta lehen 16-18 hilabete bitartekoa, eta fase sinbolikoa, 16-18 hilabeteetatik 3 urteetara edo, askotan, 5 urteetara doana, ni sexu-generizatu barneratu eta nahiko sendotu baten zentzua sumatzen eta adierazten den momentua (Fausto-Sterling, 2012b, 410. or.; 2019, 537. or.).

Fase auresinbolikoan, sexu-generoa amaren edo zaintzaile nagusiaren eta haurraren arteko interakzio diadikoaren bidez barneratzen da neurri handi batean, hori baitute sozializatzeko funtsezko modua (Fausto-Sterling, 2012a, 49. or.; 2012b; 2019; Fausto-Sterling, Crews, Sung, García Coll eta Seifel, 2015). Interakzio hori ukimenaren bitartez gauzatzen da hasieran; horri esker, haurrak gorputz-tenperatura erregulatzen du, loaren eta negarraren kontrola

---

<sup>466</sup> Thelen-ek defendatzen du burmuina gorputzean barneratua dagoela. Konexio neuronal eta neuromuskularrak –nerbio-sistema muskuluekin lotzen dutenak– gorputz-burmuinen eta munduaren arteko interakzioaren bidez eratzen dira. Pertzepzio-trebetasunen eta trebetasun psikomotorren bidez, gorputz-burmuinek mundua bizitzen eta barneratzen dute, eta nerbio-sistemaren parte izatera igarotzen da. Thelen-ek berak honela dio: “[T]he very same neuron frequently responded to multiple aspects of the task: It fired when the visual stimulus was presented and fired again during the memory or motor decision time. Is this a visual neuron or a motor neuron or one representing the stimulus in memory? It does all of these things. The line between what is perception, what is action, and what is cognition is very hard to draw” (2000, 12. or.).



eta komunikazioa garatzen, estres hormonalaren maila murrizten edo sistema immunea indartzen, beste funtzio gorputzezko, psikologiko eta emozional batzuen artean (Fausto-Sterling, 2012b, 408. or.). Ukimenarekin batera, zaintzaile nagusiak ahoskera, aurpegi-adierazpena, gorputz-tonua eta mugimendua transmititzen ditu, eta, hala, haurren eskaerak eta beharrak asebetetzen dira, haien garapena sustatzen da, afektua sortzen da, eta diadako bi aldeen sistema autonomo, neurologiko eta hormonalak sinkronizatzen edo harmonizatzen dira. Desberdintasun etniko, kultural eta klasekoak, familia mota eta egitura, eta zaintzaileen trebetasunak eta egoera emozionalak garrantzitsuak dira fase horretan (Fausto-Sterling, 2012b, 408. or.). Interakzioen eta jarduera motor eta kognitiboaren bidez sexu-generoa barneratzeko eta jabetzeko prozesua jaio aurretik hasten da, umetokian (Fausto-Sterling, 2012b, 409., 413. or.; 2015, 2. or.; 2019, 541. or.; Fausto-Sterling et al., 2015, 1360. or.).

Fausto-Sterling eta beste egile batzuek, ama batzuen eta beren 3 hilabetetik 12 hilabetera bitarteko seme-alaben arteko 30 interakzio aztertu, eta ikusi zuten, amek haurrak mutil ala neska gisa kontzeptualizatu, haurrenganako tratua desberdina zela; alegia, interakzio-prozesu sensorial, afektibo eta kognitibo horretan, haurrak, mutil edo neska kontzeptualizatuak izan, desberdin *barneratzen* doaztela generoa (2015). Hau da, genitalen arabera, zaintzaileek praktika espezifiko orokortuak sortzen dituzte, bai eta halaber bizipen-mundu orokortuak ere, eta horrek guztiak generoa haurtzaro goiztiarrean barneratzea eragiten du (Fausto-Sterling et al., 2015, 1352. or.). Ikerketa horretan, egileek amaren ukimenari erreparatu zioten, baina ordurako argitaratuak zituzten amaren ahoskerari eta diziplinari buruzko emaitzak (Ahl, Fausto-Sterling, Garcia Coll eta Seifer, 2013; Sung, Fausto-Sterling, Garcia Coll eta Seifer, 2013)<sup>467</sup>. Ikerketa egiteko, Seifer, Sameroff, Barrett eta Krafchuk-ek beren ikerketan erabilitako bideo-zintak baliatu zituzten, zeinetan 50 familia grabatu baitzituzten, haurren izaera analizatzeko asmoz (1994)<sup>468</sup>. 50 familia horietatik, Fausto-Sterling eta beste egile batzuek 30i erreparatu zieten –15

---

<sup>467</sup> Argitaratu diren hiru ikerketen artean, bi arrazoiengatik aukeratu dugu atal honetan aipatzen ari garena. Lehenik, indarra eta jarduera fisiko handiagoa eta hobe gizon gisa kontzeptualizatutakoen ezaugarri nagusitzat hartzen dira, eta zaintzarekin lotutako lanak, berriz, emakumeen\* berezko ezaugarritzat, eta hori guztia haurtzaroan jasotzen den ukimen motarekin lotuta dago. Bigarrenik, aurrerago hitz egingo dugu hizkuntza-kategoria edo haur-kanta sexu-generikoak bereganatzeaz eta abarrez; halako gaiek zeharkako lotura izan arren ahoskerari eta diziplinari buruzko ikerketekin, ezaugarri linguistiko eta ahoskerazko gisa kataloga genitzake; eta bestela, mugimenduaren gaia landu gabe geratuko litzateke gure analisisan.

<sup>468</sup> Fausto-Sterling eta beste egile batzuek, portaera sozial sexu-generizatuen aldaketa esanguratsuen ondoriozko kritika posibleen aurrean, kontuan izanda datuak zaharrak zirela, zalantzan jarri dute aldaketa horren probabilitatea, argudiatuz AEBn eta Britainia Handian gutxienez genero-desberdintzeak onarpen eta ospe zabala duela, “gender reveal parties” delakoek eta haurren arropa, jostailuak eta etxeko apaingarriak erosteko ohitura estereotipatuek erakusten dutenez (2015, 1361. or.). Hala eta guztiz ere, egileek diote zaintzaile eta haurren interakzioen azken hogeitako aldaketa xumearen hipotesia empirikoki frogatu behar litzatekeela. Horretaz gainera, nabarmendu dute beharrezkoa dela halako ikerketak beste kultura, talde etniko, komunitate eta/edo familia mota batzuetara –ez-heterosexuak, ez-bitarrak, bi amak edo bi aitak baino gehiagok osatuak, anai-arreba nagusien eragina kontuan hartzen dutenak, eta abar– ere hedatzea. Alde horretatik, ikerketaren

ama-seme gisa kontzeptualizatuak eta beste 15 ama-alaba gisa– (2015, 1353. or.). Ama gehienak erdiko klasekoak ziren, langileak, zuriak, lehenerdiak, ezkonduak eta Rhode Island-ekoak; eta haien adinaren batezbestekoa 29,1 urtekoa zen.

Butler-en genero-performatibitatearen teoriarekin bat eginez –zeinaren arabera generoa efektu gisa agertzen baita, baina ez subjektu baten ekintzaren efektu gisa, baizik eta subjektuaren beraren aurreko genero-arau kulturalen efektu gisa–, Fausto-Sterling eta beste egile batzuek aldarrikatu dute generoarekin loturik dauden eta sexu-generoa barneratzen edo gauzatzen laguntzen duten prozesuak barneratze edo gauzatze horren aurrekoak direla (2015, 1354. or.). Urtebetera arte, jaioberrien artean gorputz eta harreman aldakortasun ikaragarria egon arren, ez dago genero-desberdintasun nabarmenik (Fausto-Sterling et al., 2015, 1354. or.). Desberdintasunok, haurren gorputzetan baino gehiago, haien zaintzaileengan daude. Zaintzaileen genero-estereotipoen araberrako ereduak modu berezian eragiten diote mutil eta neska gisa kontzeptualizaturiko haurren nerbio-sistemari, eta, azkenean, barruratu-gorputzu egiten dira: “We argue that during human infancy sex-related socialization (which is culturally grounded), and which includes the physical minutia (touching, lifting, moving, supporting new activities) of daily infant experience, contributes to the production of embodied (and thus biologically grounded) gender” (Fausto-Sterling et al., 2015, 1356.-1357. or.)<sup>469</sup>. Alegia, generoa ikasi eta nerbio-sistema zentraleraino barneratzen da, eta ukimena da “diferentziazio [sexu-generikoa]aren belaubaldi arteko transmisio”aren mekanismo bitartekarietako bat (Fausto-Sterling, 2012b, 409. or.; Fausto-Sterling et al., 2015, 1354., 1360. or.). Hala, Chiu eta beste egile batzuen (2006) ikuspegitik aldenduz, Fausto-Sterling eta beste egileek testuinguruaren eta banakakoen historiaren araberrako prozesu dinamikotzat hartzen dituzte identitate sexu-generikoa eta generizatutako ezaugarriak, eta ez garapenaren aldi jakin batean agertzen diren propietate edo ezaugarri finkotzat eta, horrenbestez, neurgarritzat (2015, 1351.-1352. or.)<sup>470</sup>.

Egileek amen zenbait ukimen mota bereizten dituzte: positiboa –afektuzkoa eta zaintzazkoa–, estimulatzailea –motrizitate larria estimulatzea, altxatze-jolasak, kulunkatzea, sehaskari eragitea– eta instrumentala –motrizitate xehea garatzen laguntzea, mugitzea, esertzea

---

ahulgunetzat hartu dute ez islatzea aztertutako familia ez-normatibo urrien eta batezbestekoaren arteko desberdintasun esanguratsuak edo taldeen arteko desberdintasunak, eta kontuan ez hartzea sexu-genero ez-bitarreko aita, ama edo zaintzaileekiko interakzioak (2015, 1362. or.).

<sup>469</sup> Egileek “sexua” darabilte kategoria genital edo demografiko gisa; “sex-related”, ezaugarri genital edo demografikoekin lotuta egon ohi diren –nahiz ez beti– portaera edo lehenespenak izendatzeko; eta “generoa”, “stereotypes, concepts, or beliefs about human male or female preferences or behaviors” delakoentzat (Fausto-Sterling et al., 2015, 1361. or.).

<sup>470</sup> Eskerrak eman nahi dizkiot Alejandra Martínezi, “berezitasun” eta “ezaugarri finko” kontzeptuei buruzko bere inpresioak partekatzeagatik.

edo objektu bat hartzen edo hari eusten laguntzea– (2015, 1354. or.)<sup>471</sup>. Haien arabera, ukimenezko interakzio mota horien maiztasuna linealki gutxitzen da, bai ama-semeen interakzioetan, bai ama-alaba interakzioetan, adinean aurrera egin ahala; halako interakzioak 3-4 eta 5-6 hilabeteetan dira maizenak eta iraunkorrenak. Bestalde, ukimen estimulazailea eta instrumentala ohikoagoa da mutil gisa kontzeptualizaturiko umeekin neska gisa kontzeptualizaturikoekin baino<sup>472</sup> –amek denbora gehiago ematen dute beren semeak birposizionatzen 3-8 eta 11-12 hilabeteetan, eta altxatze-jokoetan 3-4 hilabeteetan–; mutilenganako afektuzko ukimena handiagoa da neskenganakoa baino –nahiz desberdintasuna esanguratsua ez izan–; eta neskenganako zaintzako ukimen-interakzioa handiagoa da mutilenganakoa baino, modu nabarmen batean; hau neskak mutilak baino gehiago zaintza-jolasetan aritzen direlakoarekin erlaziona liteke (Fausto-Sterling et al., 2015, 1.361. or.). Hala, etorkizunerako ikerketa gisa proposatzen dute hipotesi hau enpirikoki frogatzea: 4. hilabetetik aurrera, neska eta mutil gisa kontzeptualizaturiko haurren jarduera fisikoa gero eta desberdinagoa da mutilek ukimen estimulazaile gehiago jasotzen dutelako neskek baino, hau da, jarduera fisikoan desberdintasun horiek aldeztatik generikoki bereizitako zaintzaile-haur eredu diadikoen interakzioen emaitza dira (2015, 1360.-1361. or.).

Zaintzaile eta haurren arteko prozesu erlazional diadikoan, non barne-prozesuak estuki lotuta baitaude prozesu erlazionalekin, bigarrenak interakzioaren bidez autorregulatzen dira: “Across development, interactive regulation reorganizes inner as well as relational processes; reciprocally, changes in self-regulation in either partner alter the interactive process. This integration of self- and interactive regulation is one way of conceptualizing the organization of experience” (Beebe eta Lachmann, 2002, 36. or.). Beebe eta Lachmann-ek erregulazioaren bost alderdi garrantzitsu bereizten dituzte, denboraren, espazioaren, afektuaren eta kitzikapenaren bidez antolatutako; elementu horiek, era berean, haurren bizipenak antolatuko dituzte, eta aurreinbolikoki adierazita egongo dira (2002, 153. or.)<sup>473</sup>; Fausto-Sterling-ek lura ekarri ditu (2019, 537.-538. or.). Lehen alderdia egoeraren eraldaketa da (*state transforming*), hau da, bikotekide batek besteari kitzikapen-egoera alda dezakeelako itxaropena edo aurreikuspena,

---

<sup>471</sup> Zaintzailearen eta haurren arteko ukimen-interakzioaren barnean leudeke elikatzea, mukiak kentzea, garbitzea, janzea, fardela aldatzea, babestea, korrokada eginaraztea, eta abar. Afektuzko interakzioan, berriz, afektua adierazteko edozein ukimen-jokabide sartzen da: laztanak, besarkadak, kilimak, musuak, etab. (Fausto-Sterling et al., 2015, 1365. or.).

<sup>472</sup> Neska-mutilen portaera aztertu eta gero, baztertua utzi zuten ama-semeen eta ama-alaben arteko interakzio desberdina alaben edo semeen berezko sexu-desberdintasunen ondoriozkoa izatea, nahiz eta esaten duten aztertzen jarraitu beharra dagoela, batez ere haurren lehen hiru hilabeteetan, hain justu berek ikertu gabe utzitako adin-tartean (2015, 1361. or.).

<sup>473</sup> Beebe eta Lachmann-ek bost hauek bereizten dituzte: *facial mirroring*, *derailment*, *interpersonal timing* (2002, 153.-154. or.), *disruption and repair* (2002, 160.-169. or.) eta *heightened affective moments* (2002, 169.-175. or.).

hala nola ama batek bere haur jaioberria magalean kulunkatzea negar egiteari utz diezaion. Bigarrena, aurpegi-*isla* (*facial mirroring*), beste bikotekideak afektuzko seinalea errepikatuko duelako itxaropenean datza; esate baterako, aita batek haur jaioberriari irribarre egitea hark irribarra itzuliko diolakoan. Hirugarren elementua, disrupzioa eta erreparazioa, diada batek tirabira bat, bategite huts bat edo aurpegi- eta begi-erantzun falta bat konpontzeko erraztasunean eta azkartasunean konfiantza izatean datza; adibidez, demagun zaintzailea eta haurra elkarri begira daudela zaintzaileak hitz egin eta haurra laztantzen duen bitartean. Haurrak begi-kontaktua eten, eta zaintzailea makurtu egiten da, kontaktua berreskuratzeko. Pertsonen arteko *timinga*, Beebe eta Lachmann-en arabera, honetan datza: “[R]egulation of the mother—infant interaction along the temporal dimension and includes kinesic rhythm..., coactive and alternating vocal exchanges..., vocal congruence..., and the interpersonal timing of vocal interaction” (2002, 154. or.).

Etengabeko erregulazioa, disrupzioa eta erreparazioa, eta afektuzko momentu goren edo sakonak bereziki garrantzitsuak dira lehen urtean zehar interakzioa eta bizipen diadikoa antolatzeari eta autorregulatzeari begira (Beebe eta Lachmann, 2002, 146. or.). Fausto-Sterling-en hipotesia da diadaren osaera sexu-generikoan oinarrituriko osagai batzuen edo guztien aldaketak direla barneratze edo materializazio sexu-generikorako lehen pausoa. Hori azaltzeko, eta aurretik deskribaturiko elementuak erabiliz, bost puntako izar bat eratzen du, jaioberrien materializazio sexu-generikoa laguntzen edo koeratzen duten bost elementuekin, nahiz eta aitortzen duen ez dagoela garbi elementu horiek ba ote duten loturarik elkarren artean eta, baiezkoan, nolakoa zatekeen lotura hori (2019, 538. or.). Alegia, ea espazio-erlazioak nerbio-sisteman materializatzeko eta barneratzeko prozesua modu edo konfigurazio sexu-generizatu jakin baten arabera garatzeak eraginik ba ote duen gainerako elementuetan, edo zer eta zenbat elementu behar diren gainerakoek haurra genero eta/edo sexu-genero jakin batekin hauteman dezaten, eta berak ere gauza bera egin dezan bere buruarekin<sup>474</sup>. Fausto-Sterling-en arabera, hori enpirikoki azter liteke. Bost elementuen artean lehenbizikoa denbora da: haur jaioberriak ratioa, erritmoa, sekuentzia eta kontingentzia biltegitratzen ditu bi norabideko interakzioetan. Bigarrena

---

<sup>474</sup> Ez du ematen Fausto-Sterling-ek hemen neska zakildunak eta mutil bulbadunak buruan dituenik, hau da, buruan sexuaren eta generoaren artean koherentziarik ez daukaten gauzatze sexu-generikoak dituenik: “How many aspects of presymbolic embodiment need to point in the same gender/sex direction for another to perceive the infant as male/masculine or female/feminine? Similarly, how many aspects of presymbolic embodiment need to become embedded in an infant’s nervous system for the internal system to produce a subjective sense of self as boy or girl?” (2019, 538. or.). Nolanahi ere, beharbada, Fausto-Sterling eta beste egile batzuek diotenaren arabera lehen urtera bitartean genero-desberdintasun nabarmenik ez dagoenez, haurtzainek praktika espezifiko generizatuak egiten dituzte genitalen arabera (2015, 1352., 1354. or.), eta adin txikiak ahalbidetzen ez duenez gorputz- eta hitz-adierazpide garatuagorik erakustea, zaila da pentsatzea –baina posible, aldi berean– amek araua aldatuko dutenik.

propriozeptioa da: haur jaioberriak bien mugimenduen bizipen propiozeptiboa gordetzen du. Hirugarrena, aurpegi-afektua: haurrak aurpegi bidezko afektu positibo edo negatiboak biltegitratzen ditu, nola mugitzen diren aurpegiak aldi berean eta zer korrespondentzia edo bat-etortze dagoen aurpegien eta ahotsen artean. Laugarrena espazioa da: haur jaioberriak diadaren barneko hurbiltze-hurbiltze, hurbiltze-saiheste edo urruntze ereduak alderdiak barneratzen ditu. Bosgarrena kitzikapena da: haurrak truke diadiko partikularrekin lotzen ditu kitzikapen-ereduak.

Fausto-Sterling-ek zera galdetzen du: “How, for example, might embodiment develop if one broke down “mother” into butch-presenting, fem-presenting, and trans\*?” (2019, 538. or.). Galdera bera egin genezake “emotive faces, voice timbre and expression, touching while playing, bathing (including genital touch) and feeding” (Fausto-Sterling, 2012b, 411. or.) gisako elementuekin lotuta baina baita etapa auresinbolikoan parte hartzen duten gainerako elementuen kasuan ere –logelaren kolorea, sehaska, jostailuak, arropak, orrazkera, etab.–, hau da, zein izango liratekeen eta zer eragin izango luketen ama lesbianek, butchek, transek\*, trans\* butchek, trans\* femmeek, femmeek, aita gayek, aita transek\*, aita trans\* heterosexualek, aita trans\* gayek eta haien arteko eta ama eta aita zis heterosexual, pansexual edo bisexualekin konbinazio posible guztiek, izan bikote gisa, izan hiru heldu edo gehiagoko familia gisa, aukeratuko balituzte. Zer espektatiba eta itxaropen sortuko lirateke familia eta/edo komunitate ez-normatiboetan?

Hortaz, jaioz geroztik, haurrek ukimena, mugimendua, aurpegiak, ahotsak, zaintzak, erritmoak, distantziak, kitzikapen-ereduak, koloreak, jostailuak, arropak, heltzeko moduak eta abar xurgatzen, barneratzen eta biltegitratzen dituzte oroimenean; haiei buruzko espektatibak sortzen dituzte, eta “beren” sexu-generoari buruzko gorputz-mezuak jasotzen dituzte (2012b, 410. or.). Hau da, generoaren adierazpen auresinboliko guztiak itxuratzen dituzten inputek garapen emozionalekin bat egiten dute. Haurrak beren bizipenetan erregulartasunak hauteman ahala hasten dira kategoriak eratzen. 3.-4. hilabeterako, gai dira maskulino gisa eta femenino gisa kontzeptualizaturiko aurpegiak bereizteko (Quinn, Yahr, Kuhn, Slater eta Pascalils, 2002; Fausto-Sterling, 2012a, 53. or.-an aipatua). Fausto-Sterling, García Coll eta Lamarre-ren arabera, normatiboki ahots sexu-generizatuak aurpegi sexu-generizatuarekin lotzen dituzten ikusizko eta entzunezko kategoriak 6-9 hilabeteetarako sumatzen dira (2012, 1696. or.). 10 hilabeteko 32 haurrekin egindako esperimentu batean –haietariko 16 neska gisa kontzeptualizatuak eta beste 16ak mutil gisa–, Levy eta Haaf-ek ondorioztatu zuten haurrak gai direla emakume\*-aurpegien irudiak genero femeninoaren rolen estereotipoak adierazten dituzten objektuekin lotzeko –zapiak, zartagiak–, baita gizon-aurpegien irudiak objektu estereotipatu maskulinoekin lotzeko ere –mailuak, futboleko baloiak– (1994; Fausto-Sterling, 2012a, 54. or.-an aipatua). Levy eta Haaf-ek zera diote ondorio gisa: “10 month-olds can use basic cognitive abilities to categorize social

information, and the resultant categories could be precursors to the acquisition of gender-typed categories” (1994, 459. or.).

Haurrak urtebete duenean hasten da, gutxi gorabehera, aldi auresinbolikotik aldi sinbolikorako pausoa, eta hizkuntza-garapenak bitartekoturik egiten da trantsizio-prozesu hori (Fausto-Sterling, 2012b, 411). Berriz ere gogoratuko dugu analisi hau kulturalki, historikoki eta geografikoki kokatuta dagoela, batik bat AEBko eta Europako mendebaldeko literaturan eta ikerketetan oinarrituta. Diferentziazio sexu-generikoa areagotu egiten da hurrek adierazpen sinbolikoak bereganatu edo sortu ahala. Jostailuen lehenespen sexu-generizatua haurrak urtebete duenean hasten da agertzen. Jadva eta beste egile batzuek ondorioztatu dute bai mutilek bai neskek panpinak autoak baino nahiago dituztela 12 hilabetetan (2010, 1271. or.). Mutil txikienek panpinak autoak baino nahiago izateak, egileen aburuz, iradokitzen du mutilek panpinak baztertzeko joera ikasitako jarrera bat dela, eta ez berezkoa. Era berean, kolore- eta forma-lehenespenean adin horretako hurrek erakusten duten antzekotasun sexu-generikoak adieraziko luke geroko desberdintasun sexu-generizatuak ere eskuratu egiten direla eta ez direla berezkoak, hau da, sozializazioaren edo garapen kognitibo sexu-generizatuaren ondorio dira (Jadva et al., 2010, 1267. or.).

Bigarren eta hirugarren urteetan –urte eta erdirekin edo bi urterekin–, hizkuntza-kategoria identitario sexu-generikoak eta kategoria horiekin loturiko metaforak eta objektuak ikasten edo barneratzen hasten dira, Zosuls eta beste egile batzuek (2009) eta Eichstedt, Serbin, Poulin-Dubois eta Sen-ek (2002) diotenez. Zosuls eta beste egileek kategoria identitarioen sorrera<sup>475</sup> eta hori jostailu sexu-generikoki estereotipatuen erabilerarekin nola erlazionatzen den aztertu zuten (2009). Horretarako, eguneroko bat osatu zuten, bi astean behin, 82 haurren – haietariko 46 neska gisa kontzeptualizatuak eta beste 36ak mutil gisa– amek emandako informaziotik abiatuta, 10 hilabeteekin mintzatzen hasi zirenetik 21 hilabeteetara, fokua batez ere 17. eta 21. hilabeteetan jarrita (Zosuls et al., 2009, 690. or.). Erdiko-goiko klaseetako familietako haurrak ziren, europar-amerikarrak<sup>476</sup>, salbu europar-asiar bat, eta ingeles-hiztunak. Ikertzaileek bi alderdiri erreparatu zioten: kategorien sorrera (adibidez, “girl”, “boy”, “man”, “woman”, “lady” eta “guy”) eta autoizendapena (adibidez, “boy” edo “girl”)<sup>477</sup> (2009, 691. or.).

---

<sup>475</sup> Zosuls eta beste egileek gogorarazten digute generoa dela ikasten den lehen kategoria sozial kolektiboa (2009, 688. or.).

<sup>476</sup> Gure ustez, “European American” terminoa arazotsua eta nahasia da; izan ere, Amerika kontinente bat izaki, etnia ugari egin liezaioke erreferentzia. Artikuluan ez da beste informaziorik ematen lagina hobeki kokatzeko, baina, nolana ere, honako hau dio: “In our ongoing research using a less educated and more ethnically diverse sample, we are finding differences across ethnic groups in the timing of gender labeling” (Zosuls et al., 2009, 699. or.). “Estatubatuarra” adierazteko “American” erabiltzeak, problematikoak izanik ere, pentsarazten digu estatubatuar familia zuriez ari dela.

<sup>477</sup> Interesgarria litzateke esperimentua egitea haur eta ama/aita euskaldunekin.

Era berean, 17 eta 21 hilabeterekin, haur horien beren jostailu-lehenespenak aztertu zituzten, bakarkako zein beren amekin antolaturiko jolas-saioretan. Erabilitako jostailuak genero-estereotipoen arabera sailkatu zituzten: maskulinoak (kamioia), pixka bat maskulinoak (zurezko blokeak), femeninoak (haur baten panpina), pixka bat femeninoak (kolore neutroko te-jokoa, eskuila eta orrazia) eta genero neutrokoak (telefonoa, kamioian sartzeko jendea, belakia, bata bestearen gainean pilatzeko kuboak) (2009, 691.-692. or.).

Zosuls eta beste egileen arabera, 17 hilabeterekin, haurren % 25ek –16 neska eta 3 mutil– erabilia zuen hizkuntza-kategoriaren bat; 21 hilabeteetarako, ehunekoak % 68ra igotzen zen –35 neska eta 17 mutil–<sup>478</sup> (2009, 692. or.). % 68 horren barnean, % 10ek hizkuntza-kategoria sexu-generiko bakarra erabilia zuen, % 33k bi, % 27k hiru, % 29k lau eta % 2k bost<sup>479</sup>. 21 hilabeterekin, haurren % 17k –3 mutil eta 10 neska– sexu-generikoki izendatzen zuen bere burua. Erabilitako jostailuei dagokienez, antzekotasun gehiago aurkitu zituzten desberdintasunak baino, bai 17 hilabeterekin, bai 21ekin, eta aldakortasun handia taldeen artean. Desberdintasun sexu-generiko esanguratsu bakarra, Zosuls eta beste egileen arabera, kamioiaren eta panpinaren erabilera agertzen zen; areagotu egiten zen, gainera (2009, 695., 698. or.). 17 hilabeteetatik 21 hilabeteetara, bai neskak bai mutilak gero eta gehiago jolasten ziren genero-estereotipoen arabera ustez zegozkien jostailuekin –panpina eta kamioia, hurrenez hurren–; era berean, mutilak gero eta gutxiago jolasten ziren panpinekin, baina neskek, estereotipora gehiago mugatu, eta mutilek baino gehiago parte hartzen zuten joko generizatuan, bai 17 hilabeterekin, bai 21ekin.

Egileek ondorioztatu zuten hitzezko kategorizazio sexu-generikoak –bai kategoria bitarrak erabiltzea, bai kategoria kopuru handiagoa erabiltzea, bai autoizendapena– eragina zeukala 17 hilabeteetatik 21 hilabeteetara jostailu sexu-generikoki estereotipatuaren erabilera areagotzean (2009, 698. or.). Zera nabarmendu zuten: “[A] basic gender identity, as demonstrated by the presence of gender self-labeling, was associated with increased levels of

---

<sup>478</sup> Aztertu behar litzateke zergatik ekoitzi zituzten neskek hizkuntza-kategoria sexu-generikoak mutilek baino nabarmen lehenago, Zosuls eta beste egileek ere azpimarratu dutenez (2009, 697. or.). Nolanahi ere, diotenez, badira sexu-diferentzia posible batzuk garapen kognitiboan; neskak, zaintzaileen bitartez, rol femeninoen eragin handiagoa dute beren sozializazio-prozesuetan; generoa nabarmenagoa eta estereotipatuagoa da nesken haurtzaro goiztiarrean, arrosa-kolorearen eta arropa motaren bidez, eta, mutilen kasuan, arrosa eta femenino gisa katalogatzen dena saihesten da, maskulinoa azpimarratu baino gehiago. Fausto-Sterling eta beste egileen (2015) ikerketaren bidez gezurta daitekeen beste arrazoi bat zera litzateke: jaioberriak direnean, haur guztiak oso modu femeninoan tratatzen dira, eta, aurrerago bihurtzen da generoa garrantzitsuagoa mutilentzat, trebetasun motorrak garatzen dituztenean eta fisikoki sendoagoak eta independenteagoak egiten direnean (Zosuls et al., 2009, 697. or.). Zosuls eta beste egileek, halaber, garrantzitsutzat jotzen dute neskek gizarte-harremanekin loturiko hitz gehiago ikasi ohi dituztela (“amona”, adibidez) eta mutilek, berriz, mugimenduarekin loturikoak (“autoa”, “atea”), eta horrek nesken kasuan kategoria sexu-generiko gehiago eta lehenago ikastea ekar lezake (2009, 697. or.).

<sup>479</sup> Egileen arabera, ez da harrizkoa haur gutxi lau kategoria sexu-generiko baino gehiago erabiltzea, emakume\* helduei erreferentzia egiteko joera baitaude kategoria bat baliatzeko (“lady” edo “woman”), ez bi, eta gauza bera gizonen kasuan (2009, 692. or.).

gender-typed play from 17 to 21 months” (2009, 696. or.). Bestalde, haurrak, amarekin batera jolastean, gutxiago jolasten ziren beren sexu-generoari esleituriko jostailuekin bakarrik jolastean baino. Amarekin jolastean, ez zen nabari kategoria sexu-generikoen jabeakuntzaren eta jolas sexu-generizatu mota areagotzearen arteko harremanaren ebidentziarik. Zosuls eta beste egileen arabera, horrek esan nahi luke amek jolas berdinzaleagoak sustatzen zituztela: “This idea is consistent with the egalitarian values associated with the demographic represented in our sample—European American, upper-middle class mothers” (2009, 699. or.). Baliteke. Hala eta guztiz ere, klase sozialaren<sup>480</sup> eta etnia edo arrazaren eta parekotasunaren edo berdintasunaren arteko lotura problematiko eta alferrikakoaz harago, Fausto-Sterling eta beste egileek frogatu dute gaur egun oraindik ere indarrean dela segregazio sexu-generikoa, nahiz modu irekiago batean (2015).

Azkenik, amaren –hau da, sozializazioaren– eragina minimizatzearen helburua generoaren auto-sozializazioaren<sup>481</sup> teoria indartzea izan liteke, Zosuls eta beste egileek harekin bat egiten baitute. Izan ere, haurrak amarekin jolasten direnean desberdintasun sexu-generizatuak apaltzea azaltzen dutenean ere, mantentzen da 21 hilabeteko mutilak kamioiekin jolasten direla (2009, 698. or.). Era berean, zera diote: “Results investigating children’s relative play... also indicated that children engaged in less gender-typed play when with their mothers, although girls still engaged in significantly greater levels of gender-typed play compared with boys, as they did in the alone play session” (2009, 698. or.). Hortaz, ez da oso argi geratzen zertan datzan orduan jolas sexu-generikoki estereotipatuaren apaltasunak edo nolatan den apalagoa berau amarekin daudenean. Geure buruari galdetzen diogu emakume gisa kontzeptualizaturiko heldu batekin jolasteak ez ote duen eraginik izango neskei esleituriko jostailu femeninoekin jolastea bultzatzean. Alegia, zer neurritan jolasten diren neskak panpina, katilu eta sukaldeekin beren aitarekin daudenean; ez ote diren halakoekin maizago jolastuko amarekin daudenean, amarekin sozialki esleituriko rolak eta portaerak “partekatzen” dituzten heinean.

Zosuls eta beste egileek auto-sozializazioaren hipotesitik abiatuta diotenez, norik bere burua eta besteak kategorizatzekeo gaitasunak eragina du genero-ezaugarrien garapenean. Kapitulu honetan eta Doktorego-tesi guztian zehar, sexu-generoa ezaugarri edo ezaugarri multzo

---

<sup>480</sup> Beste pasarte batean, zera diote: “These findings suggest that, if anything, this group of middle- to upper-middle class mothers are socializing gender-neutral play” (Zosuls et al., 2009, 696. or.).

<sup>481</sup> Auto-sozializazioaren teoriaren arabera, haurrak “genero-detektibe”ak dira: “[G]enero detektibeak, berezko motibazioek bultzaturik generoari buruzko informazioaren bila diharduten agenteak” (Halim eta Linder, 2013, 1. or.). Teoria horrek haurrek beren genero-garapena determinatzeko duten zeregin aktiboa azpimarratzen du. Haien sexu-generoaren ulermenak eta kontzientziak eragina izango dute eskura daukaten informazioa antolatzekeo orduan. Genero-eskemen bitartez, ezagutza-egitura antolatuak diren heinean, haurrek beren portaera sexu-generizatuak garatzeko beharrezko informazioa eskuratuko lukete.



finkotzat hartzea kritikatu dugu, eta 2 urteak baino lehenago kokatu dugu sexu-generoaren koeraketa organiko-teknologiko-diskurtsibo-materialaren prozesuaren hasiera –nahiz etengabe garatzen eta aldatzen den–, hau da, identitate sexu-generiko bat eskuratu aurretik, haur jaioberriaren eta haren zaintzaile nagusiaren arteko, eta teknogorputz txiki horren eta haren ingurunearen arteko interakzioan, hots, ingurunera irekita dagoen gorputz batean, kontuan izanik genero-arauak, toxikotasuna eta abar gorputza bera baino lehenagokoak direla. Nolanahi ere, identitate sexu-generiko bat eskuratzeak sexu-generikoki esleituriko jolas mota indartzea ez litzateke bateraezina sexu-generoa eskuratu, barneratu eta konfiguratzeko prozesua lehenago –zaintzaile nagusiarekiko eta ingurunearekiko interakzioaren bitartez– hasten dela dioen ideiarekin. Garapenaren etapa aldaketa markatu arren, auresinbolikotik sinbolikora, hain argi ez legokeena da zer rol betetzen duen oinarrizko identitate sexu-generiko bat eskuratzeak portaera sexu-generizatuen garapenean<sup>482</sup>, eta hori gakoa da autosozializazioaren teorian, ezta identitate sexu-generikoa jolas edo jostailu sexu-generizatuaren aurretik agertzen dela dioen ideia ere, zeina artikulatu horretan agertzen baita. Baliteke sozializazioak bietan eragina izatea, bai jolas eta jostailuetan, bai identitate sexu-generikoaren eskuratzean eta haren hizkuntza-adierazpenean. Era berean, baliteke jolas eta jostailu motak eragina izatea identitatearen osaeran eta identitate hori hizkuntza-kategorien bitartez adierazteko joeran, beste elementu batzuekin batera, hala nola interakzio diadikoa, arroparen, logelaren edo sehaskaren kolorea, hizkuntza ikastea, eta abar. Edonola ere, Zosuls eta beste egileek argi uzten dutena da haurrak urte eta erdirekin edo bi urterekin hasten direla hizkuntza-kategoria sexu-generikoak erabiltzen, hau da, 17 hilabeterekin; 21. hilabeterako, haur askok zenbait kategoria erabiltzen dituzte, eta horrek eragina du jolas motetan (2009, 697. or.).

Eichstedt eta beste egile batzuek adin horretako haurrek generoaz duten ezagutza aztertu dute, baina ez hizkuntza-kategorien bitartez, baizik eta irudien bitartez (2002). Hala, zehazki aztertu dute ea generoari buruzko ezagutza konbentzional eta metaforikorik<sup>483</sup> agertzen ote den 18 eta 24 hilabeteko haurengan. 18 hilabeteko 30 haurrek –16 mutil gisa kontzeptualizatuak eta 14 neska gisa– eta 24 hilabeteko 37k –19 mutil gisa kontzeptualizatuak eta 18 neska gisa– parte

---

<sup>482</sup> Fausto-Sterling-en iritziz, aldaketa horrek zeregin konkretuetarako bakarkako irtenbideak bilatzen –adibidez, jostailu bat aukeratzea edo modu gustagarri batean janztea–, genero-kategoriarekin lotutako irtenbideak bilatzera igarotzea dakar, modu honetan halakoak generoari loturik geratzen direlarik (2019, 540. or.).

<sup>483</sup> Generoaren ezagutza konbentzional edo konkretuak gizon edo emakume\* gisa kontzeptualizaturikoen neurri handi batean eraman, erabili eta performatu izan dituzten jardura edo objektuei egiten die erreferentzia; adibidez, neskak panpinekin jolastea eta mutilak kamioiekin (Eichstedt et al., 2002, 297. or.). Generoaren ezagutza metaforikoa, berriz, elkarrekin lotura arruntik ez duten –hots, sozialki eta historikoki loturik ez duten– objektu eta gertaerak kategorien arteko antzekotasunak bilatuz edo kategoria bat talde sexu-generiko batekin lotuz elkartzean datza; adibidez, tximeletak eta emakumeak\* elkartzea biak delikatu gisa kontzeptualizatzen direlako (2002, 298. or.).

hartu zuten<sup>484</sup>. Erdiko klaseko familietakoak ziren, eta ingeles-hiztunak. % 81 kaukasoarrak ziren, % 15 afrikar-kanadarrak eta % 4 asiarrak-kanadarrak. Bat ez beste guztiak bi gurasoko familia tradizionaletan bizi ziren (Eichstedt et al., 2002, 300. or.). Esperimentua egiteko, item generizatuen edo historikoki generoarekin lotu izan diren itemen hamabi irudi erabili zituzten sexu-genero bitar bakoitzarekin; haietariko sei konbentzionalki (prakak, suhiltzaile-txanoa, mailua, soinekoa, tiara eta begizta) eta beste sei metaforikoki (hartza, katua, bihotza, urdin iluna, arrosa argia eta izeia) (2002, 301. or.). Haur bakoitzari item baten bi irudi berdinekin erakusten zituzten, eta, ondoren, bi aurpegi heldu, bata emakume batena eta bestea gizon batena. Itemen irudiekin batera, genero anbiguoko ahots bat entzuten zuten: “Hau da gehien gustatzen zaidana”, haurren espektatiba bat sortzeko gero ikusiko zuten aurpegiaren generoari buruz. Itemetako irudien ordean aurpegiak agertu, eta ahotsak esaten zuen: “Begiratuko didazu?”. 13 proba esperimental egin zituzten, bat item bakoitzeko, seiko bloketan banatuta, eta, horretaz gainera, 2 kontrol-proba (2002, 302. or.).

Egileek ondorioztatu zuten haurrek (61,5%) denbora gehiago pasatu zutela beraiek “gaizki parekatu”<sup>485</sup> (*mismatched*) esaten zieten emakume-aurpegiei begira gizon-objektuen atzetik, gizon-aurpegiei begira baino. Gizon-aurpegi “gaizki parekatu”en kasuan, baina, emakume-itemen atzetik, ez zen gauza bera gertatu. Haurrek “ongi parekatu”ei eta “gaizki parekatu”ei begira ematen zuten denbora ez zen askorik aldatzen (2002, 305. or.). Egileek ondorioztatu zuten haurrek generoaren oinarritzko ezagutza konbentzional eta metaforiko bat lortzen dutela bizitzaren bigarren urtean. Emaitzetan ikusten denez, 18 eta 24 hilabeteko haurrek badute genero-estereotipo maskulinoen berri, baina ez dago hain garbi genero-estereotipo femeninoen berri ba ote duten neurri berean. Haurrek, femenino gisa estereotipututako itemak erakusten zitzaizkienean, ez zieten desberdin begiratzen gizon- eta emakume-aurpegiei. Baliteke horren arrazoia izatea genero-rol maskulinoak zorrotzagoak izatea eta gizonak haietatik aldentzeak zigor eta gaitzespen handiagoa ekartzea, emakumeak\* rol femeninoetatik aldentzeak baino gehiago betiere –nahiz eta lehen haurtzaroan femeninoetasuna saihestuz edo harengandik aldentuz eraikitzen den maskulinitasuna–; ondorioz, rol eta estereotipo horiek azkarrago, tinkoago eta sendoago ikasi behar dira. Ideia hori bera dakarte Eichstedt eta beste egile batzuek ere (2002, 306. or.). Hemen hipotesi gisa aurkezten dugun beste arrazoi bat izan liteke, gizonen espazio publikoan, hedabideetan eta orobat literaturan duten nonahikotasuna; horrek haien rol eta

---

<sup>484</sup> Beste 16 haurrek ere parte hartu zuten ikerketan, baina alde batera utzi ziren “akats”engatik edo bestelako arazoengatik.

<sup>485</sup> Erantzun “gaizki parekatu”ek, hau da, haurrek denbora luzean edo ohi baino luzeagoan begiratzen zientenean aurpegi sexu-generizatuei “aurkako” sexu-generoari esleituriko itemen atzetik, berritasuna, harridura edo inkongruentzia adierazten dute, egileen arabera.

estereotipoak behin eta berriz ikusaraztea dakar, baita halakoak gehiago eta lehenago ikastea sustatzea eta estimulatzea ere. Item metaforikoei dagokienez, egileek diote gizonen kasuan fisikotasun handiagoa zutela emakumeenean\* baino, hau da, azkenok ezagutza handiagoa eta konplexuagoa eskatzen zutela, eta baliteke horrek erraztu izana item horiek eta kategoria sexu-generikoak mapatzea (2002, 307. or.). Azkenik, Eichstedt eta beste egileek ere azpimarratu dute ezagutza hori gradualki eskuratzen dela eta aldakortasuna erakusten duela.

Hala, ingurunera irekitako garapen sexu-generikoko prozesuan, fisionomia, hormona-maila, gene edo nerbio-sistema konkretu eta indibidualizatuak dituzten gorputzetan txertatzen, eskuratzen eta barneratzen doa sexu-generoa, baina aldaketa eta garapen jarrian; horrenbestez, 2 urtetik 5era bitarteko haur gehienek baieztatzen dute identitate sexu-generiko bat, edo beren burua sexu-generikoki izendatzen dute. Fausto-Sterling Butler-ekin batera berrirakurritik, ikasi, materializatu eta performaturiko genero-arauen ondorio bat da generoa; arauok, errepikatzearen errepikatzeaz, ohitura bihurtzen dira, eta, gero, modu sexu-generizatu jakin batean jokatzeko ohitura hori natural bihurtzen da; horrenbestez, eraikuntza, hartutako ohitura, ikusezin, esentzial, berezko bilakatzen da (Fausto-Sterling, 2019, 550. or.). Generoa barruratu-gorputzu egiten da, eta teknogorputzen materialtasunak ere performatiboki funtzionatzen du, errepikapenaren bitartez, ikusmolde sexu-generikoaren arabera esleituriko funtzioak burutzeko: “Don’t throw that ball like a girl!” (Zosuls et al., 2009, 697. or.). “What a big boy! What a great throw!” (Fausto-Sterling, 2019, 539. or.). Zenbat aldiz esan ote digute emakumeoi\* gure gurasoek “txilibitu-ahotsa” daukagula, ozen hitz egiteagatik edo eztabaidatzen hasteagatik? Edo zenbat aldiz zigortu gaituzte “ozen barre egiteagatik”? Izan ere, umorea, ozen hitz egitea eta sendotasunez mintzatzea gizon-ezaugarriak dira oraindik ere. Hona Fausto-Sterling-en ondorioa: “[A]s children and even as adults, we can choose consciously from among the many cultural features of gender to embed new bodily habits into our sensorimotor (neuromuscular) system. Even without conscious choice, however, many cultural features of gender shape how our bodies function” (2019, 533. or.).

Gaur egun, baina, badago beste elementu garrantzitsu bat paradigma sexu-generiko heteronormatibo hegemonikoa osatzen duena: sexu-generoa eta sexualitatea aldaezinak direlako ideia, hau da, bat direla eta bizitza guztirako berdina, baita batetik bestera aldaturiko edo trantsitatutako trans\* askorentzat ere –gogoratu ditzagun “beti izan naiz mutila” edo “transok holakoak gara” eta halako ideiak–. Noiz eta nola barneratzen dugu ideia hori, are gure sakoneko niaren parte bilakatzeraino? Fausto-Sterling-ek dio AEBko haurrek 7 urterekin barneratzen dutela generoa “permanent state of being” edo jabego finko gisa (2012a, 55. or.). 1966an, Lawrence Kohlberg-ek “genero-konstantzia” kontzeptua asmatu zuen. 5-6 urteak arte, haurrek

uste dute generoa gorabeheratsua dela. Esate baterako, Fausto-Sterling-en bi urte eta erdiko iloba txikiak esaten zuen handitan poney bat izan nahi zuela (2012a, 55. or.), edo lau urteko Jimmyk lau urte eta erdiko Johnnyri esan zion handitan ama izango zela (Kohlberg, 1966, 95. or.). Genero-identitatearen konstantziak esan nahi du mutil bat gizon bihurtuko dela handitan eta neska bat emakume, eta, aldi berean, eraldaketa “azalekoago” batzuk ere gerta daitezke, hala nola neska bat neska izango dela beti, prakak jantzi eta kamioiekin jolasten bada ere (Halim eta Lindner, 2013, 2. or.). Kohlberg-ek, 4 eta 8 urte bitarteko haurrei neska baten irudia erakutsi, eta galdetu zien ea mutil bilakatu ote zitekeen berak hala nahi izanez gero, mutilen jolasetan arituz gero edo mutilen arropa eta janzkera eramanez gero (1966, 95. or.). Kohlberg-ek dakarrenez, 4 urteko haur gehienek erantzun zuten mutil bilakatu zitekeela nahi izanez gero edo mutilen arropa eta janzkera eramanez gero. 6-7 urtekoen kasuan, berriz, gehienak nahiko ziur zeuden neska bat ezin zela mutil bihurtu, ezta bere portaera edo itxura aldatuta ere.

2 urtetik 5 urtera bitarteko trans\* haurren kasuan eta, zehazki, neska zakildun eta mutil bulbadunen kasuan ikusten dugunez, genero-konstantziaren nozioarekin batera agertzen diren eraldaketa edo elementu “azalekoago” horiei genitalak gehitzen zaizkie. Esan nahi baita, neska batek neska izaten segituko du prakak jantzita ere, kamioiekin jolastuta ere eta/edo zakila edukita ere, eta mutil batek mutil izaten segituko du bulba edukita ere<sup>486</sup>. Nolanahi ere, ez dakigu nola identifikatuko duten beren burua eta zer bilakaera izango duen haur horien materialtasunak nerabezaroan eta helduaroan. Baliteke haietariko batzuek beren burua transexual izendatzea; beste batzuek, trans\*, edo emakume\* trans\* edo gizon trans\*; beste batzuek, trabesti; beste batzuek, emakume\* edo gizon, besterik gabe, edo *nongender*; beste batzuek, genero ez-bitarreko. Baliteke batzuek genero-adierazpide femeninoa baina identitate maskulinoa izatea, eta beste batzuek, genero-adierazpide maskulinoa baina identitate femeninoa. Beste batzuk, apika, mutil trans\* izatetik lesbiana edo butch izatera igaro litezke. Genital-ezaugarrien, genero-adierazpidearen eta genero-identitatearen arteko konbinazio ugarietako sexualitatea gehituz gero, aukerak izugarri ugaltzen dira<sup>487</sup>. Interesgarria litzateke aztertzea ea oraingo edo etorkizuneko

---

<sup>486</sup> Garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea diskurtso hau normalizatzeko hasi berri den prozesua ez litzatekeela posible izango, batetik, haurron ausardiarik eta haien familien lanik gabe, eta, bestetik, hainbat eta hainbat kolektibo eta aktibistak hainbat hamarkadatan aurretik egindako lan eta borrokarik gabe.

<sup>487</sup> Gauza bera gertatzen da zis teknogorputzekin. Emakume bat heterosexual izatetik/egotetik lesbiana, bisexual eta/edo pansexual edo asexual izatera iragan daiteke, hurrenkera horretan edo beste batean, eta, era berean, gizon bat heterosexual izatetik/egotetik gay, bisexual edo pansexual edo asexual izatera iragan daiteke. Eta gauza bera gertatzen da txikitan “gender non-conforming”tzat hartuak izan eta heldutan emakume\* edo gizon zis heterosexual izandakoetan (Fausto-Sterling, 2019, 546.-547. or.). Aldaketak eta mugimenduak ugariak eta askotarikoak dira hainbat noranzkotan. “Gender non-conforming” terminoari dagokionez, kontuan hartuta autore batetik bestera aldatu egiten dela kontzeptualizazioa, zera dio Fausto-Sterling-ek: “Gender non-conforming behaviors, however, are quite common” (2012a, 68. or.). Hemen ulertzen dugunaren arabera, erregimen heteronormatibo bitarrak inposaturiko sexu-genero-sexualitatearen koherentziatik kanpo geratzen den guztia

haurrek “neska” edo “mutil” kategoriez bestelakoak erabiltzen ote dituzten beren burua izendatzeko, batez ere 7 urteetatik aurrera, edo ea kategoria bat baino gehiago eta/edo biak erabiltzen ote dituzten, eta ea batetik bestera ibiltzen diren, edo ea ez duten kategoriarik erabiltzen; edo ea, orain edo etorkizunean, beren burua “trans\*” edo “neska trans\*”/“mutil trans\*”/“haur trans\*” izendatzen ote duten, edo oraindik existitzen ez diren eta asmatzeko dauden beste kategoria batzuk erabiltzen ote dituzten. Gure hipotesia zera da: sexu-generoari eta sexualitateari buruzko diskurtso irekiagoak eta malguagoak eta aldaketak eta eraldaketak kontuan hartzen dituztenak garatu eta partekatu ahala, eta hizkuntza-kategoriak eta identitate-aukerak haurtzarotik hasita ugaritu ahala, desberdintasun sexual-sexu-generiko gehiago adieraziko dira txikitatik, bai gorputzaren bitartez, bai hizkuntzaren bitartez.

Bestalde, heldutan gizon edo trans\* ez-bitar sentitu diren edo esleiturikoaz bestelako identitate-kategoriaren bat erabili izan duten neskek eta heldutan emakume\* edo trans\* ez-bitar sentitu diren edo esleiturikoaz bestelako identitate-kategoriaren bat erabili izan duten mutilek genero-konstantziaren ideia problematizatzen eta iraultzen dute.

Materialtasun eta identitate sexu-generikoa bizitza guztian zehar garatzen da, egonkortasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, subjektibitate-gorputzasunen arabera. Ezinezkoa litzateke kontakizun hori hemen osatzea, Doktorego-tesi honen zabalera gainditzen baitu. Haurtzaroan ipini dugu arreta, zalantzan jartzen baitu zuzenean transexualitatearen eta orobat identitate sexu-generikoen gaineko ikusmolde esentzialista eta biologizista, hau da, identitatea jaio aurretik eta/edo jaioberritan hormonon eraginez sortzen eta burmuinean zigilatzen den zerbait berezkoa, jaiotzetikoa, finkatua edo programatua balitz bezala ulertzen duena. Lehen haurtzaroa aztertzeak agerian uzten du zein garrantzitsuak diren sozializazioa eta patroiz generizatuen araberakoak ez diren hasierako gorputz-desberdintasunen multiplizitatearen interakzioa, askotariko elementuekin, zeintzuen barruan garrantzitsuki aurkitzen diren genero-arauak, biologikoa denarekin, organikoa denarekin, gorputz-materialtasunarekin urtzen direnak. Trans\* gorputzasun-subjektitateen multiplizitatea hasierako gorputz-desberdintasunen espektro zabalaren beste adierazpen edo aukera batzuk baino ez dira, identitate eta materialtasun sexu-generizatu gisa konfiguratu eta garatuko direnak.

Hala eta guztiz ere, fokua hainbat elementutan ipini arren, funtsezko afera erantzun gabe dago oraindik, hau da, nola garatzen diren gorputzasun-subjektibitate ez-normatiboak; zehazki, trans\* multiplizitatea. Identitate sexu-generikoaren garapena zaintzaile nagusien eta haurren

---

litzateke, hots, neskek eta emakumeek\* femeninoak eta mutilek eta gizonen maskulinoak izan behar dutela eta dagokien sexu-generoaren arabera desiratu, sentitu eta jokatu behar dutela dioen ikusmoldeetik kanpo geratzen dena.

arteko interakzioaren bitartez transmitituriko genero-arauak barneratzea besterik ez bada, nola da posible identitate ez-normatiboak egotea haurtzaroan? Nola azaleratzen, itxuratzen eta konfiguratu dira bestelako identitate, praktika eta desirak, espektatiba, instrukzio, ikasbide, entrenamendu, zigor, errepresio eta sariak gaindituz edo berauetara gainjarriz? Azalpen orokor eta kontakizun itxi, sistematiko eta behin betikorik ez daukagun arren, hiru elementu aipatu ditugu desberdintasunen aukera zabalaren koeraketa azaltzeko. Lehena zaintzailea-haurra diada izango litzateke, non hasierako desberdintasunak babestu, besarkatu eta zabaldu litezkeen eta aukera sexu-generikoak ugaritu, baita familia ez-normatiboetan ere –bi heldu baino gehiagokoak eta/edo askotariko genero eta sexualitateetako pertsonak osatuak–. Bigarrena hizkuntza-kategoria sexu-generikoak barneratzea eta nork bere burua izendatzea izango litzateke. Orain arte haur transen\* familien elkarteetan –Chrysalis, Naizen– jasotako kontakizunetan ikusi dugunez, haurrek, nahiz eta helduaroan beren burua trans\*, genero ez-bitarreko, *nongender* edo bestelakotzat hartu, haurtzaroan, identitatea bereziki garrantzitsua den aroan –nork bere burua sexu-generikoki identifikatzea, aukera bat baino gehiago, hil edo biziko kontu bat da, agindu sozial larri bat–, mutil edo neska gisa identifikatzen dute beren burua. Alegia, ez dago bitarra ez den kategoriarik nork bere burua izendatzeko.

Teknogorputz sexual-sexu-generikoen multiplizitate zabalaren koeraketan parte hartzen duen hirugarren elementua, kolorearen harira mamitu dugun hipotesiarekin lotuta, dopamina da. Egon daitezke –eta badaude– kolorearen genero-estereotipoak urratu eta beren umeak hainbat koloreekin eta modu ez sexu-generizatu batean janzten dituzten gurasoak. Kolore horietako bat errefortzu positibo edo sari batekin laguntzen den aldiro, plazeretzko sentipen batekin lotuko da, eta oroimenean gordeko. Gauza bera gertatuko da kolore horietako beste elementu batzuekin ere, jostailuak, kasu, edo baita beste elementu batzuekin ere, mugimenduak eta portaerak, kasu, erantzun positiboak emanaz gero haurren dopamina-sistema estimulatu baita eta, horrenbestez, haurrak gauza zehatzak bilatzen jarraituko baitu. Ez dakigu zer gertatzen den, baina baliteke beste lotura batzuek edo antzeko sari edo ordainekin indarturiko beste elementu batzuen arteko loturek sortzea plazeretzko sentipenak haurrengan eta horrek eragitea haurrek bestelako lehenespenean, gustu edo aukera batzuk garatzea.

Dena den, entrenamenduaz, ikasketaz, hezkuntzaz, sariez edo errefortzu negatiboez harago, interakzioan *bertan* eta interakzioak berak sorturiko plazera legoke. Haurrek askotariko elementuetan aurkitu dezakete plazera, beren gorputz sexu-generizatuei esleituak eta/edo onartuak izan zein ez izan. Eta haurrek plazera sortuko balute *interakzioan*, askotariko elementuekiko interakzio eta harremanetan –zorizkoak izan zein kausa jakinak dituztenak izan–, eta dopamina askatzearen ondorioz eta sentipen hori errepikatzean haiekiko lotura edo

atxikimendua (*attachment*) sortuko balitzaie? Badira elementu batzuk, hala nola musika, dopamina askatzen dutenak (Salimpoor, Benovoy, Larcher, Dagher eta Zatorre, 2011; Zatorre eta Salimpoor, 2013; Salimpoor, Zald, Zatorre, Dagher eta McIntosh, 2015). Izan liteke zaintzaileen kanta-marmar, xuxurla, sehaska-kanta eta abestiek eragitea haur jaioberriek dopamina askatzea? Egiaz, haurrak loarazteko eta lasaitzeko tekniketako bat kantatzea da, musikak estresa gutxitzen eta gogo hobetzen baitu. Izan liteke beste soinu eta/edo ahots batzuek dopamina askatzea? Dopamina mugimenduaren kontrolarekin lotuta ere badago (Oates et al., 2012, 10. or.). Dopamina askatzea, zelula-jarduera dopaminergikoaren goren-unea beharrezkoa da mugitzen hasteko, mugimenduaren atea ireki edo itxiko balu bezala, eta mugimenduen indarrerako (da Silva, Tecuapetla, Paixão eta Costa, 2018). Dopaminaren beste funtzio batzuk oroimenarekin, kognizioarekin, arretarekin, prolaktina hormonaren ekoizpenaren inhibizioarekin, loarekin, umorearekin eta ikasketarekin lotuta daude (Frank eta O'Reilly, 2006; Schultz, 2007).

Fausto-Sterling-ek dioenez, haurtzaroan, helduaroan cunnilingusarekin, koitoarekin edo beste sexu-praktika edo -harreman batzuekin lotzen ditugun sentsibilitate neuralak sistema neuralaren osagai gisa garatzen dira, eta haurraren eta zaintzailearen arteko ohiko interakzio multzoen parte dira; interakzio horien artean daude afektuz ukitzea, zaintzaz ukitzea, lasaitzeko kulunkatzea, garbitzea, krema edo talko-hautsak ematea, eta abar (2019, 543. or.). Trevarthen eta Aitken-ek 12 nerbio kranialen taula bat aurkeztu dute, zeinek haurraren trebetasunak, sentsibilitateak eta komunikazio-ezaugarri sensorialak gaitzen edo aktibatzen baitituzte (2001, 23. or.; Fausto-Sterling, 2019, 543. or.-an aipatua)<sup>488</sup>. Usaimen-nerbioak, adibidez, usaimenaren eta dastamenaren barne-zentzu bat ematen du, eta usaintzearen eta, edo bitartean, beste bat musukatzearen esperientzia intersubjektiboak bideratzen ditu. Nerbio trigeminoak aurpegi-sentsazioak ahalbidetzen ditu, eta, hari esker, haurrak beste pertsona batek ukitzearen bizipena izan dezake; nerbio bagoak, berriz, bihotza eta urdaila inerbatu, eta norberaren emozioak sentitzeko gaitasuna ematen du. Nerbio guztiok martxan daude jaiotzean: edoskitzea ahalbidetuz; bihotz-erritmoa, tenperatura eta digestioa erregulatuz; eta haurrak helduen afektuzko inputaren aurrean erne ipiniz. Fausto-Sterling-en arabera, sexualitatea, “[e]ven though, progressively during childhood and on into adulthood, it becomes a physiological “thing” (that we imagine as unique) linked to heightened emotion and the special attachments of love and lovemaking”, haurrak helduen zaintza-lanak ebokatzeko eta haien aurrean erantzuteko erabiltzen duen oinarrizko erreperitorio fisiologikoaren atal gisa hasten da. Alegia: “Sexuality emerges from the

---

<sup>488</sup> Ikus 12 nerbioen irudi bat hemen: Trevarthen eta Aitken (2001, 22. or.).

same neurological and physiological events that establish mutual caregiver–infant intersubjectivity” (2019, 543. or.).

Garapenaren unerren batean, eremu libidinaletako sentzibilitate neuralak garun-kortexeko erregio somatosensorial espezifikotara konektatzen dira. Fausto-Sterling-ek dio ezer gutxi dakigula haurtzaroko burmuineko mapa somatosensorialaren garapenez (2019, 544. or.). Garun-kortexeko eremu horiek gorputz-atalekin lotzen dituzten konexio neuronalek plastikotasuna garatzen dute helduaroan; hortaz, aldarrikatzen du sexu-adierazpidearen fisiologian parte hartzen duten gorputz-burmuin loturak haurtzaroan hasten direla garatzen. Sexu-adierazpideak, orgasmoa dakarten erreflexuez gainera<sup>489</sup>, plazerezko sentimenduak ere badakartza, eta, egileak dioenari jarraituz, dopamina askatzearen ondorioa lirateke (2019, 544. or.). Baliteke gorputz eta objektuekin interakzioan egotearen ondorioz dopamina askatzea; lehenbizi, interakzio diadikoan, eta, gero, harago, ukimenaren, ahotsaren, ikusmenaren, entzumenaren, afektuaren, emozioaren, kitzikapenen, mugimendu konkretuen eta esperientzia-ereduen bitartez, plazera sorraraziko luketenak eta halakoak errepikatzeak eta gordetzeak zenbait mugimendu, modu, objektu, jostailu, arropa, kolore, adierazpide, praktika eta identitate erabiltzea, sortzea eta aukeratzea eragingo luke.

Gorputz-irudiari dagokionez, Fausto-Sterling-ek adierazten du norberaren eta besteen esplorazioaren eta ukimenezko sentrazioen bitartez –beharbada, garbiketarik eta fardelak aldatzetik hasita–, eta norberaren eta besteen arteko *feedback* bisualaren, gorputzaren, burmuinaren eta lotura neuralen bitartez eraikitzen eta garatzen dela (2012a, 57. or.). Horretaz gainera, ez dakigu zer gertaera espezifikok parte hartzen duten haurtzaroko, nerabezaroko eta helduaroan gorputz-irudiaren sorreran eta garapenean, eta, halaber, ez dakigu zer gertatzen den “when chromosomal, gonadal, hormonal, and genital sex disagree with body image and gender identity (childhood transgender identity)” (2012a, 57. or.)<sup>490</sup>, eta, gehituko genuke, halakorik ez dagoenean ere.

Hainbat eta hainbat elementuk eragin dezakete identitate disidente, anizkoitz eta arauaz bestelakoak agertzea adin goiztiarrean. Hona Fausto-Sterling-en hitzak:

---

<sup>489</sup> Ikus 4 hilabeteko haurren orgasmoei buruzko lan bat hemen: Kinsey, Pomeroy eta Martin (1948).

<sup>490</sup> Egileak (2019, 535. or.) Manzouri eta Savic-en (2018) ikerketa aipatzen du, eta ondorio nagusietako baten interes potentziala nabarmentzen, hots, ikerturiko trans\* eta zis pertsonen sare neuronalen arteko desberdintasunak, zeinek gorputzaren gaineko autopertzepzioa bideratzen baitute. Nolanahi ere, ikerketa horretan, burmuineko sexu-dimorfismoa onartzen da, eta behin eta berriz aipatzen “gender dysphoria” terminoa. Ildo horretan, hona Manzouri eta Savic-en ondorioa: “Although a less pronounced cerebral sex dimorphism was detected in transgender persons compared with heterosexual cisgender controls, this seems primarily due to the higher proportion of homosexual persons in the GD groups, and does not seem to be the signature of GD. We suggest that GD is, instead, specifically linked to cerebral networks mediating self–body perception, possibly due to certain developmental and acquired changes” (2018, 2098. or.).



[T]here are probably so many... and they probably interact in so many different ways, that we will never have a single story to tell about gender development. Even within the same culture, the future of gender will consist of individual case studies that illuminate our questions. But I predict no specific universal story. (2012a, 57. or.)

Galdera asko, erantzun gutxi eta kontuan hartu beharreko aferaren bat. Plastikotasun neuronala da haietariko bat. Neuronen arteko loturak aldatu egiten dira; neurona berriak jaio, eta lotura berriak sortzen dira, gorputzaren eta munduaren arteko interakzioaren emaitza gisa. Hona hemen Fausto-Sterling-en gogoeta: “[I]ndividual variations in neurosensory development might combine with particular family psychodynamics, and that such a combination somehow disrupts the usual developmental patterns for gender identity formation” (2012a, 67. or.).

Jordan-Young-ek ere, Fausto-Sterling-ek eta Ah-King eta Nylin-ek bezala, gizakien plastikotasuna azpimarratu du: “Very few developmental endpoints are truly “final”; instead, they are interim states, with the possibility of growth and change until death” (2010, 286. or.). Garapena –garapen sexu-generizatuak– etengabeko prozesu bat da, eta, prozesu horretan, teknorganismo baten oraingo egoera interakzioan dago hurrengo aldagai edo input esperientzial edo fisiologikoetako bakoitzarekin –biokimikoak barne–. Jordan-Young-en iritziz, Brain Organization Researchen ikerketek ideia hori ezkututzen dute, edo ez ikusiarena egiten diote, edo ukatzen edo alde batera uzten dute hormonon efektu asko itzulgarriak direla eta bizipenen bidez erraz molda daitezkeela: “[C]ausing them to misrepresent scientific knowledge on the effects of hormone exposures during the ‘critical’ periods for development of the brain” (2010, 286. or.). Fausto-Sterling-ek honela dio: “[T]he science you do depends on the model of the body you start with” (2012a, 63. or.).

Hormonek ezin konta ahal bizi-prozesutan parte hartzen dute, eta ezin konta ahal bizi-prozesu azaltzeko balio digute, hala nola sexu-generoaren garapena eta identitate sexu-generizatuak, baina baita hazkuntza, ikaskuntza, loa, mugimendua, portaera, umorea, plazera eta, Jordan-Young-en arabera, neuronon garapena ere (2010, 288. or.). Burmuina plastikoa da, hau da, interakzioaren bitartez *bakarrik* garatzen da: “[S]o too is hormone biology and physiological regulation” (Fausto-Sterling, 2012b, 400. or.). Alegia, azken fenotipoa ez da agerikoa jaiotzean, ezta haurtzaroan eta nerabezaroan ere, heriotzara arte garatzen da eta (Jordan-Young, 2010, 289. or.). Hala, hormona goiztiarrek neuronon garapenean eragina duten arren, “programatu”, “aztarna”, “sortasuna” edo “antolaketa iraunkorra” hitzek oker deskribatzen dute nola funtzionatzen duten hormonon efektu goiztiarrek portaeran. Hormonen eragin goiztiarrak ez

dakar behin betiko oinarri bat portaerari dagokionez (2010, 288. or.). Fausto-Sterling-ek honela dio: “The fact that ildhood gender identity variability can appear as early as the third year of life is not itself evidence that the cause is biological, and certainly not that it comes from a malfunction of fetal hormonal sex” (2012a, 65. or.). Bestalde, dimentsio kognitiboaren emaitzak kontingenteak dira beti, ez behin betikoak.

Egoera iraunkor bat, esentzia bat eta/edo programa bat baino gehiago, sexu-generoa eta identitate sexu-generikoak, haien artean, “trans\*” terminora biltzen ditugun gorpuztasun-subjektibitateak, *bilakaeran diren prozesu dinamikoak eta ingurunera irekiak* dira, eta elementu edo dimentsio organiko-teknologiko-diskurtsibo-materialen multiplizitate batek parte hartzen du haien koeraketan. Galofre eta Missé-k adierazten dutenez, transaren\* gaineko ikusmoldea gizarte bateko ikusmolde sexu-generikoaren mende dago (2015, 17. or.). Trans\* gorpuztasun-subjektibitateak garai historiko jakin batean azaleratu dira, Haraway-ri, Moore-ri eta Malm-i jarraituz, “Kapitalozeno neoliberal” izendatu duguna, eta teknobiopolitikaren eta teknozientziaren bilakaera molekularra inplikatzeko duena. Gonaden Aroak lekua utzi dio Hormonen Aroari, zeinaren azken hamarkadetan, hainbat ahots altxatu diren erregimen sexu-generikoaren irekitzea eskatuz.

“Muturreraino” dikotomikoa den sozializazio-testuinguru batean, espero izatekoa da aldakortasun sexu-generikoa “larriki” ahultzea eta dimorfismo sexu-generikoa zabaltzea (Jordan-Young, 2010, 289. or.). Jordan-Young-entzat, honako hau da funtsezko auzietako bat:

[W]hat kinds of differences should we —socially and politically— accept or even embrace, and conversely, what kinds of skills and traits would we prefer to encourage (or discourage) in everyone. As I have argued, this is not a scientific question, but a political one. Putting this important political issue back to science by suggesting that some things are simply the “state of nature” clearly will not do. (2010, 290. or.)

Diskurtso deterministak, esentzialistak, naturalizatzaileak eta patologizatzaileak ez dira adiskide onak, eta ez dute eskuzabaltasunez funtzionatzen autodeterminatzeko askatasuna eta gorputz-adierazpidea eta/edo -moldaketa legitimatzeko. Eta ez hori bakarrik; horretaz gainera, halako diskurtsoek teknogorpuztasun-subjektibitate ez-normatibo eta ez-hegemonikoen gutxiagotasuna zurrizteko bidea zolatzen dute. Honela diote Galofre eta Missé-k:

[G]ure gorputzak sekula ez dira oker egon; gure kultura da dena zuria edo beltza dela ulertzen duen bakarra, pertsonok adierazten dugun genero-aniztasun oso ikusezin bihurtzen duena (...) ekinen

jarraituko dugu genero-aniztasuna askatasun indibidual eta kolektiborako modu gisa goratzen, zaintzen, mainatzen eta sustatzen duen gizarte baten alde. (2015, 27. or.)<sup>491</sup>

Bukatzeko, uste sendoa dugu gure ikusmolde sexual-sexu-generikoen azken bermea ez litzatekeela biologia izan behar, baizik eta jendearen ongizatea eta zorientasuna, orainaldian bizi ditugun teknogorputzen desirak eta premiak asebetetzeko gaitasuna. Oraindik ere utopia bat da egunen batean kolektiboki aukeratu ahal izatea ea nahi dugun maila sakonenetatik maila azalekoagoetara kategoriatan sexu-generikoen arabera egituraturiko gizarte bat eta ea zer kategoriatan, nola eta zertarako jarri nahi ditugun eskuragarri. Utopiazko une hori iritsi bitartean, baita utopiazko une horretan ere, badira, gutxienez, hiru elementu aintzat hartu beharrekoak kontakizun zientifikoetan, Galofre eta Missé-k adierazitako bidean aurrera egiteko: subjektibitate-gorpuztasunak –sexu-generizatuak– eta sexualitatea prozesu edo bilakaera gisa ulertzea, eta, horrenbestez, aldatzen, bilakatzen eta eraldatzen diren elementu kontingente gisa ulertzea. Errealaren izaera anizkoitza, errealitatearen osaera anizkoitza, hots, desberdintasun, gorputz eta subjektibitateen multiplizitatea. Eta, azkenik, haien koeraketa erlazionala, hau da, desberdintasun, gorputz, subjektibitate horien koeraketa organiko-teknologiko-diskurtsibo-materiala eta erlazio horien efektu gisa haien azaleratze edo agerpena.

#### 4.6. Laburbilduz

Kapitulu honen helburua gorpuztasun-subjektibitateen sexu-generoaren koeraketa organiko-teknologiko-diskurtsibo-materialaren berri ematea izan da, bereziki transen\* kasuan. Kategoriatan hori aukeratzeko arrazoien atzean, azpimarratu nahi dugu transa\* esparru garrantzitsua bilakatu dela sexu-generoari buruzko esanahi eta kontakizun eztabaidatzeko, eta analogia historiko bat ondorioztatu dugula elkarloturiko emakume\*-trans\* kolektibitateen artean hiru ideiatan oinarrituta: farmakologizatutako eta (bio)teknologizatutako bizi-, gorputz- eta identitate-prozesu anizkoitzen kontzeptualizazio mediko-patologikoa, eta haien koeraketa teknologikoa, hirugarren kapituluaz azaldu dugun bezala; “emakumeak\*” eta “trans\*” kategoriatan identitarioen irekiera, esanahi homogeen, naturalizatzaile eta baztertzailetatik multiplizitatea, erlazionaltasuna eta bilakaera besarkatzen duten ikusmoldeetara igaroz; eta bi subjektibitate-

---

<sup>491</sup> Jatorrizko testua: “[N]uestros cuerpos nunca han estado equivocados, sino que es nuestra cultura la que solo entiende de blancos y negros, e invisibiliza toda la diversidad de género que las personas expresamos (...) seguiremos trabajando incansables por una sociedad que celebre la diversidad de género, la cuide, la mime, la promueva, como una forma de libertad individual y colectiva”.

teknogorpuztasun taldeok –maiz, bera eta bakarra dira– kontzeptualizatzen dituzten diskurtso determinista, esentzialista, biologizista eta erreduktionistak eta ondorioz desberdintasunak, hierarkiak eta gutxiagotasun soziala hauspotzen dituztenak. Auziok kapitulu honetan aztertu ditugu.

Trans\* gorpuztasun-subjektibitateak koeritzen dituzten elementu diskurtsiboez eta kategoriez denaz bezainbatean, “trans\*” kategoriaren genealogia bat egin dugu. 1940ko eta 1950eko hamarkadetako Cauldwell-en eta Benjamin-en “transsexual” kategoria mediko eta patologizatzailea abiapuntu gisa harturik, haren garapena, zabalkuntza semantikoa eta politizazioa azaldu ditugu, lehenik, “transgender”-ren bidez, zeina autodeterminazio identitarioaren eta multiplizitatearen ideietan oinarrituta egin baitzuten Boswell-ek, Feinberg-ek eta hainbat kolektibok 1990eko hamarkadan, eta, ondoren, “trans\*”-ren bidez, zeina anizkoitz, ireki eta aterkitzat hartzen baita. Hala, nabarmendu dugunez, historian zeharreko eta mundu-globoaren luze-zabaleko gorputz eta identitate ez-bitarren existentziaz harago, “trans\*” kategoria soziala da eta historikoki kokatua dago, eta Kapitalozeno neoliberallean azaleratu da, teknobiopolitikaren eta teknozientziaren bilakaera molekularrean murgilduta eta “Hormonen Aroa” izendatu dugun paradigma sexual-sexu-generikoaren konfigurazio zehatz batekin.

Trans\* subjektibitate-teknogorpuztasunen koeraketa azaldu nahian, ikuspegi historikotik gorputzean oinarrituriko ikuspegi batera igaro gara, eta zenbait elkartek –Chrysallisek, adibidez– eta hedabidek –*El Intermedio* telebista-programak, adibidez– hedatzen dituzten ikusmolde eta kontakizunak aztertu ditugu. Halako diskurtsoek, nahiz eta aurrera egiten lagundu duten trans\* eskubideen defentsan eta trans\* gorputz eta identitateen normalizazioan, kutsu esentzialista eta biologizista dute; izan ere, transexualitatea burmuineko ildaska terminaleko ohantzeko nukleoaren erdiguneko subdibisioan (BSTc) kokatzen duten diskurtso zientifikoetan funtsatuak dira, eta postulatu arazotsu eta patologizatzaileak dakartzate, helburuen kalterako.

Identitate sexu-generikoen –batez ere transen\*– koeraketan parte hartzen duten elementu biologikoen azalpenean, elementu teknologiko eta diskurtsiboekin modu banaezinean loturik, transexualitatea BSTc-an dagoela defendatzen duen ideia-arrastoari segitu diogu, harik eta “Brain Sex Theory” deritzon literatura-gorputzera iritsi garen arte, zeina nagusiki Swaab-en lantaldeak garatu baitu, Jordan-Young-ek “Brain Organization Research” izendatzen duenaren parte gisa. Hala, literatura-gorputz hori osatzen duten lau artikuluko esanguratsu aztertu eta problematizatu ditugu, bai haien ikusmolde teorikoengatik, bai haien zorrotasun-faltagatik eta metodologia- edo diseinu-akatsengatik. Artikulu horiek burmuineko sexu-dimorfismoa defendatzen dute, hau da, identitate sexu-generikoak burmuinean behin betiko finkatzen eta

programatzen direla jaio aurreko eta jaiotzeko hormonen eraginengatik, eta transexualitatea alderantzizkatze, anomalia, arazo, asaldura eta/edo nahasmendu gisa ulertu behar dela.

Sexu-generoaz eta identitate sexu-generikoaz modu ez-hierarkizatu, ez-desberdin eta ez-patologizatzaile batean kontu emateko, erreakzio-arauan, interakzioaren ideian eta garapenaren sistema dinamikoen teoriaran oinarrituriko kontakizunetara jo dugu; kontakizun horien arabera, sexu-generoa eta identitateak testuinguruaren arabekoak dira, anizkoitzak, ingurunera irekiak, eta bilakaeran daude. Horretarako, nagusiki hiru elementu hartu ditugu ardatz gisa, determinismo biologikoen babesguneak hirurak ere: hezurak, koloreak eta trebetasun kognitiboak. Elementuok testuinguruaren arabera kontzeptualizatu dira, interakzio organiko-teknologiko-diskurtsibo-materialaren emaitza gisa, eta garapen, prozesu edo bilakaeran.

Garapenaren sistema dinamikoen teoriaren eta genero-performatibitatearen elkarlotzetik sortutako begirada batetik aztertu ditugu haurtzaroko sexu-generoa eta identitateak, fokua trans\*etan ipinita; haien garapena erakutsi nahi izan dugu, elementu sozial, kultural, biologiko eta diskurtsiboak interakzioan daudeneko prozesu baten bitartez, eta, hala, kontakizun biologizistak, deterministak eta esentzialistak eztabaidatu ditugu. Azaldu dugu nola barruratzengorpuzten dituzten genero-arauak hasieran desberdintasun ez-generizatuak dituzten gorputz askok, lehenik zaintzailearen eta haurren arteko harreman diadikoaren bitartez, eta gero testuinguru sozial zabalago batean, non hizkuntza-kategoria sexu-generizatuak barneratzen diren, generoaren ezagutza metaforikoa eta lehenespenak garatzen diren, hots, 2 urtetik 5 urtera bitarteko haur gehienek beren burua izendatzen dute, eta 7 urterekin barneratzen dute genero-konstantziaren nozioa. Trans\* haurren kasuan, neska zakildunen eta mutil bulbadunen ideia genero-konstantziaren parte bilakatzen da. Halaber, ohartarazi dugu ezjakintasun handia dagoela oro har subjektibitate-gorpuztasun sexu-generizatuaren, eta ez-normatiboaren –bereziki trans\*en– emergentziari eta garapenari buruz. Nolanahi ere, nabarmendu nahi izan dugu sexu-generoaren eta identitate sexu-generizatuaren barneratzea eta garapena etengabe bilakatzen eta aldatzen den prozesu bat dela, anizkoitza eta ingurunera irekia, eta hormonek –elementuen multiplizitate baten artean– zerikusia dutela horretan, baina, burmuineko garapen neuronala bezala, hil arte daudela interakzioan eta eboluzioan. Bestalde, aldarrikatu dugu subjektibitate-gorpuztasunaren multiplizitatea eta haien adierazpidea zabaldu egin litezkeela gizartean ikusmolde sexu-generiko ez hain zorrotza eta anizkoitzagoa eta irekiagoa bagenu; izan ere, elementu diskurtsibo, teknologiko eta materialekin estuki lotuta dauden elementu biologikoez harago, sexu-generoa auzi nagusiki politikoa da.

Azkenik, sexu-generoari buruzko diskurtso eta ikusmolde zientifiko zein bestelakoetan kontuan hartu behar liratekeen hiru elementu identifikatu ditugu: sexu-generoa eta sexualitatea

prozesu edo bilakaera gisa; desberdintasunen multiplizitatea; eta desberdintasunen koeraketa erlazionala.

## *5. Conclusion*

The principal objective of this Doctoral Dissertation consists of understanding the main processes, elements, and technologies that operate within the co-constitution and the significance of technobodies' sex-gendered materiality in the neoliberal era, with a focus on trans\* bodies, thus creating new opportunities for multiplicity. As we indicated, this main objective with an epistemic feature presents an onto-political dimension at the same time.

The first specific objective deals with delving into the processes of construction and the significance of the materiality of sex, in the context of the relation between “gender” and “sex,” aiding in strengthening the questioning of the normative framework that imposes a coherence among gender, sex, and sexuality, while exploring the creation of new possibilities for multiplicity.

The second specific objective lies in departing from a relational cyborg onto-epistemology, gaining in depth understanding of the meaning of our co-constitution as technobodies, as far as sex-gender is concerned, in addition to analyzing and describing the main technologies that intervene in this sex-gendered co-constitution.

The third specific objective digs into the processes of the co-constitution and the significance of the materiality of technobodies' sex-gender, especially emphasizing the category of trans\*, which aids in strengthening the challenging of the normative framework that imposes coherence among gender, sex, and sexuality, in addition to exploring the creation of new possibilities for multiplicity in depth.

The fourth specific objective consists of investigating the principal features and tendencies of neoliberal capitalism related with the sex-gendered paradigm, placing special emphasis on the role technology plays.

The fifth and final specific objective investigates the perspectives that characterize technobodies' sex-gender as a process, becoming, and effect of relational practices and interactions, with a special focus on trans\* technobodies.

The philosophical relevance of pondering the constitution or configuration of “things,” elements, or “material-semiotic” knots (Haraway, 2003, 2016a, 2016b) is a matter which has been reiterated historically. In this case, following the feminist philosophical tradition that emphasizes and focuses its critical and analytical gaze on the body or bodies, this Dissertation has focused on the material-semiotic knots we call technobodies. The philosophical, as well as

the social and political importance of contemplating the co-constitution of technobodies' materiality, emphasizing its sex-gendering can be attested by two recent examples, paradigmatic of the forms of production, management, and co-constitution of the latter and the environment in this day and age. COVID-19 and the catastrophe of the Zaldibar landfill show the increasing technobiopolitical control and management, production, and co-constitution of bodies, much beyond that of humans, awarding renewed relevance to the micropolitics theorized by Foucault (1978 [1976], 1995 [1975]) and later developed by Haraway (1991), which acquires a molecular aspect now more than ever, as Preciado (2008) and Sandoval (2020) indicate.

As we have pointed out, in this Dissertation we have focused our attention on the sex-gendered co-constitution of technobodies. The philosophical and socio-political transcendence of this matter is multiple. On the one hand, the debate surrounding sex-gender, intertwined with other differences and inequalities such as race or ethnicity, class, sexuality, ability, etc., is one of the main contemporary feminist philosophical debates. In this sense, analyzing the processes and elements of the co-constitution of the materiality of sex-gender is a contribution to said debate. In addition to this, we encounter the historically reiterated fact that “sex,” and “gender,” coupled with their relation, have been employed to naturalize social inequalities, sex-gendered in this case. If one thing characterizes philosophy, it is a critical view, the questioning of what is naturalized, sedimented, and assumed. In this way, analyzing and problematizing scientific and philosophical discourses that naturalize sex-gender as well as reduce and pathologize corporeal sex-gendered multiplicity appears as a philosophical duty of the utmost importance. This undertaking becomes even more relevant from my situated position as a feminist and as a body that is conceptualized and socialized as female.

The current socio-historic context in which this Dissertation is inscribed, presents elements that strengthen its interest and reach. We are experiencing an intense increase in the breaching of rights and freedoms worldwide, carried out in states such as the United States, Russia, Brazil, or the United Kingdom –coincidentally, the countries that present the highest number of confirmed cases of COVID-19– by openly misogynistic, homophobic, and transphobic presidents. Likewise, we are also in the midst of the uprising of the ultra-right in many countries in the world, whose declarations, measures, and promises deny sexist violence, repeal or modify the laws of gender violence, or fervently fight against affective-sexual education. The current socio-political makeup in very diverse places on the planet also presents a high rate of violence against women\*, and nonbinary trans\* bodies, an exponential increase in sexist murders, a deep-seated discrimination, precarization, and exclusion of trans\* bodies, as



well as a high degree of feminization, invisibilization, devaluation and precarization of care work.

The philosophical pertinence and transcendence of problematizing essentialist, determinist, naturalizing and pathologizing accounts of sex-gender, among whose consequences we can find the legitimization, on a biological bases, of inequalities, the inferiority of multiple technocorporealities-subjectivities, the sexual division of labor, and even the violence of some bodies toward others are accompanied by the equally relevant and necessary philosophical duty of generating and strengthening alternative narratives that account for the processes of co-constitution and materialization of sex-gender. As Alaimo and Hekman (2008) and Missé and Fernández (2018) indicate, constructionism left the field open to biologicistic “misogynist” discourses, paradoxically to the extent that discourses criticizing biological determinism are catalogued as anti-trans\* or anti diversity nowadays (Jordan-Young, 2010). The biological determinist narrative that establishes the innate feature of sex-gendered identities and the distinct preferences of men and women\*, is awarded acceptance and prestige permeating throughout very diverse disciplines, social institutions, cultural expressions, and even discourses of part of queer and trans\* communities (Missé, 2009; Ostertag, 2016). This Dissertation is not only a philosophical contribution to the analysis and problematization of this account, but to the creation and strengthening of other narratives around sex-gendered development that attempt to encompass biological elements, in addition to discursive and technological elements in their explanation. Alaimo and Hekman stress that there is not as much philosophical-discursive production in this respect (2008).

Inherent to this approach is another element accrediting philosophical interest to this Dissertation, namely, its contribution to a relational onto-epistemology of processes through which relational processes of technobodies’ sex-gendered co-constitution emerge and are conceptualized.

Finally, another characteristic of the current socio-political configuration is its hyper technologized aspect. The control, management, and production of bodies and subjectivities is conducted to a large extent through technologies. This Dissertation is also a contribution to the analysis and elucidation of the meanings, effects, and interests condensed in certain technological artifacts that participate in the co-constitution of the sex-gendered materiality of animal technobodies, human in particular, and, along the same lines as Ostertag, namely reclaiming that navigating the digital era of permanent surveillance, global warming, mass extinction, and the increasing pharmacological constitution of our “selves” requires that all the meanings of technology are on the table, open to scrutiny (2016).

Regarding the main objective of understanding the principal processes, elements, and technologies that operate within the co-constitution and significance of the materiality technobodies' sex-gender in the neoliberal era, focusing on trans\* bodies and creating new opportunities for multiplicity, we have aimed to show that hormones are some of the main *technological* elements that operate within the co-constitution of technobodies' sex-gendered *materiality* –which implies their subjectivity– in the neoliberal era, not only in the case of trans\* technocorporealities, but in that of technobodies in general, which allows for the questioning of sex-gender as something given, natural, fixed, and stable, making possible the deconstruction and reconstruction of this materiality in a more fluid and changing way.

In order to question sex-gender as something given, natural, fixed, and stable, and offer other accounts on the co-constitution of sex-gendered materiality, paying special attention to trans\* technobodies, we have returned to interactionist narratives that explain sex-gender as a reaction norm and to the dynamic systems theory of development. The reason for turning to these two theorizations resides in their convincing and robust dispute of the ideas of innatism, immutability, dimorphism, and the exclusively biological aspect of sex-gender. Through them we have shown that sex-gender and sex-gendered identities are dynamic processes in becoming, which are open to the environment, in which a multiplicity of technological-organic-discursive-material elements or dimensions participate.

To do so, in the fourth chapter, together with the development, incorporation, and acquisition of sex-gendered identity, we have analyzed bone formation, cognitive abilities, and the preference of color because of their stronghold in biological determinism. Facing neuroscientific accounts that establish boys' innate preference for blue and cold tones, and girls' inclination toward pink and warm tones through their conceptualization of sex-gendered cerebral dimorphism that is hormonally programmed and fixed for life, we have intended to show that: 1) The current sex-gendered color divide has a genealogy, which originates around 1940 –which would coincide with the emergence of the neoliberal Capitalocene and the Age of Hormones. 2) Socialization, toys, clothing, decoration, etc. are of great importance in the development of this preference. 3) Following Fausto-Sterling, the neurohormone and neurotransmitter dopamine, which is produced through the positive reinforcement awarded to choosing something pink, in the case of girls, linking the feeling of pleasure and intensifying this behavior, and its adverse effect on boys, can play an important role in the development of this preference. In this way, we have offered an account in which the preference of color is *only* developed as the result of a simultaneous interaction between biological elements and socio-cultural elements, the body and its surroundings, which can and do change over time. 4) Chiu et al. show that these preferences

appear to be reversed in nonbinary and/or trans\* children (2006). 5) This may be due to the strength of the sex-gender imperative of having to identify oneself, which, given the binary nature of our sex-gender regimen, if it is not with the color assigned, it is with the opposite. 6) Even with all this all this, multiplicity exceeds normativity of the binary heteronormative regimen. In this sense, we have hypothesized that if we inhabit a society with a more multiple sex-gendered regimen and/or in which there would not be a sex-gendered imperative of color, preferences would be more multiple.

Regarding bones, an alternative to determinist biological accounts that posit a sex-gendered dimorphism determined by the influence of hormones, we have proposed a conception from the notion of reaction norm and the dynamic systems theory of development in which the environment –which encompasses hormones– crucially influences the shaping and development of bones throughout the *entirety* of life. To do so, we have analyzed various studies of technobodies in various geographies, historic moments, ethnic groups, and sex-genders, that show how multiple elements, from geography, latitude, physical activity, nutrition, sunlight exposure, legal and illegal drugs, bone formation in fetal development, hormones, cellular bone metabolism, and the biomechanical effects of all of these impact bone formation and maintenance, which, in turn, are influenced by gender norms, socio-economic status or class, culture, and race or ethnicity. With all of this, we have intended to show that bone formation and development, rather than being sexually dimorphic, are the effects of the interaction of multiple elements in which steroid hormones are found, which vary depending on the environment and spatial-temporal context.

As an alternative to the account that postulates men's and women's different innate cognitive abilities and behaviors, chiefly, that men's brains are hormonally fixed and wired in the uterus for systematization, technical aspects, and greater physical aggressiveness while women\*'s are wired for empathy and care, seemingly accounting for the fewer numbers and lower results of women\* in the fields of science and technology (Summers, 2005; Baron Cohen, 2005; Swaab, 2007), we have intended to show that cognitive abilities and behavior can also be explained from the notion of norms of reaction and from the dynamic systems theory of development.

To do so, we have analyzed several studies in different geographical contexts, work and academic settings, and age ranges. Together with all this we have shown: 1) The theory of innate differences between men and women\* would be invalidated by the number of women\* in all academic degrees –which encompass examples implying systematization– or even in masters and doctorates surpassing or even matching that of men, except in mathematics, technology, and

engineering, in which the amount of women\* is on the rise, with the existence of places which have equality; the increase in the number of women\* in academic and research positions, including the fields of science and technology at a higher ratio than that of men; and the parity of results in mathematics at younger ages. 2) The broader the sex-gender regimen, the better results women\* obtain. 3) Despite this, the elements of the sex-gender regimen such as the feminization of care, gender prejudices and stereotypes, the different socialization of men and women\* –who continue to be raised for care, childrearing, docility, submission, empathy, and complacency, implying punishing competition and ambition– the design of certain artifacts and the still prevailing misogyny and sexism make the access in some fields, and the continuity and success in the professional world, in general, more difficult, especially in higher levels of the hierarchy. 4) Rather than innate biological differences, the difficulties women\* come up against in their professional careers and their access to certain positions and fields have to do with gender stereotypes, expectations, barriers, and discrimination.

Regarding sex-gendered identities, in view of the neuroscientific accounts that conceptualize identities following Aristotelian logic of the masculine as presence and the feminine as absence, as hormonally wired and set for life in the prenatal brain (Kruijver et al., 2000; Chung, et al., 2002; Baron-Cohen, 2005; Swaab, 2007), we have attempted to show through the intertwining of gender performativity and the dynamic systems theory of development, that they –inseparably linked to sexuality, class, ethnicity, ability, etc.– are dynamic processes in development that are open to their environment, in which their stability can differ in some cases or others. This focus is particularly adequate because under its relational and processual explanatory umbrella it encompasses discursive, socio-cultural, biological, environmental, and technological elements.

To do so, we have analyzed sex-gendered development from birth. What our analysis has shown is that: 1) Sex-gender conception precedes the incorporation and materialization of sex-gender in corporealities-subjectivities, although this is only accomplished through the simultaneous interaction of the biological, corporeal, material, technological, discursive, and socio-cultural. 2) From multiple nongendered corporeal differences, gender norms, expectations, and messages become incorporated into the central nervous system, stored in memory, and linked to emotional development through the dyadic interaction of principal caregiver and infant through vocalization, touch, movement, facial expression, affection, moments of arousal, and through colors, toys, clothing, etc. (Fausto-Sterling, 2012a; 2012b; 2019; Ahl et al., 2013; Sung et al., 2013; Fausto-Sterling et al., 2015). 3) From initial common preferences, sex-gendered preferences for toys appear within the first year of age. Between 2 and 5 years of age, the

majority of children state a sex-gendered identity (Zosuls et al., 2009, p. 692; Fausto-Sterling 2012b; 2019); the idea of gender constancy appears around 7 years of age (Kohlberg, 1966; Fausto-Sterling, 2012a). 6) Despite the influence of early hormones on neuronal development, the brain, neurons, their connections, and the very biology of hormones are developed *only* through the interaction between the body and the world, in a changing and continuous process throughout life in which sex-gender is incorporated, interiorized, and performed (Fausto-Sterling, 2012b; Jordan-Young, 2010).

In order to question sex-gender as something given, natural, fixed, and stable, and offer other accounts regarding the co-constitution of trans\* technobodies' sex-gendered materiality, we have strived to offer a narrative that contemplates discursive, biological, and technological elements in its interweaving. To do so, we have conducted a genealogy of "trans\*," from the appearance of the biologicistic and medical category, "transsexual," from Cauldwell in 1949 and Benjamin in the decades of 1950 and 1960, to its evolution through political categories that pointed toward identity self-determination and corporeal-subjective multiplicity such as "transgenderist" in the decades of 1970 and 1980, "transgender," by Boswell in 1991 and Feinberg in 1992, and "trans\*," in use since 2010. With this we have shown that: 1) Despite the historic existence of nonbinary corporealities-subjectivities worldwide, "trans\*" is a category that emerges in the neoliberal Capitalocene and in the Age of Hormones, which imply a particular configuration of politics, sex-gender regimen, and technological development. 2) In the face of essentialist ideas of trans\* identities as something innate, according to Galofre and Missé, the means of understanding "trans\*" depends on the sex-gender conception of a society. 3) "Trans\*" makes reference to a corporeal-subjective multiplicity that does not identify with the sex-gender assigned at birth and/or identifies with this category, regardless of undergoing surgery and/or hormone treatment or not, in which multiplicity, expressed with the use of the asterisk, exceeds the category.

